

2024



BILDUMA

#KUIRARTXIBOBIZIA | OREGETA-ERRETERIAKO LGTBI+ MEMORIA ATONTZEN: "BETIRAKO DANTZAN GURE LUMATZAN"





ERRETERIA
UDALA

#KUIRARTXIBOBIZIA

ORERETA-ERRETERIAKO LGTBI+ MEMORIA ATONTZEN: "BETIRAKO DANTZAN GURE LUMATZAN"

Uxue Diez Guiral
Maite Azabal Gallego
Ane Fernández Trigo
Aitor Narbarte Álvarez

XVI. Koldo Mitxelena Ikerketa Beka (2022)



ERRETERIA
UDALA

BILDUMA

Agiritegi eta Argitalpen Zerbitzuaren aldizkaria. Errenteriako Udala.

Argitaratzen du

Errenteriako Udala. Agiritegi eta Argitalpen Zerbitzua.

Idazlanak, harpidetzak eta administrazioa

Errenteriako Udal Artxiboa. Errenteriako Udala.

Herriko plaza, z/g. 20100 Errenteria

Tfno: 943 44 96 10

E-mail: artxiboa@errenteria.eus

I.S.S.N: 0214-624X

BILDUMA (Errenteria).

Maketazioa:

Signos Publicidad & Comunicación, s.l.u.


Inpresioa:

Ziur Navarra s.a.

Azala / Atzeko azala:

#Kuirartxibobizia.

Aldizkari honek Creative Commons lizentzia du (kontrakoa aipatzen ez den guztian):



Creative Commons Attribution-NonCommercial 4.0 International

Bildumaren ale hau modu monografikoan eskainia dago Udalak bi urtean behin ematen duen Koldo Mitxelena Ikerketa Bekaren XVI. deialdiko ikerlanaren argitalpenari.

“#Kuirartxibobizia. Orereta-Errenteriako LGTBI+ memoria atontzen: “Betirako dantzan gure lumatzen” izenburupean argitaratzen den lana 2022ko abenduaren bukaeran hasi eta 2024ko irailean amaitu zuten egileek.

Epaimahai kalifikatzailea hurrengo pertsonak osatu dute: Iñaki Queralt Coira eta Itsaso Cruz Etxeberria Artxibo eta Argitalpen zinegotziak (batzordeburuak), Leonor García Vázquez Artxibo teknikaria (idazkaria) eta Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) izendatutako hiru adituak: Miren Guillo Arakistain (EHU/UPV), Joseba Gabilondo Marques (Hiruki Larroxa Koop. Elk. Txikiaren izenean) eta Gidor Bilbao Telletxea (UEU).

Lanean azaltzen diren aipuak elkarrizketatuen hitz literalak dira eta euren iritzi eta pentsamenduak islatzen dituzte. Horien gaineko interpretazioen erantzunkizuna elkarrizketatuena zein irakurleena da.

Aurkibidea

LABURPENA	9
ESKER ONAK	10
SARRERA	12
1. Ikerlarien eta ikertaldearen ibilbidea	12
2. Marko teorikoa	12
2.1. Memoria eta historiaren aldaerak	13
2.2. Memoria kolektiboa eta LGTBI+ borroka	14
2.3. Erreferenteen garrantzia	15
2.4. Euskal Herriko LGTBI+ memoria kolektiboa	17
3. Terminologia eta beste ohar batzuk	20
4. Lanaren egituraketa	21
I. KAPITULUA #KUIRARTXIBOBIZIA-REN BIDEA MARRAZTEN	23
1. Izaera	23
1.1. Zer nahi dugu? Proiektuaren helburuak	23
1.2. Zer egin dugu? Proiektuaren metodologia	24
2. Nola egin dugu? Instrumentu, jarduera eta ekintzen deskribapena	26
2.1. Galdetegia	26
2.2. Irratsaioak	27
2.3. Mahai-inguruak	30
2.4. Webgunea	31
II. KAPITULUA BILAKAERA	33
1. Suari ohea prestatzen: 60ko eta 70eko hamarkadak	33
1.1. Orereta-Errenteriako sua elikatu zuten borrokek: mugimendu feminista	33
1.2. Sexu-askapenerako borroka, feminismoaren lorpenak eta gurutzaketak	35
1.3. Sua piztu zuten txinpartak	40
2. Francisen borrokari segida emanez:	
80ko eta 90eko hamarkadak	49
2.1. Testuinguru zabalean kokatzen	49
2.2. Orereta-Errenteria eta Oarsoaldea marrazten: 80ko eta 90eko hamarkadak	74

3.	Mende berriaren bueltan: 2000. urtetik	
	aurrera zer?	82
3.1.	Testuinguru zabalean kokatzen	82
3.2.	Orereta-Errenteria eta Oarsoaldea marrazten: testuinguru zabala eta herriaren arteko bat-egitea	85
3.3.	Enbor beretik sortu garenok: 2014tik aurrera zer?	89
4.	Denbora-lerroa	95
5.	Ibilbidea 106	
5.1.	Apolo kluba. "LGTBI+ memoria kolektiboan kokatzen": Julen Zabala.	106
5.2.	Zumardia. "Norbait gutaz oroituko da: bollerak, transfeminismoa eta bestelako tirabirak": Naroa Zabala eta Haizea Sanchez.	107
5.3.	Niessen kulturgunea. "Bada itxaropena? Gaur egungo mugimenduak": Paula Lopez.	107
5.4.	Gabierrotako zubia. "Bada itxaropena? Gaur egungo trans mugimenduak": Mash Elizalde eta Kay Subijana.	108
5.5.	Gabierrotako etxe okupatua. "Indar soziala duen herria: mugimendu okupa eta mugimendu feminista": Txelo Berra.	109
5.6.	Zamalbide auzoa. "Memoria ariketa: feminismoaren eztanda Oarsoaldean": Asun Urbietta.	109
5.7.	Kaputxinoak auzoa. "Putipansexuala nintzen, baina oraindik ez nekien": Itziar Ziga.	110
5.8.	Pontika auzoa. "Guduak irabazten: lan pertsonaletik eraldaketa sozialera": Oliber Nestar.	111
5.9.	Alaberga auzoa. "Bazterretatik erdigunera: diva bat izaten jarraitzeko estrategiak": Aiora Simó.	111
5.10.	Merkatuzar. "Herria kuirreratzen: euskara eta LGTBI+ komunitateen arteko analisia": Imanol Miner eta Jokin Pedreño.	112
5.11.	Irratsaioen kokapena: goitiko bista	113
II.	KAPITULUA JORRATUTAKO HAINBAT GAI	114
1.	Euskara	116
2.	Ikusgarritasuna	121
2.1.	XXI. mendearen aurretik	122
2.2.	XXI. mendearen hasieran	126
2.3.	Auzoen boterea	128
2.4.	Belaunaldien arteko zubiak: Mikelaren omenez	129
2.5.	Beste erreferente batzuk	132
2.6.	Erreferentzialtasunaren eta ikusgarritasunaren korapiloak	133

3.	Topaguneak: nondik mugitzen gara?	134
3.1.	Militantzia historikoa landu zen gunea: Txintzarri Elkarte	134
3.2.	Aisialdia genero- eta sexu-disidente izanik	137
4.	Sexilioa	145
5.	Indarkeria	147
5.1.	Indarkeria motak	149
5.2.	Babes faktoreak	152
6.	Babesa	153
6.1.	Herria	153
6.2.	Lagunartea	158
6.3.	Senitartekoak	160
7.	Hezkuntza	161
7.1.	Hezkuntza formala	161
7.2.	Hezkuntza ez-formala	162
7.3.	Hezkuntza informala	163
IV. KAPITULUA HAIZE-ORRATZA JARRAITZEN: BA AL DA ITXAROPENIK?		164
1.	Norabidea aurkitzen	164
1.1.	Orokortasunetik hasita	164
1.2.	Herritik eta etorkizunera begira	170
2.	Proposamen zehatzak	174
2.1.	Herrian zeharkakotasuna	174
2.2.	Ikonografia	175
2.3.	Aisialdia	175
2.4.	Atsedean hartzeko eta zauriak ixteko espazioak eraikitzea	176
2.5.	Sareak sortzea	177
2.6.	Lan indibiduala	177
2.7.	Kaleetara irtetea	178
AMAIERAKO HITZAK		179
BIBLIOGRAFIA		180
ERANSKINAK		187
1.	Eranskina. Galdetegiaren kartela	187
2.	Eranskina. Galdetegia. Zer diote herritarrek?	188
2.1.	Galdetegian azaleratutako hainbat afera	188
3.	Eranskina. Mahai-inguruen kartela	227
4.	Eranskina. 1979-06-11ko Udalbatzarraren akta	229
5.	Eranskina. Francisen jaiotza-agiria	235

LABURPENA

2022ko Koldo Mitxelena XVI. ikerketa bekaren deialdi honetan, Orereta-Erreterria zein Oarsoaldeko eskualdearen LGTBI+ memoria kolektiboa aztertu nahi da #Kuirartxibobizia proiektuaren bidez. Ikerketaren xede nagusi da, beraz, etengabeko eraldaketan dagoen Orereta-Erreterria eta Oarsoaldeko LGTBI+ komunitatearen memoria kolektibo bizia bildu eta horretan sakontzea. Kolektiboa osatzen duten pertsonak erdiguneari jarri dira euren istorioak gizarte osoan zehar zabaltzeko helburuarekin. Zentzu honetan, herriko eta herriarekin harremana duten pertsona ezberdinen esperientziak batu dira. Aldi berean, proiektuan zehar belaunaldien arteko ikuspegia kontuan hartu da. Honela, parte-hartzaileen istorioak babestu, gorde eta zaindu nahi izan dira. Azkenik, euskarak gure testuinguruan duen inplikazioa aintzat hartu da eta hizkuntza gutxitua lanaren ardatz izan da.

Gaztelera

En esta convocatoria de la XVI Beca de Investigación Koldo Mitxelena 2022 se pretende analizar la memoria colectiva LGTBI+ tanto de Orereta-Erreterria como de Oarsoaldea a través del proyecto #Kuirartxibobizia. El objetivo principal de la investigación es, por tanto, recoger y profundizar en la memoria colectiva, viva y en continua transformación, de la comunidad LGTBI+ de Orereta-Erreterria y Oarsoaldea. Las personas que conforman este colectivo han ocupado el centro de este proyecto con la intención de socializar y colectivizar sus historias y para poder dar comienzo a un proceso de reconocimiento. En este sentido, se han unificado historias y experiencias de las diferentes personas que conforman el pueblo y que tienen y han tenido relación con el mismo. De igual modo, a lo largo del proyecto se ha adoptado un enfoque intergeneracional, y se ha querido proteger, conservar y cuidar las historias de las personas participantes. Asimismo, se ha tenido en cuenta la implicación del euskera en nuestro entorno, siendo la lengua minoritaria uno de los ejes fundamentales del trabajo.

Frantsesa

Cet appel à la XVI^e bourse de recherche Koldo Mitxelena 2022 vise à analyser la mémoire collective LGTBI+ d'Orereta-Erreterria et d'Oarsoaldea à travers le projet #Kuirartxibobizia. L'objectif principal de la recherche est donc de collecter et d'approfondir la mémoire collective, vivante et en transformation continue, de la communauté LGTBI+ d'Orereta-Erreterria et Oarsoaldea. Les personnes qui composent ce groupe ont occupé le centre de ce projet avec l'intention de socialiser et de collectiviser leurs histoires et de pouvoir entamer un processus de reconnaissance. En ce sens, les histoires et les

expériences des différentes personnes qui composent la ville et qui ont et ont eu une relation avec la ville ont été unifiées. En même temps, une approche intergénérationnelle a été adoptée tout au long du projet, et l'objectif a été de protéger, préserver et prendre soin des histoires des participants. De même, l'implication du basque dans notre environnement a été prise en compte, la langue minoritaire étant l'un des axes fondamentaux du travail.

Ingelesa

The aim of this project is to analyze the collective memory of the LGTBI+ community in Orereta-Erreterria and Oarsoaldea through the #Kuirartxibobizia project and within the XVI Koldo Mitxelena 2022 Research Grant. Our main objective is to collect and expand on the knowledge of the living and ever-evolving collective memory of the LGTBI+ community of Orereta-Erreterria and Oarsoaldea. Aiming at the socialising and collectivization of citizen's stories, the individuals comprising this community have been at the heart of the project. In such a way, the intention has been to initiate a process of recognition. To achieve these objectives, an intergenerational approach has been adopted, which has accounted for the experiences of the different individuals within the community. The relations of these individuals with Orereta-Erreterria and Oarsoaldea have been considered, as well as the impact that the minority language (Basque) has in this context.

ESKER ONAK

Eskerrik beroenak proiektu honetan bidelagun izan den pertsona orori.

Orereta-Erreterriako Berdintasun Saileko LGTBI+ politiken arloari, proiektuagatik erakutsitako ilusioagatik. Aizpea Otaegi alkate andereari, gure eskakizunei erantzun eta izandako harrera goxoagatik. Udal Artxiboari, Udako Euskal Unibertsitateari eta Hiruki Larroxari, gure proiektuan eta taldean jarritako konfiantzagatik. Lekuona Fabrikari, Kantinari eta bertako langileei, espazioak prestutasunez eskaintzeagatik eta kafeak beti mimos prestatzeagatik. Lau Haizetara Euskaltzaleon Topaguneari, mahai-inguruak egiteko lekua uzteagatik.

Esker anitz memoria atontzen euren bizipenak partekatu dituzuen guztiori. Guretzat erreferente diren Julen, Imanol, Naroa, Haizea, Jokin, Paula, Aiora, Asun, Txelo, Mash,

Kay, Itziar, Oliber eta mahai-inguruetakoko parte-hartzaileei, eskerrik asko. Borroka honetan zuen ahotsak ezinbesteko izan dira eta izango dira. Hauen artean, Julen Zabalarri aipamen berezia zor diogu: borrokatzeko duzun grina kutsatu diguzu, zure maitasuna eman diguzu beti eta zuk egindako lana ardatza izan da. Nola ez, Xabier Susperregiri, beti gozoki partekatu dizkiguzu zure ezagutza eta zure hitzak ezinbesteko izan zaizkigu proiektuan zehar.

Bidean galdutako Mikelari, elkarrizketa egin aurretik joan zinen eta zure hutsunea nabaritu dugu. Gure lanean presentzia berezia duzu, denon ahotan egon zara eta gure borrokek moldatu eta bultzatu dituzu. Imanol Minerrek idatzi bezala: betirako dantzan gure lumatzen.

Zintzilik Irrati Libreari eta honi itxura ematen dioten guztiei eskerrak, zuen pazientzia eta irakasteko gogoagatik. Gure irratsaioei espazioa emateaz gain, zuen artean hartu gaituzue eta beti laguntzeko prest egon zarete. Beraungo Erretiratuen Elkarteari ere eskerrak, zahartzarora irisgarri egiteagatik eta zuen maitasun handiagatik. Bereziki elkarteko Kati eta emakumeei, poztasun eta amodioa kutsatzeagatik.

Proiektu honetatik atera diren adartxo guzti horiek posible egin dituztenei ere gure eskerrik beroenak. Francisaldiaren antolakuntzari, banderaren igoeran parte-hartzeko gonbidapena egiteagatik eta emandako ohore handiagatik. Prozesu honetan zehar sortu den Oarsoaldeko Kuiridinadorari, zuen sua aintzindari izango da eta horren testigu eta partaide izatea hunkigarria da. Amaia Narbarteri, zubigintza prozesua posible egiteagatik eta bide honetan gure ondoan egoteagatik. Herrian sortu diren sare, harreman eta zubiak ere aipatu nahi ditugu, nola ez.

Herritik eta herriarentzat den proiektuan protagonista izan den herri honi, Orereta-Erreterria eta bertako biztanleei. Mila esker proiektuari egindako harrera positiboagatik. Borrokatzen duen herria ez da hilko.

Familiari, senitartekoei eta lagunei. Aukeratuak edo aukeratugabeak, gure alboan izan zaituztegu sostengua ematen eta berotasuna eskaintzen. Prozesu luze eta, alditan, korapilatsu honetan izan duzuen pazientzia eta maitasuna biziki eskertzen ditugu. Zuek ere honen parte zarete.

Mila esker,

Uxue, Maite, Ane eta Aitor

SARRERA

1. Ikerlarien eta ikertaldearen ibilbidea

Askotan bizitzaren bidezidorrek eramaten gaituzte guk espero ez genituen lekuetara. Dagoeneko batzuek urte askotako erlazioa dugu, Orereta-Erreenteriako ikastetxe batean batera ibili izanagatik, beste batzuek, aldiz, militantzian egin genuen topo duela urte batzuk. Modu batera edo bestera, urte hauetan zehar harremanetan egon gara, Orereta-Erreenteriak laurok elkartu gaituen arte.

Alderdi profesionalari dagokionean, LGTBI+ gaietan adituak diren bi psikologo, esku-hartze sozialean espezializatutako gizarte-hezitzaile bat eta generoan eta hezkuntzan aditua den doktore bat gara. Etiketa hauen atzean, ordea, bizi-esperientzia eta identitate anitz daude. Egiten duguna egitera eraman gaituen arrazoia berdina da: gure komunitatearentzat, hain zuzen, LGTBI+ eta emakume komunitatearentzat, lan egitea, etorkizuna aktiboki eraikiz eta eragile guztien parte-hartzearen aldeko borroka sustatuz.

Taldeko hiru kidek Orereta-Erreenterian hazi eta bizi izan gara, gure bizitzek paraje ezberdinetara eraman gaituzte, baina beti bueltatu gara herrira modu batean ala bestean. Herriak izan dituen aldaketekin batera aldatu garela esan daiteke. Laugarren kideak Oreretarekin erlazio luzea du eta aurrean herria bizitoki egin du. Horrexegatik, herria sentitzen eta bizitzen dugulako, eta herria garelako, Orereta-Erreenteria LGTBI+ pertsonentzat espazio seguruago bilakatzea eta gure memoria berreskuratzeari garrantzia berezia ematen diogu. Izan ere, borroka bezala, memoria modu kolektiboan eraikitzen dela uste dugu.

Aspalditik LGTBI+ errealitateak ikertzeko taldean lan egitea buruan genuen. Jadanik bi kidek LGTBI+ ikerketak burutzeko taldea sortu genuen horren harira. Beraz, beka honen baitan gure artean saretu eta afera hau ilusio eta irrika handiz hasi genuen.

2. Marko teorikoa

Zer da memoria?

Memoria gertakari baten oroitzapena da,
bidegabekeriaren aurrean erantzuna,
herri oso baten borroka,

eskubideen aldeko lan gogorra.

Memoria bizitakoa eta bizitzen ari garena partekatzea da, batzuetan hori ere desitxuratzea, eta inoiz ez ahaztearen ahalegina egitea.

Datozen belaunaldiei errealitate bat erakustea, bideak urratzea eta etorkizun posible eta zoriontsu bat ortzi-mugan marraztea.

2.1. Memoria eta historiaren aldaerak

Memoriak eta Historiak helburu komuna dute: iragana berreraikitzea. Haatik, Historiak –diziplina den heinean– memoriak egiten dituen galderei erantzuten die arau zehatz batzuk jarraituz, eta, beraz, memoriaren beharrei aurre egiteko instrumentu bezala jaiotzen da (Erice, 2008; Juaristi, 2016). Historiak kontakizun kolektiboak sistematizatzeko joera du, eta botereaz baliatzen da denboraren gaineko kontakizun horiek kontrolatu eta erabiltzeko. Horrela, Historiak sasi-egonkortasun eta linealtasun faltsua sortzen ditu, bai eta eboluzio irudikapen faltsua ere (Foucault, 2009). Horregatik, Historiak "memoria unibertsalaren" errepresentazio eskematiko eta bukatugabea eskaintzen du (Erice, 2008). Aldi berean, Historiak bat egiten du botere zisheterozentrista, androzentrista eta mendebaldarrarekin, boterearentzat baliogabeak diren kontakizunak baztertuko ditu, eta memoriaren puzzlea bere nahieran eraikiko du.

Memoria, aitzitik, bizitako esperientzien isla da, eta, hortaz, subjektibo eta absolutua. Batetik, subjektu edo talde baten bizipen zehatzen emaitza delako; bestetik, alderaezina delako. Beraz, memoria ezin izango da orokortu eta egiazkoa izango da beti (Erice, 2008). Memoriari ez zaio interesatzen iraganeko kontakizunen gaineko erreprodukzio zehatza egitea. Bizitako desira eta subjektibitateekin nahasten denez, memoriak kontakizun konplexuak sortu eta iragana esanahi berriz betetzen du. Memoria identitatearen eta kontzientziaren sorreran ezinbesteko pieza da (Bakhurst, 2000). Aldi berean, memoria hainbat ikuspuntutatik sortzen da: ez da bat eta bakarra. Honakoa akademia eta artxiboetatik ez ezik, herritarrek eta beren istorioek ere osatzen dutela ulertzen da. Horregatik, ikerlan honen ardatz eta testuingurua memoria izango da.

Halbwachs (1925/2004) ikerlari aitzindariak bi memoria mota bereizi zituen: indibiduala eta kolektiboa. Memoria indibiduala pertsona ororen identitatea osatzen duten bizi-esperientziak lirarteke. Kolektiboa, aldiz, talde baten identitatea osatzen duten bizi-esperientzia interpersonalei egiten die erreferentzia. Ikerketa hau azkeneko horren barruan kokatzen da, eta orainaldian iraganari buruz egiten den narrazioa izango da. Dena den, memoria kolektiboa eraikitzerakoan, talde batzuen bizi-esperientzia partekatuak jasotzeaz gain, bizi-esperientzia indibidualak ere jasotzen dira, memoria kolektiboak biak behar baititu. Proiektu honetan memoria kolektiboaren inguruan hitz egingo da, bizirik dauden komunitateek sortzen dutelako. Gure aburuz, memoria kolektiboak

gaur eta orain dihardu, iraganeko zein orainaldiko istorioak landuz eta kontatuz, aro ezberdinetako baliabideak erabiliz, baina oraineko pertsonen baliatzen dela ahaztu gabe.

2.2. Memoria kolektiboa eta LGTBI+ borroka

Memoria kolektiboaren sorkuntzari erreparatuz gero, XX. mendeaz geroztik talde azpiratuek euren memoria kolektiboa berreskuratzeko urratsak eman dituzte, momentura arte memoria kolektiboaren narrazioetan gailentzen ziren agente eta botere politikoaren agendak iraultzeko asmotan.

Zehazki, Ferentinos (2019) eta Kelland (2018) autoreek argudiatzen duten moduan, azken 50 urteetan LGTBI+ taldeen memoria kolektiboak historia publikoaren baitan kokatu dira eta ikuspegi orokortuago bat izatea lortu dute. Valente eta Hornby (2022) autoreek LGTBI+ memoria kolektiboaren garrantziaz gogoeta egitera lagunduko digun aipua uzten digute: "Remembering is essential to celebrating"¹ (3. orria).

LGTBI+ mugimenduaren memoria kolektiboa hainbat alorretan ikertu izan da, eta ez da Estatu Batuetako akademia mundura soilik baztertzen. LGTBI+ kolektiboen istorioen gaineko narrazioak aski hazi dira azken hamarkadetan, eta dagoeneko horien corpusa zabala da. Hala ere, geroz eta nabarmenagoa da lekuko eta testuinguru jakinetan kokatutako memoria kolektiboen beharra (Ferentinos, 2019). Zabalkunde honek bi aurpegi izan ditu; izan ere, memoria kolektibo zehatz batzuk bakarrik zabaltzeko joera egon da, *Harrotasunak* bezalako ekitaldiek eta kapitalismo arroxak bultzaturik. Ondorioz, kapitalismo gordinenari lekua egin diote ekitaldi hauek eta homonormalizazioa gauzatu dute, besteak beste. Hori dela eta, tokiko memoria kolektiboak sortzeak LGTBI+ taldeek beharrezko duten identitate erreklamazioa egiten laguntzen du, *Outing the Past* (OTP) elkarteak egin duen gisan, adibidez. Alde batetik, horrelako ekintzek Harrotasuna bezalako esanahi berria ematen diete; izan ere, horren benetako identitatea agerian uzten dute. Bestetik, LGTBI+ memoria kolektiboen eraikuntzari esker, horizontalagoak eta gardenagoak diren sare berriak sortu daitezke (Valente eta Hornby, 2022). Azken horrek kolektiboak gizarteratzen lagunduko luke.

Orereta-Errenteriaren kasu zehatzean, tokiko LGTBI+ memoria kolektiboaren sorrerak bestelako hirietan ematen diren pinkwashing eta kapitalismoan errotutako ekitaldiei (besteak beste, Bilboko Harro) aurre egiteko tresna baliotsu izan daitekeela ulertzen du lan honek. Aldi berean, Orereta-Errenteriako herri identitatea hobeto ulertzeko eta honen gakoak zein diren antzemateko aukera paregabea ematen du tokiko LGTBI+ memoria kolektiboaren eraikuntzak.

1 Euskaratuta: Ospatzeko, oroitzea funtsezkoa da.

Puntu honetan, kontuan hartu beharra dago gizabanakoaren identitatearen eraikuntza prozesu konplexu, dinamikoa eta aldakorra dela, biziaren guztian zehar ematen dena. Bereziki, LGTBI+ kolektiboak biltzen dituen askotariko identitate eta orientazioak ulertu eta gizartearen txertatzeko, ezinbestekoa da ulertzea horiek testuinguru zehatzetan kokatzen direla. Horregatik, LGTBI+ kolektiboen inklusioa lortzeko, beharrezkoa da herri edo hiri baten identitatearen eta bertako mugimenduen baitan daudela aitortzea. Zentzu horretan, ikerlan honek aintzat hartuko du Orereta-Erreterria eta Oarsoaldeko testuinguruek eta testuinguru sozialek guztiz baldintzatzen dituztela LGTBI+ identitatearen eraikuntzak (Annes eta Redlin, 2012).

Tokiko LGTBI+ memoriaren joseraren behararen harira, autore batzuek argudiatzen dute memoria horiek sortzeak azkenaldian mugimenduen baitan ematen ari den despolitizazio edo komodifikazioari aurre egiten laguntzen duela (Valente eta Hornby, 2022). Memoria horien sorrerak balio izango dute despolitizazio horietan funtsezko izan diren homonormalizazio eta homonazionalismoari aurre egiteko, bai eta LGTBI+ kolektiboaren kohesio faltua deseraikitze eta politika egokiak sortzeko ere (Ferentinos, 2019). Zehazki, ikerketa lan honek homosexualitateaz haratago dauden errealitateak kontuan hartu nahi ditu, hau da, bisexualitatea, trans errealitateak, intersexualitatea, asexualitatea eta abar.

Aurreko guztiaz gain, memoria kolektiboa eraikitze eta ekintzak burutzeko hirigune eta herrietako erdiguneetatik haratago lan egiten du ikerketa honek, "urruntze-antolatua" (*dislocation by design*) delakoa gauzatzeko. Modu horretan, *Harrotasuna* edota ekintza eksklusibok eragiten dutenarengandik "urrunduko" da. Aldi berean, memoria kolektiboak memoria bera sortzen duten pertsona guztiak barneratzekotan, informazioa hainbat modutan helaraztea du helburu. Hain zuzen, memoria kolektiboa helarazteko tresnek informazioa edozein puntutik (etxetik bertatik, adibidez) eskuratzea dute helburu, interseksionalitatea ahalik eta gehien bermatuz (Valente eta Hornby, 2022). Gainera, memoria kolektiboak belaunaldien arteko harremanak sendotu ditzake, baita kuir bizipen eta istorioen irismena handiagotu ere. Izan ere, memoria kolektiboa zabaltea ez ezik, talde zaugarrienak ere kontuan hartzea da helburu. Honako adibide hau bikaina da hori ulertzeko: Norfolk-eko *Ancient House Teenage History Club*-en nerabeek bertako Viktoriar Aroko bizipenak jaso eta antzerki moduan interpretatu zituzten; ondorioz, ezagutza berriak sortu eta LGTBI+ memoria kolektiboa berreraiki zuten. Ekintza horrek beste batzuk ekarri zituen, eta egun proiektu berriak sortzen hasi dira LGTBI+ memoria kolektiboaren inguruan (Valente eta Hornby, 2022).

2.3. Erreferenteen garrantzia

Hiri-segurtasunari buruzko pertzepzioa asko aztertu da ingurumen-psikologia arloan (Vozmediano eta San Juan, 2010). Pertzepzio subjektibo hori esperientzia emozional

gisa definitu izan da, eta, beldur horren konfigurazioan funtsezko eginkizuna duten hainbat faktoreen identifikatu izan diren. Pertsona orok modu konplexuan eraikitzen du bere nortasuna eta ingurunearekiko duen atxikimendua, eta hainbat faktorek parte hartzen dute prozesu horretan. Zentzu honetan, elkarren artean eragiten duten aldagai psikosozial asko aurki daitezke pertsona batek leku batekiko eta hiri- edo herri-identitatearekiko partaidetza- eta atxikimendu-sentimendua definitzeko prozesuan. Ildo horretatik jarraituz, ikerketek diote gizabanakoaren identitateak eta atzean dauden egitura soziopolitikoak eragin handia dutela espazioa hautemateko eta erabiltzeko orduan. Hortaz, biztanleriaren sexu-orientazio eta genero-identitateak guztiz baldintzatzen dute espazio horrekin sortzen den harremana: batzuek espazio hori erabiltzen duten bitartean, besteek hori saihestu eta euren identitatea libreki adierazteko zailtasunak aurkituko dituzte (Manzo, 2005).

Espazio publikoa demokratizatzeko, segurtasun-pertzepzioa eta herri edo hiriaren parte izatearen sentsazioa beharrezkoak dira. Horregatik, ez da nahikoa testuingurua objektiboki segurua eta inklusiboa izatea. Biztanleek ere hori sumatu eta segurtasunez bizi beharko dute. Beste era batera esanda, biztanleen eta udalerrriaren artean komunikazio-kanal ireki eta funtzionala bermatzea funtsezkoa da biztanleriak euren bizilekua segurutzat jotzeko. Zentzu horretan, segurtasun faltaren pertzepzioa LGTBI+ komunitateen osasun arazoa da, eta ikerketa honek kontuan hartuko du ekintzak burutzera-koan eta biztanleria honen bizi-kalitatea bermatzerakoan.

LGTBI+ kolektiboen inklusioan aurrerapausoak eman diren arren, Oarsoaldean kuir-gu-neak izatea oraindik ere premiazkoa da (Azabal eta Diez-Guiral, 2022). Azken urteotan, LGTBI+ pertsonen bizi-esperientziak aldatzen ari dira herri zein hirietan. Biztanleriaren joan-etorriak eta ideien jarioak guztiz baldintzatu dituzte horiek, eta autore batzuk "geografia dinamiko" (*geografía dinámica*) terminoa erabiltzen hasi dira fenomeno hori izendatzeko. Bada, mugimendu horiek LGTBI+ askapena bultzatu dezakete, LGTBI+ erreferente positiboak zabaltzeko bide berriak sortzen dituztelako (Gorman-Murray eta Nash, 2014).

Aurretik aipatutako adibideen artean, kuir mapak edota "desioaren kartografiak" (*cartografías del deseo*) bereziki baliotsuak direla dirudi (Avilez, 2011). Izan ere, leku zehatz bat espazio kuir gisa definitu daiteke desio, ilusio eta esperientzia bitartez diskurtso zehatz bat leku jakin batean finkatzen denean. Honegatik, ikerketa honentzat bereziki baliagarria da Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeko LGTBI+ historian esanguratsuak diren lekuak modu bisualean biltzea. Honela, zisheterozentrisismoarekin hausteaz gain, esanahi sozial eta arkitektoniko berri bat emango zaio espazio publikoari, gorputz, identitate eta istorio subertsiboek protagonismoa emango zaielarik (Avilez, 2011).

Honen ondorio izango da Orereta-Erreterria eta Oarsoaldeko kuir historia sendotzea eta LGTBI+ memoria kolektiboa sortzea, behintzat aldi jakin batean eta kartografiatu-tako guneeetan. Aldi berean, herriko kuir iruditeria sustatuko da, eta zisheteroaruaren hausturak eta zirrikituak agerian jarriko dira. Modu honetan, LGTBI+ biztanleriarentzat kaltegarri eta mingarri izan daitekeen iruditeria gainditzeko pausoak emango dira, eta erreparazio prozesuari bidea emango zaio. Honela, Orereta-Erreterria eta Oarsoaldea zer den, bertan zer gertatu den, zer gertatzen ari den eta zer gerta daitekeen horretan hausnartuko da.

2.4. Euskal Herriko LGTBI+ memoria kolektiboa

2.4.1. Marko legala

Historikoki LGTBI+ komunitateek ez dute izan euren eskubideak bermatzen dituen babes legalik. Dena den, azken hamarkadetan Nazio Batuen Erakundeak (NBE), Europar Batasunak, estatuak eta, zehazki, Euskal Autonomi Erkidegoak (EAE) ahaleginak egin dituzte LGTBI+ pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko. Zentzu honetan, NBEn Yogyakarta printzipioak, 17/19 Ebazpena eta 2015ean Giza Eskubideen Goi Komisarioak LGTBI auziari buruzko txostena aurki daitezke; Europar Batasunean, Lunacek txostena eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 21. artikulua (2016/C 202/02), besteak beste; estatuan 13/2005, 14/2006 eta 3/2007 Legeak; EAEn 1/2022, 14/2012 Legeak eta 234/2015 Dekretua (ikus Erreterriako Udala, 2022). Era berean, EAEk LGTBI+ Lege Integralaren proposamena martxan jarri du. Hainbat arloz osatuta, "Kultura, memoria historikoa, aisialdia, denbora librea, kirola, turismoa, gizarte-komunikabideak, publizitatea, teknologia berriak, sare sozialak eta Internet" atalean memoria historikoaren garrantziaz jarduten du: erakunde publikoek kolektibo honekiko erreparazio prozesua abiarazi, espazio publikoan LGTBI+ memoria historikoaren ikusgarritasuna bermatu eta LGTBI+ memoriaren inguruko ikerketak sustatu behar dituzte (ikus Euskal LGTBI+ Behatokia, 2021).

2.4.2. Zer diote datuek?

Euskal Herrian ikerlan eta diagnostiko gutxi egin dira LGTBI+ errealitateen inguruan. Estatu mailan ere ezaugarri horiek dituzten ikerketa gutxi aurki daitezke –eta gehienek eraso lgtbifoboak ardatz dute–. Aitzindaria Bartzelonako diagnostikoa da, 2009. urtean egindakoa. Ondoren, Gasteizko Desirak Plazara. Gasteizko LGTBI+ herritarren errealitateei buruzko diagnostikoa dator, 2018ko martxoan argitaratuta. Azkenik, Orereta-Erreterriako diagnostikoa aurki daiteke, ErreferenteEkin (Erreterriako Udala, 2019) deritzona. Azken ikerketa honek hizkuntza ere kontuan hartzen du aztergai gisa, besteek ez bezala. Ikerketa honetan ere hizkuntzari garrantzia eman nahi zaio, eta, beraz, honen zutabe garrantzitsu bat izan da.

Dena den, azken urteotan, Euskal Herriko LGTBI+ kolektiboaren argazki orokorra eman dezaketen beste diagnostiko eta ikerketa batzuk ere egin dira (Gehitu, 2021), aurretik aipatutako diagnostiko horiekin batera. Guzti hauek ondorio antzekoetara iritsi dira: LGTBI+ pertsonak espazio publikoan ez dute lekurik eta Euskal Herriko memoria kolektiboan ez dago LGTBI+ erreferente positibo askorik, eta egotekotan testuinguru erdaldunetakoak dira gehienetan (Errenteriako Udala, 2019; Iruñeko Udala, 2018). Gainera, LGTBI+ pertsonak euren identitatea ezkututzen jarraitzen dute euren bizitzak arriskuan ez jartzeko (Gehitu eta Gipuzkuako Foru Aldundia, 2019). Aldi berean, babes-sare indartsu eta antolatuen beharra hauteman da (Azabal eta Diez-Guiral, 2022), gorakadan dagoen diskriminazioari eta kaltegarria den informazio-ezari aurre egiteko (Gasteizko Udala, 2018; Ikuspegi, 2022).

Aurreko atalean aipatu denez, Orereta-Errenteriako diagnostikoa berritzailea da LGTBI+ errealitateak aztertzerakoan, eta horrek ere azaldutako aurreko ondorio guztiekin bat egiten du. Laburki esanda, LGTBI+ oreretarrek uste dute euren herria leku atsegina dela, nahiz eta % 75 baino apur bat gehiagok adierazi espazio publikoan arazoren bat bizi izan duen (Errenteriako Udala, 2019).

Halaber, ikerketa honek aintzat hartu du Orereta-Errenterian askatasun-sentipen falta dagoela inguruko auzoetan bereziki: "partaideen % 93k herriaren erdigunean askatasun handiagoz ikusarazten dute euren burua, periferiako auzoetan baino, eta % 76k onartzen dute sexu-orientazioa ezkututzen dutela bizileku dituzten auzoetan, jasan dezaketen epaiketaren beldur" (Errenteriako Udala, 2019, 23. orria). Antzekoa gertatzen da, esate baterako, Irungo herrian. Garai bateko gazteek euren jatorrizko herrietatik alde egiten zuten, eta beste hiri batzuetara joaten ziren bizitzera bertako giroan aniztasun handiagoa zegoelako. Fenomeno honi sexilioa deritzo (Guzmán, 1997), aurrerago ikusiko dugun moduan. Gaur egun, aldiz, Irungo gazte gehienek ez dute alde egin nahi, baina argi dute askatasun-sentipena handiagoa dela erdigunean inguruko auzoetan baino (Azabal eta Diez-Guiral, 2022). Honetaz guztiaz gehiago sakontzeko ikusi I. eta III. kapituluak.

Haatik, euskal LGTBI+ pertsonen gaur egungo errealitatea ezagutu eta deskribatzeaz gain, kolektibo honen bizitzak eraldatzeko proposamen eta ekintza zehatzak aurrera ateratzea ere ezinbestekoa da. Ideia honetatik abiatu zuen Orereta-Errenteriako udalak, Eihera Koop. Txikiaren batera, LGTBI+ ekintza-plana, kolektibo horren parte diren herritarren bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin (Errenteriako Udala, 2022). Hortaz, diagnostikoetan egin diren proposamenak eta aipatutako ekintza-plana ere aintzat hartu ditu ikerketa honek, helburuak eta erabilitako metodologia zehazteko.

Ekintza-planaren helburua izan da "heteroaraueetan zentratzen ez diren politika publikoak garatzeko konpromisoa [hartzea] eta (...) 2019-2023 agintaldi planean jasotzea" (idem, 2. or.). Honek bat egiten du Gipuzkoako Foru Aldundiko (GFA) 2019/2023 lege-diarekin –zeinetan GFarentzat aniztasunaren kudeaketa demokratikoa helburu estrategikoa izaten ari den– eta ikerketa honekin. Azken honek, gainera, Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeko LGTBI+ errealitateak eraldatu nahi ditu, berdintasun politiketan sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia txertatu eta herriko zein inguruko LGTBI+ pertsoneri eta mugimendu sozialei parte-hartzeko guneak ahalbidetu, aipatutako ekintza-planean adierazi den moduan.

Proposamen horiei erreparatuz gero, ekintza-planak honako ekintza hau jasotzen du: "Errenteriako adin ezberdinetako LGTBI+ pertsonen arteko topaguneak ahalbidetu, memoriaren transmisioa partekatzeko" (Errenteriako Udala, 2022). Hori bera aipatzen dute Hiruki Larroxak (2021), Azabal eta Diez-Guiralek (2022), Errenteriako Udalak (2019) eta Gehituk eta GFAk (2019) burututako lanek. Horiek guztiek behar-beharrezkoa ikusten dute LGTBI+ kolektiboen –eta horien eta beste kolektibo sozialen– artean zubiak eraikitzea gizarte-egiturak indartzeko, bai eta memoria kolektiboaren transmisioa bermatzeko ere. Hori eginez gero, kolektibo horien ahalduntze prozesua martxan jar daiteke; betiere belaunaldiarteko ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzen baldin bada. Hala, LGTBI+ zahartzarora eta identitate eta errealitate heterogeneoak kontuan hartu dira.

Aldi berean, ekintza-planak nabarmentzen du "espazio publikoan eta kale izendegian LGTBI+ pertsonen ikusgarritasuna bermatu" (Errenteriako Udala, 2022) egingo dela. Hori 2019. urteko Orereta-Errenteriako diagnostikoan ere azpimarratzen da. Helburua da, beraz, espazio publikoa hartzea, desheterosexualizatzea eta esanahi berri bat ematea. Honetarako, LGTBI+ erreferente positiboak zabalduko dira herri osoan zehar, eta ez bakarrik erdigunean. Zentzu horretan, ikerketa honek ekintzak deszentralizatu egin nahi ditu. Honen garrantziaz jabetu dira Gehitu eta GFA (2019) edo Azabal eta Diez-Guiral (2022) autoreak ere. Bestalde, azkenekoek uste dute ekintza horiek onuragarriak izan daitezkeela espazio publikoan dauden pertsona zisheterosexualentzat ere; LGTBI+ erreferenteak ezagutzeak enpatia sustatu eta kolektibo horien problematika zehatzez biztanleria guztia ohartarazteko balio duelako.

Horren harira, herriko eta Oarsoaldeko LGTBI+ pertsonen memoria kolektiboa aintzartatuz hartzeko, premiazkoa da historia eta ikur ofizialetan LGTBI+ begiradak txertatzea. Beraz, ikerlan hau funtsezkoa da kultura-gailuetan begirada horiek sartzeko eta LGTBI+ kolektiboen erreparazio prozesua abian jartzeko.

Azkenik, esan beharra dago euskara izan dela proiektu honen muina. Orereta-Errenterian zenbait hizkuntza daude: ofizialak –euskara eta gaztelania– eta ofizialak ez di-

ren beste batzuk –hala nola arabiera, txinera edo urdua– (Errenteriako Udala, 2019). 2021ean Soziolinguistika Klusterrak egindako inkestaren arabera, Orereta-Erreterian gehien erabiltzen den hizkuntza gaztelania da. Hori bera ikusi du Euskal Estatistika Erkundeak (2021). Orereta-Erreteria eta Oarsoaldeko LGTBI+ biztanleriaren ehuneko altu bat euskaraz hitz egiteko gai da, baina gaztelania izaten da euren artean erabiltzen duten hizkuntza, LGTBI+ errepresentazio euskaldun gabeziagatik. Honako bi arrazoi nagusi hauengatik gertatzen da fenomeno hori: historikoki herriaren idiosinkrasiak euskara eta zisheterosexualitatea lotu ditu, hots, euskaldun arketipoarekin, purutasun eta dezentziarekin. Jakina da sozialki LGTBI+ pertsonak ez dituztela ezaugarri horiek beteko (Errenteriako Udala, 2019). Bestalde, euskara beti lotu izan da feminitatearekin, hau da, emakume eta gorputz feminizatuak arduratu dira euskaren biziraupenaz (Bullen, 2003; Esteban, 2012). Espazio publikoa maskulinoa denez, euskara bigarren maila batera alboratu da, esparru pribatura, alegia (Irazabal, 2008). Dena den, azken aldian hori guztia aldatzen ari da, batez ere gazteen artean, bai eta talde lesbofeministen artean ere (Alvarez eta Fernandez, 2023; Errenteriako Udala, 2019). Gainera, historikoki sexualitatearen eta euskararen arteko interseksioa gatazkatsua izan dela aintzat hartu eta aldagai horien arteko gurutzaketa anitzak jasotzen eta aztertzen dituzten ikerlanak abiarazi eta argitaratu dira ere azken urtean (Alvarez eta Fernandez, 2023). Honen harira, ikerketa honek euskarari esan nahi berri bat eman nahi dio. Erronka handia dela jakina da, baina euskara eta euskararen iruditeria erdigunean jarriz, eta LGTBI+ erreferente positibo euskaldunak lurpetik ateraz, hauek ikusaraziz eta euskarak kuir munduan lekua duela eta, gainera, zapalkuntza espezifikoa konpartitzen dituztela aitortuz aldaketak azkartuko dira.

3. Terminologia eta beste ohar batzuk

Orereta-Erreteria: proiektu honetan zehar herria izendatzeko “Orereta-Erreteria” izena aukeratu dugu. Orereta izena herriko berezko izena dela argudiatu da azkenaldian eta honi zentzu politikoa eman zaio. Hala eta guztiz ere, izen ofiziala Erreteria denez, bi terminoei espazioa ematea erabaki dugu. Honegatik, proiektuan honako terminoa erabiltzeko hautua egin dugu. Hala eta guztiz ere, parte-hartzaileek herria izendatzeko bestelako izen bat erabili dutenean (Rente, esate baterako) eurek aukeraturakoa hobetsi da eta aipu originalak mantendu dira, herriko izena aldatu gabe.

Sexu-askapenerako mugimenduak vs. LGTBI+ mugimendua: bi termino hauen arteko aukeraketa egiterakoan, parte-hartzaileek euren hitzetan erabilitakoa hautatu da beti. Hala eta guztiz ere, testuan LGTBI+ mugimendua hobetsi dugu egungo testuingurura hobekien moldatzen den terminoa dela iruditzen baitzaigu. Terminologia honen

aukeraketan belaunaldien arteko ñabardurak islatzen dira eta honakoa kontuan hartu beharreko gauza da. Gainera, termino hauek forma singularrean aurkituko dira lanean zehar, izan ere, gure aburuz, helburu berdina partekatzen duten borroka mugimendu berdinen baitan jasotzen dira. Hala eta guztiz ere, mugimenduaren barne identitate, posizionamendu politiko eta gurutzaketa anitz daudela aitortzen da eta guztiek mugimendu, helburu berari forma ematen diotelarik. Beraz, honako terminoa singularrean darabilgu aterki-termino gisa.

Kuir: ikerketa honetan kuir hitza aterki-termino izango da eta honen baitan askotariko LGTBI+ errealitateak barne hartuko dira. Aldi berean, honako hitza ingelesetik eratorzen da (queer, alegia) eta ikerketan zehar honakoa euskaratu eta bereganatu dugu.

Itzulpenak: lanean zehar erabilitako aipu guztiak bere bertsio eta hizkuntza originalean azaltzen dira. Hizkuntza hori euskara ez bada, aipuak euskaratu ditugu, honek izan ditzakeen mugak kontuan hartu behar direlarik.

4. Lanaren egituraketa

Lana lau kapituluatan banatua dago (I-IV. kapituluak). Jarraian, kapitulu bakoitzean jorratzen diren gaiak laburbilduko dira.

I. kapituluari (#Kuirartxibobizia-ren ibilbidea marrazten) dagokionean, proiektuaren izaera, instrumentu, jardura eta ekintzak eta parte-hartzaileen erradiografia burutzen dira bertan. Hots, proiektuaren helburuak eta metodologia deskribatzen dira, bai eta proiektuan zehar erabilitako instrumentu guztiak ere. Aldi berean, erabilitako berariazko galdetegian azaleratutako datuak aurkeztu eta deskribatzen dira.

II. kapituluari dagokionean (Bilakaera), atal honetan Orereta-Errenteriako LGTBI+ mugimenduak izan duen bilakaeran sakontzen da. Atal hau bost azpi-ataletan banatzen da: 1) lehenengoan, 60ko eta 70eko hamarkadetan emandako gertakari nabarmenak aurkeztu eta hauen gaineko gogoeta egiten da; 2) bigarrenean, 80ko eta 90eko hamarkadetan herrian eta eskualdean eman ziren hainbat egoera eta gertakari aurkezten dira; 3) hirugarrenean, mende berriak ekarritako aldaketen gaineko hausnarketa burutzen da; 4) laugarrenean, proiektuko parte-hartzaileek deskribatutako eta azaldutako gertakarien denbora-lerroa aurkezten da; eta, 5) bosgarrenean, proiektu honetarako sortutako irratsaioen ibilbidea azaltzen da eta honakoak Orereta-Errenteriako mapan kokatzen dira.

III. kapitulari (Jorratutako hainbat gai) dagokionean, proiektuan parte-hartu duten elkarrizketatuek azaleratutako hainbat gai jorratzen dira. Hala nola, euskara, ikusgarritasuna, Orereta-Errenteriako topaguneak, sexilioa, indarkeria, babesa eta hezkuntza izango dira eztabaidagai.

IV. kapitulan (Haize-orratza jarraitzen: ba al da itxaropenik?) proiektu honek utzitako hainbat hausnarketa aurkezten dira. Aldi berean, elkarrizketatuek Orereta-Errenteria eta Oarsoaldean LGTBI+ mugimendua loratzeko eta sustatzeko egindako proposamen zehatzak ere plazaratuko dira kapitulu honetan.

Azkenik, aipatutako kapituluaren ostean, bibliografiaren eta eranskinen atalak ditugu.

I. KAPITULUA

#KUIRARTXIBOBIZIA-REN BIDEA MARRAZTEN

1. Izaera

Ikerketaren izaerari dagokionean, honakoa ikerketa parte-hartzailea da eta honen xede nagusi da Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeko LGTBI+ memoria kolektiboa bildu eta sortzea.

Eskuarteko ikerketa ikerlan mistoa da eta ikuspegi kuantitatibo zein kualitatiboa barne hartzen eta uztartzen ditu. Jarraian, 1. Taulan, ikerketaren metodologia laburbiltzen da.

Helburu orokorra	Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeko LGTBI+ memoria kolektiboa bildu eta sortu	
Ikerketa mota	Ikerketa parte-hartzailea	
Ikuspegi mota	Ikuspegi kualitatiboa	Ikuspegi kuantitatiboa
Tresna eta teknikak	Elkarrizketa sakon erdi-egituratuak	Galdetegia
	Mahai-inguruak	
	Jasotako datu eta materialak sare sozialetan zein webgunean ² aurkeztu dira. Aldi berean, LGTBI+ memoria kolektiboaren mapan islatzen da jasotako informazioa, eta deialdi honek eskatzen duen bilduma honetan bildu da guztia.	

1. Taula. Metodologiaren laburpena.

1.1. Zer nahi dugu? *Proiektuaren helburuak*

Ikerketak dituen helburuei dagokienean, ikerlana gidatu duten hainbat helburu diseinatu dira, jarraian zehazten direnak:

1. helburua: Euskararen gaineko hausnarketak sustatu LGTBI+ gaien inguruan eta LGTBI+ erreferente positibo euskaldunak ikusarazi. Honela, euskararen iruditeria eraldatu eta honi esanahi berri bat eman nahi zaio.

2 Webgunearen esteka honako hau da: <https://kuirartxibobizia.wordpress.com/>

2. helburua: Modu kolaboratiboan Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeko kuir bizitzen memoria taxutu eta kartografiatu, belaunaldietan zehar eman diren eta egun ematen diren gertakariak irudikatuz. Honela, komunitatean eraikitako memoria kolektiboa herri eta eskualdeari zabaldu nahi zaio.

3. helburua: Jendarte eraldaketarako pentsamendu kritikoa sustatu Orereta-Errenteria eta eskualdeko biztanleriaren artean, eskubide-berdintasunean oinarritzen den elkarbizitza bermatzeko.

4. helburua: Herritarrei irisgarriak izango zaizkien materialak sortu, etxetik bertatik eskuratu ahalko dituztenak. Honetarako, hainbat formatutan eskainiko da informazioa, herritarren babesa eta hedapen zabala bermatuz.

1.2. Zer egin dugu? *Proiektuaren metodologia*

Jarduera eta ekintzak

Ikerketa honen baitan, deskribatutako helburu zehatzei lotzen zaizkien hainbat jarduera eta ekintza burutu dira. Beheko taulan (2. Taula) aipatutako jarduera eta ekintzak laburbiltzen dira eta zein helbururi lotzen zaizkion deskribatzen da:

	1. helburua	2. helburua	3. helburua	4. helburua
Webgunea	X	X	X	X
Bilduma	X	X	X	X
Galdetegia		X		X
Irratsaioak	X		X	X
Mahai-inguruak		X	X	
Mapa interaktiboa	X	X	X	X
Sare sozialak	X	X	X	X

2. Taula. Ekintzen eta helburuen arteko korrelazioa.

Goian aipatutako ekintzen azalpen laburra aurkezten da jarraian:

- **Galdetegia.** Herritarrek LGTBI+ memoria kolektiboaren gaien gainean duten interes, jakin-min eta kezka bildu dituen galde-sorta. Galdetegiak atal kualitatiboa gidatu du. Gaiak honakoak biltzen dituen itemetan banatu dira: datu soziodemografikoak, euskal kuir munduaren pertzepzioak, herriko segurtasunaren gaineko pertzepzioak, biztanleek herriarekin duten harremana eta herriko LGTBI+ ekintza edota bizipen ezberdinetan duten parte-hartzea eta hauen gaineko ezagutza (ikus kapitulu honen 2.1. puntua honetan sakontzeko).

- **Irratsaioak.** Elkarrizketa erdi-egituratuak izan dira honakoak. Oreretako Zintzilik Irrati librearekin lankidetzan, LGTBI+ kolektiboko pertsona ezberdinak elkarrizketatu ditugu. Irratsaio bakoitzean 1-2 pertsonak parte hartu dute. Pertsona hauek euren bizipenak partekatu eta Orereta-Errenteriako gertakari historikoen gainean aritu dira, besteak beste (ikus kapitulu honen 2. puntua). Irratsaioak eskura daude #Kuirartxibobizia edota Zintzilik Irratiko webgunean, bai eta @kuirartxibobizia Instagram eta @kuirtxibobizia Twitter –egun X deritzona– kontuan ere. Irratsaioen bidez, memoria kolektiboa zabaldu nahi da, bai eta material historiografikoa eta Orereta-Errenteriako bizipenen bilduma erabilgarri zein eskuragarria izan ere. Guztira, 10 irratsaio egin dira eta bertan jorratutako gaiak II., III. eta IV. kapituluetan aztertu eta sakonduko dira .
- **Mahai-inguruak.** Orereta-Errenteria eta eskualdeko biztanleria guztiari zabaldu-tako bi mahai-inguru burutu dira. Aldi berean, biztanleria helduagoarekin mahai-inguru bat burutu da (ikus kapitulu honen 2. puntua). Hauek elkarrizketa erdi-egituratuen osagarri izan dira eta bi informazio iturriak uztartu dira II, III. eta IV. kapituluetan.
- **LGTBI+ memoria kolektiboaren mapa interaktiboa.** Batetik, Zintzilik Irratian egindako irratsaioekin ibilbide bat sortu da (ikus II. kapitulua, 5. puntua), eta Orereta-Errenteriako auzo ezberdinetan zehar zabaldu da. Ibilbideak markatutako gune batzuk izango ditu, eta gune bakoitzak QR kode bat. Gune hori mapa birtualean markatzeaz gain, kalean bertan ere jarri da, eta edonork bere mugikorretik irratsaio bat entzuteko aukera izango du. Bestetik, mapa interaktiboa #Kuirartxibobizia webgunean zintzilikatuta egongo da eta edozein pertsonak honakoa aberasteko aukera izango du. Hala, edonork euren bizipen indibidualak –hots, memoria indibiduala– partekatzeko aukera izango du (ikus kapitulu honen 2. puntua).
- **Bilduma.** Eskuarlean duzuen liburu itxurako azken produktua da honakoa, jasotako informazio guztia biltzen duena. Orereta-Errenteriako Udaleko "Bilduma aldizkarian" jaso da.
- **Sare sozialak.** @kuirartxibobizia izendatutako Instagramen eta @kuirtxibobizia Twitterren –egun X deritzona– kontuak. Ikerketan zehar egindako ekintza eta jarduerak partekatu dira bertan eta komunikazio-kanal izan dira. Hauek proiektua biziraungo dute.
- **Webgunea.** <https://kuirartxibobizia.wordpress.com/> estekan sartuz. Proiektuan zehar burututako ekintza eta material guztiak jasotzeko tresna da honakoa. Proiektua amaituta ere, webguneak jarraipena izango du.

2. Nola egin dugu?

Instrumentu, jarduera eta ekintzen deskribapena

Aurretik planteatutako helburuak aurrera eramateko, hainbat ekintza jorratu ditugu fase ezberdinetan zehar. Hurrengo orrialdeetan bakoitzaren garapena azalduko dugu.

2.1. Galdetegia

Ikerketarako berariazkoa den galdetegi bat sortu da, euskaraz eta gaztelaniaz. Galdetegi guztiz anonimoa izan da, 10 minutu inguruan betetzekoa eta Oarsoaldeko 14 urtetik gorako edozein pertsonak bete dezakeen, LGTBI+ kolektiboaren parte izan ala ez. Bertan, Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeko LGTBI+ memoria kolektiboaren inguruan galdetu da. Galdetegia honako gai hauen arabera antolatu da:

- *Datu soziodemografikoak:* adina, generoa, arraza eta etnia, ikasketa-maila, lan egoera, herria, auzoa (pertsona hori Orereta-Errenteriakoa bada), identitatea (zis, trans, ez bitarra, intersexuala eta abar), orientazioa (lesbiana, heterosexuala, bisexuala, asexuala eta abar) eta ea LGTBI+ pertsonak ezagutzen dituen ala ez.
- *Euskaltasunaren inguruko datuak:* euskararen erabilera, euskal identitateari atxikimendua, euskararen lotura LGTBI+ pertsonekin eta euskal erreferenteak.
- *Herriko eta eskualdeko elkarbizitzaren inguruko pertzepzioa eta ezagutza:* segurtasun maila, bizigarritasuna, adierazpen librea, errepresentazioa eta adierazpen-askatasuna.
- *LGTBI+ kolektiboaren gaineko interesa eta ezagutza:* gertakariak, ezagutza maila eta interesak.

Galdetegia online formatuan zabaldu da eta, honakoa biztanleriari helarazteko, hainbat estrategia erabili ditugu: hasteko, elur-bola teknikaren bitartez gure kontaktuei esteka bidali genien eta hauek euren kontaktuei. Teknika hau izan da eraginkorrena. Gainera, galdetegia Oarsoaldean zabaltzeko kartel bat diseinatu zen eta honakoak galdetegira zeraman QR kode bat zuen (ikus 1. eranskina). Kartelak herriko zein eskualdeko leku estrategikoetan jarri genituen, hala nola Niessenen, Alamedako tabernetan, Oarsoaldeko herri guztietako enparantzetan, udal gaztelekuetan eta autobus geltokietan.

Era berean, pertsona guztientzat irisgarria izan daitekeen galdetegia diseinatzen ahalgindu gara, beraz, galdetegia paperean ere inprimatu zen. Esaterako, biztanleria helduarengana iristeko paperezko bertsioak aproposagoak dira. Honegatik, Orere-

ta-Errenteriako erretiratuen udal elkarteetan zehar galdetegiko bertsio inprimatuak zabaldu ditugu. Hala eta guztiz ere, adin gehiagoko biztanleria horrengana iristeko asmotan, Beraungo erretiratuen elkarteetan mahai-inguru bat ere antolatu zen ahal bezain beste testigantza jasotzeko.

Hasiera batean, diseinatutako kronogramaren arabera, galdetegia martxoan ixtea planteatu genuen, baina jendearen parte-hartzea ikusita, hilabete luzatu genuen, hau da, apirilera arte. Horrek aukera eman digu Orereta-Errenteriako ikastetxeetara ere hurbiltzeko, eta 14 urtetik gorako gazteek klasean bertan galdetegia erantzun ahal izan dute. Guztira 100 bat ikasle izan ditugu.

Galdetegiak 667 erantzun jaso ditu eta, lehen azterketak burutu ostean, 571 erantzun izan dira analisietarako baliagarri. 96 erantzun baztertu ditugu, izan ere, galdetegi-tako batzuk (N= 87) ez ziren amaitu, eta, beraz, ezin izan dira baliozkotzat hartu. Aipatzekoa da galdetegi-tako beste batzuk (N= 9) baztertu egin genituela, mespretxuzko iruzkinak zituztelako eta galderen erantzunek gaiarekin zerikusirik ez zutelako.

Datuak aztertzeko, galdetegiko datu kuantitatiboak SPSS26 erabiliz ikertu dira. Galdetegiko datu kualitatiboak, aldiz, Atlas.ti softwarearekin analizatu dira. Anlisi hauek baliu izan dute Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeko jendearen ezagutza eta interes mailaren inguruan informazioa eskuratzeko, irratsaio eta mahai-inguruen gaiak definitzeko, bai eta hauei norabide bat emateko ere.

Galdetegia erantzun duten biztanleen erantzunak eta galdetegiko itemen datu xehe-tuak 2. eranskinean aurkituko dituzue. Bertan, item kualitatibo eta kuantitatiboen bitartez, informazio horretan biztanleriak gai jakin batzuei buruz duten ikuspegia jasotzen da. Item batzuetan LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen erantzunak bereizi ditugu, errealitate espezifikoak kontuan hartzeko (ikus 2. eranskina).

2.2. Irratsaioak

Irratsaioak Oreretako Zintzilik Irrati librean grabatu dira eta euren espazioak utzi dizigute gure proiektua aurrera eraman ahal izateko. Honetarako, Zintzilik Irrati Librean hainbat antolakuntza eta formakuntza saio burutu ditugu.

Irratsaioen gaiei dagokienean, alde zurratik azaldu moduan, galdetegiko informazioa baliatu dugu hauei forma emateko. Lau gai nagusien inguruan aritu gara: Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeko LGTBI+ mugimendua, mugimendu feministak eta bollerren mugimenduak, euskara eta LGTBI+ mugimendua, zahartzarua eta gaur egungo mugimenduak.

Guztira, 10 irratsaio grabatu ditugu eta 13 parte-hartzaile izan ditugu. Irratsaio hauekin ibilbide bat sortu dugu Orereta-Errenterian zehar, bertako LGTBI+ memoria osatzen joan diren testigantzekin. Herrian zehar hainbat puntu aukeratu dira ibilbidea sortzeko. Puntu horietan, QR kode bat dago ipinita eta biztanleriak irratsaioak euren mugikorra baliatuz entzuteko aukera izango du (ikus II. kapitulua: 5. puntu). Irratsaioetan ateratako datu kualitatiboak ere Atlas.ti softwarearekin analizatu dira.

Jarraian, 3. Taulan, irratsaioen izenburua ematen da, hauen deskribapena burutzen da eta parte-hartzaileak aurkezten dira.

Izenburua	#Kuirartxibobizia. LGTBI+ memoria kolektiboan kokatzen.
Parte hartzailea	Julen Zabala.
Aurkezpena	Julen Zabala Tolosan jaio zen, baina errenteriarizat du bere burua. 1979. urtean Orereta-Errenteriako EHGAMeko jendea ezagutu zuen eta gaur egun arte egon da militatzen, bere jardura gelditzeko aurreikuspenik gabe.
Izenburua	#Kuirartxibobizia. Norbait gutaz oroituko da. Bollerak, transfeminismoa eta bestelako tirabirak.
Parte hartzailea	Naroa Zabala eta Haizea Sanchez.
Aurkezpena	Naroa Oreretan jaio eta bizi da. Bollera bezala definitzen da eta Orereta-Errenteriako LGTBI+ Mahaian militatu du, disolbatu den arte. Haizea, berriz, Pasai Antxokoa da, eta Orereta-Errenteriara etorri zen bizitzera. Orereta-Errenteriako, Gipuzkoako eta Euskal Herriko mugimendu bolle-roan ibilia da, baita LGTBI+ Mahaiaren kide izandakoa ere.
Izenburua	#Kuirartxibobizia. Bada itxaropena? Gaur egungo mugimenduak.
Parte hartzailea	Paula Lopez.
Aurkezpena	Paula Oreretan jaioa da eta elkarrizketa egiteko momentuan herrian bizi ez den arren, bertan egiten du bere bizitza. Bisexuala bezala definitzen da eta Oarsomusika elkartzean aritzen da.
Izenburua	#Kuirartxibobizia. Bada itxaropena? Gaur egungo trans mugimenduak.
Parte hartzailea	Mash Elizalde eta Kay Subijana.
Aurkezpena	Kay pertsona trans ez-bitarra da. Filosofia ikasi zuen eta psikiatria gorrotatzen duela dio. Mash mutil transa da, Iruñakoa da baina Oreretan bizi da. Loratuz Lotu elkar-tean militatzen du eta bere burua kritikotzat jotzen du.
Izenburua	#Kuirartxibobizia. Indar soziala duen herria: mugimendu okupa eta mugimen-du feminista.
Parte hartzailea	Txelo Berra.
Aurkezpena	Txelok militante feminista bezala definitzen du bere burua, feminismoak bere identitatea zeharkatzen baitu. Oreretakoa da, "Madalenako ermita bezala".

Izenburua	#Kuirartxibobizia. Memoria ariketa: feminismoaren eztanda Oarsoaldean.
Parte hartzailea	Asun Urbietta.
Aurkezpena	Asun feminista, marxista eta lesbiana bezala definitzen da, besteak beste. 1977an hasi zen Oreretako mugimendu feministan. Donostiako Asanblada Feministan eta Lesbianen Kolektiboan ibili zen. Gaur egun Lilaton eta Donostiako Emakumeen Etxean aritzen da, erasoen aurkako batzordean.
Izenburua	#Kuirartxibobizia. Herria kuirreratzen: euskara eta LGTBI+ komunitateen arteko analisia.
Parte hartzailea	Imanol Miner eta Jokin Pedreño.
Aurkezpena	Imanol Minerrek bere burua aurkezteko ohitura gutxi du, baina zertzelada batzuk eman dizkigu bera hobeto ezagutzeko. Imanol 1974. urtean jaio den oreretar, euskaltzale, maritxu eta lamia-zubigilea da. Aktibista baino lekuko edo bidelagun izan da, ez baita egon astero militantzia egiten; baina hor egon da, erreka bazterrean, bere urrezko orraziarekin herriko plaza okupatzen duten horiei begira. Jokin Pedreño 28 urteko oreretarra eta bisexual ezbitarra da. Gaur egun AEK-ko irakaslea da, eta hortik ari da euskalgintza egiten. Bere bizitza armairutik ateratzea eta politizatzea eskutik joan dira, eta hortik aurrera gauza guztiei buruz hausnartzen dihardu: bere sexualitateaz, generoaz, klase izaeraz edota bestelako zapalkuntzen inguruan.
Izenburua	#Kuirartxibobizia. Bazterretatik erdigunera: <i>diva</i> bat izaten jarraitzeko estrategiak.
Parte hartzailea	Aiora Simó.
Aurkezpena	Aiora Oreretako neska bat da. "Ta kitto!" dio berak. Trantsizioa egiten hasi zenean, bere lagun batek bera izendatzeko beharretik, Faraona ezizenez ere ezaguna da herrian.
Izenburua	#Kuirartxibobizia. Guduak irabazten: lan pertsonaletik eraldaketa sozialera.
Parte hartzailea	Oliber Nestar.
Aurkezpena	Oliber Nestar Orereta-Erreterrian jaio eta bizi da. Baikortzat eta borrokalaritzat jotzen du bere burua, eta inauterietako arima duela aitortu digu. Kostatu zaio bera nor den jakitea, baina denborarekin bere burua maitatzen ikasi du. Eureka Dance proiektuarekin Pontika auzoan dantza, zumba, aerobik eta funky klaseak ematen ditu. Gainera, <i>Lagrimas de brillante</i> liburuaren autorea da.
Izenburua	#Kuirartxibobizia. Putipansexuala nintzen, baina oraindik ez nekien.
Parte hartzailea	Itziar Ziga.
Aurkezpena	Itziar Ziga Erreterriako kaleetan hazi den kaleko <i>perra</i> [txakur emea] bat da; kalekoa langile-auzo batean jaio izan delako, baita nahiko <i>choni</i> -a izan delako ere. Euskal feminismoaren <i>Mama Chicho</i> kontsideratzen du bere burua. <i>Devenir perra</i> , <i>Sexual Herria</i> edota <i>La feliz y violenta vida de Marible Ziga</i> liburuen autorea ere bada, besteak beste.

3. Taula. Irratsaioen deskribapena.

2.3. Mahai-inguruak

Hiru mahai-inguru gauzatu dira guztira Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeko biztanleria-rekin. Bertan, aurretik irratsaio zein galdetegian azaleratutako hainbat gai jorratu dira eta bestelako afera batzuetaz hitz egiteko espazioa luzatu da. Mahai-inguruak elkarrizketa erdi-egituratu gisa planteatu dira, non proiektuko kideek elkarrizketa une puntualetan gidatu duten. Orokorrean, proiektuko kideen papera izan da bideratzailearena eta mahai-inguru bakoitza parte-hartzaileek gidatu dute. Bertan, ikuspuntu ezberdinak azalera eta eztabaidatu dituzte parte-hartzaileek eta nahi adina hitz egiteko denbora eskaini zaie. Honela, gai bakoitzaren ikuspuntu zabala lortzea izan da helburu nagusi, bai eta askotariko ahots jasotzea ere.

Hasteko, Beraungo erretiratuen elkartekoekin bildu ginen. 2023ko azaroaren 16an elkartera joan eta bertako erretiratuekin mahai-inguru bat burutu genuen, 18:00etatik 20:00etara. Aurretik aipatu dugun bezala erretiratuek proiektu honetan parte-hartzeko interesa adierazi ziguten, eta beraiek proposatu ziguten mahai-inguru bat antolatzera. Hortaz, 20 bat lagunek parte hartu dute. Halere, euren bizipenak eta usteak jaso aurretik LGTBI+ kolektiboaren inguruko hainbat kontzeptu lantzea izan zen euren lehenengo proposamena, geroago neurtu nahi genuen hori biltzeko. Hartu-eman honetan, jubilatuek beraien bizi-esperientziak partekatu zizkiguten eta garai bateko Orereta-Errenteriara eraman gintuzten. Era berean, gaur egungo egoerataz aritu ginen, eta beraien pertzepzioak partekatzeaz gain bi mendeen hauen arteko ezberdintasunetaz ere mintzatu genuen.

Beranduago, herria eta eskualdearentzat antolatutako bi mahai-inguru egin genituen. Espazio hau Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeko edozein pertsona zein eragileri irekita zegoen, eta anonimoa izatea nahi genuen; galdetegia eta irratsaioez gain, jendeak euren bizipenak eta pertzepzioak partekatzeko beste espazio bat izateko, batzuentzat seguruagoa eta erosoagoa izan zitekeena.

Mahai-inguruetan parte-hartzeko gonbitea zabaltzeko hainbat estrategia erabili ditugu. Galdetegiarekin egin genuen moduan, elur-bola teknikaren bitartez gure kontaktuei kartel bat (ikus 3. eranskina) bidali genien eta hauek euren kontaktuei. Horretaz gain, kartela Oarsoaldean zabaltzea erabaki genuen, eta horretarako herriko zein eskualdeko leku estrategikoetan jarri genituen, galdetegiaren kartelarekin bezala. Horrela, Niessenen, Alamedako tabernetan, Oarsoaldeko herri guztietako enparantzetan eta abarretan jarri genituen.

Antolatu genuen lehenengo mahai-ingurua 2023ko abenduaren 12an egin genuen, 19:00etatik 21:00etara; eta bigarrena, 2023ko abenduaren 19an, 19:00etatik

21:00etara. Bi mahai-inguru hauek Joxepa Antoni Aranberri Anitzenean egin ziren. Bi mahai-inguruetan ikerketaren lau kideak egoteaz gain, lehenengoan 8 parte-hartzaile izan genituen eta bigarreanean, aldiz, 6 parte-hartzaile. Bertaratutako enprofila askotarikoa izan da. 20 eta 70 urte bitarteko pertsonak izan dira, eta nortasun, identitate eta orientazio sexual ezberdinetako profilak izan ditugu. Orereta-Erretererian jaio edo bertan bizi eta lan egiten duten pertsonak, baita Oarsoaldeko beste batzuk ere. Mahai-inguruetako datu kualitatiboak, besteetan bezala, Atlas.ti softwarearekin analizatu dira.

Jarraian, 4. Taulan, mahai-inguruetako informazioa laburtzen da dugu:

1. Mahai-ingurua	2. Mahai-ingurua	3. Mahai-ingurua
Noiz?	Noiz?	Noiz?
2023ko azaroaren 16an, 18:00etatik 20:00etara.	2023ko abenduaren 12an, 19:00etatik 21:00etara.	2023ko abenduaren 19an, 19:00etatik 21:00etara.
Non?	Non?	Non?
Beraungo erretiratuen elkarte.	Joxepa Antoni Aranberri anitzenean.	Joxepa Antoni Aranberri anitzenean.
Nor?	Nor?	Nor?
4 ikertzaileak eta 20 bat parte-hartzaile.	4 ikertzaileak eta 8 parte-hartzaile.	4 ikertzaileak eta 6 parte-hartzaile.

4. Taula. Mahai-inguruetako informazioaren laburpena.

2.4. Webgunea

Wordpress plataforman aurkeztutako webgunea sortu da, <https://kuirartxibobizia.wordpress.com/> estekan sarbidea duela. Wordpress izan da aukeratutako plataforma oinarrizko edukia doako delako eta erabilera erraza duelako. Bertan, proiektuan zehar burututako ekintza eta material guztiak jasotzen dira. Honako atal hauetan banatuta dago: nor gara?, mapa, bilduma, denbora-lerroa eta mediateka.

Nor gara? atalean ikertaldearen aurkezpena agertzen da, #kuirartxibobizia ikertaldearen nondik norakoak alegia.

Ondoren, *Mapa* atala aurki dezakegu. Bertan, Google-eko *My Maps* plataformaren bidez Oarsoaldeko mapa ikusiko dugu. Mapa honetan, izartxo baten ikurrarekin grabatu ditugun irratsaioak agertuko dira, sortutako ibilbidearen parte direnak (gehiago jakiteko ikus II. kapitulua, 5. puntua). Entzungai izango dituzue, beraz, grabatutako irratsaio guztiak. Gainera, gure elkarrizketatuek azpimarratu dituzten topaguneak ere agertzen dira etxetxo baten ikurrarekin (ikus III. kapitulua, 3. puntua). Bestetik, txin-

txeta baten ikurrarekin jendearen bizipen indibidualak agertuko lirateke. Lehen esan bezala, mapa hau interaktiboa da arrazoi honengatik; izan ere, *Google Forms* bidez³ edonork partekatu ditzake bere istorio, kontakizun edota desirak, Oarsoaldeko mapan kokatu dezake (kokapen bat zehaztuz) eta webgunean eskegitako mapa interaktiboa osatuko dute. Partekatutako erantzunak guztiz anonimoak izango dira pertsona horrek kontrakoa eskatzen ez badu.

Hurrengo atala *Bilduma* deritzo eta hemen ikerketa hau –liburu hau bera– deskargatzeko esteka agertzen da, edonork eskura izateko.

Era berean, hurrengo kapituluan biltzen diren gertakarien denbora-lerroa ere agertzen da, *Denbora-lerroa* atalean. Horrela Orereta-Erreterria eta Oarsoaldeko LGTBI+ memoria kolektiboaren argazki orokorra aurki daiteke. Amaitzeko, ikerketa honetan zehar eman diren pausoak biltzen dira *Mediateka* atalean, atera ditugun argazkien bitartez.

Honako taula honetan (5. Taula) laburtu egiten da webgunean aurki daitekeena:

Atalak	Edukia
Nor gara?	#Kuirartxibobizia ikertaldearen aurkezpena.
Mapa	Mapa interaktiboa, irratsaioekin egindako ibilbidearekin eta topagune batzuekin.
Bilduma	Publikatutako <i>Bilduma</i> honen esteka, edonork eskura izateko.
Denbora-lerroa	Orereta-Erreterria eta Oarsoaldeko LGTBI+ memoria kolektiboa biltzen dituen gertakarien denbora-lerroa.
Mediateka	Argazkien bitartez ikerketa honek izan dituen faseen azalpenak.

5. Taula. Webguneko atalen laburpena.

3 Esteka honen bitartez: <https://docs.google.com/forms/d/193XXbMbi5uL6OerVBEa8Yd4TGJg-ewyrCJLFRd1IW5g/edit>

II. KAPITULUA

BILAKAERA

Nola hasi puzzlearen piezak ahokatzen? Noiz pizten da mugimenduaren txinparta? Nola hasten dira biratzen historiaren engranajeak? Datozen orrialdeetan, gure parte-hartzaileek maitasun, mimo eta gertutasun handiz konpartitu diguten informazioa biltzen eta testuiguratzen saiatuko gara, gure herria eta eskualdea eraikitzen lagundu duten egintzak hobeto ezagutu eta ulertzekotan.

1. Suari ohea prestatzen: 60ko eta 70eko hamarkadak

1.1. Orereta-Errenteriako sua elikatu zuten borrokak: mugimendu feminista

Historia honi hasiera emateko, Asun Urbietaren testigantza dugu, Orereta-Errenteriako feminista historikoa, herrian militantziaren hasiera nola eman zen kontatzen diguna. Asun 70eko hamarkadan hasi zen ezker muturreko pentsamendu eta mugimenduetan militantzian. Hala kontatzen digu: "nosotras éramos tías [feministas] que creíamos también en el movimiento obrero, que nos jodían las centrales nucleares..."⁴. Zentzu honetan, ezker mugimenduak eta feminismoak hamarkada hartan hala-nola bat egin zutela kontatzen digu. Militantzian hasi eta urte batzuetara, Asun eta beste emakume feminista batzuk Euskadiko Mugimendu Komunistara (EMK) batu ziren, baldintza bakarra zutelarik: taldeak feminismoa izan behar zuten aldarri. Geroztik, Asunen ibilbidea feminismoaren eskutik joan da eta bere testigantzek herriko mugimenduak nolakoak ziren ondo irudikatzen dute.

Ildo honetan, Asunek 1975. urtea kokatzen du inflexio-puntutzat. Urte horretan, Emakumearen Nazioarteko Urtean hain zuzen, Mexiko hirian emakumearen egoera juridiko eta sozialari buruzko lehen mundu-konferentzia burutu zen. Konferentzia honek helburu izan zuen nazioarteko komunitateari gogoraraztea emakumearen aurkako diskriminazioa arazo iraunkorra zela munduaren zati handi batean (NBE, 1975). Horrek bultzada eman zien emakumeen aldeko eskubideen aldarrikapenei. Gurean, Estatu mailan, urte berdinean Franco diktadorea hil zen eta honek mugimendu haiek penintsulan zehar eratu eta zabaltzea ekarri zuen.

4 Euskaratuta: Gu [emakume feministak izateaz gain] langile mugimenduan ere sinesten genuen, zentral nuklearrek izorratzen gintuzten...

Trantsizioarekin batera, Orereta-Errenterian, 1977. urtean abian jarri zen emakumeen mugimendua eta emakumeen talde bat sortu zen, bi gai nagusiren inguruan ardatzu zena. Alde batetik, abortatu nahi zuten pertsonentzat laguntza-sare bat antolatu zuten. Bestetik, emakumeen sexu-askatasuna aitortzeko borrokan aritu ziren. Hala oiroitzen du Asunek garai hura:

[...] Kanpaina oso bat zegoen abortatzeko eskubideari lotuta: [...] emakumeen sexualitatearen eskubidea eta aitortpena, askatasun sexuala, noski, antisorgailuen despenalizazioa (hemen errezeta medikoa adinaren arabera zelako), eta abortua nahi ez den haurdunaldi baten aurreko azken neurri gisa.

[...] Había toda una campaña ligada al derecho al aborto: [...] el derecho y el reconocimiento de la sexualidad de las mujeres, la libertad sexual, por supuesto, la despenalización de los anticonceptivos (porque aquí la receta médica era por edad), y el aborto como última medida ante un embarazo no deseado.

Gai honen inguruan irudi zehatzagoa izateko, *Las buenas compañías* (Munt, 2023) filma gomendatzen digu Asunek. Film honek segurtasun-baldintzetan abortatzeko atzerrira bidaiatu behar zuten emakumeen bizipenak, sortutako laguntza-sarea eta momentu hartako herriko egoera kontatzen ditu.

Aipatutako gaiei segida emanez, abortuaren aldeko kanpaina eta aldarrikapenak suitsuak izan ziren 70eko hamarkadan. Adibide moduan, 1976. urtean, 350 emakume baino gehiago zeuden espetxeratuta Espainiako Estatuan adulterioa, abortua eta prostituzioa egotzita, eta horien amnistia izan zen garai hartako mugimendu feministaren aldarrikapen nagusietako bat. Urte horretan bertan, hamaika emakume eta gizon bat atxilotu zituzten Basaurin, abortatu izana edo abortuak egin izana egotzita (ikus 1. irudia). Langile klaseko Basauriko hamaika emakumek, abortatu izana egotzita, prozesu



penala bizi izan zuten 1976tik 1985era⁵. Prozesu hori demokraziaren lehen abortuaren legegaren aitzindaritzat eta bultzatzailetzat jotzen da, Espainian abortua despenalizatu zuena, partzialki bada ere.

1. Irudia. Bilboko protestak (1976). Iturria: *Pikara Magazine*.

5 9/1985 Lege Organikoa, 1985eko uztailaren 5ean onartua, eragindako abortua hiru kasutan despenalizatu zen: haurdun zegoen emakumearen –eta pertsonaren– osasun fisiko edo mentalerako arrisku larrian, bortxaketan eta fetuaren malformazio fisiko edo psikikoetan.

Aipatutako kasua Bizkaiko Emakumeen Asanbladara ere eraman zen, abortu aske eta doakoaren aldarrikapenei eta emakumeek beren gorputzari buruz erabakitzeko duten eskubideen aldeko deialdiei batu zirelarik. Euskal mugimendu feminista emakume horien defentsan murgildu zen, kasuak eremu pribatua gainditzea lortu zuen eta hedabideetan, estatuan eta nazioartean eragin handia izan zuen. Ondorioz, mobilizazio masiboak antolatu ziren Espainiako Estatuan zein honakoaren mugetatik kanpo. (Wikipedia)

Borroka horren baitan, Orereta-Errenteriako emakume feministen talde bat antolatu zen abortatu nahi zuten pertsoneri babesa emateko. Honela deskribatzen ditu Asunek talde hartako emakumeak: *"nosotras, fundamentalmente, éramos tías de corte marxista, trosquista y eso era la configuración del primer grupo de mujeres que hubo aquí"*⁶. Abortoaren legalizazioaren aldeko borroka horren baitan, Orereta-Errenteriako emakumeen taldea sendotu zen eta eskualdeko beste hainbat emakume ere batu zitzaizkien, Pasaia eta Oiartzungoak esaterako. Ideia herri bakoitzean emakume talde bat osatzea bazen ere, hastapen haietan taldeen osaketa pixkanaka eman zen. Borroka horren baitan, aldarri ugari izan zituzten garaiko emakumeek eta hainbat ekintza gauzatu zituzten. Ekintzetan deigarriena Orereta-Errenteriako emakumeek beste emakume batzuei Estatuko muga gurutzatzen laguntzeko taldeen sorrera izan zen (Landaluze, 2022). Honela kontatzen dizkigu garai hartako oroitzapenak Asunek:

Benetan konplikatua zen, baina emakumeok arnasa hartzeko eskubidea besterik ez genuenez, erraza zen ulertzea zure bizitzako zer gauzek ez zuten zentzurik. Hau da, zergatik ez genituen gizonen eskubide berberak? Edo emakumeen eskubideak hemendik 4 edo 15 kilometrora, mugaren beste aldean...

Era realmente complicado, pero como las mujeres solo teníamos derecho a respirar, era fácil entender qué cosas de tu vida carecían de sentido. Es decir, ¿por qué no teníamos los mismos derechos que los hombres? O los derechos de las mujeres a 4 o 15 kilómetros de aquí, al otro lado de la frontera...

1.2. Sexu-askapenerako borroka, feminismoaren lorpenak eta gurutzaketak

Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeko testuinguruan garaiko aldarrikapen feministek herriko iruditeria aldatzen lagundu zutela esan genezake. Horiekin batera, Estatu mailan emandako hainbat gertakari eta ekintzek ere herriko panorama aldatu zuten. Feminis-

6 Euskaratuta: Gu, funtsean, izaera marxista eta troskista zuten neskek ginen, eta hori zen hemen izan zen lehen emakume taldearen konfigurazioa.

moaren eskutik, sexu-askapenerako borrokak lekua aurkitu zuen eta lehen urratsak ematen hasi zen. Araka dezagun nola hasi zen sexu-askapenerako borroka gurean.

1.2.1. Estatuko legeen aurkako protestak

60ko hamarkadan, Alferren eta Gaizkileen legea⁷ (1933) oraindik indarrean zegoen eta honek borroka feministari zein sexu-askapenaren borrokari eragin zien. Agintearen begietan antisozialak ziren horientzat zuzentzen zen legea, hala nola proxenetak, etxegabeak, prostitutak, homosexualak... Homosexualei honako legeak nola eragin zien kontatzen digu Julen Zabalak:

Arriskua ez zen delitu bat egin behar izatea kartzelara joateko, baizik eta maritxuak, bollerak, trans-ak, trabestiak... izateagatik delituaren aldekozat jotzen gintuzten. Tira, bollerak beste era batera jazartzen zitzaizkien.

El peligro no consistía en que tuviéramos que cometer un delito para ir a la cárcel, sino que por el hecho de ser maricones, bollerak, trans, travestis... se nos consideraba proclives al delito. Bueno, a las bollerak se les perseguía de otra manera.

70eko hamarkadan, Arriskugarritasunaren eta Gizarte-errehabilitazioaren legea⁸ (16/1970) sartu zen indarrean, aurreko Alferren eta Gaizkileen legearen birkontzeptualizazioa izan zena. Testuinguru honetan, 70eko hamarkadan, preso sozialki "arruntak" edo "sozialak" kontsideratzen zirenen aldeko aldarrikapenak egiten hasi ziren Espainiako Estatuan. Preso sozialak antolatuta eta garaiko agenda mediatikoan kokatu zituzten beren eskaerak hainbat estrategia politikoren bidez, hala nola autolesioak edo espetxeetako, biltzarretako, manifestazioetako edota entzierroetako matxinadak burutuz (Momoito, 2018).



2. Irudia. *Lunática* liburuaren azala. Javier Freijanesen argazkia *Posible* aldizkariarentzat, Zuriñe Burgoak moldatuta.

Euskal Herri mailan, 1977ko azaroan, Basauriko espetxean, María Isabel Gutiérrez Velasco sexu-langilea hilda agertu zen bere ziegan. Lankidearen heriotza salatzeotan, hiriko prostitutek Arriskugarritasun eta Gizarte-errehabilitazioaren legea indargabetzeko protestekin bat egin zuten (ikus 2. irudia).

7 Ley de Vagos y Maleantes (1933).

8 Ley sobre peligrosidad y rehabilitación social (16/1970).

1.2.2. Sexu-askapenerako borrokak eta euren arteko baturak

Aipatutako mobilizazio horietatik abiatuta, lehenengo mugimendu homofiloa⁹ sortu zen. "Homosexual" terminoa "homofilo" terminoarengatik aldatu nahi izan zuten garai hartan, izan ere, sexualki promiskuoa den homosexualaren irudi negatiboa eta estereotipatua alde batera utzi nahi izan zen. Garai hartan, "homosexual" terminoak gazteen usteltzearekin, prostituzioarekin eta xantaiarekin lotzen zen eta "homofilo" hitza erakarpina, adiskidetasuna eta maitasuna azpimarratzeko erabili nahi izan zen (Aldrich, 2007).

Julen Zabalak terminologia aldaketa honi buruz ere hitz egin digu, izan ere, hainbat hitz eta termino oraindik adosteke zeuden eta garai hura tirabiratsua zela dirudi. Gizonen artean, esaterako, ez zuten "homosexual" hitza erabiltzen guttiz estigmatizatuta zegoelako "nosotros tampoco poníamos nunca el término *homosexual*, porque el decirlo era serlo"¹⁰. Aldiz, "gay" hitza ere erabiltzen hasi ziren garai hartan. Honako terminoa bere burua homosexualtzat argi identifikatzen zutenek zerabiltzen eta aktibismo kutsua zuen eta "el resto eran todos *entendidas*, esa *entiende* y te quedabas ahí"¹¹.

Terminologiaren gainean egindako hainbat hausnarketa eta hastapen lan haietan eztabaidatzen ziren bestelako aferak ekarri dizkigu gogora Imanol Minerrek:

Gu geu ere hasi gara hori guztia gabe. Egin dugun ariketa izan da mahaira ekarri, azalera ekarri, eta horretaz bizi urteetan barrena bizi izan ditugun momentu desberdinetan. Nik "LGTBI" baino gehiago sexu-askapena esango nuke [...] Ze "LGTBI" gero deitu diogu eta bada modu instituzional batean gauzak izendatzeko modu bat, baino, egia esan... Hori azken urteetan egin dugun bide bat da. Gehiago izan da sexu-askapenaren gainerako bide bat non maritxutasuna, lesbianotasuna, maribollotrans kontzeptuei forma instituzional eta onargarria eman zaie, eta hortik datoz sigla horiek, ezta? Nolabait izendatu behar teknikioki ere [...]. Eta hortik, terminologian, lexikoan eta esanahietan sekulako bila-kaera egon da. Oso aberatsa izan da, eta terminologia berria produzitu da eta termino berriak inkorporatzen goaz.

9 Mugimendu homofiloa Mendebaldeko Europan eta Estatu Batuetan Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortu zen bigarren mugimendu homosexuala izan zen, 1945etik 1960ko hamarkadaren amaierara arte, gutxi gorabehera. Talde horiek homosexual hitzaren alternatiba gisa hartu zuten, maitasuna (filia) nabarmentzeko, sexuaren ordez. (Movimiento homófilo. Wikipedia, 2023).

10 Euskaratuta: Guk ez genuen inoiz homosexual terminoa erabiltzen, izan ere, esatea izatea zen.

11 Gainerakoak jakitunak ziren, bazekitenak, eta hor geratzen zinen.

Testuinguru honetan, 1970. urtean, klandestinitatean martxan zegoen aktibista-talde batek Askapen Homosexualaren Espainiako Mugimendua (AHM)¹² sortu zuen, Armand de Fluvià eta beste partaide batzuen eskutik. Talde honen helburu nagusi izan zen garaiko eztabaidak biltzea, estatuan zehar sexu-askapenerako mugimenduak sustatzea eta eskualde bakoitzean talde berriak sortzea. Estatuko talde ezberdinak Coordinadora de Frentes de Liberación Homosexual del Estado Español (COFLHEE) izeneko plataforman biltzen ziren eta bertan hainbat afera partekatzen ziren. Julenen hitzetan, “era mucho más lo que nos unía, que era la defensa de los derechos *gays y les*, vamos a decir así, porque *lo trans* quedaba un poco... ya fue como una oleada posterior”¹³. Mugimendu honen baitan, eztabaida-jardunaldiak ere egiten ziren eta terminologiaren edota ezkontzaren inguruko gaiak jorratzen ziren, Julenek azaldu moduan: “ya se discutía: matrimonio sí, matrimonio no, legalidad sí, legalidad no, subvenciones sí, subvenciones no... O sea, todo eso se debatía”¹⁴.

Estatu mailan emandako gertaera eta ekintzak medio, Euskal Herrian 1977. urtean sexu-askapenerako mugimenduak lehen urratsak eman zituen. Mugimendua 1979. urtean bermatu zen Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua (EHGAM) sortu zenean. Imanol Álvarez eta Antonio Quintana fundatzaileek 1977. urtean Bizkaian sortu zuten taldea eta 1979. urteko COFLHEEren bileraren ostean, Gipuzkoako taldea bultzatu zen. Honela bildu zen sexu-askapenerako mugimendua pixkanaka gure eskualdean. Honakoa mugimendu pluralista, autonomo eta iraultzailetzat identifikatu zen.

79ko martxoan elkartu zen Julen EHGAM Gipuzkoan, eta militantziako lehen urte haiek nolakoak izan ziren kontatu digu: “en ese grupo de EHGAM Gipuzkoa, casi no había gente de Donosti, éramos todos de la provincia [...] se constituyó como tal, y trabajó durante muchos años, hubo gente de Errenteria muy importante”¹⁵.

Julenek kontatzen duen moduan, 70eko hamarkadan sexu-askapenerako mugimenduan hainbat identitate batzen ziren eta euren helburuak komunak ziren. Ezaugarri eta beharren arabera, lanketak esparru ezberdinetatik egiten ziren, beti matxismoa eta (zishetero) sexismoa etsaia zirelarik. Zentzu honetan, hastapen lanetan emakumeek eta Orereta-Errenteriako pertsonak izan zuten paper erabakigarria ere azpimarratu du Julenek:

12 Movimiento Español de Liberación Homosexual (MELH).

13 Euskaratua: Askoz gehiago zen batzen gintuena, hau da, gay-en eta les-en eskubideen defentsa, trans kontuak geroagoko bolada izan zen hori.

14 Euskaratuta: Eztabaidatzen zegoen: ezkontza bai, ezkontza ez, legezketasuna bai, legezketasuna ez, dirulaguntzak bai, dirulaguntzarik ez... Hau da, hori guztia eztabaidatzen zen.

15 Euskaratuta: Gipuzkoako EHGAMeko talde horretan ia ez zegoen Donostiako jenderik, denak probintziakoak ginen [...] eratu eta urte askoan lan egin zuen, Errenteriako jendea oso garrantzitsua izan zen.

Hori izan zen mugitzera eraman gintuen aferetako bat. Beti zeuden Mikel Martin, Santi Vicente Altxu, La Madelón deitzen genion, eta Emili Sánchez ere. Hirurak, bakoitzak bere arloan, erreferente bat ziren, oso aktibismo sendokoak ziren. Ez bakarrik hiru haiek, pertsona askoz gehiago zeuden, batez ere EHGAMen militatzen ari ziren emakumeak, EHGAMen mutil baino neska gehiago zegoelako ni sartu nintzenez, ezagutu nituenen. Eta Oarsoaldeko asko zeuden.

Era uno de los problemas que nos había llevado a movernos. Siempre estaban Mikel Martin, Santi Vicente Altxu, a quien llamábamos La Madelón, y Emili Sánchez. Los tres, cada uno en su campo, eran un referente, de un activismo muy fuerte. No solamente ellos tres, había muchas más personas, sobre todo mujeres, que militaban en EHGAM, porque había más chicas que chicos en EHGAM cuando entré, cuando les conocí. Y había muchas de Oarsoaldea.

Gipuzkoako taldeak egindako lanak pixkanaka islatzen joan ziren eta 1979an EHGAM Gipuzkoako taldeak Harrotasun Eguneko lehen manifestazioa antolatu zuen. Aurretik, Estatu mailan, Sevillan, Bartzelonan, Madrilen edota Bilbon manifestazioak egon ziren, baina Gipuzkoan ez zen halakorik gertatu urte hartaraino. COFLHEE koordinadorak ere bultzatu zuen Gipuzkoako lehen manifestazioa, izan ere, taldeak burutzen zituen bileretan aldarrikapenak egiteko eta manifestazioak burutzeko herri eta hiri aproposenak zein ziren adosten zuten eta haietan biltzen ziren. 1979an, COFLHEE Donostian bildu zen, eta honek eskualdeko sexu-askapen mugimenduari bultzada eman zion.



3. Irudia. 1995ean COFLHEE Orereta-Errenterian bildu zenean. Iturria: EHGAM.

Aurrerago, 1995ean COFLHEE Orereta-Erreterian ere bildu zen, herriko jendearen eragin eta militantziak izan zuen garrantziaren ondorioz (ikus 3. irudia). Bilera horretan Zigor-kode berriak homofobia eta xenofobia delitu gisa barne hartzea eskatzen da.

1.3. Sua piztu zuten txinpartak

Sexu-askapenaren mugimenduaren lehen urrats haiek erabakigarriak izan ziren Gipuzkoako, Oarsoaldeako eta Orereta-Erreteriko errealitateak eraldatzen. Lehen momentu haietan, ordea, borrokari sua emango zion gertakari historikoa gauzatu zen: Francisen (Vicente Vellido Santamariaren) erailketa polizia baten eskutik. Gertakarian murgildu aurretik, garaiko testuingurua zizelkatzen jarraitu beharra dugu, honakoak izan zuen eragin erabakigarria ondo ulertzekotan.

1.3.1. Testuinguru soziopolitiko

Sexu-askapen mugimenduaren baitan biltzen ari ziren hainbat eragilek burututako lehen hausnarketa eta ekintzez gain, Euskal Herrian 70eko hamarkadan testuinguru soziopolitiko berotzen hasia zegoela esatea gutxi da. Trantsizioaren garaian Euskal Herrian gure kultura, hizkuntza eta ohituren aldeko borrokak hazkundera izan zuen eta hainbat gertakari soziopolitikok giroa tentsionatu zuten. Talde paramilitarren eraso eta bortxaketak agerikoak izan ziren garai honetan, bai eta hauei zuzenean emandako erantzunak ere. Eraso hauen inguruan, eta bereziki sexu-erasoen inguruan jardun dute gure elkarrizketatuek.

Zentzu honetan, hainbat herritan bildu ziren eraso gehienak, baina sexu-erasoei dagokienean, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eta Bermeon, Hernanin, Erreteria-Oreteran eta Irunen sarraskiak handiak izan ziren. Eraso eta bortxaketa hauen artean, Estatuak hainbat tortura eta bahiketa onartu ditu, baina talde paramilitarrek burututako beste hainbeste isilpean geratu dira. Ildo honetan, Espainiako Segurtasun Indarrek bortizki erreprimitu zituzten sexu-eraso horien aurkako manifestazio ia guztiak. Bortxaketak hiru erakundek aldarrikatu zituzten: GAE (Grupos Armados Españoles), GAR (*Talde Armatu Iraultzailea*) eta BVE (*Batallón Vasco Español*).

Orereta-Erreteriarren kasuan, hainbat gertakari geratu zaizkigu gure memorian. Esaterako, 1978ko uztailearen 13an Polizia Armatuko indarrek, Miranda de Ebron egoitza zutenak, Orereta-Erreteriko establezimendu publikoak (ikus 4. irudia) eta etxe pribatuak suntsitu zituzten:

Berrogeita hamar denda eta atari baino gehiago kaltetu zituen poliziaren ekintza suntsitzaileak, nahiz eta hondatutako beirate kopurua askoz handiagoa izan. Gomazko piloten tiroak, batzuetan, pisuen kontra zuzendu ziren, kristalak eta pertsianak hautsiz. Lekuko batek adierazi zuenez, «izututa lokal eta etxe barruetan giltzapetu eta gertatzen ari zena ez ikusteko ahaleginak egin zituzten». (Rubio Herrero, 2018).

Más de cincuenta comercios y portales fueron afectados por la acción destructora de la policía, aunque el número de cristalerías destruidas es muy superior. Los disparos de pelotas de goma fueron dirigidos, en ocasiones, contra los pisos, rompiendo cristales y persianas. «trataban, manifestó un testigo, que nos encerráramos aterrorizados y no pudiéramos ver nada». (Rubio Herrero, 2018).



4. Irudia. Militarrak denda batean lapurtzen, 1978. Naiz egunkaritik ateratako argazkia.

lñaki Egañak (2014) honela deskribatzen du Alaberga auzoan gauzatutako indarkeria ekintzetako beste bat:

1979ko azaroaren erdialdean, 16 eta 17 urteko bikote bat atxilotu zuten Alaberga auzoan, Oreretan. Hormaren kontra jarrita, miatu egin zituzten, dokumentazioa eskatzen zieten bitartean. Neskak ez zeraman dokumentazioa gainean, eta atxilotu egin zuten. Lezoko kaian bortxatu egin zuten. Hurrengo egunean, Polizia haren etxera joan zen.

1978an eta 1979an, Estatuko indarkeria politikoaren ondorioz hildakoen kopurua aurreko aldiko maila berean mantendu zen, urtean 30 heriotza inguru izan baitziren. 1979an nabarmen jaitsi zen poliziaren esku bizia galdu zuten pertsonen kopurua, batez ere manifestazioetan, baina beherkada hori estatu-terrorismoak eta kontrol

lik gabeko terrorismoak eraildakoen kopuruak nabarmen gora egin izanarekin konpenttsatu zen.

1977-1979 aldian, banda horien eta ordena publikoko indarren arteko mugak lausoak ziren: ezkerreko mobilizazioak erreprimitzeko ekintza bateratuak egiten zituzten, ultraeskuindarrek erabilitako armamentuaren zati bat poliziatik eta armadatik zetorren,

eta militante ultraeskuindar ugari militarrek edo poliziak ziren aldi berean. Banda faxistek autonomia politiko propioa zuten, eta ez zeuden Estatuaren aparatuek antolatuta edo gidatuta. Horrek bereizten zituen antzeko beste fenomeno batetik, hots, Unión de Centro Democrático-n gobernuak antolatu eta zuzendutako estatu-terroristotik, batez ere Euskadin egin baitzen.

1980an Estatu terrorismoak atentatu mota berri bat hasi zuen: emakume ezkertiar edo independentisten bortxaketa eta hilketa Euskal Herrian.

1980 izan zen estatu-terrorismoaren eta talde faxisten jarduera handieneko urtea, eta 31 pertsona hil zituzten. ETAK¹⁶ hildako gehien izan zituen urtea ere izan zen: 80 pertsona, gehienak polizia eta militar kidegoetako kideak. Atentatu ugarien artean, aipatze-koak dira Yolanda Gonzalez ikaslearen bahiketa eta hilketa Madrilen, eta Barakaldoko (Bizkaia) ezker independentistako taberna batean bomba batek eztanda egin ostean hildako lau pertsonak.

Ezker erradikalak publikoki salatu zituen BVEk, Barne Ministerioak antolatutako taldeak, egindako hilketa ugariak, beste atentatu mota bat azpimarratuz: euskal ezker independentistaren aldeko emakumeen bortxaketa eta hilketa, sektore sozial hori izutzeko helburuarekin. 1980ko urtarrilean, lau emakume bortxatu zituzten pertsona armatuek Euskadin, eta galdeketak egin zizkieten. Horietako bat, Ana Teresa Berrueta, hil egin zuten (ikus 5. irudia). Urte horretan bertan, María José Bravo 16 urteko gaztea bere mutil-lagunarekin zebilen kaletik, BVEko komando batek gerturatu zitzaizenean. Javier Ruedari jipioia eman zioten, eta larri ospitaleratu behar izan zuten. Maria Jose Bravo bahitu, bortxatu eta hil egin zuten (ikus 6. irudia).



Talde paramilitarren botere-abusuaren, errepresioaren eta indarkeriaren aurka borrokatzeko altxatu zen euskal gizartea. Une horretan, mugimendu feminista geroz eta indar gehiago hartzen joan zen, emakume izanagatik egiten ziren bortxaketak euskal gizarteak arazo propio bezala hartu baitzuen (Rexval, 2018).

5. Irudia. Egin egunkariko titularrak "Bortxatutako eta hildako gaztea [emakumea] Lujuan". 1980ko ekaina.

16 Euskadi Ta Askatasuna (ETA) Euskal Herriaren independentzia eta sozialismoa lortu nahi zuen erakunde armatu klandestinoa izan zen. 1958. urtean sortu eta 2018. urtean desegin egin zen (Egaña, 2017).



6. Irudia. Mari Jose Bravo, 1980ko maiatzean eraila. Iturria: Covite.

Testuinguru honetan, mugimendu feministek salaketa ugari burutu zituzten. Izan ere, jasandako indarkeria herria zigortzeko operazioetan islatzen zen eta hauek emakumean zituzten eraso puntu. Ondorioz, mugimendu feministak antolatzekeo beharra ikusi eta bertatik aurrerago sexu-askapenarekin zerikusia izango duten aferak jorratzeko aukera izango dute. Honela oroitzen du Asunek garai hura: "fue una lucha muy-muy gorda estando todos los parapoliciales detrás, pero también fue una lucha que nos permitió juntarnos y caer bien"¹⁷. Honela ematen dio segida Txelo Berrak:

Oso ondo gogoratzen dut herrian bortxaketak gertatu ziren une hura. Nik 15 edo 16 urte nituen, eta 14 bat urteko neskatilak bortxatzen ari ziren, eta argi dago eskuin muturrekoak zirela, Guardia Zibilekoak, edo nahi diozuen abizena jarri [...]. Baina argi zegoen. Eta gogoan dut kale guztietan egin zen manifestazioa, "kale-hartzzea" deitu zena, gaueko manifestazioa izan zen. Orduan, Euskal Herri osoko feministak etorri ziren. Eta milaka pertsonen parte-hartu zuten manifestazioan, auzo guztietatik zehar zuziekin, gauez, eta super izugarria izan zen.

Recuerdo muy bien el momento en que se cometieron las violaciones en el pueblo. Yo tenía 15 o 16 años y las niñas a las que estaban violando 14 o así, y está claro que eran de extrema derecha, de la Guardia Civil, o el apellido que queráis ponerle [...]. Pero estaba claro. Y recuerdo la manifestación que se hizo en todas las calles, la llamada "toma de calle", y fue una manifestación nocturna. Entonces, vinieron las feministas de toda Euskal Herria. Y fue una manifestación de miles de personas que iban recorriendo todos los barrios con antorchas a la noche, y fue super impresionante.

17 Euskaratuta: Borroka oso potoloa izan zen, parapolizial guztiak atzetik zebiltzan, baina elkartu eta harrera ona izateko aukera ere eman zigun borroka izan zen.

Oarso Bidasoako Hitzan (2020) ere Txelok honakoa azpimarratzen du:

Mari Jose Bravo eta Ana Tere Berruetaren kasuak ditugu garaiko gertakarien adibide latzenak -16 urte zituen Bravok eta Donostian bortxatu eta hil zuen Battallón Vasco Españolak; Berruetak, 19 urte zituen eta Loiuin bortxatu eta hil zuen GAE talde parapolizialak.

Feminismoaz gain, ekologismoa, sexu-askapen mugimendua eta antimilitarismoa bezalako beste hainbat borroka gauzatzen ari ziren gurean, euren artean ezinbestean gurutzatu zirenak. Elkarrekintza hauek gehiago batu eta hainbat mugimendurentzat erabakigarri izango zen gertakaria jazo zen: Gladys del Estal Ferreño aktibista ekologista hil zuen Guardia Zibilak Tuteran, protesta antimilitarista eta antinuklear baten errepresioan.

Gladysen 23 urte zituen hil zutenean. Venezuelan jaioa, Donostiako Egia auzoan bizi zen eta programatzaile informatikoa zen (ikus 7. irudia). Egiako Talde Ekologistako eta Euskal Herriko nuklearren aurkako batzordeetako kide zen. 1979ko ekainaren 3an Energia Nuklearraren aurkako Nazioarteko Jardunaldian parte hartu zuen, Tuteran.



7. Irudia. Gladys del Estalen argazkia. Iturria: *Público* aldizkaria (online).

"Milaka pertsona manifestatu ziren Plan Energetiko Nazionalaren aurka, Lemoizko zentrala eta gainerako proiektu nuklearrak, Tuteran egitekoa zena barne, geldiarazteko eskatuz. Gainera, mobilizazioak izaera antimilitarista zuten, Bardeako tiro-poligonoren aurka ere protesta egiten baitzen" (*Arainfo* aldizkari librea, 2022).

Gladysen erailketaren ondoren, protestak eta greba orokorra deitu ziren Euskal Herrian. Tuterako Udaleko 21 zinegotziek aho batez erabaki zuten Barne Ministroaren, gobernadore zibilaren eta agintari arduradunen dimisioa, polizia erretiratzea eta gorputz errepresiboak desagitea, bai eta Bardeako tiro poligonoko lurra Nafarroarentzat berreskuratzea eta zentral nuklear guztiak geldiaraztea ere.

Bi urte geroago, 1981ean, Gladysen hiltzaile José Martínez Salas guardia zibila epaitu zuten Iruñeko Auzitegian, "irregulartasunez betetako prozesu batean, eta 18 hilabete-ko espetxe-zigorra ezarri zioten, heriotza eragin zuen zuhurtziagabekeria ausartegiaren delitu baten egile izateagatik" (*Arainfo* aldizkari librea, 2022). Ez zuen kartzela zapaldu, eta handik bi hilabete eta erdira, Leopoldo Calvo Soteloren gobernuak Guardia Zibilaren Merituaren Gurutzearekin saritu zuen.

Gladysen heriotza ez zen alferrikakoa izan, haren eta beste askoren borrokak bazuen zentzua, eta gaur egun ez dago zentral nuklearrik Lemoizen, ezta Tuteran ere. Gertaera hau euskal mugimendu ekologistaren ikur bihurtu zen Trantsizio garaian, gaur egun arte.

1.3.2. Francisen erailketa

Gladysen hilketa eta astebete beranduago, Orereta-Errenteriako eta Euskal Herriko LGTBI+ memorian mugarri eta erreferente izango zen gertaera latza eman zen: Vicente Vadillo Santamaríaren, hots, Francisen (ikus 8. irudia), erailketa.

1979ko ekainaren 10eko goizaldean, *Francis* izenez ezaguna zen Orereta-Errenteriako herritarra herriko Donostia kaleko Apolo klubean (ikus 9. eta 10. irudiak) tiro batez hil zuen polizia nazional batek. Francis artista ezagun bat zen eta hilketaren momentuan Iztietan auzoko pentsio batean ostatu hartzen zuen. Duela gutxi argitaratutako *Francis* (Susperregi, 2023) liburuan irakur dezakegunez, Francis, jatorriz Lopera (Jaén) herrikoa (ikus 5. eranskina), garrantzi handiko artista izan zen estatu mailan, eta "emakumez" jantzita egiten zitu

tuen ikuskizunak, genero arauak urratuz. Testigantzarik hurbilenek "transformista" eta "bisexuala" zela adierazten dute (Susperregi, 2023).



8. Irudia. Francis. Iturria: Xabier Susperregi.



9. Irudia. Oreretako Apolo klubaren baso-azpikoa. Iturria: EHGAM.



10. Irudia. Francisen erailketa salatzeako Apolo klubaren parean egin zen kontzentrazioa. Iturria: EHGAM.

Julen Mendoza, Orereta-Errenteriako alkate ohiak, liburuaren hitzaurrean dioen bezala, Francisen hilketa ez da ulertzen garaiko testuinguru soziala kontuan hartu gabe. “Garai hartako Errenteriako indarkeria politikoaren eta ezegonkortasun sozialaren testuingurua” (Susperregi, 2023), hain zuzen. Heriotza hark, 70eko hamarkadaren bukaera horretan, errautsak astindu zituen. Alde batetik, polizia-
ren bertsio ofizialetan agenteak liskarrik ez zegoela eta nahi gabe tiro egin zuela kontatzen du. Baina Susperregik (2023) burututako ikerketan, Apoloko zerbitzariak bestelako zerbait kontatzen dute. Zerbitzarien hitzetan, poliziak festa-aretoa sartu nahi zuten, baina dagoeneko ixten ari ziren. Poliziak zerbitzariari pistolaz apuntatu, eta, Francisek, ondoan zegoela, bera tirokatzeko esan zion. Eta hala egin zuen. Gertakariaren ostean, garaiko egunkarietako albisteetan “Francis emakumez jantzitako gizon bat zela” aipatzen zuten eta horrek krimena justifikatu zuela ondorioztatu zuten (Mikela, 2021). Ikus daitekeenez, beraz, hainbat borroka gurutzatu ziren egun hartan eta honek ondorio sakona utzi zuen Orereta-Errenteria eta eskualdeko historian.

Eraiketaren biharamunean Ezohiko Plenoa egin zen Udaletxean gertakariak hausnartzeko. Herriko enparantzan Herri-Biltzarra ere beharrezko ekintzak antolatzeke (ikus 4. eranskina: Udalbatzarraren akta).

Gure ikerketaren eta lekukoen deklarazioen arabera honela gauzatu zen: liskarrik edota borrokarik gabe jazo zen. Gertakariaren egileak, Renterían destinatutako Polizia Nazional batek, Antonio Caba Laguna izenekoak, agente gisa esleitua zuen pistola erakutsi zion, eta lehen lekukoari tiro egingo ziola esan zion, eta hildakoak, Vicente Vadillo jaunak, tiroa berari zuzentzeko erantzun zion. Beraz, arma lehen testiguaren kidearengana desbideratu zuenean, -adiskidetasunez hitz egiten aritu ziren lehenagotik-, honek tiro egin zuen [...], eta berehala hil zen.

Los hechos, según nuestras indagaciones y declaraciones de los testigos presenciales, se produjeron sin mediar riña, pelea o altercado alguno, solamente que el autor del hecho, un Policía Nacional, destinado en Rentería, llamado Antonio Caba Laguna exhibió la pistola que tenía asignada como agente de la autoridad y le dijo al primer testigo que le iba a pegar un tiro, contestando el muerto Sr. Vicente Vadillo, se lo diera a él, por lo que al desviar el arma contra su acompañante, que anteriormente ya habían estado hablando amigablemente, ésta se disparó, [...] produciéndose la muerte instantánea.

Biltzarrak ospatzen ari ziren momentuan, polizia armatuak indarrez sartu ziren herriko plazan eta Udaletxean eta bilerak geldiarazi zituzten. Liskarrek ordubete inguru iraun zuten, eta gaueko 23:00etan, udalbatzarrak jarraitu zuen. Honela jasotzen da Ezohiko Batzarreko aktan gertatutakoa:

Beste behin ere, Euskadi, eta zehazki Rentería, OPI (Ordena Publikoko Indarrak) delakoen indarkeria instituzional argi, basati eta basatiaren biktima izan da .

Una vez más Euskadi y en concreto Rentería ha sido víctima de una clara, brutal y salvaje violencia institucionalizada de las llamadas FOP (Fuerzas de Orden Público).

Hauk izan ziren batzarrak hartutako hitzarmenak:

- *Vicente Vadillo Santamaría biktimaren senideei gure atsekabea adieraztea.*
- *Gure gaitzespenik sendoena adieraztea Euskadin maiz gertatzen ari diren gertakari horien aurrean, eta erantzukizuna eskatzea, hartuko diren neurrien gaineko informazioa mahai gainean izanik.*
- *Expresar nuestro más hondo pesar a los familiares de la víctima Vicente Vadillo Santamaría.*
- *Manifestar nuestra más enérgica repulsa ante estos hechos que tan frecuentemente se vienen desarrollando en Euskadi, exigiendo las responsabilidades al respecto, con información de las medidas adoptadas.*

- *Euskadin jarduten duten OPlak berehala kentzeko eskaera.*
- *Udalak bere udalerrian ordena publikoaren arloan dituen benetako eskumenak exijitzea.*
- *Renteriako Batzarrak astearteko, hilak 12, Greba Orokorreko deialdiaren gainean hartutako erabakiak bere gain hartzea.*
- *Aipatutako akordioak Euskadiko udaletxe guztietara bidaltzea, korporazio honi elkartasuna adieraz diezaioten.*
- *Exigir la retirada inmediata de las llamadas FOP operantes en Euskadi.*
- *Exigir competencias reales del Ayuntamiento en materia de Orden Público en su Municipio.*
- *Asumir las decisiones tomadas por la Asamblea de Rentería con respecto a la convocatoria de la Huelga General para el martes día 12.*
- *Enviar estos acuerdos a todos los Ayuntamientos de Euskadi para que se solidaricen con esta corporación.*

Francisen heriotza salatzen atera zen lehen aldiz kalera EHGAM Gipuzkoako taldea 1979ko ekainaren 11n Orereta-Errenterian eta 12an Donostian, “hemen gaude eta ez gara ezkututzen” lelopean. Bi manifestazio horietaz gain, hilaren 14an Orereta-Errenterian berriz atera ziren Gladys del Estal, Francis eta Angelen¹⁸ hilketak salatzen (ikus 11. irudia). Ikusten denez, heriotzak oihartzun handia izan zuen eta hainbat manifestazio jendetsu gauzatu ziren.

Francisen krimen horrek eragin handia izan zuen eta hainbat ekitaldi egin ziren Francisen heriotza medio. EHGAM kolektiboarentzat inflexio puntu bat izan zen honakoa, eta bere borroka indartzeko detonatzailea, ostean ikusiko dugun moduan.



11. Irudia. 1979ko ekainaren 14ko manifestazioa, Orereta-Errenterian, EHGAMen eskutik. Iturria: EHGAM.

18 ETAK Ángel Baños hil zuen ekainaren 13an Lemoizko zentral nuklearran.

2. Francisen borrokari segida emanez: 80ko eta 90eko hamarkadak

2.1. Testuinguru zabalean kokatzen

2.1.1. EHGAM

Lehen aipatu bezala, Francisen eraiketa mugarrria izan zen Orereta-Erreterian, Oarsoaldean bai eta Euskal Herria osoan ere, eta Julenek dioen moduan, erabakigarria EHGAM Gipuzkoa bermatu ahal izateko. Zentzu honetan, EHGAMen ekintzak erabakigarriak izan dira denboran zehar herri zein eskualde mailan eta, beraz, Orereta-Erreteria zein Oarsoaldeko historia ulertzeko ezinbesteko. Horregatik da azpimarragarria Gipuzkoako taldea Francisen eraiketaren ostean eratzea. Izan ere, gertakari honek sexu-askapenerako mugimenduak berpiztu eta borroka egiten jarraitzeko balio izan zuen. Era berean, ikusgaitasuna ere eman zien mugimendu hauei:

Francisena oso garrantzitsua izan zen, izan ere, hortik aurrera hedabideetan ateratzen hasi ginen. Esate baterako, Euskal Herriko Punto y Hora aldizkarian gure lehenengo elkarrizketa atera zen. Ordiziako Patxi, Erreterriako beste Julen bat eta hirurok elkarrizketatu gintuzten. EHGAMen jende pila zegoen, batzuk etortzen ziren eta beste batzuek alde egiten zuten. Jendea eza gutzeko ere balio zuen.

Lo de Francis fue muy importante, ya que a partir de ahí empezamos a salir en los medios de comunicación. Por ejemplo, en la revista Punto y Hora del País Vasco salió nuestra primera entrevista. Nos entrevistaron a Patxi de Ordizia, a otro Julen de Erreterria y a mí. En EHGAM había mucha gente, algunos venían y otros se iban. Servía también para conocer gente.

Punto y Hora de Euskal Herria aldizkarian aipatutako elkarrizketa (ikus 12. irudia) Francisena gertatu eta bi aste igaro ondoren izan zen, 1979ko ekainaren 21ean (Punto y Hora de Euskal Herria, 1979). Julenek honela deskribatzen du elkarrizketa hura:

Adibidez, kazetariak esan zigun: "bueno, eta zer diozue Ingalaterraz? Orain genero bereko pertsonak ezkon daitezke eta". Gezurra zen, baina guk galdera guztiei erantzun genien. Esan nahi dut, garai hartako dokumentazioa eta historia oso ezezagokorra zen.

Por ejemplo, el periodista nos dijo: "bueno, ¿y qué decís de Inglaterra? Ahora pueden casarse personas del mismo género". Era mentira, pero nosotros respondimos a todas las preguntas. Quiero decir, la documentación y la historia de aquella época eran muy inestables.

Modu batean, Ingalaterran bikote gayak ezkondutuz zitezkeen mito sinisten zenuen eta kitto. Baina, eskubide batzuk bazeuden, bai, baina ez hainbeste.

De alguna manera, creías en el mito de que en Inglaterra las parejas gays se podían casar. Había ciertos derechos, pero no tantos.

Julenek aipatu moduan, Erresuma Batuan genero bereko pertsonen arteko batasun zibilek legezko onarpena lortu zuten 2005eko abenduaren 5ean, Ingalaterrak eta Gales-ek indarrean jarri ondoren (Soriano, 2011). Ez, ordea, 1979. urtean.



12. Irudia. Punto y Hora de Euskal Herria aldizkariaren Apoyo popular a los homosexuales artikulua. Iturria: Julen Zabala.

Elkarrizketa horren ostean, sexu-askapenerako mugimenduak, EHGAMek bultzatutakoak barne, ikusgarritasun handia izango du. Mugimendu honek Orereta-Errenterian ere presentzia handia izan zuen eta bertan hainbat ekitaldi antolatu ziren:

Gogoan dut hitzaldi bat eman nuela hemen [...], gaur egungo Foruen Plazan [ez zuela] gaur egun dagoenaren antzik.

Recuerdo haber dado una charla aquí [...], en la actual Plaza de los Fueros [que] no se parecía a la que hay hoy en día.

Han bazegoen lokal bat, hutsik zegoena, ez dakit zer zen [...] baina hor izan zen EHGAMen lehen hitzaldia, 79. urtearen amaieran. Primeran oroitzen dut leku askotara gonbidatzen gintuztela, eta bertaraten ginela. Eta Oreretak zorte handia izan du bertan izandako jendearekin... hau da, gu gonbidatzen gintuzten gauzak egitera.

Allí había un local, que estaba vacío, no sé qué era [...] pero fue ahí donde se celebró la primera charla de EHGAM, que tuvo lugar a finales del 79. Recuerdo perfectamente que nos invitaban a muchos sitios y nos acercábamos. Orereta siempre ha tenido la suerte de contar con gente [activa] que nos invitaba a hacer cosas.

Orereta-Erreterian mugimendu handia eman zen, Euskal Herri osoko LGTBI+ kolektiboa ere esnatzen hasi zen. Esate baterako, Orereta-Erreterria eta eskualdeko jendeari esker eta Nafarroarekin zeukaten harremana medio, Tuterara, Lizarrara edota Tafallara zabaldu ziren LGTBI+ mugimenduari lotutako ekintzak eta jarduerak. Badirudi urte nahiko emankorrak eta aberatsak izan zirela. Hala eta guztiz ere, elkarrizketatuek azpimarratu dute EHGAMen oreretarren presentzia handia bazen ere, talde hau Gipuzkoako hiriburuan antolatzen eta kudeatzen zen. Imanolek hala azaltzen du:

Donostian elkartzen ziren, eta herrialde mailan funtzionatzen zuten neurri handi batean. Oreretan, Francisen heriotza salatzeke gertakarietatik haratago... herrian talde bezala nik dakidala ez. Feministak bai, asanblea eta lesbianen taldea herri mailan bai egon dira modu antolatuago eta jarraituago batean, eta agian hori ez da hain ezaguna. Agian Memorandarekin ari dira hori pixka bat ikertzen eta azaleratzen. Gizonen 'G' siglari dagokionean, agian EHGAMen haritik izan da modu jarraitu batean, eta ez hainbeste Oreretan. Herrialde mailan hitzorduak eta Donostian egiten ziren, baina, klaro, oreretarren presentzia handiarekin. Eta hor daude Mikel Martin, Santiago Vicente Altxu.

Aintzat hartu behar dugu, ordea, "EHGAM aurretik egon [direla] mugimendu edo saiakerak, baina [ez zuten jarraipenik izan], bide jarraitua izan duena EHGAM izan da" dio Imanolek. Alegia, sexu-askapenerako mugimendu antolatua sortu aurretik honako eskubideak aldarrikatzen zituzten ageriko pertsonak ere bazeuden. Julenek gogora ekartzen du Petri (ikus 13. irudia), mugimendu antolatuen aurretik horien alde borrokatzen zuen erreferentea, bere trans identitatea argi aldarrikatzen zuen emakumea.



13. Irudia. Petri LGBTBI+ harrotasunaren nazioarteko egunean. Iturria: EHGAM.

Petra Mendiluce, Petri ezizenez ere ezaguna, Andoaingoa zen, eta guraso euskaldun eta baserritarrek adoptatu zuten txikia zenean. Donostian sozializatzen zuen eta garai hartako giro disidentean ezaguna zen. Julenen esanetan “oso emakume eta oso feminista” kontsideratzen zuen bere burua, eta ez zituen Ekainak 28 eta Martxoak 8-ko manifestazioak galtzen. Herrian erreferente bat izan zen sexu-askapen mugimendu zein mugimendu feministan. Nolanahi ere, esan beharra dago, Julenek azpimarratu moduan, marika eta bolleren artean errefus handia pairatu zuela. Halere, EHGAMen lekua aurkitu zuela dirudi eta Emili Martín Sánchez bezalako eragileekin harreman estua izan zuen.

Petrirekin batera militantzian ibilitakoa da Emili Martín Sánchez, Orereta-Errenteria-ko LGBTBI+ mugimenduen erreferente izendatu daitekeena. Francisen eraiketaren garaian militante izan zen eta honen ostean sexu-askapenaren borrokan sutsu aritu zen. Julenen hitzetan, 80ko hamarkadaz geroztik, Emili, Mikela, Petri, Madelon eta berak harreman estua izan zuten eta batera aritu ziren militantzian. Badirudi, gainera, trans errealitateen aldeko borrokan ere aritu zela eta bere lana biziki garrantzitsua izan zela. Julenek aitortza egin nahi izan dio, bai eta hamarkada haietan izan zuen papera azpimarratu ere.



14. Irudia. Emili Martin Sanchez, Ruestan (Zaragoza). Yesan urtegi bat egin nahi zutenean eta EHGM bertara protesta egitera joan zenean. Iturria: EHGM.

2.1.2. Giza Immunoeskasiaren Birusaren (GIB) /Hartutako Immuno Eskasiaren Sindromearen (HIES) krisia gurean

80ko hamarkadan Orereta-Erreterria eta Oarsoaldeko mugimenduak pizten hasi zirela esan genezake, beraz. Ikusgarritasun handiagoak, Francisen erailketak ekarritakoa, eta garaiko militantziak LGTBI+ borrokari bultzada eman zioten. Ez dugu ahaztu behar, ordea, garai hau konplexua izan zela mugimendu hauentzat. Besteak beste, Giza Immunoeskasiaren Birusaren/Hartutako Immuno Eskasiaren Sindromearen (GIB/HIES) krisi sakona gauzatu zen hamarkada hauetan eta honek gure testuinguruan oihartzuna izan zuen. Elkarrizketatuek atsekabetasunez oroitzen dute GIB/HIESaren krisiak ekarri zuena. EHGM Gipuzkoa hazten ari bazen ere, taldea bazterretan zegoen oraindik eta honek eragina izan zuen. Mahai-inguruko parte-hartzaileetako batek hala adierazi du:

Noski, ghetto bat zen. Ghetto batean bizi ginen non, klandestinoak, ilegalak ere baginen [...]. Gero urte ilun batzuk etorri ziren, 80ko hamarkada alegia. HIESaren kontuarekin, berriro ere ezkutatatu behar izan genuen, eta momentu batean lortu zen ikusgarritasun hori galdu genuen.

Pues claro que era un ghetto. Porque realmente vivíamos en un ghetto en el que también éramos clandestinas, estábamos ilegalizadas [...] Luego llegaron unos años muy negros, que son los 80. Con todo el tema del SIDA volvió de nuevo el ocultamiento, y la visibilidad que se había construido en un momento dado se perdió.

GIB/HIESaren agerpenak alarma soziosanitarioa piztu zuen nazioartean. Adituen aburuz, GIB/HIESaren krisiak LGTBI+ kolektiboa ez ezik gainerako gizartea zeharkatzen bazuen ere, kolektibo honetan izan zuen eragina modu ezberdinean gauzatu zen (Martín, 2009). Izan ere, hedabideek zabaltzen zuten informazioa estigmatu zutsatuta zegoen, kolektiboa kriminalizatzeko balio izan zuena. Aldi berean neofaxismoa estigma hori zabaltzen arduratu zen. Oso ohikoa zen GIB/HIESa “gay minbizia” bezala izendatzea eta homosexualitatearekin eta homosexualen zuten bizimoduarekin lotzea. Honen ondorioz, eskualde mailan EHGAM arduratu zen kontrakanpaina egiteaz. Argitalpenak, kanpainak, kondoiaren banaketa, hitzaldiak, prestakuntzak eta abarretaz arduratu zen, besteak beste (Riveiro, 2021). Esan beharra dago GIB/HIESaren aurkako borrokan zenbait gizarte-eragilek gidatu zutela, eta ez soilik gizon homosexualak. Hamarkada horretan trabestiek eta trans kolektiboaren barruan zeuden pertsonen bat egin zuten GIB/HIESaren aurkako borrokaarekin eta honakoa Estatu mailan nabarmen izan zen (Platero, 2009).

Horren eraginez, borroka horien ondorioz lege aldaketa batzuk eman ziren, kolektiboarentzat bereziki garrantzitsuak izan zirenak. Arriskugarritasunaren eta Gizarte-errehabilitazioaren legeak, alegia, aldaketak jasan zituen. 1983an, esaterako, Zigor-kodea aldatu zen “kastrazioa” despenalizatuz. Sexua berresleitzeko ebakuntzak legalizatu ziren. Hala eta guztiz ere, ebakuntza hauek sistema publikotik at geratu ziren eta klinika pribatuetan egitea ahalbidetu zen soilik (Platero, 2009). Mugimendu horien protestak eta aldarrikapenak GIB/HIESa eta arautik kanpo kokatzen ziren sexualitateen arteko lotura apurtzen ezinbestekoak izan ziren. 1988. urtean beste lege aldaketa bat eman zen Zigor-kodean, 431. artikulua ezabatuz.

Artikulu honetan honako hau islatzen zen: “edozein modutan lotsa edo ohitura onak mintzen dituen ekintzak zigortuko dira”. Honen indargabetzeak sexu eta genero arautik at kokatzen zirenen aurkako zigor-neurriak ezabatzea ekarri zuen, arian-arian adierazpen-askatasuna ahalbidetuz. Horrela, aipatutako legearen ezabatzea gauzatu zen azkenik, eta 1995. urtean legea indargabetu zen (Euskadi.eus, 2024). Lege aldaketa horiek guztiek GIB/HIESaren krisiari aurre egiteko balio izan zuten, izan ere, behar zuten ikusgarritasuna eta babes soziala eskuratzen joan ziren. Aldi berean, zigor-neurriak arintzen joan ziren bitartean, arautik at zeuden pertsona eta erlazioak gutxinaka onartzen hasi ziren (Riveiro, 2021).

Zentzu horretan, Orereta-Erreterria ere lehen lerroan egon zen, Julenek azaltzen duen moduan:

Egia da Renten ezaugarri berezi batzuk egon direla urte batzuetan zehar, baina batez ere hemen Goiko, Mikel edota Madelon bezalako jendea zegoelako. Esate baterako, abenduaren 1a, GIB/HIESaren aurkako nazioarteko eguna ospatu zen lehen urtean, Renten egin zen ekitaldia, Donostian baino lehenago. Egun berean, baina lehenbizi hemen. Hori 2000. urtean izan zen.

Es cierto que en Rente ha habido algunas características especiales durante una serie de años, pero sobre todo porque aquí había gente como Goiko, Mikel o Madelon. Por ejemplo, el primer año de la celebración del 1 de diciembre, día internacional contra el VIH/SIDA, el evento se celebró en Rente, antes que en Donosti. El mismo día, pero primero aquí. Eso fue en el año 2000.

Alfredo Goikoetxea¹⁹, Goiko ezizenez ezaguna, Madelon eta Mikela bezalako eragile eta militanteak (ikus 15. irudia), beraz, GIB/HIESaren krisian gailendu eta kriminalizazioaren eta estigmaren borrokan giltzarri izan ziren. Eta hauek ekarri zuten borroka herrira, bertatik lan egin eta antolatuz. Era berean, Orereta-Errenteriako pertsonen herrian bertan mugimendua antolatzearen aldeko apustua egin zutela esan genezake.



15. Irudia. Madelon eta Mikela. Iturria: EHGAM.

GIB/HIESaren egoera aldatzen da guztiz 1996. urtean GIB/HIESa tratatzeko sendagaiak garatzen dituztenean (Sidálava, d.g.).

19 Goikok Mikela eta Madelonekin topo egin zuen Oreretako Zintzilik Irrati librea irratsaioak grabatzen hasi zirenean.

2.1.3. Emakumeen iraultzak: ESAM, Donostiako Asanblada, Zamalbide eta bestelakoak

1979an, mugimendu feministatik abiatuta saiatuko ziren lehenengo aldirik lesbianak euren talde propioa antolatzen. Ikusten denez, mugimendu feministako dinamikak ez zituen erabat gogobetetzen: lehentasuna beste arazo batzuek zuten feministen artean, eta, euren iritzirako lesbianismoa ez zen behar bezala asumitzen.

Eztabaida prozesu zabala irekiko zuen lehenengo talde hark ESAM izena hartu zuen. Emakume Asanbladatik eta Asanblada Independentetik zetorren jendea osatuta (...) jendeak, gizarteko giroa ikusita beldurra baitzion kalera ateratzea-ri. Azkenean, porrot egin zuen ESAMen saioak.

Aldi berean, EHGAMen inguruan zeuden antolatuta lesbiana batzuk, feministak izan arren, euren aukera sexualaren aldarrikapenari garrantzi handiagoa ematen ziotenak. Hauek ere, ez zeuden erabat gustura, emakume eta feminista gisa aurrera egiteko hori ez zela gunerik egokiena ikusten baitzuten.

1983an gertakari garrantzitsua jazo zen. Donostian, lesbianismoari buruzko lehenengo mintegia egin ondoren, Zamalbiden gai honen inguruko jardunaldiak antolatu ziren. Mugimendu feministako zein EHGAMeko kide zirenek hartu zuten parte bertan. Antolaketa arazoak, eta betiko eztabaida sortu ziren hor ere: mugimendu feministan antolatzea edota gay taldeetan, zer zen hobea (Eskisabel, 1994, 22. or.).

Ikusi dugun moduan, beraz, EHGAMen eraketa eta GIB/HIES borroka izan ziren 80-90eko hamarkadetako gertakari nagusi. Borroka honetan ere lesbofeminismoak parte hartu zuela aitortu beharra dago.

EHGAMekin batera, feminista eta lesbianen taldeen presentziak ere garrantzi handia izan zuen herrian, eskualdean eta baita Euskal Herrian ere. Mugimendu feministen atzean, lesbianak ere bazeuden, eta euren ekintzak erabakigarriak izan ziren mugimendua aurrera eramateko. LGTBI+ mugimenduan ere lesbianen eta feministen mugimenduek eragina izan zuten eta biek elkarreraginean jardun zuten (Villar, 2005). Herriko Memorandura ekimenari esker, historia hori berreskuratzeko ahaleginak egin dira. Inanolek hala azaltzen du:

Sexu-askapen borroka dator feminismoaren eskutik, feminismoaren ondoren, atzetik. Garbi. Beti horrela aitortu dugu eta horrela da. Eta LGTBI politikak, eta atzetik datozen zera guztiak, denak datoz feminismoaren atzetik, ez? Eta Euskal

Herrian ere, historian ere horrela da. Gure genealogia feministetan, esate baterako, oso ondo kontatua dago nola euskal mugimendu feminista Lapurdin hasten den 70etan, eta lehenengo talde feminista hark dagoeneko generoa-klase-arraza gaiak zeratu zituen, jarri zituen bere gogoetan, eztabaidatan. Orduan, sexu-askapen mugimenduak sortzen dira segidan, oso azkar, berehala, baina gai horiek dagoeneko mugimendu feministaren baitan gaineratuak zeuden.

Orereta-Erreterrian, lesbianen eta feministen mugimendu horien barruan ibili dira Txelo Berra eta Asun Urbieta, eta euren testigantzak herri honen konfigurazioa ulertzeko baliagarriak egingo zaizkigu. Txelok herriko sexu-askapenaren militantziaren gaineko hainbat hausnarketa utzi dizkigu hurrengo aipuan:

Gogoan dut han militatzen zuen jendeari entzuten niona. EHGAMeko lagunak nituen, eta denak [feminista] kolektibokoak ziren, eta ez zuten elkarren artean arazorik. Nik uste dut badagoela jende bat, EHGAMen hasia izanik, eremu ez-misto baten bila joateko apustua egiten duena, eta beste jende bat, Lesbianen Kolektiboa zuzenean sortzen duena, ez duelako gune misto batean egon nahi.

Recuerdo lo que oía a la gente que militaba allí. Tenía amigas de EHGAM y todas eran del colectivo [feminista], pero no estaban enfrentadas. Yo creo que hay una gente que, habiendo empezado en EHGAM, hace una apuesta por irse buscando un espacio no mixto y otra gente que crea directamente el Colectivo de Lesbianas porque no quiere estar en un espacio mixto.

Txelok kontatzen digunez, Orereta-Erreterria eta Oarsoaldeko historian emakumeen rola erabakigarria izan da. Txelo ez zen egon EHGAMeko lehenengo urteetan, baina ondo oroitzen ditu bertan militatzen zuten emakume batzuen testigantzak. Bere hitzetan, emakumeen presentzia handia bazen ere, gizonek izan zuten presentzialitatea gatazkatsua izan zen. Izan ere, historia maskulinoa izan da, eta transmisio horretan protagonista gehienak gizonak izan dira; emakumeek –baita zisheterodisidenteek ere– egon dutenari garrantzi gutxi eman zaio. Hala kontatzen digu:

Beraiek aipatzen zutena zera zen, feminismo asko falta zitzaie. Eta benetako feminismoa. Zera, gizon hauek oso borondate onekoak izan zitezkeen, baina nabaritzen zen irrista egiten zutela, batez ere hasieran.

Lo que comentaban era que les faltaba mucho feminismo. Y del real. Quiero decir, que podían ser tíos con muy buena voluntad, pero se les notaba que patinaban un poquito, sobre todo al principio.

Gero uste dut asko ikasi zutela, baina historia feministaz eta emakumeetaz... Onkeriatik, e! Ez kritika bat egitetik. Baina lesbianen mugimendua fagocitatzaren zuten. Noski, beti beste gauza batzuei lehentasuna ematen zaien espazio batean bazaude, zaila da.

Luego creo que aprendieron mucho, pero de la historia feminista y de las mujeres... ¡Desde el buenismo, eh! No desde la crítica. Pero fagocitaban el movimiento de lesbianas. Evidentemente, porque si estás en un espacio en el que se da siempre prioridad a otras cosas, es complicado.

Antzekoa esan digu Julenek horretaz hitz egiten digunean. Alegia, EHGAMeko giroa oso maskulino bilakatu zen eta honek hainbat zailtasun suposatu zituen:

Emakumeen taldeak ikusi zuen, 1981. edo 1982. urtean, EHGAM zela... esango dugu, oso matxista, bazituela ezaugarri batzuk oso gayak zirenak. Ez zen hemen soilik gertatu, Gipuzkoan diot, beste leku batzuetan ere gertatu zen. Nik ezagutzen dut, hemengo, Errenteriako, emakumeen taldea. Horietako askok EHGAMen militatzen zuten, bistaz ezagutzen ditut, baina ez dut kontakku handirik eduki beraiekin... Adibidez, atzo, Mikelen omenezko ekitaldian²⁰ ia denak zeuden, honekin esan nahi dut badaudela Mikel baino adinekoak bere momentuan EHGAMekoak zirenak.

El grupo de mujeres vio, en 1981 o 1982, que el colectivo de EHGAM era... diremos que muy machista, que tenía unas características muy gays. No solo pasó aquí, en Gipuzkoa, también en otros lugares. Yo las conozco, al grupo de mujeres de aquí, de Errenteria. Muchas de ellas militaban en EHGAM, las conozco de vista, pero a mí siempre se me ha escapado el tener más contacto... Por ejemplo, ayer, en el acto de recuerdo de Mikel, estaban prácticamente todas, con lo que quiero decir que hay personas mayores que Mikel que en su momento ya estaban en EHGAM.

Aldi berean, emakumeek feminismo eta sexu-askapenaren mugimenduak ulertzeko izan zituzten zailtasun eta kontraesanak ere jardun da Txelo:

Gero, Lesbianen Kolektiboaren barruan ere bazeuden tirabirak, batzarretan militatzen ari zen jendearen artean eta. Bazen jende bat defendatzen zuena Lesbianen Kolektiboan zeudenek ezin zutela militatu alderdi politikoetan militatzen zuten emakumeen espazio berdinetan,

Después, también dentro del Colectivo de Lesbianas, se producían tensiones, entre las personas que militaban en las asambleas. Había quien defendía que las personas que estaban en el Colectivo de Lesbianas no podían militar en los mismos espacios que las mujeres que militaban en

20 Julenek aipatzen duen Mikelen omenezko ekitaldia 2023ko irailaren 23an Mikel Martín Conde 'Mikela'ren heriotzaren ondoren egindakoa da, Mikeldia deritzona.

edo emakume heterosexualak zeuden guneeetan... Oraindik ez dakit ondo zergatik, baina arrazoien bat egongo zen. Orduan, hor bi talde zeuden: "puruak" eta "erdi-puruak" zirenak. Bazegoen jendea borroka beste era batera ulertzen zuena, errespetu guztiarekin, baina, diñot: "tira, ulertzen baduzu bakarrik egon behar duzula, segi horrela!"

partidos políticos, o en las zonas donde había mujeres heterosexuales... Todavía no sé por qué, pero habría alguna razón. Entonces, ahí había dos grupos: las "puras" y las "semi-puras". Había gente que entendía la lucha de otra manera, con todo el respeto del mundo, que dices: "bueno, si tú entiendes que tenéis que estar solitas, pues seguid ahí".

Antzeko inpresioak partekatzen dizkigu Naroak ere:

Bai, azkenean nik uste dut bollerei asko kostatu zaigula leku batean kokatzea. Feminismoaren azpian gauzak falta dira, baina LGTBI+ mugimenduan ere. Segun eta ze talde mota den batzuetan sentitzen duzu [...] zure gaiak ez direla guztiz kontutan hartzen edo bigarren plano batean [gelditzen direla]... Ze hor ere desberdintasunak badaude eta barruak ukitzen dizuten kontuak dira. Horrelako mugimendu batean, nik uste, bakoitzak bere postua, bere plano [duela], hierarkia horiek ere badaudela hor barruan. Eta gelditzen zea pixka bat noraezean [pentsatuz] non kokatzen dut nik neure burua bollera bezala? Nondik egin nahi dut nire bidea?

Testuinguru honetan, EHGAM sortu eta bi urtera, 1979. urtean, emakume lesbianen talde bat sortu zen honen baitan. Talde hau *Emakumearen Sexual Askatasunerako Mugimendua* (ESAM) izango da. ESAM honela gogoratzen du mahai-inguruko parte-hartzaileetako batek:

Bai, badut ideia bat garai horretako gure motor nagusia zein zen... bizitzea tokatu zitzaigun munduan ikusgai izateko. Orduan, zein zen kontua? Emakumeekin asanbladan militatzen ari ginen, konturatu ginen hor bertan lesbiana gehiago zeudela, gu bezalakoak zirela. Eta gauza bera aldarrikatzen genuen, baina, batzuetan, ez zen gurea [gure sexu eskubideak]. Orduan, beno, kolektibo bat egiteko ideia ateratu zen. Kolektibo horretan ideia nagusia zera zen:

Ya, yo tengo una idea de cuál era nuestro principal motor en aquella época para... para proponer ser visibles en el mundo en el que nos tocó vivir. Entonces, ¿cuál era el tema? Estábamos militando con mujeres dentro de las asambleas, nos dábamos cuenta de que allí había más lesbianas, como nosotras, y de que reivindicábamos lo mismo, pero, a veces, no era lo nuestro [nuestros derechos sexuales]. Entonces, bueno, salió la idea de hacer un colectivo. En ese colectivo la idea principal era reivindicar, cambiar un

aldarrikatzea, aldatzea pixkatxo bat... gure aukera sexualeko espektroa. Ordu-rako EHGAM zegoen, bazuen jada izaera eta antolatuta zegoen, pixkat lehenago garatutakoa, gure aurretik zihoazen dagoeneko, baina, gu saiatu ginen hor bertan sartzen, baina momentu hartan gizonek behar eta aldarrikatzen zutena ez zen guk behar genuena.

poco... el espectro que había con respecto a nuestra opción sexual. Para entonces ya existía EHGAM, hacía sus pinitos y tenía organización. Iba por delante nuestro, pero, claro, nosotras habíamos intentado estar en esa misma organización, pero todo lo que los chicos necesitaban en ese momento no era lo que nosotras necesitábamos.

Garai hartako talde feministak abortua despenalizatu nahian zebiltzan, eta talde honako aferak bazterretan geratzen ziren EHGAM bezalako taldeetan, non gizonen protagonismoa handia zen. Asunek, esate baterako, EHGAMen parte hartu zuen lehenengo urteetan, eta mahai-inguruko parte-hartzaile batekin honako hau dio: “empezamos a dar vueltas a lo del hecho de que como lesbianas teníamos que hacer algo, ya que como feministas estábamos todo el día con el aborto de aquí para allá”²¹. Testuinguru hone-tan eta behar hauetatik sortu zen aipatutako ESAM taldea.

ESAM taldearen aldarriak agerikoak ziren eta publiko egin zituzten *Gay Hotsa*²² bezalako erremintak baliatuz (ikus 16. irudia). Aldizkari horren 0. zenbakian, *Demos la cara*²³ izenburudun artikuluan, emakume lesbianek salatu zuten gizon homosexualen matxismo barneratua. Artikuluan bertan honakoa idatzi zuten:

Gizonezko homosexualen eta lesbianen arteko oinarritzko aldea nabarmendu nahi dugu. “Gizonezko homosexualak, gizon izateagatik, abantaila batzuk ditu lesbianekiko.

Queremos hacer notar una diferencia básica entre homosexuales varones y lesbianas. “El homosexual varón por el hecho de ser hombre, tiene ciertas ventajas sobre la lesbiana.

“Gizonezko homosexualak, gizon izateagatik, abantaila batzuk ditu lesbianekiko. Azkeneko hauek bazterketa bikoitzari egiten diote aurre, emakume eta homosexuala izateagatik.

“El homosexual varón por el hecho de ser hombre, tiene ciertas ventajas sobre la lesbiana. Esta se enfrenta con una doble marginación, como mujer y como homosexual.

21 Euskaratuta: lesbianak ginenez zerbait egin behar genuela esaten hasi ginen, feministak ere baginen, egun osoan gora eta behera ibiltzen ginen abortuarekin eta beste zerbait behar genuen.

22 *Gay Hotsa* EHGAMek argitaratu zuen aldizkaria izan zen. 1977ko azaroan argitaratu zen lehen aldiz eta xede bikoitza zuen: Euskal Herriko irakurleei munduko edozein aldetan homosexualitatearekin eta sexu-askapenaren mugimenduarekin zerikusia zuten gauzen berri ematea eta Euskal Herrian gertatzen zenaz eta bertako ekitaldiez informatzea. Erredakzioa Bilbon kokatzen zen. 1998. urtean argitaratu zen azken zenbakia.

23 Euskaratuta: Aurpegia eman dezagun.

Marjinazio bikoitz hori ez da bi marjinazioen batura. Homosexualitateak marjinazioa badakar, lesbianismoak bi bider biderkatzen du marjinazio hori (EHGAM, 1977, 9. or.).

Una doble marginación que no es la suma de dos marginaciones, si la homosexualidad en general implica una marginación, el lesbianismo implica una marginación al cuadrado" (EHGAM, 1977, pág. 9).



16. Irudia. *Gay Hotsia* aldizkariaren 0. zenbakiaren azala. Iturria: Universitat Autònoma de Barcelona (UAB).

Ikus dezakegu, beraz, EHGAM sortu zenetik emakume lesbianak kontziente zirela emakume izateagatik hainbat zapalkuntzek zeharkatzen zituztela euren gorputzak. Gainera, lehen aipatutako ikusezintasuna salatzen dute aldizkarian:

Gizonek egindako eta manipulaturako historian, homosexualak ziren gizonak nabarmentzen dira. Lesbiane buruz, ordea, ez da ezer esaten. Historian emakumeei ikusgarritasun gutxi eman bazaie, lesbiane are gutxiago, azken hauek ez dira existitzen (EHGAM, 1977, 9. or.).

En la historia hecha y manipulada por los hombres, destacan varones notorios que eran homosexuales, nada se dice de las lesbianas, porque si es ínfimo el lugar que se le otorga a la mujer en la historia en general, como lesbiana ya ni existe (EHGAM, 1977, 9. or.).

Zapalkuntza anizkoitz honetaz jabetu eta honela ematen diote segida artikuluari: “en este primer número simplemente queremos dar a conocer nuestra existencia dentro de EHGAM”²⁴. 1977. urtean, beraz, emakume feminista lesbianek argi zuten feminismoak barne hartu behar zuela gai eta subjektu lesbofeminista.

1979ko *Gay Hotsa* 3. zenbakian, *Las mujeres nos organizamos*²⁵ izenburua zuen artikulubatean (ikus 17. irudia) emakume lesbianek momentu hartan jaioberri zen ESAM taldea aurkeztu eta plazaratuko dute:

Badirudi emakumeen arteko harremanen gainean aritzeko unea iritsi dela. Horregatik, lesbiana emakume talde bat sortu da, gizarteak emakumeen arteko harremanen berri izatea helburu duena, eta, horrela, posible bada, harremantze hauekin eta euren sexualitatearekin esploratu ez diren hutsuneak betetzeko. Borrokatu nahi dugu gure harremanak aintzatetsi daitezten, naturalak, guztiz onargarriak eta atsegingarriak diren aldeetik [...] Honekin bat egiten duten emakumeek kontziente izan behar dute bazterkeria honetatik atera behar dugula. Leku bat eskaintzen dizuegu gure ondoan, gure eskubideak defendatzeko eta gure zapalkuntzaren aurka borrokatzeko. Interesatuta baldin bazaude idatzi iezaguzu 1667 posta-kutxara. Erreferentzia: E –Bilbo (EHGAM, 1979a, 15. or.).

Parece que ha llegado el momento de que ya se empiece a cuestionar el tema de las relaciones entre mujeres. Es por eso que se ha formado un grupo de mujeres que pretenden darlo a conocer y llenar así si es posible esas lagunas existentes dentro de la inexplorada temática de la sexualidad de la mujer en sus relaciones con otras mujeres. Queremos luchar por que se reconozcan nuestras relaciones, como naturales, plenamente válidas y gratificantes. [...] Toda mujer que se sienta identificada con lo que pretendemos, ha de ser consciente de la necesidad de salir de nuestra marginación. Os ofrecemos un lugar junto a nosotras, en la militancia activa por la defensa de nuestros derechos y la lucha en contra de nuestras opresiones. Si estás interesada puedes escribir al apd. 1667 ref. E –Bilbao (EHGAM, 1979a, 15. or.).

24 Euskaratuta: Lehenengo zenbaki honetan EHGAMen baitan emakumeok ere bagaudela adierazi nahi dugu.

25 Euskaratuta: Emakumeak antolatzen gara.

Deialdia Euskal Herri osora zabaldu nahi zen, eta aurrerago ikusiko dugun bezala, Gipuzkoa, Oarsoaldea eta Orereta-Errenteriaren presentzia handia izan zuen.



17. Irudia. Gay Hotsa aldizkariaren 3. zenbakiaren *Las mujeres nos organizamos* artikulua. Iturria: UAB.

Aldizkariaren 4. alean, lehen aldiz aurkeztu zen modu ofizialean ESAM. "Francis gogoan zaitugu!" zeraman ale berean, *E.S.A.M. con vosotras*²⁶ (ikusi 18. eta 19. irudiak) izenburudun artikulua kaleratu zen. ESAMek *Emakumeak narru narrurekin* taldearekin batera honako hitzak idatzi zituen artikuluan:

Aldizkaria honetan emakume talde gisa (E.S.A.M.) parte hartu dugun lehen aldia da honakoa. Hemen bertan lesbiana izatea zer den hausnartzerakoan ateratako ondorio batzuk partekatu nahi dizkizuegu, bai eta talde honetako emakume batzuek idatzitako olerki batzuk zabaldu ere. Ongi etorria izango da edozein iradokizun, ekimen, iritzi eta abar. Interesatuta baldin bazaude idatzi iezaguzu 1667 posta-kutxara. Erreferentzia: E -Bilbo (EHGAM, 1979b, 3. or.).

En esta nuestra primera participación en la revista como grupo de mujeres (E.S.A.M.) quisiéramos ofrecer las conclusiones a que hemos llegado en torno a la discusión sobre lo que es la lesbiana, así como poesías escritas por mujeres del grupo. Estamos abiertas a todo tipo de sugerencias, iniciativas, opiniones, etc. Para todo lo que se os ocurra, poneos en contacto con nosotras a través del apartado de correos 1667 referencia E, Bilbao (EHGAM, 1979b, 3. or.).



18. Irudia. *Gay Hotsa* aldizkariaren 4. alearen *E.S.A.M. con vosotras* artikulua. Iturria: UAB.



19. Irudia. *Gay Hotsa* aldizkariaren 4. zenbakia. ESAM taldearen logoa eta eslogana: *Una ventana que se abre a tus derechos*²⁷. Iturria: UAB.

27 Euskaratua: Ireki leihoa zure eskubideei.

Artikuluak irakur daitekeenez, ESAM taldea EHGAMekin batera ekitaldi batzuk antolatzen ari zen. Talde honen identitatea ere deskribatu zuten artikuluak eta homosexualitatearen integrazioa ez zuela nahi aldarrikatu zuten: "no buscamos la integración de la homosexualidad, sino la supresión de las categorías ideológicas de homosexual, lesbiana, heterosexual y de los papeles masculino-femenino, activo-pasivo, macho-hembra"²⁸ (EHGAM, 1979b, 3. or.). Garai horretan –eta gaur egungo sektore batzuetan ere– diskurtso hura erradikala eta iraultzailea zen. Horren harira, lesbianek sufritzen zuten diskriminazio bikoitzaz ere hitz egin zuten.

1980ko udaberrian kaleratutako *Gay Hotsa* da guretzat garrantzitsuen, ordea. Izan ere, *Lesbianas: recuperando nuestra identidad existimos en Donostia*²⁹ izenburua zuen argitalpena aurkitu dezakegu bertan (ikus 20. irudia). Honetan, Donostialdeako egoera azaldu eta hainbat aldarri burutu zituzten. Artikulua idatzi eta plazaratu zutenen artean dugu Asun.



20. Irudia. *Gay Hotsa* aldizkariaren 5. zenbakiaren *Lesbianas: recuperando nuestra identidad existimos en Donostia* artikulua. Iturria: UAB.

28 Euskaratuta: Ez dugu homosexualitatearen integrazioa bilatzen, baizik eta homosexual, lesbiana, heterosexual... kategorien eta maskulino-femenino, aktibo-pasibo, ar-eme rolen ezabatzea.
29 Euskaratuta: Lesbianak: gure identitatea berreskuratzen. Donostian existitzen gara.

Asun Donostiako Asanblada feministaren parte zen, eta berak ere egiaztatzen digu asanblada horretan emakume kuir anitz zirela. Emakume hauek pixkanaka konturatu ziren gurutzatzen zituzten borrokak batu behar zituztela. Horregatik, Donostiako, Hernaniko eta Orereta-Errenteriako lesbianak elkartu ziren eta gutxinaka mugitzen hasi ziren. 1979. urtean, EHGAM Gipuzkoako lesbianen taldea sortu zen eta ia aldi berean ESAMEk ere lehen pausuak eman zituen. Azkenik, Donostiako Asanbladan ere mugimendu lesbofeminista antolatzen hasi zen. Gipuzkoako lesbiana feministek batzar orokorretik aldendu eta talde propio bat sortu behar zutela uste zuten garai hartan. Honela, lesbianen mugimenduan sartuta ez zeuden emakume lesbianek eta ghettoan zeuden emakumeek asanbladan espazio bat izatea nahi izan zuten (Villar, 2005). Donostiako Asanbladako Lesbianen Taldea osatu zen ofizialki 1980. urtean, mugimendu lesbofeministari beste elkargune bat eskainiz (ikus 21. eta 22. irudiak).



21. Irudia. Donostiako asanbladako lesbianen taldea 1981eko ekainaren 28an, LGBTI+ Harrotasunaren nazioarteko egunean. Eskubian, pankarta eusten, Emili agertzen da. Iturria: EHGAM



22. Irudia. Donostiako asanbladako lesbianen taldea 1981eko ekainaren 28an, LGBTI+ Harrotasunaren nazioarteko egunean. Emili (1) eta Petri (2) agertzen dira. Iturria: EHGAM.

Ikusten dugunez, 80ko hamarkadan emakume lesbianen taldeak euren lekua topatzen hasi ziren, eta mugimendu feministetan militatzeaz gain, lesbianismoa aldarrikatzen hasi ziren, identitate hori ikusgai egiteko helburuarekin. Mugimendu historiko hura honela islatuta geratu zen aipatutako *Gay Hotsa* aldizkariko artikuluan:

Donostiako emakumeen asanbladako lesbiana talde batek elkartzeko beharra ikusi du, gure berariazko egoeraz eztabaida bultzatzeko.

Elkartzeko beharra sortu zitzaigun, izan ere, gure borroka, emakume gisa, Mugimendu Feministaren barruan kokatzen bazen ere, gure problematika ez zegoe-la bertan jasota, nahiz eta feminismoak lesbianismoa beste sexu-aukera bat dela aldarrikatu.

Gainera, elkartzeko, eztabaidatzeko eta geure identitatea berresteko espazio baten beharra ere badugu.

Lanean denbora gutxi daramagunez, oraindik ez dugu pentsatu kanpora irte-teko ideia ondo aztertu, baina uste dugu gure lekua okupatu behar dugula. Artiku-luekin, hitzaldiekin eta abarrekin "kalera ateratzen". Kaleratze honek gure afektibi-tatea erakustea ere badakar (EHGAM, 1980, 15. or.).

Un grupo de lesbianas pertenecientes a la Asamblea de mujeres de Donostia, vimos la necesidad de juntarnos, para discutir de nuestra situación específica.

La necesidad de agruparnos surgió porque considerábamos que aunque como mujeres nuestra lucha se enmarcaba dentro del Movimiento Feminista, nuestra problemática no estaba suficientemente recogida, aun siendo reivindicada por el feminismo como una opción sexual más.

Otro aspecto que creemos fundamental es la necesidad de un lugar de encuentro, discusión y afirmación (...).

Dado el poco tiempo que llevamos trabajando, todavía no nos hemos planteado seriamente la salida al exterior, aunque pensamos que tenemos que ir ocupando nuestro lugar. No entendemos únicamente por "salir a la calle" los artículos, charlas, etc... sino que pensamos que esta salida implica demostrar nuestra afectividad allí donde nos encontramos (EHGAM, 1980, 15. or.).

1994ko ekainaren 28an, LGTBI+ Harrotasun egunean, alegia, *Euskaldunon Egunkaria*³⁰ euskarazko egunkarian, *Etorkizuna arrosa da* izeneko gehigarri berezi bat kaleratu zen

30 *Euskaldunon Egunkaria* XX. mende amaierako euskaraz hutsean argitaratutako egunkari bakarra izan zen (1937. urtean argitaratu zen *Eguna* egunkariaren ondorengoa). 1990. urtean sortu eta 2003. urtean Espainiako Audientzia Nazionaleko Juan del Olmo epaileak itxiarazi zuen, ETaren tresna zela esanez, eta egunkariaren zuzendaritzako hamar lagun atxilotu zituen. 2010ean jakin zen neurri horiek inolako oinarririk gabekoak zirela, eta ETarekin loturarik ez zutela ez bata, ez besteek ("Euskaldunon Egunkaria", 2024).

EHGAM eta lesbianen mugimenduen hastapena eta bilakaeraren inguruan jardun zue-
na (ikus 23. irudia). Bertan, Orereta-Errenteriako Nati Rufo eta Madelon elkarrizketatu
zituzten (ikus 24. irudia). Nati Rufo, Asun bezala, Donostian lesbiana eta feministen tal-
dea sortu zenetik egon da, eta eragile zein erreferente garrantzitsu izan da Oreretako
mugimendu lesbofeministan.



23. Irudia. *Euskaldunon Egunkaria* egunkariaren *Etorki-
zuna arrosa da* gehigarri bereziaren azala. Iturria: Berria.



24. Irudia. Nati Rufo eta Madeloni egindako elkarrizke-
ta *Euskaldunon Egunkaria* egunkarian. Iturria: Berria.

Gehigarri horretan azpimarratzen zen Zamalbiden (Orereta-Errenteriako auzo batean)
1983ko maiatzaren 21 eta 22an egin ziren Euskadiko lesbiana feministen lehenengo
jardunaldiak. Bertan 200-250 lesbiana inguru bildu ziren Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta
Nafarroatik etorriak. Madrilgo eta Kataluniako hainbat taldek ere parte hartu zuten
(Emakumeak, d.g.; Villar, 2005). Asunek ondo oroitzen du nola iritsi ziren jardunaldi
horiek antolatuzera: “yo recuerdo unas jornadas mixtas en Gasteiz, mixtas... también
recuerdo los ensayos que hacíamos nosotras en Fuenterrabia, que luego fue Zamalbi-
de, que luego fue Orio”³¹. Naroak eta Haizeak ere oso presente dituzte jardunaldiak,

31 Euskaratuta: Nik oroitzen ditut jardunaldi misto batzuk Gasteizen. Gainera, Hondarribian egiten genituen entseguak ere ondo oroitzen ditut. Geroago Zamalbidetako, eta, ondoren, Orio.

Orereta-Errenteria zein Euskal Herri mailan oihartzuna izan zutenak:

Zamalbiden egin ziren topaketa bolleroak eta dakigunez, edo kontatu digutenez, EHGAMekoek eta talde feministakoek parte hartu zuten. [Bertan] beraien interesak komunean jarri zituzten nolabait, eta agian ez zuten ezer argian atera, baina bai izan zirela topaketa aberatsak, beraien arteko aliantzak sortzeko.

Jardunaldi hauen baitan, Euskal Herriko lesbofeminismoak egiteke zuen ibilbidea eta honakoaren nondik-norakoak eztabaidatu ziren, jardunaldian jasotako idatziko dokumentuan irakur daitekeen moduan (ikus 25. irudia). Antolakuntza ariketa bezala planteatu ziren Zamalbideko jardunaldiak eta bertatik hainbat proposamen atera ziren, *Zer egin?* aldizkarian laburbildu moduan (ikus 26. irudia):

1.- Talde feminista guztiei ondokoa zabal-tzen eta komunikatzen zaie:

- *Lesbianismoaren gaia euren mugimenduetan alde batera uzteagatik kritika eta salaketa egiten zaizue.*
- *Ekitaldi feminista guztietan gaia presente egotea gaia eskatzen da: propaganda, hitzaldietan eta abarretan. Ezin duzue gaia gehiago baztertu.*

2.- Prestatzen hasi diren Euskadiko II. Jardunaldietan lesbianismoaren gaia askoz gehiago jorratzea, oraindik denbora duzue honakoa prestatu ahal izateko.

- *Horretarako, honako hau proposatzen da:*
- *Aztertzea jendea lesbianismora nola iritsi den (emakume askoren testigantzak bildu).*
- *Ikusaraztea gure aukera sexualak sortzen dizkigun arazoak zein diren: sozialak, harremanetakoak...*

1.- Que se haga una llamada o escrito a todos los grupos feministas con el siguiente contenido:

- *Crítica y denuncia por su abandono del tema lesbianismo.*
- *Que desde ya esté presente en toda la actividad feminista el tema: a nivel de propaganda, de charlas, etc... no eludirlo ya más.*

2.- Que en las II Jornadas de Euskadi que se están empezando a preparar y para las que todavía queda tiempo, esté presente con mucha más reflexión el tema de lesbianismo.


- *Para ello, se propone hacer el siguiente trabajo de recogida de aportaciones:*
- *Por qué caminos he llegado al lesbianismo (testimonio de muchas mujeres)*
- *Problemas que nos crea nuestra opción sexual: sociales, relacionales...*

- *Lesbianak izateak zer ematen digun jakitea.*
- *Gaia eskoletan jorratzea.*
- *Publizitatea.*
- *Kalera ateratzea jendeak pixkanaka-pixkanaka gure existentzia naturaltasunez onartzeko.*
- *Hedabideetan gaia presente nola egin pentsatzea.*
- *Eta bururatzen zaizuen guztia, baina beti hausnartzeko esfortzu bat eginez, jardunaldi hauetan faltan bota duguna.*

- *Qué nos aporta el ser lesbianas.*
- *Trabajos sobre cómo introducir el tema en las escuelas.*
- *La publicidad.*
- *Cómo salir a la calle haciendo que poco a poco la gente asuma con naturalidad nuestra existencia.*
- *Cómo hacer presente el tema en la prensa.*
- *Y todo lo que se ocurra, pero siempre haciendo un esfuerzo de reflexión que aquí ha faltado.*

Edozein lan bidaltzeko, Donostiako 953 posta-kutxa eman zitzaizen, EHGAM Gipuzkoakoa. (Emakumeak, d.g., 21. or.)

Para enviar todo tipo de trabajos se dió el Apartado 953 de San Sebastián, que corresponde a EHGAM de Guipúzcoa. (Emakumeak, d.g., 21. or.)



25. Irudia. Euskadiko lesbiana feministen I. Jardunaldian jasotako idatziko dokumentua. Iturria: Emakumeak.

aldarri, intereseko gai eta afera jorratu zituen eta 1994. urtera arte argitaratu zen³³.

Sorginak aldizkariko 8. zenbakia (1990eko ekainean argitaratu zena) du bereziki gogoan elkarrizketatutako Asunek. Izan ere, zenbakiko azalak (ikus 27. eta 28. irudiak) oihartzuna izan zuen garai hartan. Hain entzuna izan zen azal hura, ezen Aldartek³⁴ 2022an kaleratutako *Lesvisibles* (Arene Gabiña eta Juan Zubillaga) dokumentalean Asun eta Nati gaiaren inguruan elkarrizketatzen dituen (Aldarte, 2022). Honela gogoratzen du Asunek azal hura dokumentalean:

Bizkaiko kolektiboekin lehia bat geneukan: ea nork argitaratzen zuen aldizkariaren azalik onena. Bizpahiru hilabetetan zehar euria egin ez zuen garai horretan okurritu zitzaigun ideia ona izan zitekeela laurok argazki bat ateratzea bainuontzi barruan eta honako esaldi honekin: “ura aurreztu, zure lagunekin sar zaitez”. Gainera, aurpegia ikusten zitzaigun, momentu horretan inpaktu handia sortu zuen horrek. Horrek ematen baitzion azalari bere xarma.



27. Irudia. *Sorginak* aldizkariaren 8. zenbakiaren azala. Iturria: Emakumeak.

28. Irudia. *Sorginak* aldizkariaren 8. zenbakiaren atzeko azala. Iturria: Emakumeak.

33 Geroago, 1998. urtetik 1999. urtera argitaratzen jarraitzen dute, baina oraingo honetan Bizkaiko lesbiana feministen kolektiboak bakarrik (Villar, 2005).

34 Aldarte elkarteak Bilbon kokatuta dagoen LGTBI+ pertsonen arreta eta ikerketa zentroa da.

2.1.5. Borroka lesbofeministaren subjektuak zalantzan jartzen

Historikoki, bildutako testuetan ikus daitekeen moduan, testigantzek zein idatziek "lesbiana" terminologia darabilte. Hala eta guztiz ere, bisexualitatea eta bestelako identitate batzuk ere barne hartzen zirela nabari daiteke. Adibidez, aipatutako Zama bideko jardunaldiak bildu zituen garaiko testuan bisexualitateari aitortza egiten zaio:

Guk, asanbladako emakumeak, lesbianak-bisexualak-heterosexuak, gure sexualitatea eta sufritzen dugun diskriminazio bikoitza ikusgai egin nahi dugu (Emakumeak, d.g., 1. or.).

Nosotras las mujeres de la Asamblea, lesbianas-bisexuales-heterosexuales, que-remos muy brevemente situar nuestra sexualidad y nuestra opresión, discriminación en tanto como mujeres (Emakumeak, d.g., 1. or.).

Asuni emakume bisexualak feministen eta lesbianen mugimenduan non kokatzen ziren galdetzen diogunean honako hau erantzun digu:

Galdera hau XXI. mendekoa da. Emakume lesbianak ez baziren ezagutzen, bisexualak are gutxiago. Beste kontu bat da norberak bere burua nola kontsideratzen zuen. Baina esan diezazueket heterosexual asko bisexual edo lesbiana bilakatu zirela, edo alde batetik bestera ibiltzen zirela bueltaka... Orain bai, orain ez. Eta hori da guk lortu nahi izan duguna, norberak nahi duena izatea, nahi duen moduan. Orduan, bisexualak edo heterosexual izatetik bisexualak izatera pasatzen zirenak ongi etorriak ziren lesbianen artean, bestela, norekin ligatuko genuen ba? [...] Eta gu pozik, e! Gu finkoak ginen eta beraiek finko etenak. Ulertzearren.

Pues, esa es una pregunta del siglo XXI. Si las mujeres lesbianas no se conocían, las bisexuales aún menos. Otra cosa es cómo una se consideraba a sí misma. Pero lo que sí te puedo decir es que muchas heterosexuales se pasaron a bisexuales o a lesbianas o andaban yendo y viniendo... Ahora sí, ahora no, que es lo que se pretende, que cada una gaste de lo suyo, a donde quiera. Entonces, las bisexuales o las que de hetero se pasaban a bisexuales, eran muy bien recibidas por las lesbianas, porque, si no, ¿a dónde íbamos a ligar? [...] Nosotras encantadas, ¡eh! Porque nosotras éramos las fijas y ellas eran fijas discontinuas. Por entendernos.

Naroak eta Haizeak hein handi batean hitz hauekin bat egiten dute:

Egia da borroka oso presente dagoela gure harreman eta elkarrizketetan, baina, agian, figura ere desitxuratuta daukagulako. Ze nik uste dut bisexualitateak kriston kaña jaso duela, oso zigortua eta zapaldua izan den identitatea dela, edo de-

sitxuratua. Eta hori dena deseraikitzea ere kosta egiten zaigu askotan, baina nik uste dut orain hasiko dela, horren inguruan hasi behar dugula borrokatzen. Eta elkartzen, saretzen.

Ikus daitekeen moduan, bisexualitatea bazterretan geratu zela dirudi eta honek egungo egoeran eragina izan du. Antzeko zerbait gertatu izan da trans emakumeekin ere. Izan ere, ikuspegi transinklusiboa oso gutxitan txertatu zen mugimendu lesbofeministan. XX. mendearen amaiera aldera eta XXI. mendearen hasieran mugimenduek beste norantza bat hartu zutenean soilik hasi ziren honako identitateak lantzen (ikus kapitulu honen 3. puntua). Honakoa berresten dute ere Medeakeko kide izan ziren Itu eta Txurruk (Ana Txurruka) Kattalin Minerrek argitaratutako *Moio: gordetzea ezinezkoa zen* liburuan. Hala deskribatzen ditu Ituk transfeminismoaren erroak Euskal Herrian:

Orduan, momentu horietan, nortzuk ari ginen diskurtso horiek feminismitik lantzen edo sartzen? Ba lau zoro, oso argi ikusten genuenak harremana zegoela bi gaien artean eta ezinbestekoa zela, baina hori, gu eta beste lau katu. Eta guk gure lehen Drag King tailerrak egin genituenean, kritika asko jaso genituen, orduan ere baginen gu feminista arraro eta kuestionatu batzuk (Miner, 2019, 70. or).

Kattalin Minerrek jasotako testigantza honetan, Ituk XXI. mende hasierako egoera islatzen du. Beraz, mende berriaren aurretik transfeminismoa eta interseksionalitatea bezalako gaiak oso gutxitan jorratzen zirela ondorioztatu dezakegu. Aitzitik, mende hasieran hasi ziren halako gaiak jorratzen eta militantzia zein aktibismoan txertatzen.

2.2. Orereta-Errenteria eta Oarsoaldea marrazten: 80ko eta 90eko hamarkadak

Testuinguru zabalean, Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeako pertsonen eragina nabaria izan zen eta honek herrian bertan 80ko hamarkadan hainbat ekintza egitea ahalbidetu zuen. Izan ere, herriko borrokalariak sutsu aritu ziren bertako panorama moldatzen. Txelok gogora ekarri digu 1988. urtean herriko Alaberga auzoko danborradan egin zuten ekintza eta herriko militantziaren gainean honela jardun du:

Eta gero herri honek gauza asko zituen. Alde batetik, oso esker txarrekoa izan zitekeen militantzia gogorra zelako eta jarrerak oso itxiak zirelako, baina, aukera zenuen ere edozer gauza egiteko.

Y luego este pueblo tenía muchas cosas. Por una parte, podía ser muy ingrato en el sentido de que la militancia era super dura, y que las posturas eran muy cerradas, pero luego también era un pueblo que daba lugar a cualquier cosa que hicieras.

Orain gogora ekartzen ditut guk egin-dako gauza batzuk, eta neure buruari esaten diot: "mesedez, orain ez nituzke txantxetan ere egingo". Esate baterako, behin Alabergan danborrada pasatzen zen lekutik kule-ro-barrikada bat jarri genuen. Horrelakoak egiten genituen. Kule-ro-barrikada batekin moztu genien bidea.

Porque nosotras hemos hecho cosas que te pones a pensar ahora y dices, "por favor, ahora no las haría ni de coña". Desde poner una barricada de bragas al paso de la tamborrada de Alaberga a, yo qué sé... Ese tipo de cosas hacíamos. Les cortamos el paso con una barricada de bragas.

Txelok dion moduan, herrian bazegoen mugimendu lesbofeminista garatzeko tokia eta honek hainbat ekintza ahalbidetu zituen. Hala eta guztiz ere, jasandako indarkeria ere oroitzen du Txelok eta honela kontatzen dizkigu Orereta-Erreterian bizitzearen zailtasunak:

Eta jendeak kaletik zindoazenean "tortillera!" esaten zizun iraindu nahian. Gauza horiek beti gertatzen ziren. Gainera, haientzat feminista guztiok tortillerak, marimutilak... ginen, estereotipo hutsa.

Y había quien, cuando ibas por la calle te decía "¡tortillera!" [con intención de insultar]. Eran situaciones corrientes. Además, para ellos todas las feministas éramos tortilleras, marimachos... los estereotipos.

Baina, gero, aniztasun handia ere bazegoen eta oso kalekoa zen dena, egurra ematen zuen herria. Gaztetxea? Oreretako kañeroena. Hustu zutenean herri erdia altxatu zen. Oso gauza kañeroak egiten ziren. Eta metro karratuko feminista gehien dituen herria? Orereta, noski.

Pero luego [el pueblo] era también un espacio muy diverso, tan de la calle y tan cañero que te daba para todo. ¿El Gaztetxe? El más cañero el de Orereta. Cuando desalojaron ardió medio pueblo. Se hacían cosas muy cañeras. Y las feministas también, el pueblo con mayor número de feministas por metro cuadrado es Orereta.

Aipuan ikusten den moduan, garai hartako Orereta-Erreterian bazegoen sua pizteko lekua eta mugimendu herritar soziopolitiko indartsua zen. Orereta-Erreterian egunerokoan hainbat indarkeria mota jasaten bazituzten ere, Zabala-enea II Gaztetxea bezalako guneak mugarri izan zirela oroitzen du Txelok aurreko aipuan. Izan ere, honelako topaguneetan garatu ahal izan ziren mugimendu lesbofeminista osatuko zuten pertsonak.

2.2.1. Matxarda Kolektiboa eta Europarekin konexioak

1988. urtean, Alabergako kulero-barrikadaren urte berean, Matxarda Kolektiboa³⁵ sortzen da, Orereta-Erretereriako mugimendu lesbofeministan eragin izan zuena³⁶. Izan ere, kolektibo hau emakumeek sortu zuten eta emakumeak izan ziren okupazioan aktiboki parte hartu zutenak. Horrela oroitzen du Txelok Matxarda Kolektiboaren sorrera:

Lagun baten bitartez, Jon Arretxeren ale-gia, "Triki Punk"³⁷ taldea ezagutu genuen (ikus 14. Irudia). Oso lagun egin ginen, Euskal Herriko kontzertu guztietara joaten hasi ginen, eta horren harira hasi ginen. "Ez dugu etxerik, etxe bat okupatuko dugu".

Horrela. Ezjakin batzuk ginen, baina Zapatar³⁸ etxe okupako jendearekin harremanetan jarri ginen, okupazio proiektu bat egin genuen, eta hor hasi zen geure historia.

Gero, gatazkak izan genituen okupatu genuen etxearekin, jende guztiak berde jartzzen gintuen. Orduan, etxe okupako neska guztiak elkartu ginen, mahai gainean kolpe bat eman genuen, eta kolektibo bat sortu genuen. Etxea okupetako bezain pronto, "Matxarda kolektiboa" sortu genuen. Eta oraindik ere harremana daukagu etxe horrekin, eta noiz behinka gauzak antolatzen ditugu.

A través de un amigo ya fallecido, de Jon Arretxe, conocimos a las "Triki Punk". Nos hicimos super amigas, empezamos a ir a todos los conciertos de Euskal Herria y a través de eso empezamos [a pensar]: "No tenemos una casa, vamos a okupar una casa". Así. Un poco de pardillas.

Pero contactamos con la gente de Zapatar, una casa ocupada, hicimos un proyecto de ocupación, y ahí empezó la historia.

Luego tuvimos conflictos con la casa que ocupamos, todo el mundo nos ponía verde. Fuimos a unas jornadas donde nos juntamos todas las tías de las casas ocupadas, dimos un golpe en la mesa, y creamos un colectivo. Fue okupar la casa y crear el colectivo que se llama "Colectivo Matxarda". Todavía seguimos teniendo relación y seguimos montando cosas de vez en cuando.

35 Martxarda hitzaren esanahia honako hau da: "neskatilez mintzatuz, bihurria eta nortasun handikoa" (Euskaltzaindia, d.g.).
36 Txelok dio kolektibo gehiago ere bazeudela, baina desegiten joan ziren. Kraska kolektiboko pertsona batzuk, esate baterako, Matxarda kolektibora pasa ziren.

37 Elene Sustatzak eta Elena Bezanillak Tarratada taldea sortu zuten. Talde hura Triki Punk bezala ere ezaguna zen, euskal folklorea egiten zutelako, punk generoarekin nahastuta. La Polla Records edota Hertzainak musika taldeen oihalgileak izan dira. Euren abestien bertsoak ere egiten zituzten, baina beste estilo batekin. Triki Punk taldeak egiten zuenari ikuspuntu feminista eta politikoa eman nahi zion: eszenatokira poppolinez jantzita ateratzen ziren, baina eurek egiten zituzten jantziak, estilo oso probokatzaileen. Zuzenean euren titiak ateratzen zituzten, elkar muxuak ematen ziren, eta abar (Carreras, 2018; TGL, 2019).

38 Donostiako etxe okupa bat, Euskal Herrian gehien iraun duten etxe okupatuetakoa bat da. 1988. urtetik 2000. urtera arte iraun zuen. Estatu mailan, gainera, erreferente bat ere izan zen. Auzoan Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egin ostean itxi behar izan zuten (Irazu, 1998, 4. or.; Ormazabal, 2007).



29. Irudia. Triki Punk musika taldea. Iturria: Mierda de Bizkaia.

Txelok aipatu dituen gatazka horiek garai hartako matxismoarekin zerikusi handia zutela ikuskatu dezakegu. Okupa mugimenduan zegoen giro maskulino eta zisheterosexuala *AnarkHerria* (2011) liburuan salatzen da eta kolektibo horren bilakaera deskribatzen da:

Donostialdeko okupa mugimenduko zenbait jenderekin gatazkak izan zituen Renteríako Matxarda kolektiboak, zeina 1988. urtean sortu zen eta emakumez soilik osatuta zegoen. Izan ere, ez zuten ulertu nahi emakume batzuek "bakarrik" etxe hori okupatu nahi izatea. Matxarda etxebizitza bilakatu zen, baita kolektibo feminista ere. Gainera, bertan bizi ez ziren beste emakume batzuek ere parte hartzen zuten bertan.

La ocupación de Matxarda en Rentería, en el 88, exclusivamente por parte de mujeres, costó algún que otro desafecto con algunas gentes del movimiento okupa de Donostialdea, que no entendieron por qué había mujeres que decidían ocupar ellas "solas". Matxarda, se conformó como vivienda y como colectivo feminista en el que participaron otras mujeres que no vivían en la casa.

Hustu ondoren beste okupazio batzuk etorri ziren eta taldearen izena mantendu egin zen. Matxardako emakumeek Erretereriako mugimendu feministan parte hartzeaz gain, talde autonomoek eta okupa mugimenduek antolatzen zituzten ekimenean ere parte hartzen zuten (Legasse eta Pascual, 2011, 20. or.).

Tras el desalojo vinieron otras okupaciones que mantuvieron el nombre del colectivo. Las mujeres de Matxarda fueron activas principalmente en el movimiento feminista de Rentería, aunque participaron también en otras iniciativas de grupos autónomos o del movimiento okupa (Legasse eta Pascual, 2011, 20. or.).

Gurera bueltatuz, Matxarda Kolektiboak Orereta-Erretereriako mugimendu lesbofeministarekin harreman estua izan zuen, izan ere, kolektiboa osatzen zutenek mugimendu lesbofeministan militatzen zuten. Honela, mugimendu hauen arteko hartu-emanak barria izan zen eta okupazioak lesbofeminismoaren bilkuran eragina izan zuen. Txelori okupa mugimenduaren eta mugimendu feministaren arteko erlazioaz galdetu diogunean, etxe okupatuak emakumeentzako bilgune izan zirela aipatzen digu, bai eta bertan ematen zen giro maskulinoak izan zuen eragina ere:

Ez da inoiz harreman bat egon bi mugimendu horien artean... eta etxe okupetako emakumeok gure bidea egin genuen. [Matxarda] kolektiboaren inguruan biltzen ginen. Zortzi emakume bizi ginen etxean. Guardia zibilaren kuartel bat okupatu genuen [gero] Oiartzunen. Eta etxeko gizonekin genuen harremana tirabiratsua zen. Batzuekin oso ondo, laguntzen gintuzten, baina beste batzuekin... tirabiratsua zen harremana. [...] Gu gure aldetik joaten ginen eta beraien beraienetik. Aasanblada feministako jendearekin harreman estua geneukan, eta arian-arian gure militantzia-gune bihurtu zen. Okupa mugimendutik aldentzen hasi ginen (antikapitalista ere bazena), eta asanbladako jendearengana hurbiltzen joan ginen, herriaren militantzia egiten.

Nunca ha habido una relación entre esos dos movimientos... las mujeres de las casas okupas hicimos nuestro camino. Nos agrupamos alrededor del colectivo [Matxarda]. En la casa vivíamos ocho mujeres. Ocupamos [luego] un cuartel de la guardia civil en Oiartzun. Y la relación con los hombres de la casa siempre fue tensa. Con algunos muy bien, nos ayudaban, pero con otros... la relación era tensa. [...] Nosotras íbamos por un lado y ellos por otro. Teníamos estrecha relación con la gente de la Asamblea feminista, y poco a poco se convirtió en nuestro espacio de militancia. Empezamos a separarnos del movimiento okupa (que también era anticapitalista) y nos acercamos a la gente de la asamblea, haciendo militancia en el pueblo.

Matxarda kolektiboaren inguruan hainbat ekimen sortu eta landu ziren eta hauek lesbofeminismoa barneratu zuten bertan parte-hartzen zuten eragileen eskutik. Testuiguru honetan, hainbat zubi internazional ere sortu ziren, Oreretako herriarentzat eta

bertako mugimendu feministarentzat mesedegarri izan zirenak. Txelok oso ondo oroitzen ditu Alemaniako emakume lesbiana feministen bisitak Martxarda kolektibora:

Eta gero hemen, etxe okupan, Alemaniako emakumeen bisita anitz ere izan genituen. Matxardan ikastaroak ematen genituen. Orduan, Europako "kartoffel"³⁹ guztiak zetozen, denak lesbiana "puruak", eta beraiek ez zuten ulertzen zergatik hartzen genuen kafe bat gizonezko zerbitzari bat bazegoen tabernan. Guretzako oso arraroa zen hori. Orduan, garai horretan, Alemaniako emakumeak etortzen ziren, Hafenstrasseko⁴⁰ emakumeak [...] eta hori, gure artean tirabirak ere bagenituen, nik ez nituen ulertzen, eta batzuetan pazientzia galtzen nuen. Baina egia da gauzak egiteko beste modu batzuk ere ezagutu genituela horrela.

Y luego aquí, en la casa okupa, tuvimos muchas visitas de mujeres alemanas. Solían venir a Matxarda a dar cursillos y todas las "kartoffel" de Europa (lesbianas "purísimas") se apuntaban. No entendían que nos tomáramos un café en un bar donde el camarero fuera un tío. Y nosotras las mirábamos como las vacas al tren [pensando] ¿Éstas de dónde han salido?. Entonces, tuvimos un tiempo de turismo alternativo alemán, en el que vinieron las mujeres de la Hafenstrasse [...] y eso, entre nosotras también hubo tensiones, yo no las entendía, y a veces perdía la paciencia. Pero es verdad que así conocimos otras formas de hacer las cosas.

Tirabira internazionaleraino gain, ikasteko zubiak eraiki eta Alemaniatik zetorren talde hartatik elikatu ahal izan ziren Orereta-Erretereriako emakume lesbianak, beraz. Txelok hala kontatzen digu:

Halere, asko ikasten zenuen, jende bikaina zetorrelako, hemen oraindik egiten ez genituen gauzak egiten zituena. Beraiek, al-diz, Alemanian bizi izan ez zuten errealitate bat ikusteko aukera zuten. Mugimendu handia zegoen herri honetan, eta beraiek harrিতuta zeuden. Egunean 24 orduz egon gintezkeen gauzak egiten.

Sin embargo, aprendías mucho, porque venía gente estupenda que había hecho un recorrido que aquí todavía no habíamos hecho. Ellas, en cambio, veían una realidad que nunca habían tenido en Alemania. Había mucho movimiento en este pueblo y ellas flipaban con la capacidad que teníamos para hacer cosas 24 horas al día.

39 Hitz horrek alemaniarari eta alemaniarrei egiten die erreferentzia.

40 St. Pauli Hamburgo hiriko auzo bat da, portutik oso gertu dagoena. 80ko hamarkadan gaueko aisialdian erreferente bilakatu zen, eta erreferentea izan zen okupa mugimenduentzat ere bai. Gehien oroitzen den gertakaria Hafenstrasse etxeen okupazioa da; hamarkada horretan kale horretako etxeak okupatu baitziren eta hainbat kooperatiba sortu. Bizilagunen babesa eta antolatutako manifestazioak eta inprobisatutako barrikadei esker poliziaren mehatxuei eta etxegabetzeari aurre egin zieten. Gaur egun auzoa gentrifikatu egin da (Cruz, 2018).

Goizean mani batean, arratsaldean kontzentrazio batean eta gauean pankarta bat prestatzen egon gintezkeen. Eta tar-tean auskalo zer! Txundituta zeuden, noski. Beraientzat dena askoz metodikoagoa zen, euren jarrera ez zen hain aktibista, dena pentsatzen eta birpentsatzen eta postpentsatzen zuten. Eta geroko deba-teak oso interesgarriak ziren.

Podíamos estar por la mañana en un mani, por la tarde en una concentración y por la noche estar preparando una pan-carta. Para ellas todo era mucho más metódico, su actitud no era tan activista, todo lo pensaban y lo repensaban y lo postpensaban. Y sus debates posteriores eran muy interesantes.

Txelok aipatzen duen moduan, ikaskuntza praktika aberatsa izan zen 80ko hamarkadan sortutako elkarrekintza hura. Alemaniako taldeaz gain, Europako beste talde batzuekin ere izan zuten harremana Orereta-Errenteriako mugimendu okupak eta lesbofeminis-tak. Txelok honela oroitzen du garai hartan gertatutakoa:

Hanburgora joan ginen eta beraiek hone-ra etorri ziren... eta, hortik aurrera, Asun eta besteak Berlingo kanpamendu bate-ra joan ziren. Nik ezin izan nuen joan lan egin behar nuelako (uste dut ni nintzela lana zeukan bakarra). Berlinen nazioarte-ko lesbianen jardunaldia egin zen⁴¹. Une horretan Europa osoko lesbianak elkartu ziren. Hor bertan ezagutu zuten elkar [...] eta bertan ematen ziren eztabaidak par-tekatzen zituzten, orduan ingelesez itzul-tzen zuten. Gure Madrilgo (Las LigaDura) eta Zaragozako lagunak ere joan ziren. [...] Hango jendea ezagutu ondoren, he-men ikastaro batzuk egitea erabaki zen. Gaztelania irakatsi genien, Euskal Herriko errealitatea ezagutu nahi baitzuten.

Hicimos un viaje a Hamburgo y ellas vi-nieron aquí... y a partir de ahí, Asun y las demás se fueron a un campamento de Berlín. Yo no pude ir porque trabajaba (creo que era la única que tenía traba-jo). Se celebró en Berlín la jornada inter-nacional de lesbianas. En ese momento se dieron cita lesbianas de toda Europa. Allí mismo se conocieron [...] y compar-tieron los debates que se daban entonces en Europa, traducidos del inglés. Vinieron también nuestras amigas de Madrid (Las LigaDura) y de Zaragoza. [...] Después de conocer a la gente de allí, se decidió hacer unos cursos aquí. Les enseñamos castella-no porque querían conocer la realidad de Euskal Herria.

Beraz, ikastaroa prestatu eta herriko ema-kumeek etxean hartzen zituzten emaku-me europar horiek.

Por lo tanto, montamos una especie de curso y, la mayoría, se alojó en casas de mujeres del pueblo.

41 1990. urtean, urriaren 27tik azaroaren 3ra arte, Berlinen lesbianismoari buruzko nazioarteko jardunaldi batzuk antolatzen dira. Gipuzkoako lesbianen kolektiboko ordezkari batzuk bertaratzen dira, eta Componiéndonos las plumas (Gure lumak osatzen) izenburua duen hitzaldia aurkezten dute (Aldarte, 2008).

Batzuk Minasera⁴² ere joan ziren, hor gizonzkoek okupatutako etxe bat baitzegoen. Horrela, hona etortzen hasi ziren. Eta gauza pila eztabaidatzen genituen. Leitzaranean kanpaldi bat egin genuen, eta horrelakoak [...] Eta, gero, ez dakit zergatik, lesbiana alemaniarrek etortzen hasi ziren batez ere.

Las menos tuvieron que alojarse en Minas, en una casa ocupada por hombres. Así empezaron a venir aquí. Organizamos un montón de debates, hicimos una acampada en Leitzarán y cosas así [...] Y luego, no sé por qué, empezaron a venir sobre todo las lesbianas alemanas.

2.2.2. Gurutzaketak: interseksionalismoaren hastapenak

Txelok kontatu moduan, mugimendu lesbofeministak hainbat armiarma sare sortu ahal izan zituen 80ko eta 90eko hamarkadetan eta honek herriko mugimenduei positiboki eragin ziela adierazten du. Testuinguru honetan, Imanolek gogoan du Bartzelonako eragileekin saretzeak Orereta-Erreterriako mugimendu feministan zer-nolako eragina izan zuen:

Zubigintza horiek beste alor batzuetatik eginda zeuden. Eta orduan tokatzen zen, kointziditu zuen. [Laneko] aholkularitza ikastaroan ikasten ari ginen nola ari ziren Katalunian TELPekoek [Taller d’Espai Lingüístic Personal] [...] ⁴³Klaro, nik gay-akanpadetan ikusten nuen Josebe Iturrioz kontatzen enpoderamendua zer zen. Gero, laneko aholkularitzara joaten nintzen eta etorritako Gemma Sanginés⁴⁴ eta Ferran Suay-ek⁴⁵ esandakoak entzuten nituen [pentsatuz] “Begira, hau da...”. Psikologiaren parametroetatik esan nuen “Ostia! Hau...”. Oso zuzenak, ez? Eta hortik dator, zubigintza horiek egiteko planteamendua: “Aizue, hemen... hauek badakite, goazen ikastera!”.

Euskalgintzak eta honi zuzendutako aktibismoak ere mugimendu (lesbo)feministan eragin handia izan zuela gogoan du Imanolek:

Baina gero deskubritzen dugu feministek euskaltzaleei begiratzen zietela urteetan. Nola liteke... 80aren hasieran udalek konpetentzia berriak eskuratzean trantsizioarekin eta autonomizazio prozesu guztiarekin, euskara zerbitzuak [jarri ziren martxan] udaletxeetan. Feminista guztiak inbidiaz begiratzen [zuten pensatuz]:

42 Arditurri antzinako meatze multzoa da, Aiako Harriaren magalean dagoena, Oiartzunen (Gipuzkoa). Txelok aipatzen duen etxe hura egun ere badago.

43 Taller d’Espai Lingüístic Personal edo TELP honako hau da: “psikologian oinarritutako zenbait tresnaren bidez hizkuntza-interakzio egoerei aurre egiteko baliabide batzuk” (Soziolinguistika klusterra, 2024) eskuratzeko tailerra, deserosoa egiten zaizkigun egoerei behar bezala aurre egin ahal izateko.

44 Gemma Sanginés Saiz Bilbon (Bizkaia) jaio zen 1970. urtean. Psikologoa da, eta hizkuntz ohituretan aditua. “2006tik hiztunak ahalduntzeko TELP tailerrak emateagatik da ezaguna Euskal Herrian” (“Gemma Sanginés”, 2023).

45 Ferran Suay Lerma Valentzian jaio zen 1959. urtean. Psikologian doktorea da, eta aditua hizkuntza asertibitatean (“Ferran-Suay Lerma”, 2024).

“Ostia, begira euskaltzaleek nola dauzkaten...” eta hortik dator 2000ko hamarkadan berdintasun zerbitzuak sortzea, euskara zerbitzuak udaletan nola sortu ziren ikasita. Esan nahi dut, halako zubigintzak lehenagotik ere badaude ezagutze bihurtuta, nahiz eta ez dauden esplizitatuta.

Honen harira, talde eta gizabanako asko interseksionalitatearen ikuspuntua aplikatzen hasi zirela dirudi, baina, beharbada, ez modu kontzientean. Hala eta guztiz ere, zubigintzaz aritzerakoan Imanolek gogoratzen digu garaiko mugimenduak nahikoa bananduta zeudela: “ez zegoen zubigintzarik euren artean. Gaur egun zoragarria da ikustea belaunaldi berriak nola datozen dena gurutzatzen”. Beraz, elkarreragin nabarmenak egon arren, interseksionalitate eta zubigintza oraindik eginean zegoen ageria zen garai hartan. Honela aipatzen digu Imanolek:

Eta, klaro, gure aurrekoek ez zuten inondik ere gurutzaketa ulertzen, gainera, berrirentzat oso garbi bereizita zeuden; eta hori pentsamendu modernoaren eskema mentala da, ezta? Ni konturatzen nintzen euskalgintza eta feminismoaren arteko gurutzaketaz hitz egiten hasten ginenean ba gazteek berehala konektatzen zutela eta berehala ulertzen zutela beraien gorputzetan nola gauzatzen ziren [...] Gure aurrekoek aho zabalik eta begi zabalik begiratzen gintuzten: “Zertaz ari da hau? Nola... zer ikusi behar du honek honekin?”.

Nabarmena da, beraz, 80ko eta 90eko hamarkadetan zehar mugimenduen artean elkarreragina bazegoela eta zubigintzaren hastapenak eman zirela. Belaunaldien arteko arrakalarekin batera, zubigintza honek bestelako formak hartuko zituen eta egindako lana ikuspegi berri batetik ikusteko aukera eman zen. Poliki-poliki, kolektiboak elkar elikatu behar zirela konturatu ziren eta interseksionalitateari forma ematen hasi ziren. Izan ere, gizarteko hainbat eremutatik eta akademiatik ikasitako hainbat nozio berrik irakatsi zuten kolektiboak zapaltzen zituen sistemak berdintsuak direla. Honakoa abiapuntutzat hartuz, LGTBI+ kolektiboaren borroka bestelako itsura hartu zuen XXI. mendean.

3. Mende berriaren bueltan: 2000. urtetik aurrera zer?

3.1. Testuinguru zabalean kokatzen

80ko hamarkada eta 90eko hamarkadako oparotasun eta hazkundearen ostean, XXI. mende hasieran panorama lasaitu zela dirudi. 2000. urtera gerturatu ahala paradigma aldaketa bat egon zen, eta mugimenduak beste era batera gauzatu ziren. Asunek Otxarkoagako jardunaldi batzuk ditu gogoan, bertan mugimenduen indarra lasaitzen hasi zela oroitzen du eta hainbat arrazoi aipatzen ditu: Europako Parlamentuak lehen

aldiz Europar Batasuneko herrialdeei homosexualen arteko harremanak legezkotzea eskatu eta hauek legal bilakatzen hasi zirenean, gizarteko hainbat kolektibok zein LGTBI+ mugimenduko talde batzuek borroka guztiak irabazita zeudela barneratu eta borrokarako grina lasaitu zutela dirudi.

3.1.1. Instituzionalizazioaren gazi-gozoak

Honen ondorioz, LGTBI+ borrokek instituzionalizatzen hasi ziren eta honek Gipuzkoa mailako mugimendua instituzionalizatzeko saiakera ekarri zuen hein handi batean. Donostialdean, adibidez, 1997. urtean Gehitu elkarteak sortzen da. Asunek gogoan du Gehituren sorrera eta iritzi gazi-goza eman digu. Alegia, bertan elkartutako pertsonak "ereduzko lesbiana eta gay onak" zirela iritzi du, zentzudunagoak eta bakegileagoak, hain zuzen. Badirudi, beraz, 80ko eta 90eko hamarkadan identitate urratzaileagoa izan zutela eta instituzionalizazio ahaleginekin batera horien sena moldatu nahi izan zutela. Europar hartutako hainbat erabakik LGTBI+ kolektiboa egituratzeko ereduak aldatu zituen eta honek eragina izango du XXI. mendearen hasieran.

3.1.2. Iraultza berrien jaiotzak: Medeak, transfeminismoa eta kuir mugimenduak

Hala eta guztiz ere, LGTBI+ borrokek instituzionalizatzearekin batera, mugimendu iraultzaile berriak ere sortu ziren. Julenek honakoa azpimarratu du mendearen hasieraz aritu zaigunean:

Orduan, garai horretan Medeak taldea sortu zen, Iru eta hauek, eta guretzako hori guztia erabakigarria izan zen EHGA-Men gauza batzuk aldatu ahal izateko.

Medeak taldearen sorrera mugarrria izan zen, haiek ikusarazten digutelako beste gauza asko hartu behar genituela kontuan, hala nola kuir mugimendua edo transfeminismoa.

Entonces, en aquella época se creó el grupo Medeak, Iru y estas, y para nosotros todo eso fue decisivo para cambiar algunas cosas de EHGAM.

La creación del grupo Medeak fue un hito, porque nos hacen ver que tenemos que asumir muchas otras cosas, como el movimiento cuirista o el transfeminismo.

Julenek aipatu moduan, mende hasieran Medeak bezalako talde iraultzaile berriak sortu eta LGTBI+ mugimenduari bultzada eman zioten. Euskal Herri mailan Medeak mugarrria izan da (ikus 30. eta 31 irudiak) eta honela deskribatu zen orain existitzen ez den talde hura:

Hainbat kide eta buelta eman ditu taldeak. Hasieratik gorputza erdigunean jarri du bere ekintza politikoan. Hala, feministaz gain, hainbat etiketaz hornitzen joan da

hasieratik: bollera erradikalak, transexualak, putak, beltzak... azken batean bazterretan dagoen hori aldarrikatu nahian. Azken urteetan, hausnarketa politikoak ere bide hori jarraitu du; hala, identitatea, indarkeria, gorputzen erregulazioa, bazterrak... diskurtsoaren erdigunean kokatzeak transfeminismoa deiturikoan bilakatzera ere eramán du taldea. (Medeak, d.g.)

Testuan ageri den moduan, kuir mugimendu eta korrontea zein transfeminismoa txertatu zituen gurean talde aintzindari honek. Honela, mugimenduen arteko sareak agerian utzi eta paradigma aldaketa berria piztu zituen Euskal Herrian.



30. Irudia. Medeak ekainaren 28an, Donostian. Iturria: EHGAM.



31. Irudia. Medeak ekainaren 28an, Donostian. Iturria: EHGAM.

Medeak taldea Donostialdean mugitzen zen batik bat, baina baita Oarsoaldea eta Gipuzkoa osotik ere. Gainera, estatuko beste mugimendu batzuekin ere zuen harremana eta honek garai hartako mugimenduak elikatu ahal izan zituen. Talde hau 2020. urte arte egon zen modu jarraituan ekintzak eta ekitaldiak antolatzen eta, beraz, XXI. hasieran nabarmen izan zen. Euren mugimenduetan interseksionalitatearen ikuspuntua txertatzea zuten aldarrri eta honek gure testuinguruko mugimenduak moldatu zituen. Imanolek talde honen inguruan hausnartu eta euren lana aitortu digu. Hala gogoratzen du garai hartan zer suposatu zuen taldeak: "Ostia, gu ari gara hemen zapalketa batzuk azaleratzen eta ez gara konturatzen beste batzuk erreproduzitzen ari garela", erdaraz mintzatzen zutela, alegia. Honela, mugimendu ezberdinekin lotura eman behar zela aldarrrikatu zuen talde honek eta inguruko eragileei mezu hura iritsi zitzaiela dirudi



32. Irudia. Josebe Iturrioz eta Julen Zabala agertzen dira 2011ko ekainaren 28an LGBTBI+ harrotasunaren nazioarteko egunean. Iturria: EHGAM.

(ikus 32. irudia). EHGAMeko Imanolek azaldu moduan, hainbat gogoeta bultzatu zituen Medeak taldeak. Adibide moduan, euskararen eta euskalgintzaren eta LGBTBI+ mugimenduen loturak aitortzera bultzatu zituen hainbat talde. Horrela, euskarak borroka hauetan duen presentzia azpimarratu eta hizkuntza zapalduen inguruan ardaztera eraman zituen hainbat pertsona eta eragile.

3.2. Orereta-Erreterria eta Oarsoaldea marrazten: testuinguru zabala eta herriaren arteko bat-egitea

3.2.1. Garaipen

Mende hasierako eztabaida berriak ere Orereta-Erreterria eta Oarsoaldera iritsi ziren. 2002. urtean, LGBTBI+ mugimenduan ematen ari ziren aldaketan ondorioz, Garaipen elkarte osatzen da Orereta-Erreterrian (ikus 33. irudia); euskal, migrante eta lesbofeminista emakumeen kolektiboa, hain zuzen. Elkarte Orereta-Erreterriako Beatriz Zalacain eta Ana Murcia-k sortzen dute, eta, EHGAMekin, Donostiako Emakumeen Etxearekin eta Medeak taldearekin harreman estua izan zuen. Itziarrek honako hau dio elkarte honetaz:

Iritsi eta Garaipen izeneko euskaldun etorkin talde bat zegoela ikusi nuenean... Ostia, izugarri flipatu nuen. Eta ezagutu nituenean [pentsatu nuen]: puta ostia dira. [Eta harremanaz] Junerekin, garai horretan Donostiako Emakumeen Etxean lan egiten zuenarekin, Pantojismo tailer bat ematera joan nintzen. Nire auzoan izan zen, Alabergan! Benetan flipatu nuen. "Pantojismo" tailerretan maitasun aber-tzaletasuna exortizatzen genuen, maitasun erromantikoa zalantzan jartzen genuen, eta mozorrotu eta antzestu egiten genuen... Oso hunkigarria izan zen.

Cuando llegué y me encontré con que había un grupo de vascas inmigrantes que se llama Garaipen... Ostia, flipé muchísimo. Y cuando las conocí [pensé]: son la puta ostia. [Y de la relación] con June, que en esa época trabajaba en la Casa de las Mujeres de Donostia, fui a dar un taller de Pantojismo. ¡Fue en mi barrio, en Alaberga! Realmente flipé. En los talleres de "Pantojismo" exortizábamos el patriotismo amoroso, cuestionábamos el amor romántico y nos disfrazábamos y lo teatralizábamos... Fue muy emocionante.



33. Irudia. Garaipen elkartearen logoa. Iturria: Garaipen elkarte.

3.2.2. Intersekzionalitatearen bultzada

2000. hamarkadaren bueltan Gipuzkoako LGTBI+ mugimendua aldatuko zuen gertakaria ere eman zen: Moio gazte hernaniarraren suizidioa. Moioaren suizidioaren ostean, Hernaniko zein beste herrietako mugimenduek hausnarketa sakona burutu zutela dirudi. Suizidioaren ostean, Hernanin Moioaren omenezko ekitaldi soziopolitikoak gauzatu ziren (Miner, 2019) eta bertan Orereta-Erretereriako Garaipenek ere parte hartu zuen. Ekitaldi hauen baitan, Hernanira Moisés izeneko gizon transa ekarri eta bere testigantzek transfeminismoaren garapenaren beharra agerian utzi zuten. Moioaren suizidioaren inguruan Kattalin Miner Medeak taldeko kide ohi eta Moioaren

lagunak garai hartako bizipenak bildu zituen aurretik aipatu den *Moio: gordetzea ezinezkoa zen* (Miner, 2019) liburuan. Bertan, Medeakeko kide izandako Txurruk hala oroitzen du gertakaria:

Ez dakit, baina nik uste dut, asko jakin gabe ere, argi genuela irakurketa politikoa beharrezkoa zela, ez zela besterik gabeko suizidio bat (bueno, ez dago besterik gabekorik, baina ulertzen didazue), baizik eta hor atzean bazegoela transfobia trans-fondo bat, horretara eraman zuena. Guretzat garrantzitsua zen irakurketa politiko hori behintzat herrian egitea, jendeak uler zezan zer pasatzen ari zen, eta jendea aktibatzeke era bai (Miner, 2019, 74. or.).


Medeakeko beste kideetako batek, Ituk hain zuzen, segida ematen dio pentsamendu honi:

Bai, guk oso argi genuen transfobia kasu bat zela [...] Guk argi genuen, beraz, irakurketa politiko hori sozializatu egin behar zela, eta orduan, EHGAMekin batera, Mikelak ideia oso ona izan zuen, Zinegoaken zikloa Hernanira ekartzea, eta elkarlanean lotu genuen Moisesen hitzaldia eta abar (Miner, 2019, 74. or.).

Testuinguru honetan, Orereta-Errenteriako Garaipen taldeak Hernaniko ekintzetan parte hartu zuen eta trans errealitateen inguruan kontzientzia sustatzen hasi zen. Aldi berean, 2008an Orereta-Errenteriako mugimendua elikatuko zuten jardunaldiak gauzatu ziren Artelekun⁴⁶. Honela oroitzen ditu Imanolek Artelekun uztailaren 2tik 5era antolatu ziren feminismo porno-punk jardunaldiak (ikus 34. eta 35. irudiak):

[Mugimendu eta paradigma berri hori] 2000ko hamarkada erdialdean hasi eta 2008an azaleratzen da, feminismo porno-punk jardunaldietan Artelekun. Eta hor hasten da hori [...] gero etorri dira Mari Luz Esteban, Idurre Eskisabel, edota Lorea Agirre horri buruz teorizatzeraz, ezta? Eta horrek oso bide emankorra eman du. Has-tapen horietan lesbianak eta maritxuak geunden eta feminismo porno-punkeko Artelekuko zera horrek Eugeni Rodriguez, Itziar Zigak... aurkezten ditu.

46 Arteleku Gipuzkoako Foru Aldundiako arte eta kultura garaikideko zentroa zen, euskal testuinguru kulturallean atek ireki zituen lehena. 1987. urtean bere atek ireki eta 2015. urtean itxi egin zituen. Txomin Enea auzoan (Donostian) zegoen kokatuta, eta ibilbidea luzea izan du (Zilbeti, 2016).



34. Irudia. Arteleku antolatu ziren Feminismo porno-punk jardunaldien postala. Iturria: Arteleku.



35. Irudia. Arteleku antolatu ziren Feminismo porno-punk jardunaldien egitarauaren azala. Iturria: Arteleku.

Jardunaldi horietan interseksionalitatearen ikuspuntua protagonista izan zen, eta Imanollek argi ikusten du mugimenduen artean erlazio bat egon behar zuela, ezin zirela elkarrengandik urrundu.

Jardunaldi horiek egin ziren urte horietan, Artelekuk feminismoaren eta arte-sorkuntzaren inguruan trebatzeko eta hausnartzeko espazio ezinbestekoa eskaini zuen. Alde batetik, teoria feministak, kuir ikasketak eta transfeminismoen inguruan lan egiteko gunea izan zen. Bestetik, arte-sorkuntza horretan errekurtsioak eman zituen transfeminismoetan erabilgarriak izan zitezkeenak, *performance*-ak (antzerkiak), esate baterako. Mintegi ugari koordinatu eta antolatu ziren gai hauetaz mintzatzeko (Zilbeti, 2016). Testuinguru honetan antolatu ziren Feminismo Porno-Punk Jardunaldiak eta, beste-lako gertakariekin batera, paradigma aldaketa berria garatu zen Euskal Herrian zein Orereta-Erreterria eta Oarsoaldean.

3.3. Enbor beretik sortu garenok: 2014tik aurrera zer?

Memorian barrena, gaur egunera gerturatzen goaz eta azpi-atal honetan 2014. urtetik aurrera sortu diren ekimen eta ekintza ezberdinak bildu nahi izan ditugu. Hala, egungo borroka nola dirauen islatu nahi dugu, bai eta memoria egunean egiten ari garela azpimarratu ere. Izan ere, memoria eta borroka ez dira pasatako testigantzekin bukatzen, aurrera goaz eta bidea egiten jarraitzen dugu. Datozen lerroetan, Orereta-Erreterrian LGTBI+ kolektiboaren inguruan gauzatu diren ekimen aipagarrienak nabarmenduko ditugu banan-banan.

3.3.1. Zebrabidea

Orereta-Erreterrian urtero ortzadar zebrabidea marraztu ohi zen eta honakoa herrian mugarri izan da. 2024. urtera arte, zebrabidea "homofobiaren aurkako zebrabidea" izendatzen zen eta urte hartatik aurrera "LGTBI+fobien aurkako zebrabidea" deituko da. Orereta-Erreterriako sinbolo nabarmen hau belaunaldien arteko topagunea izan da urteetan zehar, izan ere, zebrabidea koloreztatzeko ekitaldia antolatzean herriko hainbat eragile eta pertsona biltzen ziren. Haatik, 2019. urtean Udalak zebrabidea modu iraunkorrean koloreztatu zuen eta urte hartatik zebrabidea margotzeko ekintzarik ez da egin. Pertsona askoren aburuz, gainera, zebrabidea elkargune, topagune eta sinbolo izan da, LGTBI+ borrokan, bai eta hortatik haratago ere.



36. Irudia. Mikela LGTBI+fobien aurkako Zebrabidea margotzen, 2014. urtean. Iturria: Xabier Susperregi.



37. Irudia. Herriko jendea Zebrabidea margotzen, 2018. urtean. Iturria: Xabier Susperregi.

3.3.2. LGTBI+ Mahaia

2018. urtean, LGTBI+ Mahaia sortu zen, helburu ezberdinekin: herriko LGTBI+ pertso- nek haien ezinegonak partekatu, errealitate bat dela ikusarazi eta, hori kontuan hartu- ta, herriko bizilagunen arteko bizikidetzeta ona bermatzeko lan egitea.

Denbora pasa ahala, taldea txikituz joan zen eta egun ez da existitzen. 2023ko urte ha- sieran disolbatu zen taldea, Mikelaren heriotza garaian. Elkarrizketatuen aburuz, LGT- BI+ mahaia izan zuen erronka zailenetakoa herritarrengana hurbiltzea izan zen. Hala azaltzen du mahaiko kide izandako Naroak: "Inoiz ez da erraza izan pertsonak gehiago hurbiltzeko gakoa aurkitzea, parte har dezaten."

Mahai-inguruko parte-hartzaileetako batek ere honakoarekin bat egiten du eta azken al- dian dagoen aktibismo eta antolakuntza gainbeheraren adibide moduan jartzen du mahaiaren desegitea:

Agian, adibiderik berriena LGTBI mahaia da, martxan egon den lauzpa- bost urteetan ez baita lortu gazteak gerturatzea, jende berria hurbiltzea.

Quizás el ejemplo más reciente sea la mesa LGTBI a la que, en los cuatro o cinco años en funcionamiento, no se ha conseguido acercar a los jóvenes, acercar a nuevas personas.

3.3.3. ErreferenteEKIN

ErreferenteEKIN, 2019. urtean Orereta-Errenteriako hainbat aktibistak Udalari eskatu- tako ikerlan bat izan zen, non herriko LGTBI biztanleriaren errealitateen diagnostikoa egin zen. Lan honen helburua "LGTBI mugimendu politikoa, Udala eta Errenteriako kom- unitatea elkarrizketan/harremanetan jartzea" izan zen. Ikerketa honen bitartez, LGT- BI komunitatearen proposamenen eta eskaerak bildu eta "heteroarauan zentratzen ez diren politika publikoak diseinatzeko" erabilgarriak izango diren estrategiak planteatu ziren (Errenteriako Udala, 2019).

ErreferenteEKIN txostenean hainbat ondorio jasotzen dira, hala nola: LGTBI mugimen- duaren memorian sakontzea ezinbestekoa dela kolektiboaren ahalduntzerako; Udalak LGTBI pertsonak hobeto bizitzeko politika zabalagoak egin ditzakeela, "heterosexuali- tatea erregimen politiko gisa ulertu eta zalantzan jartzera bideraturikoak" (Errenteria- ko Udala, 2019, 13 or.).

3.3.4. Ekintza-plana

Hala eta guztiz ere, LGTBI+ biztanleriaren beharrak, arazoak eta bizipenak ezagutzea ez da nahikoa LGTBI+ pertsonen errealitateak eraldatzeko. Honegatik, 2019. urteko Orereta-Errenteriako diagnostikoaren harira, udalak ekintza-plan bat abiarazi zuen Eihera Koop. Txikiaren aholkularitzarekin proposamenak inplementatzeko eta herriko LGTBI+ pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko nahian (Errenteriako Udala, 2022).

Ekintza-planak hainbat proposamen eta neurri barne hartzen ditu; eta memoriaren arloan, esate baterako, "Errenteriako LGTBI+ pertsonen eta mugimenduaren memoriaren jasoketa eta ikerketarako beka baten sorrera" (Errenteriako Udala, 2022, 12 or.) neurria jasotzen da, honako ikerketa hau izango litzatekeena. Halere, atal honek beste neurri batzuk ere jasotzen ditu, eta ekintza-planak beste arlo batzuk ere, behar ezberdinetan sailkatuta eta epe motz, ertain eta luzera pentsatuta.

3.3.5. Francisaldia

2022. urtetik aurrera burutzen den ziklo honen baitan emandako programazioak LGTBI+ memoria eta aldarrikapena sustatzea du helburu, eta modu horretan herritarren ahalduentzea prozesua eta sentibilizazioa bultzatzea. Horrela, berdintasunerako eskubidearen eta genero-identitate eta sexu-orientazio ez normatiboen aldeko aldarrikapenari zuzendutako ekintza anitz antolatu dira, musika, zinema eta literatura bezalako diziplinak lotuz (ikus 38. irudia).



38. Irudia. 2022an ospatutako lehenengo Francisaldiaren egitarauaren kartela. Turria: Herri Bizia.

LGTB+ identitateen aldeko borrokan ardatz diren hainbat egun biltzen ditu bere baitan, hala nola LGTBfobiaren aurkako nazioarteko eguna (maiatzak 17), Francisen erailketaren urteurrena (ekainak 10) edota LGTB+ Harrotasunaren nazioarteko eguna (ekainak 28). Ziklo honen oinarri Francis eta bere memoria dira.

2024. urteko Francisaldia berezia izan da, izan ere, Xabier Susperregik kaleratutako *Francis* liburuaren ostean, Francisen bizitzako memoria berriak berreskuratu dira eta lehen aldiz Francisen bizitza laburbiltzen duen erakustaldi publikoa egin ahal izan da. Gainera, LGTB+fobien aurkako zebra-bidean Francisen omenez dagoen oroigarria aldatu egin da. Egun "trabesti" hitza erabili beharrean "transformista" hitza erabiltzen da Francis izendatzeko. Honekin lotuta hortik aurrera Francisaldiak izango duen irudia gizarteratu egiten da (ikus 39. irudia).



39. Irudia: 2024. urtetik aurrera Francisaldiko irudi ofiziala. Iturria: Kulturklik.

3.3.6. Mikelaldia

2023ko irailaren 23an Mikelaldia izendatutako ospakizuna egin zen Orereta-Errenterian, Mikelaren omenez. Ekitaldi hau Mikelaren gertuko senide eta lagunek antolatu zuten, Orereta-Errenteriako Udala eta herritarren laguntzarekin.



40. Irudia. Kalejira. Iturria: X (aurreko Twitter).

Eguna kalejira batekin hasi zen Gaztaño auzotik eta herriko kaleetan zehar luzatu zen (ikus 40. irudia). Ondoren, Lekuona Fabrikan kabaret ikuskizuna eskaini zen. Bukatzeko, herri-afaria eta festa burutu ziren Lino gunean (ikus 41. irudia). Honela, Mikela aktibista historiko eta herritar maiteari hil osteko omenaldia egin zitzaion eta LGTB+ borroketan izan zuen papera aitortu zitzaion.



41. Irudia. Mikelaldiko karpa, 2023. Pankartan: Mikelaren erretrato bat "Betirako dantzan gure lumatzen. Ondo pasa txikis." esaldiarekin. Iturria: X (aurreko Twitter).

3.3.7. LGTB+ Politiken Aholku Kontseilua

2023. urtean Orereta-Errenteriako Udalak LGTB+ Politiken Aholku Kontseilua onartu zuen. Honakoa LGTB+ mahaitik sortutako hainbat aldarrikapenei erantzun nahi izan zien eta mugimendua Orereta-Errenterian berriz antolatzeko saiakera instituzionala izan da. Kontseilua, Iñaki Queralt zinegotzia lehendakari duena, parte-hartzean oinarritutako organoa da eta Udalak eta herritar, herriko talde edo elkarteek osatzen dute. Honako hauek dira kontseiluaren helburuak:

- LGTB+ pertsonen eskubideen aitormena soziala, askatasunak eta eskubideen bermea sustatzeko udal politika aholku organo gisa bideratzea.
- Orereta-Errenteriako LGTB+ ekintza-planaren ezarpenaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Udalerriko LGTB+ ekintza-planaren existentzia eta garapena bermatzea.
- LGTB+ pertsonen parte-hartzea, ahalduntzea eta erreferentzialtasuna bultzatzea.
- Tokiko LGTB+ arloko jarduerak, programak eta politikak sustatzea eta aztertzea, diziplina anitzeko ikuspuntu batetik.

3.3.8. Kuirdinadora

Oarsoaldeko Kuirdinadora 2024. urtean sortutako talde ez-instituzionalizatua da. Bertan, Orereta-Errenteriako pertsona eta talde ezberdinak elkartzen dira herriko ekitaldiak antolatzeko eta beste LGTBI+ taldeekin koordinazioa egiteko.

4. Denbora-lerroa

Jarraian, aurreko orrialdeetan garatu ditugun gertakariak laburbiltzen dituen denbora-lerroa aurkezten dugu. Helburua ez da linealtasun bat ematea LGTBI+ memoriari, baizik eta elkarriketatuek plazaratutako gertaera esanguratsu batzuk azpimarratzea. Izan ere, gertakari hauetatik at beste ekintza asko ere egin dira, denbora-lerro honek barne hartzen ez dituenak.

DENBORA-LERROA

1933ko abuztuan, II.
Errepublikan *Alferren eta Gaizkileen legea* (*La Gandula* ezizenarekin ere ezaguna) indarrean jarri zen.



1970ko abuztuan.
Arriskugarritasunaren eta Gizarte-errehabilitazioaren legea indarrean sartu zen. Lege berri honek jokabide homosexualak kriminalizatu zituen, besteak beste. Honakoa indarrean egongo da 1979. urtera arte, baina 1995. urtera arte ez da guztiz desagertuko.

1933
La Gandula

1954
Homosexualak

1970
Kriminalizazioa

**#KUIR
ARTXIBO
BIZIA**

1954ko uztailan.
Alferren eta Gaizkileen legeak homosexualitatea barne hartu eta honakoa penalizatu zuen 1970. urtera arte.

Movimiento Español de Liberación Homosexual (MELH) sortu, Espainian LGBTI+ pertsonen eskubideak defendatu zituen lehen erakundea. Bartzelonan Armand de Fluvià eta beste kide batzuek sortuko dute klandestinitatean.

1975eko ekaina eta uztaillean.

MEXIKO

Emakumearen egoera juridiko eta sozialari buruzko lehen mundu-konferentzia burutu zen.

1975eko azaroan.

Franco diktadorearen heriotzarekin batera, gertaera historiko honek emakumeen aldeko eskubideen aldarrikapenei bultzada eman zien Espainia zein Euskal Herrian.

1975

Emakumeak

1976ko urrian.

BASAURI

Hamaika emakume eta gizon bat atxilotu zituzten abortatu izana edo abortuan lagundu izana leporatuta.

Mobilizazio masiboak antolatu ziren. Prozesu penalak 1976tik 1985era iraun zuen. Prozesu hura Espainiako demokraziaren lehen abortuaren legearen aitzindaritzat jotzen da.



1976

EHGAM

1976ko azaroan.

BILBO

Euskal Herriko Gay Askapen Mugimenduaren (EHGAM) sorrera, Bilbon. 1977. urtean plazaratzen da taldea. Sortzaileak Imanol Álvarez eta Antonio Quintana izan ziren.



DENBORA-LERROA

1977ko maiatzan.

Coordinadora de Frentes de Liberación Homosexual del Estado Español (COFLHEE) sortu. EHGAMEk ere parte hartu.

1977ko azaroan.

BASAURI

Espetxean, María Isabel Gutiérrez Velasco sexu-langilea hilda agertu zen. Hiriko prostitutek *Arriskugarritasun eta Gizarte-errehabilitazioaren legea* indargabetzeko protestekin bat egin.

1977ko azaroan.

BILBO

EHGAM lehen aldiz argitaratuko du 'Gay Hotsa' aldizkaria. 1998. urte arte.



1977

Laguntza-sareak

1978

Indar poliziala

1979ko ekainaren 3an.

TUTERA

Gladys del Estal Ferreño aktibista ekologista hil zuen Guardia Zibilak Tuteran. Gertaera hau euskal mugimendu ekologistaren ikur bihurtu da.

1979ko ekainaren 10ean.

ORERETA-ERRETERIA

Francisen erailketa lztietako Apolo tabernan, LGTBI+ mugimenduei sua emango zion gertakari historikoa.

DONOSTIA

Ekainaren 12an erailketa salatzeke manifestazioa.

1979

Francis

ORERETA-ERRETERIA

Emakume taldea sortu: abortatzeko laguntza-sarea antolatu eta sexu-askatasuna aitortzeko.



1978ko uztailan.

ORERETA-ERRETERIA

Polizia Armatuko indarrek herriko establezimendu publikoak eta etxe pribatuak suntsitu zituzten. Emakumeak bortxatu zituzten.

1979ko ekainaren 28an.

GIPUZKOA

EHGAM Gipuzkoaren sorrera. LGTBI+ Harrotasunaren eguneko lehen manifestazioa antolatu zuen.

DONOSTIA

COFLHEE koordinadora Bildu.

BILBO

Emakumearen Sexual Askatasunerako Mugimendua (ESAM) emakume lesbianen taldearen sorrera.

1979ko ekainaren 11 eta 14an.

ORERETA-ERRETERIA

Hainbat mobilizazio egin ziren. Mobilizazio hauetan, Mikelak bere diskurtso famatua eskaini zuen eta "Ni homosexuala naiz" aldarrikatu zuen herriaren aurrean.



1983ko otsailan.

EHGAM legalizatu zen.

1983ko maiatzaren 21 eta 22an.

ORERETA-ERRETERIA

Zamalbide auzoan Euskadiko lesbiana Feministen 1. Jardunaldiak egin ziren, 200-250 lesbiana bildu zituenak.

1980

Asanblada

DONOSTIA

Donostiako Asanbladako lesbianen taldea sortu zen.

GIPUZKOA

EHGAM Gipuzkoako lesbianen taldea sortu.

1981

GIB/HIES

GIB/HIESaren krisiaren hasiera. 1985eko apirilaren 25ean lehen heriotza iragarriko da Euskal Herrian.



1983

Zamalbide

1983ko irailean.

ORERETA-ERRETERIA

Txintxarri elkarteak eratu zen Juan de Olazabal kalean, topagune bat lesbiana eta feministentzat bereziki.

DENBORA-LERROA



1984ko martxoan.

Mikelen Heriotza filma estreinatu zen. Bertan, Imanol Ariasekin batera Fama oreretarrak parte hartu zuen.

1985eko uztailaren Sean.

Eragindako abortua hiru kasu zehatzetan despenalizatzeko pausua eman: haurdun zegoen pertsonaren osasun fisiko edota mentala arrisku larrian, bortxaketa kasuetan eta fetuak malformazio fisiko eta psikikoak zituen kasuetan.

SORGINAK

90ko 'Ezkerria' 200. zuzen. 8. zifra.



Tu, alaba agur... (Ezkerria on tu agur!)

EUSKADIKO LESBIANA FEMINISTEN KOLEKTIBOAK 

1986ko irailean.

EUSKAL HERRIA

Sorginak aldizkariaren sorrera Euskadiko lesbiana feministen kolektiboaren eskutik. 1994. urte arte iraun zuen.

1984

Zintzilik irratia

1985

Abortua

1986

Sorginak

ORERETA-ERRETERIA

Oreretako Zintzilik Irrati Librearen sorrera. Honakoa, maritxu, bollera eta arautik kanpo daudenentzat topagunea izan da.



ORERETA-ERRETERIA
Matxarda Kolektiboa
sortzen da.



1988

Matxarda

ORERETA-ERRETERIA
Alaberga auzoko
danborradan kulero-
barrikada egin zuen talde
lesbofeministak.

1990ko urriaren 27tik
azaroaren 3ra

BERLIN

Lesbianismoari buruzko
jardunaldiak antolatu.
Gipuzkoako lesbianen
kolektiboko ordezkari
batzuk bertaratzen dira,
oreretarrak barne, eta
*Componiéndonos las
plumas* izenburua duen
hitzaldia aurkezten dute

1990

Berlin

ORERETA-ERRETERIA

Mikelazulo kultur
elkartearen sorrera.
Beheko kalean zegoen.
Bertan kolektiboari
lotutako ekintza
ugari antolatu ziren.

1995ko urtarrilaren 20, 21
eta 22an.

ORERETA-ERRETERIA
COFLHEE koordinadora
Oreretan bildu zen.



1995

Mikelazulo

DENBORA-LERROA



DONOSTIA
Medeak talde transfeministaren sorrera Donostian. Taldea 2020. urte arte egon zen modu jarraituan ekintzak eta ekitaldiak antolatzen.

ORERETA-ERRETERIA
Garaipen elkartearen sortzen dute Beatriz Zalacain eta Ana Murcia-k. Euskal, migrante eta lesbofeminista emakumeen kolektiboa, hain zuzen ere.



1997

Gehitu

2000

Medeak

2002

Garaipen

DONOSTIA
Gehitu elkartearen sortzen da



2000ko abenduaren 1ean.

GIPUZKOA
GIB/HIESaren aurkako nazioarteko eguneko lehenen manifestazioa antolatu zen. Lehena Orereta-Erreterian izan zen eta Donostian jarraipena izan zuen.

2007ko apirilaren 23an.

HERNANI

Hernanin Moio trans gazteak bere buruaz beste egin zuen. Herrian Moioeren omenezko ekitaldi soziopolitikoak gauzatu ziren eta bertan Medeak, Garaipen eta EHGAM bezalako taldeek parte hartu zuten. Oreretarren presentzia nabaria izan zen.

2007

Moio

Aurrerago, Hernanin kale bati izena aldatu zioten Moioeren omenez eta omenaldi hartan ere Orereta-Erreterria presente egon zen.



2008ko uztailearen 2tik 5era.

DONOSTIA

Artelekun Feminismo porno-punk jardunaldiak antolatzen dira.



2008

Arteleku

2014ko uztailean.

ORERETA-ERRETERIA

Iztietako zebrabidea ortzadarraren kolorez margotzen da lehen aldiz. Hortik aurrera, urtero antolatu da ekintza bera 2019. Urte arte. Urte honetan, udalak zebrabidea ortzadarraren kolorez modu iraunkorrean margotu zuen.

2014

Zebrabidea



2023ko irailaren 23an.

ORERETA-ERRETERIA

Mikelaldia burutuko da, Mikelaren omenez egin zen jaialdia.



2023ko azaroan.

ORERETA-ERRETERIA

LGTB+ Politiken Aholku Kontseiluaren sortuko du Orereta-Errenteriako Udalak.

2023

Mikelaldia

2024ko apirilean.

ORERETA-ERRETERIA

Oarsoaldeko LGTB+ Kuirdinadoraren sorrera.

2023ko apirilaren 26tik 28ra.

LEITZA

Euskal Herriko Topaketa Bolleroak burutzen dira.



2024

Kuirdinadora



...

ORERETA-ERRETERIA

Xabier Susperregik idatzitako *Francis* liburuaren kaleratzea.



2024ko ekainean.

ORERETA-ERRETERIA

Francisaldiaren baitan, Francisen omenezko lehen erakusketa Xenpelarren. Bertan, Francisen bizitza berreraiki eta irudi eta material berriak aurkeztu dira.



5. Ibilbidea

Metodologiaren atalean azaldu moduan (ikus I. kapitulua 2.2. puntua), Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeko LGTBI+ memoria osatzeko burututako irratsaioekin ibilbide bat sortu da herrian. Ibilbideari forma emateko, kokagune ezberdinak hautatu ditugu herrian zehar. Espazio fisikoan eragina izateko, leku horietan QR kode bat jartzea proposatu dugu; honela, herritarrek, euren mugikorra baliatuz, irratsaioak entzuteko aukera izango dute.

5.1. Apolo kluba. “LGTBI+ memoria kolektiboan kokatzen”: Julen Zabala.

Julen Zabalak Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeko LGTBI+ mugimenduaren begirada orokor bat eskaintzen digu, eta Francisen erailketa mugarri izan dela aldarrikatzen du. Julen ez da izan Francisen erailketa mugarrizat kokatu duen bakarra, baina berak egingandako argazki orokor honek gainerako irratsaioak testuinguratu eta ikuspegi sakona eskaintzeko balio du. Honegatik lotzen da lehenengo irratsaio hau Francisen erailketarekin eta honakoa omentzen duen kokagunetik gertu topatu dezakegu.

Kokagunea, beraz, Apolo kluba da, bertan Francis polizia batek tiroz hil zuelako (ikus 42. eta 43. irudiak). Diskoteka Iztieta auzoko Donostia kalean zegoen kokatuta. Premiazkoa iruditu zaigu leku hau ikusaraztea garai batean Orereta-Errenteriako erdigunetik oso gertu LGTBI+ pertsonentzako espazioak zeudela adierazteko. Era berean, LGTBI+ fobien aurkako zebra-bidetik oso gertu dago. 2014tik aurrera martxan jarri zen ekimenak Francis pertsonaren oroigarri gisa funtzionatu du, eta herria batzeko eta LGTBI+ historia transmititzen jarraitzeko baliagarria izan da (ikus II. kapitulua, 3.3.1. puntua).



42. eta 43. Irudiak. Ezkerrean: Apolo Kluba zegoen lekua. Iturria: argazki pertsonala. Eskubian: QRa.

5.2. Zumardia. "Nor bait gutaz oroitu ko da: bollerak, transfeminismoa eta bestelako tirabirak": Naroa Zabala eta Haizea Sanchez.

Ikerketa burutu ostean, agerikoa da herrian bollerak eta feministak ez direla hain ikusgarriak izan biztanleria orokorrarentzat. Izan ere, askotan kolektibo hauen ekintzek ez dute errekonozimendu nahikoa jaso gizartearen aldetik, bereziki aintzat hartzen badugu maiz euren ekimenak bigarren plano batean geratu direla. Naroa eta Haizearen irratsaioa Zumardian jartzea erabaki dugu (ikus 44. eta 45. irudiak), mugimendu hauek bazterretatik erdigunera eramateko, literalki eta metaforikoki. Honela, espazio jendetsu honetan eskualde eta herri honen konfigurazioan identitate hauek izan duten garrantzia azpimarratu nahi dugu.



44. eta 45. Irudiak. Ezkerrean: Zumardiko kioskoa. Iturria: argazki pertsonala. Eskubian: QRa.

5.3. Niessen kulturgunea. "Bada itxaropena? Gaur egungo mugimenduak": Paula Lopez.

Paularentzat musika arnagunea eta aldarrikapenak egiteko tresna bat da. Musikaren bitartez mezuak helarazi daitezke eta iruditeria sozialean eragin daiteke. Gaur egun, Orereta-Erreterrian Niessen kulturgunea da musikari espazioa ematen dion aretoetako bat, eta, sarritan, hortik pasaz gero, instrumentu ezberdinen soinuak entzutea ohikoa da. Hori dela eta, Paularen irratsaioa plaza horretan jartzea erabaki dugu (ikus 46. eta 47. irudiak).



46. eta 47. Irudiak. Ezkerrean: Orereta-Errenteriako Musika Eskola. Iturria: argazki pertsonala. Eskubian: QRa.

5.4. Gabierrotako zubia. “Bada itxaropena? Gaur egungo trans mugimenduk”: Mash Elizalde eta Kay Subijana.

“Zure trans iruditeria despatologizatu”. Honela dio Gabierrotako zubiaren ondoko paretan batean idatzita dagoen pintadak. Sistema honek trans errealitateak patologizatu, kriminalizatu, erasotu eta epaitu ditu modu batera edo bestera, eta, tamalez, hori guztia egiten jarraitzen du. Honen etsenplu da pintada horren azpian irakur daitekeen iraina, trans pertsonak erasotzen dituenena. Mash eta Kay Subijana honetaz mintzatu dira, eta ez dugu imajinatzen irratsaio egokiago bat guztiok dugun trans iruditeria hori despatologizatzen hasteko (ikus 48. eta 49. irudiak).



48. eta 49. Irudiak. Ezkerrean: Gabierrotako pintada. Iturria: argazki pertsonala. Eskubian: QRa.

5.5. Gabierrotako etxe okupatua. "Indar soziala duen herria: mugimendu okupa eta mugimendu feminista": Txelo Berra.

Orereta-Erreterriako Gabierrota auzoaren beste aldean, Txelo Berraren irratsaioa aurkituko dugu, gaur egun dagoen etxe okuparen ondoan (ikus 50. eta 51. irudiak). Izan ere, Matxarda kolektiboak bertan zegoen etxe bat okupatu zuen, egun bus parada dagoen tokian. Matxarda Kolektiboa erreferente izan da herrian eta eskualdean (ikus II. kapitulua, 2.2. puntua). Kolektibo lesbofeminista honek gure herrian gertatutako bidegabekeriak salatu ditu, eta herria bizigarriagoa egin du. Honegatik, irratsaioa bertan kokatzea erabaki da.



50. eta 51. Irudiak. Ezkerrean: Gabierrotako etxe okupatua. Iturria: argazki pertsonala. Eskubian: QRa.

5.6. Zamalbide auzoa. "Memoria ariketa: feminismoaren eztanda Oarsoaldean": Asun Urbieta.

Lehen esan bezala, gure herrian eta eskualdean mugimendu lesbofeministak ikusgai izan dira. Esate baterako, Zamalbiden antolatu ziren topaketak historikoak izan ziren, lehenak Euskadi mailan (ikus II. kapitulua, 2. puntua). Hala eta guztiz ere, badirudi herrian egin ziren jardunaldi hauen oihartzuna jende gutxiengana iritsi dela. Honegatik, Asunen irratsaioa Zamalbidera eramatea eta auzo honi esanahi berri bat ematea izan da gure helburua. Honegatik, auzo honetan dagoen elizaren parean aurki daiteke irratsaio honen QR kodea (ikus 52. eta 53. irudiak).



52. eta 53. Irudiak. Ezkerrean: Zabalbide auzoko eliza. Iturria: argazki pertsonala. Eskubian: QRa.

5.7. Kaputxinoak auzoa. “Putipansexuala nintzen, baina oraindik ez nekien”: Itziar Ziga.

Itziar Ziga kaleko *perra* (txakur emea) bat izan da, eta txikitatik egon da behe-klaseko dorrez inguratuta, konplexurik gabe. Jatorriz, Kaputxinoak auzokoa da, eta auzo hone-tan aurkituko dugu bere irratsaioa, nola ez (ikus 54. eta 55. irudiak).



54. eta 55. Irudiak. Ezkerrean: Kaputxinoseko auzoa. Iturria: argazki pertsonala. Eskubian: QRa.

5.8. Pontika auzoa. "Guduak irabazten: lan pertsonaletik eraldaketa sozialera": Oliber Nestar.

Oliberrek apustu bat egin zuen eta bere ametsa auzoan bertan gauzatzea erabaki zuen. Honela sortu zen Eureka Dance Studio, herriarekin eta herriarentzat aurrera eraman duen proiektua. Orereta-Errenteriako Pontika auzoan bertan Oliberren irratsaioa jar-tzeak zentzu osoa dauka, eta, beraz, hor aurkituko dugu bere irratsaioa (ikus 56. eta 57. irudiak).



56. eta 57. Irudiak: Ezkerrean: Pontikako auzoa. Iturria: argazki pertsonala. Eskubian: QRa.

5.9. Alaberga auzoa. "Bazterretatik erdigunera: diva bat izaten jarraitzeko estrategiak": Aiora Simó.

Aiorak beti aldarrikatu du periferia, erdigunean baino askotan bazterretako identita-teek periferietan aurkitu dutelako sostengua. Nahiz eta Alaberga ez izan Oreretako auzo marjinalena, hamarkadetan zehar auzoa erdigunetik aldendu egin da eta nortasun propioa eraiki du, Aiora bezala. Gainera, ezin dugu ahaztu Aiora Alaberga auzoko danborradan atera zen lehen trans kantinera izan dela. Honengatik, Aioraren irratsaioa auzo honetan aurkituko dugu, erdigunetik gertu, baina, aldi berean, distantzia batera (ikus 58. eta 59. irudiak).



58. eta 59. Irudiak. Ezkerrean: Alabergako auzoa. Iturria: argazki pertsonala. Eskubian: QRa.

5.10. Merkatuzar. “Herria kuirreratzen: euskara eta LGTB+ komunitateen arteko analisia”: Imanol Miner eta Jokin Pedreño.

Merkatuzar eraikinean Orereta-Erreterriako hornidura-azoka zegoen, eta Udalak kultur jardueraren gune bihurtu du. Azoka edota kulturgunea hein handi batean oso publikoa eta soziala izan da. Puntu bateraino antza handia du honek Jokinek aipatzen zizkigun sare sozial berriekin: bertan jendearekin harremandu, jende berria ezagutu edota jakintza partekatzeko espazioa da. Gainera, Imanolek ere “80ko hamarkadan Ereintza dantza taldeak Alondiga atzean lokal bat zuela gogoratzen” du, “orain Merkatuzar dagoen tokian, astotokitik sartuta”. Beraz, Jokin eta Imanolen irratsaioa hor aurkituko dugu (ikus 60. eta 61. irudiak).



60. eta 61. Irudiak. Ezkerrean: Merkatuzar. Iturria: argazki pertsonala. Eskubian: QRa.

5.11. Irratsaioen kokapena: goitiko bista

Aurreko puntuetan elkarrizketarekin egindako irratsaioak kokatu ditugu, eta irratsaio bakoitzaren kokapenaren zergatiak azaldu ditugu. Laburpen gisa, irratsaioak Orereta-Errenteriako mapan kokatu ditugu, 62. irudian ikus daitekeen moduan:



62. Irudia. Oreretako mapa: goitiko bista. Iturria: Ciudades que caminan.

Mapan hainbat puntu agertzen dira, eta puntu hauek irratsaio batekin lotu ditugu:

1. Apolo kluba. "LGTBI+ memoria kolektiboan kokatzen": Julen Zabala.
2. Zumardia. "Nor bait gutaz oroituko da: bollerak, transfeminismoa eta bestelako ti-rabirak": Naroa Zabala eta Haizea Sanchez.
3. Niessen kulturgunea. "Bada itxaropena? Gaur egungo mugimenduak": Paula Lopez.
4. Gabierrotako zubia. "Bada itxaropena? Gaur egungo trans mugimenduak": Mash Elizalde eta Kay Subijana.
5. Gabierrotako etxe okupatua. "Indar soziala duen herria: mugimendu okupa eta mu-gimendu feminista": Txelo Berra.
6. Zamalbide auzoa. "Memoria ariketa: feminismoaren eztanda Oarsoaldean": Asun Urbietia.
7. Kaputxinoak auzoa. "Putipansexuala nintzen, baina oraindik ez nekien": Itziar Ziga.
8. Pontika auzoa. "Guduak irabazten: lan pertsonaletik eraldaketa sozialera": Oliber Nestar.
9. Alaberga auzoa. "Bazterretatik erdigunera: diva bat izaten jarraitzeko estrategiak": Aiora Simó.
10. Merkatuzar. "Herria kuirreratzen: euskara eta LGTBI+ komunitateen arteko anali-sia": Imanol Miner eta Jokin Pedreño.

III. KAPITULUA

JORRATUTAKO HAINBAT GAI

Hurrengo kapituluan, elkarrizketetan eta mahai-inguruetan sortu diren hainbat gai hautatu, kategorizatu eta aztertu ditugu. Kategoría hauek diseinatzeko, elkarrizketatu ezberdinen testigantzetan errepikatu diren gaiak hautatu ditugu. Hauek garapen-prozesuan dagoen memoria kolektiboa ulertzeko kontuan hartu beharreko gakoak direla ulertzen dugu.

Euskara

Lan hau gidatu duen ardatz nagusi izan da hizkuntzaren inguru-ko hausnarketa. Hizkuntza gutxituak gure testuinguruan duen garrantzia kontuan hartuz, kategoría honetan Euskarak LGTBI+ mugimendu eta kolektiboetan duen presentzia, onarpena eta egoera aztertzen da. Aldi berean, LGTBI+ erreferente euskaldun eta euskaltzaleak bilatzen da kategoría honen baitan.

Ikusgarritasuna

Ikusgarritasunak, eta, zehazki, LGTBI+ ikusgarritasunak, LGTBI+ pertsonak ikusgai diren ala ez izatearekin zerikusia du; eta ez hori bakarrik, ikusgarritasun honetaz hitz egiterakoan zisherteronormatiboa ez den hortaz ere hitz egiten ari gara. Modu asko daude pertsonak ikusgai izateko. Hedabideetan, hezkuntzan, sare sozialetan, ikus-entzunezko kanaletan eta abarretan ikusgai izan gaitezke, baina baita kalean edota espazio fisiko batean ere. Kategoría honek honetaz guztiaz jarduten du.

Topaguneak

Topagune bat elkar aurkitu gaitezkeen leku fisiko edo birtuala da. Espazio hauek pertsonen premietatik edo baterako ezau-garrietatik abiatuta eraikitzen dira orokorrean, denbora, aisia, informazioa eta abar partekatzeko. Azken batean, pertsonak harremanak eta onarpen soziala aurkitzen duten tokia da. Kategoría honetan Ooreretan LGTBI+ pertsonak osatutako topaguneen sorrera eta bilakaera aztertzen da, bai eta honen inguruan aurreikusten den etorkizunaren egoera arakatzeko ere.

Sexilioa

Sexilioa genero identitatea eta orientazioagatik, edota zishereroarautik at egoteagatik, zure auzotik, komunitatetik edota herrialdetik emigratu behar izatearekin lotzen da. Hortaz, migrazio-prozesu bat litzateke honakoa. Leku batean seguru ez sentitzeagatik eta babesgabetasuna nabaritzeagatik burututako migrazio-prozesua, hain zuzen. Kategoria honetan honako prozesua ikusgai egin nahi da, eta honen gainean hausnartu.

Indarkeria

Orereta-Errenterian eta Oarsoaldean indarkeria eta diskriminazio esperientziak gertatu izan dira eta gaur egun ere gertatzen dira. Elkarrizketatuek iraganean zein egun Orereta-Errenterian eta Oarsoaldean gertatutako diskriminazio eta indarkeria gertaera anitz salatu dituzte ikerketa honen baitan.

Babesa

LGTBI+ pertsonak euren egunerokotasunean erresistentziarako lekuak eta babesguneak aurkitzen dituzte gure herrian. LGTBI+ bizitzen babesarekin lotutako aldagaiak identifikatu ditugu ikerketa honetan, ezinegon eta indarkeria mota anitzi aurre egiteko estrategia gisa erabili izan ohi direnak. Babesarekin lotutako faktore horiei dagokienean, hainbat herriko espazio zehatz aipatu dira, bai eta senitartekoen eta lagunartean aurkitutako babesa ere.

Hezkuntza

Hezkuntza gizartean bizi eta garatzeko ezinbestekoak diren ekintzek osatzen dute, gizabanakoaren sozializazioa helburu izanik. Hezkuntzaren bidez ohiturak, balioak, eta abar transmititzen dira belaunaldiz belaunaldi, une historiko eta kulturetara egokituz. Kategoria honetan LGTBI+ komunitateei buruzko balioen transmisioa aztertzen da.

6. Taula. Kategorien laburpenak.

1. Euskara

Euskal identitatearen eta LGTBI+ mugimenduaren arteko gurutzaketari dagokionean, hizkuntza eta generoaren arteko harremanak, euskal mugimendu politikoak eta identitateak izan dira eztabaidagai. Elkarrizketatuen aburuz, gaur egun LGTBI+ mugimenduaren baitan euskara erabiltzea eta euskal identitatea sustatzea oso garrantzitsua da eta honakoa hautu politiko bezala definitzen dute. Honakoa islatzen dute Haizeak eta Naroak beren hitzetan:

Haizea: Bueno niretzako bai da lesbiana izatetik bollera izate horretara gertatu den zerbait. Politikotasun bat hartu duenean, nik bollera identitatea euskararekin oso lotuta sentitzen dut, intersekzio hori berezkoa sentitzen dut.

Naroa: Bai, bai horrela da. Nik uste dut bai pasa dugula lehenengo plano horretara eta garrantzi handia daukala gaur egun. Ez dakit orokorra den, baina, egia da gu ibiltzen edo nahasten garen bollerekin harremanak euskaraz sortzen direla, orduan, gure kasuan bai.

Ildo honetan, LGTBI+ mugimenduaren, feminismoaren eta euskal identitatearen arteko loturak azpimarratu ditu Imanolek ere:

Esate baterako, sexu-askapen borroka dator feminismoaren eskutik, feminismoaren ondoren, atzetik. Garbi. Beti horrela aitortu dugu eta horrela da. Eta LGTBI politikak eta atzetik datozen zera guztiak denak datoz feminismoaren atzetik, ez? Eta Euskal Herrian ere historian ere horrela da, gure genealogia feministetan, esate baterako, oso ondo kontatua dago nola euskal mugimendu feminista Lapurdin hasten den 70etan, eta lehenengo talde feminista hark dagoeneko generoa-klasen-arraza gaiak zeratu zituen, jarri zituen bere gogoetatan, eztabaidatan. Orduan sexu-askapen mugimenduak sortzen dira segidan, oso azkar, berehala. [...] Horregatik guretzat sexu-askapena ezin da ulertu hizkuntza-askapenarekin ez badoa, nazio-askapenarekin ez badoa. [...] Gaur egun beste modu baten adierazten eta naturalizatzen ditugunak, feminismitik ondo ikasitakoa dira, 70etan egindako lotura horietatik. Euskal Herrian sexu-askapen mugimenduaren edo feminismoaren eratzea nazio-gatazka baten markoan gertatzen da, intersekzionalitate bat badago hor hasieratik, ezta? Oso grafikoa zen, ez? Mugimendu feminista Herri Batasunaren 90etako ikonografian, Euskal Herrian euskaraz edo Eguzki mugimendu ekologistan...

Aurreko aipuan azaldu moduan, Euskal Herrian eratutako mugimendu feministak hasieratik izan zuen euskara eta euskal identitatea hizpide, izan ere, testuinguru soziopo-

litikoak hala eskatzen zuen (ikus II. Kapituluak). Marko horren baitan, sexu-askapenerako mugimendua ere loratu zen eta, ondorioz, hasiera-hasierako oinarri sendo haiek bereganatu zituen, zeintzuek euskara eta euskal identitatea ardatz izan zuten.

Honi lotuta, euskararen biziraupenaren eta generoaren arteko loturak ere aipatu dira. Elkarrizketatu batzuen aburuz, neskak eta maritxuak izan dira euskara sostengatu dutenak, Imanolek azaldu moduan:

Eta gero gurean, adibidez ikastolan, zeintzuk ginen euskarari eutsi genionak? Edo ikasgelan, hobe esan? Neskak eta gero maritxuak izan garenak. Eta mutil heteroak edo heteroarauaren pribilegioetan bizi izan ziren guztiak abandonatu zuten euskara. Guztiak ez, gure garaian guztiak ez. Ibon Zabala bazegoen, edo bazeuden pertsona batzuk heteroak izanda eta markatuak izanda ere euskaltzale izan zirenak. Baina gure atzetik etorri diren belaunaldietan hori izan da oraindik gehiago eta markatuagoa.

Bestalde, hizkuntzak, honakoaren erabilerak eta identitatearen garapenak LGTBI+ pertsonengan duen eragina aztertu dute elkarrizketatuek. Hauen aburuz, denboran zehar honako lotura aldatuz joan da eta belaunaldien arteko esperientziak nahikoa ezberdinak dira. Alde batetik, herrian LGTBI+ mugimendua hasi zutenak euskararen erabileraren garrantziaz kontziente izan ziren pixkanaka (ikus II. kapituluak). Hala eta guztiz ere, badirudi pertsona hauek, orokorrean, elebakarrak zirela eta honek euskararen paperean eragina izan zuela. Denborak aurrera egin ahala, ikastolen mugimenduekin batera, euskararen ezagutza mailak gora egin zuen, bai eta honakoaren erabilerak ere. Ondorioz, euskarak lekua aurkitu zuen pixkanaka LGTBI+ mugimenduan, Imanolek adierazi bezala: "Altxuk esaten zidan: 'zuek zarete... bagenekien etorriko zinetela eta iritsi zarete'. Horrela, literalki. Bagenekien etorriko zinetela zeren ikastolak ari ziren euskaldun belaunaldi berria sortzen eta iritsi behar zuten maritxu euskaldunak".

Euskarak Orereta-Erretereriako LGTBI+ mugimenduaren baitan lekua aurkitu bazuen ere, testuinguru sozialean ematen diren erronek honetan eragina izan dutela dirudi. Izan ere, sare sozial berrien agerpenak eta gizartean LGTBI+ gaiek izan duten harrerak erlazio honetan bere marka utzi dutela dirudi. Jokinen hitzak baliagarri zaizkigu honakoa ulertzeko:

Baina egia da, sozializazio gehiena egin izan dut sare sozialetan. Hori pixkat txoke generazionala da, belaunaldi talka da guztiz eta karo kasu horretan, nik lehen aipatu dut, Oreretan ez nuen espazio segururik topatzen edo, eta jada zuek sortu zenuten, baina justu nire inguruan ez neukan begirada konplizerik eta horiek bilatu nituen sare sozialetan, eta klaro, asko ez ziren Euskal Herrikoak. Horrek egin zuen hasierako harreman hori LGBT mugimenduekin erdalduna izatea, gero egia da

sare sozialetatik ere Euskal Herriko LGBT pertsona euskaldunak eta euskaltzaleak eta sare sozialetatik kanpo, noski: kaleetan, txosnetan edo dena delakoa. Baina bueno egia da nahiko ezberdina izan dela. Bai.

Azkenik, aipatu beharra dago elkarrizketatuek LGTBI+ mugimendua euskaraz garatzeko hitz, esamolde eta testuinguru berriak sortzeko beharra izan dutela. Gure herrialdeko testuinguru soziolinguistikoa kontuan hartuz, beste hizkuntza batzuen interferentziak aipatu dira, besteak beste. Hiztegia LGTBI+ mugimendua sortu ahala garatu da eta badirudi gaur egun oraindik ere bidea egiten ari garela. Adibide moduan, Imanolen hitzak: “Bai, gurean ere horrela izan da. Gu oso kontzienteki erantzun egin diegu izan ditugun hizkuntza premiei. Nik [izenik ez daukan zerbait] euskaraz esan nahi badet, ba asmatu egin beharko dugu, marisoinketa edo apotia, esate baterako.” Elkarrizketetan aipatu moduan “kuir hizkera” sortzen ari gara eginean eta honek balio sozial, politiko eta linguistiko handia du.



63. Irudia. *Mariokerrak* liburuaren azala.

Honi lotuta, elkarrizketatuek Mariokerrak (Álvarez Uria eta Fernández Casete, 2023) liburua mugarrizat kokatzen dute kuir hizkeraren garapenean (ikus 63. irudia). Honetan, Naroa eta Haizeak oso presente izan dute eskualdean erabili diren hainbat hitz eta termino bildu dituela liburua eta horrek memoria kolektiboari zein lesbianismoaren historiari eta bilakaerari eragiten diola:


Orain dela gutxi deskubritu dugu Mariokerrak liburuan azaltzen den irudi bat, non biltzen diren bollera definitzeko hitz ezberdinak, eta, komentatu nahi genuen, ba gure hasieran agian guk bizi genuela dena lesbiana orientazio sexualetik, ez? Eta, nolabait, Oarsoaldean kukua, kuku, deitzen zitzaizela lesbiane. Bai izan da hitz bat Oarsoaldean mugitu dena asko. [...] Guretzako oso esanguratsua izan da, eta badauka zerikua

lesbianismo horretatik bollera izaterako trantsizio horretan... horren inguruan hasi ginelako hizketan. Kuku hitzak asko lotzen gaituelako, baita euskaraz militatzeak. Ze bai, gu mugitu izan gara mugimendu LGTBIan aspalditik, baina iruditzen zitzaigun oso mundu erdaldunak zirela [...]. Elkartu ginenean, gure helburuetako bat euskaraz militatzea izan zen, euskarari bere lekua ematea, eta niretzako hori da Haizeari lotzen nauen arrazoietako bat. Haizeak beti gogorarazi didalako eus-

karak duen [garrantzia]... nik garrantzi asko eman diot beti, baina niretzako bera da, berekin sortu dudan lotura hau da: bollera izatea baina abiapuntu bezala euskaratik militatzea.

Aipatu moduan, euskal LGTBI+ hiztegia eratzeko garaian, bollerismoaren inguruko euskarazko terminologia sortzen mugarri izan da Mariokerrak liburua eta honek eragina izan du gure elkarrizketatuengan.

Aldi berean, Gay Hiztegia (Arana Luzuriaga, 2005) ere aipatu digute Naroa eta Haizeak lan garrantzitsu bezala (ikus 64. irudia).



64. Irudia. *Gay hiztegia* liburuaren azala.

Euskaltasunaren bilakaerari dagokionean, mugimendu feministak izan duen papera azpimarratu dute elkarrizketatuek. Hizkuntzaren bidez sexismoa lantzeaz gain, mugimendu feministak hizkuntzaren eta identitatearen arteko loturak aztertzeo aukera eman duela aipatu dute. Elkarrizketatuen aburuz, feminismoak hizkuntzaren erabilera eta aukera berriak sortzeo eta balio berriak sustatzeko ahalmena du, hizkuntza eredu estandar eta patriarkalei aurre eginez. Honela azaltzen du honako elkarrekin-tza Imanolek:

Bai. Esate baterako, euskalgintza eta feminismoaren arteko zubigintza horretan, eta horneroni lehen tokatu zitzaidan hastapenetan eta lekuko izatea, Euskalgintzetan, ez?, gogoratzen naiz esaten genuela: Ikasketa feministek marko teoriko osoa eraikita daukate eta guri balio digu bere harremanak ulertzeko,

gauzei izenak jartzeko. Hizkuntza ekintzan gertatzen diren interakzio horietan, elkarrekin-tza horietan gertatzen diren fenomeno eta botere-harreman horiek, hori dena genero-sistemak ikertua, izena jarria eta dena kaxoietan ondo antolatuta dauka. Eta gu oraindik ez gara hasi horretaz hitz egiten, ezta? Eta orduan esan genuen: "goazen ikastera!"

Ildo horretan, euskal identitatearen eta LGTBI+ identitatearen arteko loturak arakaterakoan, elkarrizketatuek "hiruki-ezina" deritzon fenomeno aipatu dute. Imanolen hitzetan:

Orereta, Errenteria eta heteroen mundu horiek eta hizkuntza-portaerak ere gogoan izateko, ezta? Klaro, leku horietan maritxutasuna dago. Hor dago hiruki-ezina, ezinezko hirukia bezala ezagutu duguna eta da: tun tun tun tun. Ea ongi azaltzen asmatzen dudan. Zu euskalduna eta grazioso xamarra edo sozialki arrakastatsua zara, ezin zara maritxua izan. Maritxua bazara eta euskalduna baldin bazara, ezin zara arrakastatsua izan. Eta hirugarrena zein da? Ulertzen? Hor dago ezinezko hiruki bat gure euskal komunitatean funtzionatzen eta indarrean egon dena, komunitate euskaldunean maritxuak-eta behatza altxa dugun arte eta besteak zartatu ditugun arte eta queerizazio edo kuirreratze bat probokatu dugun arte.

Badirudi honako “hiruki-ezina” oso presente egon dela belaunaldi zaharragoetan eta euren bizitzetan izan du oihartzuna. Hala eta guztiz ere, elkarrizketatuek honakoa gaur egun oraindik indarrean dagoen zerbait dela ondorioztatu dute.

Aldi berean, elkarrizketatuek euskararen erabilerak eta euskal identitateak euren bizitza kuirretan zer-nolako bilakaera izan duten aztertu dute. Gai honen barruan, azpimarratu beharra dago testuinguru soziolinguistikoko eta soziopolitikoak eragin nabarmena izan dutela. Izan ere, 70eko hamarkadaz geroztik gure lurraldean eman diren egoera politiko eta sozialek hizkuntzaren erabileran eragina izan dute. Gerra osteko lehen belaunaldiek euskaraz bizitzeko aukera berriak izan zituzten eta, testuinguru horretan, kuir eta euskaldun izateko aukera berriak ere. Imanolen hitzetan: “gu iritsi garen lekuetan izan gara lehenengoak eta hasi gara behatza altxatzen eta ‘hau euskaraz nola egingo dugu’ eta ‘euskaraz zergatik ez?’... gai hori eramaten. Orduan, logika horretan ulertu behar da ere...”.

Zentzu honetan, badirudi euskararen eta euskaltasunaren bilakaera soziopolitiko eta soziolinguistikokoak LGTBI+ izateko moduak ere markatu dituela. Elkarrizketatuek kontatu diguten moduan, bi identitate esparru hauen arteko elkarrekintza Orereta-Errenteria eta Oarsoaldean ere nabaritu izan da eta egun oihartzuna duela dirudi. Gaur egungo egoerari erreparatuz gero, elkarrizketatuek pertsonon identitateak zizelkatzen dituzten bi esparru hauek uztartzeko modu berriak ematen ari dira. Esaterako, Jokinek sare sozial berriak giltzari direla uste du eta hizkuntza gutxitua eta kuir edota LGTBI+ mugimendua uztartzeko baliabide paregabea izan daitezkeela argudiatzen du.

2. Ikusgarritasuna

LGTBI+ pertsonentzat, ikusgarritasuna eta erreferenteen paperak garrantzia handia izan du historikoki; izan ere, bi zutabe hauetan sostengatzen da komunitatearen bizigarritasuna euren auzo, kale, herrialde etabarretan. Gizarte garaikidean, zisheterosexualitatea uneoro irudikatzen den errealtatea da: hedabideetan, hezkuntzan, sare sozial berrietan, ikus-entzunezko kanaletan eta abarretan. Aldiz, zisheterosexualitatea ez den gainerakoa bazterretan geratzen da. Mashek honela kontatzen digu ikusgarritasunak eta erreferentzialitateak gure komunitatean duten garrantzia: “por una parte, es importante ser visible, en el sentido de, para las familias o tal estamos ahí. Al final, yo creo que lo que no se nombra no existe”⁴⁷. Badirudi, beraz, elkarrizketatutako herri-tarrentzat komunitateko errealtateak izendatzeak, herrian gaudela, egon garela eta egongo garela jakiteak, garrantzia handia duela. Gehiago dena, gure errealtatea pertsona zisheterosexualak ez direnek ere zizelkatu dutela jakitea oso baliagarri suertatu daiteke herriko bizitzan.

Ikusgarritasuna eta erreferentzialitatea garrantzitsu eta baliagarri badira ere, Kayk honakoa tentuz hartu behar dela adierazi du: “pero creo que también la doble cara de la visibilidad es precisamente eso, una cosa es la visibilidad que humaniza y otra cosa es hipervisibilidad, tener que estar todo el rato en la línea de frente poniendo nuestros cuerpos”⁴⁸. Honen inguruan hitz egiterakoan, Mashek La Venenoren⁴⁹ adibidea ekarri digu gogora. Izan ere, pertsona hura pertsonaia bilakatu zuten hedabideek, eta jasotako tratua oso zatarra izan zen.

Orereta-Errenteriako LGTBI+ pertsonen ikusgarritasunaz eta erreferenteez hitz egiterakoan, Imanolek 90eko hamarkadaz hitz egin digu eta garai hartan zegoen eskasia azpimarratu du: “orduko nerabe horren begietan ez zegoen erreferenterik, baina, unibertsitatean hasten naizenean, deskubritzen dut badagoela eta ari direla, eta urteak daramatzatela nahiko modu jarraituan”. Gainerako parte-hartzaileek ere Imanolekin bat egin dute eta antzeko pertzepzioak partekatu dituzte. Belaunaldi ezberdinetako pertsonen ideia bera helarazi digute: haurtzaroan –eta gehiengotan nerabezaroan ere– LGTBI+ pertsona eta gaien erreferente falta egon da herri, eskualde zein estatu mailan. Hari horretan, elkarrizketatuek adierazi digute euren bizitzetan aurrera egin ahala, eta harreman berriak sortzearekin edota espazio be-

47 Euskaratuta: Alde batetik, garrantzitsua da ikusgai izatea, familientzat edo... hor gaudela ikusteko. Azkenean, nik uste dut izendatzen ez dena ez dela existitzen.

48 Euskaratuta: Halere, ikusgarritasuna bi ahoko ezpata da. Batetik, LGTBI+ pertsonen ikusgarritasunak humanizatu gaitzake. Bestetik, ordea, ikusgarritasun hori gehiegizkoa izan daiteke: geure gorputzek egon behar izatea uneoro fronte-lerroan.

49 Cristina Ortiz Rodríguez (Almería, 1964-Madril, 2016), La Veneno ezizenez ere ezaguna, espainiar abeslari eta aktore transexuala izan zen. Esta noche cruzamos el Mississippi eta La sonrisa del pelicano telebista saioetan ateratzeagatik ezaguna egin zen (“La Veneno”, 2023).

rriak aurkitzearekin batera, Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeko LGTBI+ erreferente eta egintzak pixkanaka aurkitu dituztela. Askotan, mugimendu politiko zehatzetara hurbiltzeak (manifestazioetan, asanbladetan, jardunaldietan...) Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeko LGTBI+ memoria eta historia ezagutzea ahalbidetu die elkarrizketatuei. Elkarrizketatuen hitzetan, maiz, sistema eta egitura soziopolitikoek berak LGTBI+ errealitateak lurperatu eta ezkutatu ditu, iruditeria publikotik at utziz eta zisherosexualitateari espazioa emanaz. Hala eta guztiz ere, parte-hartzaileek mende aldaketaren aurreko eta osteko ikusgarritasun eta erreferentzialtasunaren aldeak nabarmendu dizkigute.

2.1. XXI. mendearen aurretik

Mende berriaren aurretik, ikusgarritasuna gai nagusi izan zen kolektiboan, Asunek oroitzen duen moduan:

Garai hartako arazo handiena ikusgarritasuna zen: 'hemen nago, ni hau naiz'. Jendea zeharo beldurtuta zegoen. Jada ez zen taktika politikoa, ezta estrategia feminista ere... arazoa honakoa [pentsatzen zenuela] zen: 'joder, beldur naiz, joder, oso beldurtuta nago!'.

El mayor problema de aquella época era la visibilidad: 'aquí estoy, esto soy'. La gente estaba aterrizada. Ya no era táctica política, ni estrategia feminista... el problema era [que pensabas] 'joder, qué miedo tengo, joder, qué miedo tengo!'.

Asun Donostiako Asanblada Feministako kide ohia izan da eta 70eko eta 80ko hamarkadak ditu gogoan. Asanblada horretan, identitatearen eta orientazioaren gainean jardun zuten denboran zehar eta puntu batean euren identitatea –eta maitasuna– ospatu eta aldarrikatu behar zituztela adostu zuten: “si queremos vivir tiene que ser de esta manera, no hay otra”⁵⁰. Honela, sentitzen zuten beldur horri aurre egin behar ziotela erabaki zuten pixkanaka eta asanbladan parte-hartzen zuten Donostiako, Hernaniko eta Orereta-Errenteriako lesbianak saretu ziren. Saretze horren ondorioz, hainbat ikusgarritasun eta erreferentzialtasun egintza gauzatu ziren herrian. Mahai-inguruetan parte hartu zuen emakume lesbiana batek horrela kontatzen digu:

50 Euskaratuta: Bizi nahi badugu, horrela izan behar du, ez dago besterik.

Eta Erreterriako taberna guztietatik igaro gara [non esaten ziguten] 'Badatoz horiek!', [eta guk pentsatu] ba gehiagotan etorriko gara! Ez ginen lotsatzen, normalizatu egin nahi genuen, normalizatu gure herrian. Eta hori izan zen gure helburua... gure sexualitatea askatasunez bizitzea, eta hemen, gure herrian. Ez San Markosera⁵¹ joatea lesbiana zarelako, ez. Hori izan zen gure helburu nagusia: lesbianen ikusgarritasuna.

Y hemos pasado por todos los bares de Erreterria. [donde nos decían] '¡ahí vienen esas!', [y nosotras pensábamos] ¡pues vamos a venir más veces! No nos sentíamos avergonzadas, queríamos hacerlo normal, normalizarlo en nuestro pueblo. Y ese fue nuestro objetivo... vivir nuestra sexualidad en libertad aquí, en nuestro pueblo. No ir a San Marcos por ser lesbiana, no. Ese era nuestro mayor objetivo: la visibilidad de las lesbianas.

Oliberrek ere gogoan du Orereta-Erreterrian bitzako beldurra eta jasandako bortizkeria, izan ere, herrian garai hartan ikusgai izateagatik hainbat pasarte latz bizi izan ditu.

Horren harira, eta herrian bitzakoaren pasarte bortitzen adierazle, mahai-inguruetakoa parte-hartzaileetako batek Arkaitza tabernan gizon baten eskutik eraso sexual bat jasan zuela kontatu digu.

Honako gertakariak jazotzea erreferentzialtasun eta ikusgaitasun faltarekin lotu dute mahai-inguruko partaideek: "bai, ze hemen lan asko egin da eta pertsona asko egon dira erreferente bezala, baina momentu batetik aurrera".

Aldi berean, eszena artistikoa dute gogoan XX. mende bukaera hartan euren identitatea esploratzen ibilitakoek. Izan ere, eszena artistikoa izan zen erreferente eta ikusgarritasuna aurkitzeko iturria garai hartan. Esaterako, mahai-inguruko elkarrizketatuek *Mikelen Heriotza* filma kokatu dute garaiko erreferentzialtasun eta ikusgarritasuna azpimarratzerakoan. Film honetan, Miguel (Mikel) Miranda Acarregui ETako kidearen istorioa kontatzen da. Euskal zinema berriaren adierazlea izateaz gain (Martínez Expósito, 1995), film honek Mikelen identitatea esploratzen du eta argiki lotzen ditu independentismoa eta homosexualitatea bere bizitzan. Hamarkada hauek oroitzen dituztenentzat, filma erreferente izan zen. Bereziki, Orereta-Erreterriako biztanleentzat erreferente izan zen Fernando Telletxea Oskoz, Fama ezizenez ere ezaguna, izeneko oreretarrak bertan parte hartu zuelako (ikus 65. irudia).

51 San Markos-Txoritokieta Gipuzkoako ipar-ekialdean dagoen mendigune bat da, Donostia, Orereta-Erreterria eta Astigarra-gako udalerriek bat egiten duten inguruan.



65. Irudia: Fama. Iturria: La ficha rosa del trivial.

Fama gogoan dute gure elkarrizketatuek. Euskal aktore, idazle eta abeslari izandako artista honek *Mikelen Heriotza* filmean parte hartu zuen, Imanol Uribek eskatuta. Aurrerago, 1992. urtean Espainiako *Farmacia de Guardia* telesailean lehen aldiz trans pertsona bat –Clara– interpretatu zuen. Famak 2009an *A Contradanza* eleberrri autobiografikoa argitaratu zuen, eta bertan Orereta-Erreterian bizi izan zituen pasarte batzuk kontatzen dizkigu. Ildo honetan, EITBek 2019an egin zion elkarrizketan Famak Orereta-Erreterian 27 urtez bizi izan zela kontatzen digu. Bertako bizitza irudikatzerakoan, herrian bizitzea eta hain ikusgai izatea zaila egin zitzaiola kontatzen du: “en el colegio me pegaban, me insultaban, me hacían de todo. A mí me han llegado a pedir perdón muchos de ellos después”⁵². Une zailak bizi izan arren, Famak beti izan du argi nor den, eta ez zuen ezkutatzeko inolako asmorik “yo en el armario solo he tenido ropa, yo he

52 Euskaratuta: Eskolan jo eta iraindu egiten ninduten, Denetarik egiten ninduten. Gero haietako askok barkamena eskatu didate.

sido libre y me mostraba como era⁵³". Herrian bere aztarna utzi nahi izan zuen eta bere bizitza artistikoarekin aurrera egin zuen. Honakoa kontatzen du garai hura oroitzean:

Nik, sartu bezain laster [Bataclán aretoan⁵⁴], jende asko ikusi nuen, eta honako hau pentsatu nuen: 'ikuskizun hau amaitzen dudanean filma proiektatuko da. Seguruenik Oreretako Cine Reinan⁵⁵ proiektatuko da. Han ikasi nuen eta bertan neure buruari agindu nion zinema egin eta abestuko nuela.

Nada más entrar [a Bataclán] vi muchísima gente y pensé 'cuando termine de hacer este espectáculo se proyectará la película y seguramente se pasará en el Cine Reina de Erretereria donde yo aprendí y me prometí que llegaría a hacer cine y a cantar'.

Orereta-Erretereriako Oarso aldizkarian (1985) elkarrizketa bat egin zioten Famari. Bertan "mutiko bitxi" bat bezala irudikatzen zuten, baina bere bizitzara hurbiltzeko ahalegina egin zuten. Honako hau esan zuen Famak elkarrizketan, bere jaioterriari erreferentzia eginez:

Nire emanaldi guztietan, inposatu dudana arau bezala, nire ikuskizunak "Aurtxo Seaskan" abesten bukatzen dut: abesti hori nire lurrari ereserki bihurtu da. Eta ziurta dezaket, Euskaditik urrun, nahiz eta letra ez ulertu, jendea hunkitu egiten dela eta ikusle batzuek malko bat baino gehiago isuritzen dutela. Horrek harro sentiarazten nau, kantu baten bidez, gure sentiberatasun euskaldunak mundua hunkitu dezakeela egiaztatzean... Kantatzen dudanean, nire ariman eta nire buruan, "ikusten eta ohartarazten" ditut nire Euskadiko paisaiaren hezetasuna eta berdetasuna, nire Renteríaren, Vera de Bidasoaren eta Aranazko oroitzapen ezabaezina, eta jakina..., nire Donostia maitearena.

En todas mis actuaciones y como norma que me he impuesto, finalizo mis espectáculos cantando "Aurtxo Seaskan": canción que se ha convertido en un himno a mi tierra. Y puedo asegurar que lejos de Euskadi, a pesar de no entender la letra, la gente se emociona y algunos espectadores dejan resbalar más de una lágrima. Esto me suele enorgullecer, al comprobar a través de una canción, que nuestra sensibilidad euskaldun puede conmover al mundo... Cuando la canto, "veo y noto" en mi alma y en mi mente la humedad y el verdor del paisaje de mi Euskadi, el recuerdo imborrable de mi Rentería, de Vera de Bidasoa y Aranaz, y... naturalmente de mi querido Donosti.

53 Euskaratuta: Nik armairuan arropa besterik ez neukan, ni askea izan naiz eta naizen bezalakoa agertu naiz.

54 Bataclán aretoa Bilbo Zaharra –ezaguna la Palanca izenez ere– auzoko lokal bat izan zen, trantsizio garaian trabesti eta transformisten meka bihurtu zena (EITB, 2019).

55 Cine Reina Juan Gamon Zumardian –Alameda plazan– zegoen Orereta-Erretereriako zinema areto iraunkorrena izan zen. 1921. urtean ireki zuten eta Alfonso XIII.aren emaztearen izena eman zioten: Salón Reina Victoria. 1931. urtean, errepublika garaian, Alfonso eta Victoria Eugenia erbesteratu zirenean, izena aldatzera derrigortu zieten eta Salón Victoria izena eman zioten. Jende askok, berriz, Cine Reina izena eman zion aretoari. 1987. urtean saldu behar izan zuten, eta eraikina bota zuten. Egun Cyne Reyna taberna aurki dezakegu bere ordez (P.G., 1995).

Eremu artistikoak izan ziren, beraz, 80ko eta 90eko hamarkadan Orereta-Erretereriako herritarrek errepresentazioa eta ikusgaitasuna bilatzeko erabili zituzten medioak. Inanolek Orereta-Erretereriako gaztetxean EHGAMek antolatzen zituen festak oroitzen ditu. Hauetan Las Fellini⁵⁶ bezalako artistak ezagutu zituen eta bere identitatea esploratzeko balio izan zion honek. Testuinguru honetan, Yogurinha Borova bezalako artista ezagunak ere topatu dituzte gure elkarrizketatuek (ikus 66. irudia).



66. Irudia. Yogurinha Borova. Iturria: Deia.

2.2. XXI. mendearen hasieran

Azken urteotan, ordea, ikusgarritasun eta erreferentzialtasunean aldaketa eman dela dirudi. Besteak beste, sare sozial berriek aldaketa honetan eragina izan dutela esan genezake. Argi dago sare sozial berrien aroan jaio diren belaunaldiek espazio hauetan ere euren identitatea sozializatzeko aukera izan dutela. Are gehiago, euren informazio iturria izan dira sare sozial berriak eta erreferente asko bide hauetatik eskuratu dituzte. Esaterako, Jokinek Orereta-Erretereriak eskaintzen ez zizkion espazio seguruak sare sozial berrietan aurkitu ditu, eta honek bere identitatea esploratzen lagundu dio. Aurreko belaunaldiekin alderatuta, belaunaldi berriek sare sozial berrietan sostengua aurkitu dutela esan genezake. Hala eta guztiz ere, eta Jokinek azpimarratzen duen moduan, sareetan topatutako espazio eta erreferenteak ez dira euskaldunak eta honek ere eragina izan du gurean. Hala kontatzen digu Jokinek bitziko esperientzia:

56 Bailongo lokalean 1998. urtean sortu zen kabaret komiko talde bilbotarra da (Las Fellini, d.g.)

Jo, ze ona. Nik nola bizi nuen nere nerabearoa, ta hau izango da Z belaunaldia. Ni berez milenial naiz, baina Z belaunaldiarekin identifikatzen naiz. Orduan, nik adibidez nerabearoan LGBT moduan, hetero moduan sozializatzen nuen, kakotxa askoren artean. Ni joaten nintzen Oreretako kaletikan neska baten eskutik helduta eta marikon deitzen zidaten berdin-berdin, ordun... berdin zion. Baina egia da sozializazio gehiena egin izan dudala sare sozialetan. Hori pixkat txoke generazionala da, belaunaldi talka da guztiz eta lehen aipatu dut, Oreretan ez nuen espazio segururik topatzen edo eta jada zuek sortu zenuten, baina justu nire inguruan ez neukan begirada konplizerik eta horiek bilatu nituen sare sozialetan eta klaro, asko ez ziren Euskal Herrikoak. Horrek egin zuen hasierako harreman hori LGBT mugimenduari erdalduna izatea, gero egia da sare sozialetatik ere Euskal Herriko LGBT pertsona euskaldunak eta euskaltzaleak eta sare sozialetatik kanpo, noski: kaleetan, txosnetan edo dena delakoa. Baina bueno egia da nahiko ezberdina izan dela. Bai.

Zentzu honetan, Albina Stardust (ikus 67. irudia) edota Altxa Lili kolektiboa (ikus 68. irudia) izan dira garai honetan gailendu diren euskal kuir artistak. Sare sozial berriek



67. Irudia. Albina Stardust. Iturria: Spotify.

euren lana zabaltzen lagundu dutela azpimarratzen dute elkarrizketatuek. Gainera, esan beharra dago talde eta artista berri hauek euskal kultura, hizkuntza eta tradizioak aintzat hartzen dituztela. Esaterako, Jokinek kontatu moduan, Altxa Lili kolektiboak baserri eremuari eta euskal landa-eremuari garrantzia berezia eman dio eta kolektiboaren barruko identitateak bestelako identitate soziopolitiko batzuekin ere lotu ditu honela. LGTBI+ kolektiboa hirietan ez ezik herri eta landa-eremuetan ere presente dagoela aldarrikatu eta honakoa plazara ekarri du talde honek.



68. Irudia. Altxa Lili kolektiboa. Iturria: Joanes Etxebarria.

Sare sozial berriez gain, hedabideetan ere aurkitu dituzte erreferenteak elkarrizketatu gazteenek. Zinema munduan edota musika munduan ezagunak izan diren hainbat pertsona Orereta-Errenteriako herritarrentzat ere erreferente izan dira. Honek ere belaunaldien arteko zubiak sendotzen lagundu duela esan genezake. Esaterako, Pedro Almodóvar (Ciudad Real, 1949) espainiar zinema zuzendari, gidoigile eta ekoizlea honen adibide da Aioraren hitzetan:

Mundu liluragarria da, eta horrek eragin handia izan du nigan. Eta bai, oso transgresorea da bere filmetan, islatzen duen guztian, direla trans gaiak, dela homosexualitatea, HIESa... [...] guztiaz naturaltasun handiz hitz egiten du eta nabaria da Almodovarren zigilua hori dela, gardentasun hori, alegia.

Es un mundo fascinante, y, obviamente, he estado muy influenciada por eso. Y sí que es, o sea, sobre todo en su momento, muy transgresor todo lo que plasmaba en sus películas, ya fuera tema trans o tema homosexual, SIDA... [...] lo trataba todo con mucha naturalidad, y es el sello de Almodóvar, esa, digamos, esa transparencia.

2.3. Auzoen boterea

Belaunaldien arteko ezberdintasunez gain, elkarrizketatuek Orereta-Errenteriako auzoek LGTBI+ ikusgarritasun eta erreferentzialtasunean ere eragina dutela esan digute. Aioraren hitzetan:

Egia esan, ez, erreferente gisa. Baina ez naiz erdialdekoa, eta gauzak asko aldatzen dira [auzoetan]. Hau da, ni adineko emakumeen eta haurren artean mugitzen nintzen, testuinguru horretan. Ez zegoen mugimendu handirik, [izatez] ez zegoen ezer. Baina egia da Oreretan ere ez dudala erreferenterik izan, agian kasurik egin ez diodalako, baina hemen ez dut erreferenterik izan.

La verdad es que no, no como referente. Pero no soy del centro y las cosas cambian mucho [en los barrios]. Es decir, yo me movía entre mujeres mayores y niños, en ese contexto. No había mucho movimiento, [de hecho] no había nada. Pero es verdad que en Orereta tampoco he tenido ningún referente, quizás porque no le he hecho caso, pero aquí no he tenido ningún referente.

Gainera, auzoetako LGBTBI+ pertsona batzuentzat erdigunea ere eremu arazotsua dela aitortu digute. Aiorak bere lagun batez hitz egin digu: "sí, era de arriba [del barrio de Alaberga], como yo. Que es otro... otra galaxia. Y no se atrevía a bajar al centro para nada, era un territorio hostil"⁵⁷.

2.4. Belaunaldien arteko zubiak: Mikelaren omenez

Orain arte hitz egindako ikusgarritasun, ikusgaitasun eta erreferentzialtasuna jorratzerakoan, elkarriketatu eta parte-hartzaile guztiek beren oroimenean duten pertsona berezia behin eta berriz aipatu digute: Mikela. Mikelak Orereta-Erreterriako bizitzan leku nabarmena izan zuen eta eskualdeko zein Euskal Herriko erreferente historikoa izan da. Ikerketa honetan ikusi dugunez, gainera, Mikelak mimo handiz belaunaldien arteko zubiak eskegi eta sortu zituen bere bizitzan zehar. Guzti honengatik, lan honetan Mikelak izan duen eragina bereziki azpimarratu eta leku berezia eskaini nahi dugu. Hurrengo lerroetan, elkarriketatuek Mikela erreferentearen garrantziaz kontatu digutena bildu dugu, Orereta-Erreterria eta eskualdea bera gabe ezin baitira ulertu.

Txelok txikitatik du Mikelaren oroimena, herriko asanbladetara txikia zenean eramaten zuten eta bertan ezagutu zuen Mikela, bere erreferente bilakatu zena:

Mikelen oroitzapena dut, Mikelarena, batzarrera igotzen homosexuala zela esanez. Batzar horretan nengoelako daukat oroitzapen hori, eta zirrara eragin zidan Bat-batean gizon batek asanbleako eskaileratxoak igo zituen, Francisena gertatu

Tengo el recuerdo de Mikel, de la Mikela, subiendo a la asamblea diciendo que era homosexual. Tengo ese recuerdo porque estaba en esa asamblea, y me impactó. De repente subió un tío las escaleritas de la asamblea, ya había pasado lo de Francis,

57 Euskaratuta: bai, goian bizi zen [Alaberga auzoan], ni bezala. Beste... beste galaxia bat da. Eta ez zen, inola ere, erdigunera jaistera ausartzen, lurralde bortitza zen.

ondoren, eta 'ni homosexuala naiz' esan zuen (ikus 69. irudia). [...] Ni, Oreretakoa naizela, eta hemen bizi izan naizela nire bizi-tza osoan, Milela daukat erreferente gisa armairutik atera aurretik. Bera zen manifestazio guztietan identifikatzen nuena, Mikela.

y dijo 'yo soy homosexual'. [...] Yo, que soy de Orereta y he vivido aquí toda la vida, tengo a Mikela como referente desde antes de salir del armario. Era a quien identificaba en todas las manifestaciones, Mikela.



69. Irudia. Mikel Martin eta herritarak, Herri-Biltzarrean, 1979. urtean. Iturria: EHGAM.

Naroak eta Haizeak ere Mikela maitasunez oroitzen dute. Naroak hauxe dio: “guretzako Mikela ikono bat izan da, baina zentzu guztietan gainera. Oso gertu sentitu dugun pertsona bat, lagundu gaituena gauza askotan eta oso berezia izan dena ere”. Haizeak Naroaren hitzak berretsiz honako hau komentatzen du: “guztiz. Mikel gure ibilbidean, LGTBI Mahaian, Bollurrian, Harrobietan... beti hor egon da, beti interesa, beti ‘a! badaukat liburu hau!’, kontaktzen hemengo bollerek zer egiten zuten, zer egin izan duten... beti prestutasun horrekin” (ikus 70. irudia).



70. Irudia. Mikel Martin Donostiako manifestazio batean. Iturria: EHGAM.

Paulak oso argi ikusten du Mikelaren eragina bere bizitzan. Izan ere, Mikela ezagutu aurretik herria leku itxia zela iruditzen zitzaion eta Mikelarekin topo egitean bere pertzepzioa aldatu zen:

Egun batean joan nintzen, nik uste Emakumeen Etxea ireki zuten urtean edo, eta egon zen txarla bat egin zutela udalekoak como una especie de inkesta edo: zenbat jende LGBTBI zegoen herrian, eta nola bizitzen ziren. Eta justo egun horretan han Mikela ezagutu eta berarekin hitz egin nuen. Es como que me abrió un poco los ojos ze nik pentsatzen nuen herria itxiago zela para lo que era realmente en ese momento. Eta orain, hori ez dakit ze urtetan zen, niretzat [dagoeneko] gauzak asko-asko aldatu dira hemen.

Itziarrek, ordea, Mikela Bilbora iritsi bezain pronto topatu zuen eta bizitzan ezagutu zuen lehenengo mariketako bat izan zela du gogoan. “No se podía ser más cañera”⁵⁸ dio Itziarrek Mikelaz hitz egiterakoan, eta honela jarraitzen du: “pues estábamos de gaupasa y luego se fue a una concentración pro-Palestina, y luego se fue...”⁵⁹. Mikelak borrokatzeko zuen grina eta konektatzeko gaitasuna azpimarratzen ditu Itziarrek testigantza honetan.

Imanol Minerrek *Oarso* aldizkarian idatzi zuen: “beste lurraldeetan sexu askapenerako mugimenduen desagerpena gertatzen ari zen garai berean, asmatu zuelako mugimendua hamarkadetan barna sustengatzen, koordinatzen, gidatzen eta eguneratzen EHGAren lerroetatik, inguruan bestelako mugimendu berriei bide emanez, belaunaldi berriago batek berriki lekukoa hartu duen arte” (Miner, 2023).

Mikelak kalera irteten jakin zuen, arriskutsua eta urratzailea zen garaian. Bere zentzumenak ikaskuntza-korrante berrietara zabaltzen eta garai berrietara egokitzen jakin zuen. Pertsonalki ezagutu ez arren, nor zen ondo zenekien pertsona berezi horietakoa izan zen, modu batera edo bestera nabarmendu zelako. Eta horrexek bihurtzen zuen erreferente.

2.5. Beste erreferente batzuk

Mikelaz gain, beste hainbat erreferente aipatu dituzte parte-hartzaileek. Francis presente egon da elkarrizketa guztietan, eta Merche (Asun eta Natiren taldekoa), Conchi Martin Conde (Mikelaren ahizpa), eta aipatutako Emili, Goiko eta Madelon maiztasun handiarekin aipatu dituzte. Azken hau eta Mikela “Simona eta Dolox” bezalakoak ziren, bi ahizpa izango balira bezala dio Imanolek. Txelok Madeloni “lumaren erregea” deitu dio, aldarrikapen ugari egiten baitzituen:

Altxu, zentzu horretan, oso berezia zen. Harremanak izateko gaitasun [handia zeukan]... bere auzoko kuadrilla zeukan, elkarreko gizonen kuadrilla... eta bera ikusten zenuen, erraldoia, beti erdian, bere lumarekin, bazekien nola egon. Eta besteak hor, berarekin, zerbait hartzen, euren alkandorra koadrodunekin eta triparekin.

Altxu, en ese sentido, era muy especial y es que era capaz de relacionarse [con todo el mundo]... Tenía su cuadrilla de los del barrio, su cuadrilla de señores de la sociedad... y le veías a él, enorme, siempre ahí, en medio, con su pluma y su saber estar, y los otros con la camisa a cuadros y la barriguita, tomando todos algo juntos.

58 Ezin zitekeen “kañeragoa” [zirikatzaileagoa] izan.

59 Euskaratuta: Gaupasan geunden, eta gero Palestinaren aldeko manifestazio batera joan zen, eta ondoren joan zen...

Madelon, gainera, Francisen hilketa salatzeko mobilizazioen antolatzaileetako bat izan zen, baita sortu berria zen Gipuzkoako EHGAMen sustatzaile bat ere; LGTBI+ mugimenduaren militante ageriko eta aurpegi publikoa izanik (Otaegi, 2020).

Naroak eta Haizeak Medeak taldearen eztanda ere oroitzen dute: "garai hartarako gauza oso esplosiboak, oso erradikalak..." egiten zituzten. Imanolek Ituren figura ere gogoan izan du: "berak ohitura zuen gaztelaniarakoa eta [...] berrikuste ohitura horiek Josebek berak euskaldun marimutila eta euskaldun marimutil harro-harrosko" horretatik euskarari erregistro berri bat eman zion.

Era berean, gure parte-hartzaileek beste erreferente batzuk ere izan dituzte. Paulak irratsaioaren momentu batean honela adierazten du: "niretzako erreferenteak danak gara. Adibidez, ez dakit, izatea zure bizilaguna... transgenero bat izatea, bollera bat izatea, o lo que sea, ya es como: 'lo tienes cerca'". Itziarrek, esate baterako, 80ko hamarkadako bere auzoko haur marika gogora ekarri digu. Paularentzat ere kuadrillako mutil transa ere izan zen berarentzat erreferente bat. Aiorarentzat, ama. Eta alderantziz antzekoa gertatzen da. Imanol, konturatu gabe, "Baigorri batean edo Oreretan, Madalenetan, uztailaren 24ko larrain dantzan, dantzatzen zenean mutila mutilakin" izan da beste batzuentzat erreferente. Aiorak ere erdigunera jaisteko beldurra sentitzen zuen lagun horrentzat erreferente bat izan da, eta Oliber, berriz, bere inguruko jendearentzat. Modu batera edo bestera, denak izan dira erreferente.

2.6. Erreferentzialtasunaren eta ikusgarritasunaren korapiloak

Kontu honekin, ordea, gora eta behera ibili dira hausnartzen Mash eta Kay. Mashek azpimarratu du batzuetan norbaiten erreferente bilakatzen garela guk bilatu gabe, eta honela dio:

Ni une honetan kontziente naiz erreferente bat izan naitekeela (famiarentzat, inguruko jendearentzat...) Niregatik izango ez balitz, agian ez lukete trans mundua ezagutuko. Baina nik ez dut bilatu. Eta ez nator bat norbait erreferentetzat jo, edonora jarraitu eta diona Jainkoaren hitza balitz hartzearekin. Kontziente izan behar dugu erreferenteak pertsonak ere badirela. Euren ideia politikoak dituzte, izan edo jarduteko moduak... eta ez da beti dena izan behar esaten edo egiten duten bezala.

En este momento soy consciente de ser un referente para personas (familiares, gente cercana...) que han tenido la posibilidad de conocer el mundo trans a raíz de mí. Pero yo no lo he buscado.. Y no estoy de acuerdo con que se presente un referente como a quien hay que seguir sí o sí y lo que dice es palabra de Dios. Vamos a ser conscientes de que los referentes también son personas, tienen sus ideas políticas, sus formas de ser, actuar y demás, y que no siempre ha de ser todo como digan o hagan.

Gainera, huts egiteko eskubidea ere badugu, hanka sartzekoa, eta epaitu gaitzaketek, baina ez argudiatuz "aurreko urtean hau eta hau esan zenuen eta aurten...". E, nik ere eboluzionatzen dut, eta buruari bueltak ematen dizkiot. Nik uste dut denok egin beharko genukeela hori.

Y que también tenemos derecho a equivocarnos, a meter la pata, y que sí se nos puede juzgar pero no porque "tú el año pasado dijiste esto y esto y este año...". Eh, que yo evoluciono también y le doy vueltas a la cabeza y creo que es algo muy importante que deberíamos hacer todas las personas.

Zentzu horretan, Kayk honakoa proposatzen du: erreferentetaz mintzatzerakoan ekin-tza kolektiboek ere arreta jarri behar diegula, eta agian ez hainbeste pertsoneri.

3. Topaguneak: nondik mugitzen gara?

Elkarrizketetan sortutako beste eztabaidagai nagusi izan dira Orereta-Errenteria eta Oarsoaldean LGTBI+ kolektiboak dituen elkargune eta topaguneak. Batetik, kolektiboaren barruan askotariko identitate eta behar dauden arren, badirudi zenbait gai komun daudela topaguneei dagokienean. Bestetik, gure elkarrizketatuek hainbat topagune eta elkarguneri egin dioten aitortza ere nabaria izan da eta euren hitzak bildu nahi izan ditugu.

3.1. Militantzia historikoa landu zen gunea: Txintxarri Elkartea

Elkarrizketatuen artean, topagune eta elkargune garrantzitsu militantzia feminista izan dela agerikoa da. Izan ere, Asunek dioen moduan, militantzia lesbofeministak euren errealitatea ezkatzearen aurkako borroka burutu zuen eta euren helburu izan da zisheterosexualak diren espazioak okupatzea. Asunen testigantza baliagarria zaigu puntu hau azaltzeko:

Garai hartan feministei gaizki begiraten baziguten, imajina dezakezue zein zen lesbianen kasua [...] Beste emakume batzuekin egoteko zita eskaerak helarazten zizkidaten klandestinitatean... "badaude ezagutzen ditudan bi, beste [emakume] bat ezagutu nahiko luketenak..."

En aquel entonces si las feministas estábamos mal vistas, imaginaos lo que eran las lesbianas [...] A mí me pasaban citas en la clandestinidad, para verme con otras mujeres... "conozco a dos que ya querían conocer a otra [mujer]..."

Asunek azaltzen duen moduan,, emakume lesbianek beti egin dute ateratzeko eta beren nortasuna eta bizimodua kaleetan eta festan ikusgai jartzeko apustua. Asunek kontatzen

digunez, frankismo osteko hasierako lehen urteetan herriko tabernak ziren topagune, batez ere manifestazioak ospatzen ziren egunetan. Nolanahi ere, mugimendu lesbofeministako emakumeak berehala ohartu ziren espazio horiek ez zirela guztiz seguruak eurentzat; izan ere, gizonen eta emakumeen arteko gizarte-posizionamendu desberdina ere agerikoa zen testuinguru horretan eta, beraien arteko harremana ona izan arren, lesbien fisiko eta izateko moduari buruzko parodiak egiten zituzten elkargune horietan ere.

Hari honetan, LGTBI+ kolektiboak izan zitzakeen topagune eta elkarguneetan tentsioa agerikoa zen. Identitate ezberdinen artean ez ezik, mugimendu lesbofeministan bertan ere tirabirak sortu ziren leku eta topagune seguruaren inguruan. Asunek kontatzen digunez, "las de EHGAM decían que el movimiento feminista o que las lesbianas feministas éramos más feministas que lesbianas y que no era su lugar. Y, luego, las del ambiente decían que estamos muy politizadas"⁶⁰. Tirabira hauen aurrean, frankismo osteko lehen urte haiek pasa ahala, kolektiboko pertsonen euren espazioak aurkitu zituzten. Lesbien dagokienean, taldeetan elkartzeko hasi ziren libre sentitzeko, nahi bezala janzteko eta harreman sexu-afektiboak libreki gozatzeko. Donostia inguruan, Alboka taberna, Oiartzungo emakume lesbiana baten jabetzan, izan zen topagune aipagarri. Bertan, Asunek kontatzen digunez, Orereta-Errenteriako emakume sexu-disidenteak elkartzeko ziren eta eurentzat leku seguru bihurtu zen. Betiko taberna eta espazioak bereganatu nahi izan zituzten arren, bertan jasandako indarkeria eta diskriminazioak espazio eta elkargune propioak sortzera eraman zituen, mahai-inguruko kide batek hala kontatzen digu: "hemos pasado por todos los bares de Rentería, *ahí vienen esas, [y nosotras] pues vamos a venir más veces*. No era cortarnos, era hacerlo normal, normal en nuestro pueblo"⁶¹.

Behar honetatik Orereta-Errenteriako emakume lesbien elkargune bat sortzeko ardua hartu zuten eta Txintxarri⁶² elkarte sortu zuten. Honela kontatzen digu mahai-inguruko parte-hartzaileetako batek:

Guretzat Txintxarri aisialdirako gunea izan da. Eta uste dut asko egin duela emakumeek ikustea bazeudela leku seguruak beldurrak uxatzeko, lasaitzeko eta adoretzeko.

Para nosotras Txintxarri ha sido un sitio de ocio donde reunirnos. Y creo que ha hecho mucho el que las tías vieran que había lugares seguros donde quitarse los miedos, relajarse y poder envalentonarse.

60 Euskaratuta: EHGAM-ekoek esaten zuten mugimendu feministakoak edo lesbiana feministak feministagoak ginela lesbiana baino, eta ez zela bere tokia. Eta, gero, girokoak oso politizatuak geundela zioten.

61 Euskaratuta: *Rentería*ko taberna guztietatik pasatu gara, *hor datoz*, [eta gu] *ba gehiagotan etorriko gara*. Ez zen moztea, normala egitea zen, normala gure herrian.

62 Txintxarri elkarte 1983ko irailan eratu zen Juan de Olazabal kalean. Gaur egun Santa Klara kalean dago kokatuta.

Gero, futbol partidak muntatzen hasi ginen, eta bukatzean elkartera joaten ginen afaltzera... hura hazitegi bat zen! Madalenetan⁶³ emakume donostiarrak etortzen zirenean, harrituta geratzen ziren Txintxarriin zenbat neska geunden ikusita.

Luego empezamos a montar partidos de fútbol y al acabar nos íbamos a cenar a la soci... ¡aquello era un semillero! Cuando en Madalenas venían las tías de Donosti, se quedaban dobladas de la cantidad de tías que estábamos en Txintxarri.

Txintxarri elkarteko bazkideak profil anitzekoak izan zitezkeen, baina urteetan zehar LGTBI+ jaiak ospatzen ziren toki bakarra izateagatik nabarmentzen zen (ikus 71. irudia). Honela oroitzen ditu Imanolek Txintxarriin egindako ospakizunak:

Santiago egun jai, orduan maritxuen afariak antolatzen genituen Txintxarriko [elkartean], eta gero AEKaren txosna herriko plazan, larrain dantza mutila mutilakin dantzatzen... esan nahi dut, espazioak irabazten.



71. Irudia. Txintxarri elkarteko Madalenetako kartela, 2009. Iturria: flickr

Badirudi, beraz, Txintxarri elkartea LGTBI+ kolektiboarentzat erreferente izan zela eta bertatik hasita Orereta-Errenteriako beste hainbat espazio eta elkargune aldarrikatzeko indarra hartu zutela. Mahai-inguruko parte-hartzaileetako batek hala deskribatzen du Txintxarri:

63 Madalenak Orereta-Errenteriako jaiak dira. Uztailaren 21ean hasi eta 25ean amaitu egiten dira.

Niretzako zen espazio misto bat non askatasuna zegoen. Posible zenuela lasai egon eta aske sentitu, dantzatu nahi zenuen bezala, eta beste tabernetan ez bezala.

3.2. Aisialdia genero- eta sexu-disidente izanik

Aisialdiaren harira, testuinguru zisheterosexualean disidentea izateak beti izan du bere alde tirabiratsua, gainerako pertsonak bezala nortasuna garatzeko edo ligatzeko orduan, besteak beste. Orereta-Erreterriako kasuan, herrian identitatea eta orientazioa esploratzea hein batean zaila egin zaiela aitortzen dute elkarrizketatuek eta hala laburbiltzen du Imanolek bere bizipena:

Hauek, klaro, Bilbon eta sozializatzen zutenean han ikusten zituzten, baina nik ez nuen Bilbon ikasi. Ni Oreretan... kuadrillako maritxua ni nintzen, eta klaro, ni beti nengoen beraiekin festetan, Oiartzuneko plazara, eta mutil batekin ligatu nahi banuen... beti zegoen laguntza hori. Ni gainera beti poztu naiz nire lagunak ligatu dutenean. Beti egon naiz hor, baina klaro, momentu batean Imanolek eskatzen duenean: "aizu, gaztetxeko festara joan nahi dut eta ez dut bakarrik joan nahi". Ze niretzat oso gogorra zen gaztetxeko festara bakarrik joatea, nire herrian gainera. Eta hauek etortzen ziren, pote bat hartzen zuten, eta gero: "Imanol, hemen geratzen zara". Literal. Horrela zen. Eta, bueno, hor hasten zara jendea ezagutzen, jendea sozializatzen eta... oso bananduta zeuden munduak ziren.

Hainbat faktore gurutzatzen dira Imanolen testigantzan, gainerako elkarrizketetan ere oihartzuna izan dutenak. Alde batetik, lagunarte normatiboa izateak eta koadrilaren konfigurazioak oztupoak jarri zizkioten Imanoli bere identitatea garatzerakoan. Atsekabetasun sentimendua izan du Imanolek, izan ere, bere lagunak egunerokoan bermatuta zuten askatasun sexual eta desirazkoa berak mugatua zuen eta lortzeko asko borrokatu behar izan zuen. Bestalde, beste hiriburu batzuetan LGTBI+ giroan mugitzea errazagoa zela oroitzen du Imanolek. Herritik atera izanak, bereziki Bilbora, musika, janzkera, giro eta pertsona berriak deskubritzeko aukerak zekartzan. Orereta-Erreterrian, ordea, denbora gehiago pasa behar izan zen honako espazioak eratzen asteko:

2000ko hamarkadan eta batez ere Priscilaren pelikulaz eta drag queenez geroztik... horiek ekarri zuten horren dibulgazioa. Gay kulturaren zeuden musika, kontsumo ohiturak eta zera guzti horiek oso eremu gutxitan gertatzen ziren. Orduan, hauek [koadrilakoak] horrelako [egoera] batean (Cabárceno ematen zuen) trago bat hartzen zuten eta "bueno, Imanol...". Eta Imanol geratzen zen bakar-bakarrik, eta biziraun. Ez zen hain gaizki atera, ezta?

Hari horretan, pertsona trans eta ez-bitarrentzat topagune eta elkarguneak topatzea bereziki zaila egiten zaiela aitortu digute elkarrizketatuek. Honen inguruan hausnartu dute Mash eta Kayk:

Duela oso gutxi arte trans mundua ez zen ia ezagutzen. Oso zaila da zure antzeko bizipenak dituen jendearekin lasai hitz egiteko guneak aurkitzea. Nire ustez, gehienok Interneten sartu gara eta dena delakoa bilatu dugu pixka bat ulertuta edo sentitzeko.

Hasta hace muy poco el mundo trans no se conocía apenas y es muy difícil encontrar espacios donde poder encontrar gente con la que poder charlar tranquilamente sobre vivencias parecidas a las tuyas. Creo que la mayoría hemos navegado por Internet para sentirnos un poco entendidas.

Mash Loratuz Lotu⁶⁴ taldeko kidea da eta espazio hauek sortzeko eta eratzeko beharra azpimarratu du. Talde honen helburuen artean dago honakoa: “sí que intentamos crear ese tipo de espacios de ir a tomar unas cañas, o un café, o en un momento dado hay alguien por el centro, ‘oye, ¿hay alguien por aquí?’ para crear vínculos”⁶⁵. Hala eta guztiz ere, talde honen zein beste batzuen (Harrotu, esaterako) jarduera oraindik ez da Orereta-Erreterian bermatu eta hau nabarmena da.

Kayk ere trans pertsonen eta pertsona ez-bitarren gainean hausnartzean espazio falta azpimarratzen du eta espazio txiki, intimo eta hurbilekoak aipatzen ditu errealitate bakan bezala:

Niri Donostiako espazio fisikoei dagokienean bururatzen zaidan gauza bakarra lagunekin etxe batean geratzen naizenan da, baina antolaketa mailan, nire ustez... amorrua ematen dit, mikro espazioak sortzen direlako, askotan gure artean komunikatzen ez garelako. Ez baitut uste ni naizenik bizitzan beste trans pertsona batzuk dituen bakarra, eta eurekin mahai-jokoetan jolasteko elkartzen den bakarra.

A mí lo único que se me ocurre en lo que respecta a los espacios físicos de Donostia es cuando quedo con mis amigos en una casa, pero a nivel organizativo me da rabia... porque se crean micro espacios, sin comunicamos entre nosotres. Porque no creo que sea yo la única persona trans que tiene en la vida a otras personas trans con las que se reúne para jugar a juegos de mesa.

64 2019an sortu zen Euskal Herriko trans helduentzako elkarte.

65 Euskaratuta: Kaña batzuk hartzera joateko espazio mota hori sortzen saiatzen gara, edo kafe bat, edo une jakin batean norbait dago erdian, aizu, norbait dago hemen? loturak sortzeko.

Honela deskribatzen du Aiorak ere bere bizipena, Kayk dioenarekin ondo lotzen dena:

Prozesua hasi nuenean, trans pertsonaren batekin harremanetan jarri ninduten. Eta egia da, nire herabetasunagatik eta elkarrizketa hori nola egin ez nekielako, ez nuela gogorik. Ez nekien pertsona hori eroso sentituko ote zen nire galderekin. Niri ez zait gustatzen bi pertsona trans izateagatik hitz egin behar izatea. Kostatu egiten zitzaidan kolektiboari lotuta sentitzea. [Pentsatzen nuen] Noski egingo dizudala estaldura, eta zureganako errespetu faltaren bat ikusten badut, lehen pertsona izango naiz salto egiten. Baina pertsona indibidualak garen heinean, ziurrenik zerikus handia edo ezer ez izan dezakegu.

Cuando empecé el proceso, me pusieron en contacto con alguna persona trans. Y es verdad que, debido a mi timidez y a no saber cómo entablar esa conversación, no me apetecía. No sabía si esa persona se iba a sentir cómoda con mis preguntas. A mí no me gusta eso de tener que entablar conversación por el hecho de ser las dos personas trans. Me costaba sentirme atada al colectivo. [Pensaba] Claro que te voy a hacer cobertura, y si veo alguna falta de respeto hacia tí, voy a ser la primera persona en saltar. Pero como personas individuales, seguramente podemos tener mucho o nada que ver.

3.2.1. Emakumeen Etxea

Paulak Orereta-Erreterian sexu- eta genero-aniztasuna agerikoagoa dela uste duen arren, LGTBI+ pertsonentzat topagune fisikorik ez duela aurkitu aitortu digu. Bere hitzetan, LGTBI+ pertsonak Emakumeen Etxearen inguruan biltzen dira hein handi batean gaur egun (ikus 72. irudia). Emakumeen Etxea erreferentzia puntu egokia dela dio, baina feminismoa eta LGTBI+ mugimenduak espazio ezberdinak eduki behar dituztela adierazten du: "azkenean dira bi lucha ezberdinak, ez hain ezberdinak, pixkat ulertzen gara, baina ez da berdina. Orduan, oraindik niretzako lan pixkat falta da". Horretaz gain, militantzia taldeak espazio faltagatik sortzen ez direla aldarrikatu du Paulak. Dauden espazio bakanak ere, Emakumeen Etxea kasu, oraindik eraikitze bidean daudela azpimarratu du Txelok ere:

Uste dut espazio seguru bat dela, oraindik eraikitzen ari direna. Eta pena da, ez baita jende asko hurbiltzen. Kontsumitzera bai, baina ez alternatiba posible bat eraikitzera. Lehen dena zen irakurtzea, eztabaidatzea... dena zegoen egiteko.

Creo que es un espacio seguro, todavía en construcción. Y es una pena, porque no se acerca mucha gente. A consumir sí, pero no a construir una posible alternativa. Antes todo era leer, debatir... estaba todo por hacer.

Orain informazio asko dago, informazio kontsumo handia, eta gehiegizko informazio asko, edo deitu nahi diogun beza-la. Eta galtzen ari da gauzak eraikitzeko ohitura, alternatibak bilatzekoa.

Ahora hay mucha información, mucho consumo de información, y mucha sobreinformación, o como queramos llamarlo. Y se está perdiendo la costumbre de construir cosas, de buscar alternativas.



72. Irudia. Orereta-Erretereriako Emakumeen Etxea. Iturria: Orereta-Erretereriako udala.

Hari horretan, Paulak herriko ekintza orokorretan ere topagune, elkargune eta erreferentzia falta salatu ditu. Alde batetik, herriko hainbat ekintzetan parte-hartzen duen gehiengo gizonzkoa da. Bestetik, ekintza horiek publiko zisheterosexualarentzat diseinatzeko direla dio. Esaterako, musikaren munduan, herrian sortzen diren hainbat ekintza eta espazio LGTBI+ pertsonentzat atseginak ez direla kontatu digu. Honen aurrean, hau horrela izan ez dadin, Paulak honakoari buelta emateko estrategien inguruan hausnartu du: “niretzako bisibilitatea bai artistetan, bai ikonografikoki baita [garrantzitsua da] [..] adibidez bandera bat jartzeak pues igual te salva la vida. Ze jartzen [badute] ondo sentitzen zara hor, simplemente por ver eso”.

3.2.2. Arkaitza Taberna

Espazio zehatzagoez hitz egiterakoan, elkarrizketatuak bat datoz: Orereta-Erretererian ez dago, oraingoz, LGTBI+ pertsonentzat leku espezifikorik. Baina, bat datoz, ordea, xede horretarako leku ofiziala izan gabe, Arkaitza taberna dela aniztasun handiena aurki daitekeen eta jendea seguruen senti daitekeen tokia (ikus 73. irudia). Hala kontatzen digu mahai-inguruko partaideetako batek: “Ikusten det, nik behintzat bizi dudan espaziotatikan, Arkaitza taberna dela pixkat betetzen duena sozialki zea hori. Ta kontura-

tzen baldin bazeazte edozein, gutako edozein, han aurkitu gaitzke...". Pentsamendu honi segida eman dio beste parte-hartzaileetako batek: "ikusten det Arkaitza badela espazio bat pixkat elkartzen gaituena, nahiz eta gure diferentziak izan, ta ikusten det hor azkenean daudela edade ezberdinak, daudela genero ezberdinak, daudela ideologia ezberdinak ere...".



73. Irudia. Arkaitza Taberna. Iturria: Bizi Erreterria.

Naroak ere Arkaitzako bizipenak honela kontatzen dizkigu: "graziosoa da ikustea zure imajinarioan egon diren betiko pertsonak... eta ikustea jende hain anitzarekin, niri graziosoa eta pozgarria iruditzen zait. Horrek esan nahi du ere bagoazela zirrikituetatik sartzen". Arkaitza topagune bihurtzeko arrazoa zein izan den galdetzerakoan, elkarrizketatuek jabeek izan duten prestutasuna izan dela diote. Elkarrizketatuen hitzetan, Arkaitza tabernako arduradunek espazio bat dutela jabetzen dira eta beste pertsona batzuei ahotsa emateko eta ekintzetan parte-hartzeko erabiltzen dute, hala baieztatu digute mahai-inguruetan: "mikrofono bat daukat, eta nik aprobetxatu behar det mikrofono hori".

Zentzu honetan, ordea, elkarrizketatuek espazio pribatuen izaera eta behar horri ere kritika egin diote. Honela jasotzen da mahai-inguruko hausnarketa sakona:

Espazioetat z hitz egiten dugunean [...] espazioak bilatzeari buruz, espazio berriak sortzeari buruz [ari gara] eta, nik uste, de transformar espacios ere hitz egin behar dela. Nik uste garrantzitsua dela espazioei buruz hitz egiten dugunean [zeren] Arkaitzak [adibidez] hori jasan du, bilatze bat, eta gero transformazio bat ere. [Bertara] joan den jendeak egin du espazio hori. Eta [...] espazioekin daukagun beste arazo bat da espazio publikorik gabe [gelditu garela]. Komunitatearen espazio hoiek,

bai fisikoak eta ez fisikoak ehi, espazio pribatuak dira. Porque, zuk esan duzu, zer gertatuko da jubilatzen denean? Eta aldaketa egongo da jabe berri baten menpe [...], enpresari baten menpe. Nik uste hori dela espazioen beste arazoetariko bat, ez daukagula espazio publiko propiorik.

3.2.3. Madalenak

Hari horretatik tiraka, Madalenetako jaiak eztabaidagai izan dira elkarrizketatuen artean. Madalenetako ekintzen barruan antolatutako jardueretan feminismoa bezalako gaiak jorratzen direla aitortu digute elkarrizketatuek, ez baina LGTBI+ gaiekin zerikusirik dutenak. Hala eta guztiz ere, OaingozHauk⁶⁶ antolatutako jardueren barruan LGTBI+ gaiak landu direla kontatzen digu Paulak eta honek beregan izan duen eraginaz hitz egin digu. Paulak honela azaltzen digu: “Madalenetan jartzen dituzte gauzak, Irantz Varella ekarri zuten, Panierren uste. Monologo bat egin zuten baita. Todo el rato hablando feminismoz eta LGTBI munduaz eta horrela”. Beraz, horrelako ekintzekin jarraitzearen beharra azpimarratu du Paulak, bai eta hauek gehiago txertatzeko eta hedatzeko ere. Hala bukatzen du hausnarketa Paulak: “gutxinaka gauzak sortzen ari gara, baina oraindik jendea askoz gehiago sentsibilizatu behar da, beste jendea gustura egoteko. Simplemente. Por una convivencia. Ya está. Ez da lokura bat. Badirudi. baina ez da”.

3.2.4. Atlantikaldia

Elkarrizketatuen aburuz, Orereta-Erreterian egiten ari den beste praktika on bat da herriko ekitaldi handietara LGTBI+ artistak gonbidatzea. Esaterako, 2023ko Atlantikaldian, kartelburuetako bat Rodrigo Cuevas izan zen –ablesari, folklorista eta LGTBI+ aktibista ezaguna. Kontzertu hori Atlantikaldiko jendetsuenetakoa izan zen. Hala oroitzen du Paulak: “lehen ez zizun graziarik egiten mutil bat ikustea makilatua edo con volantes de flamenca eta hola, baina niretzako inpaktu ona egin zuen [...] horregatik niretzako oso inportantea da horrelako jendea aktibista ekartzea”. Elkarrizketatuen ustetan, LGTBI+ pertsonen bizipenak azaleratzen eta euren oinarritzko eskubideak sustatzen dituzten aisialdi eta topaguneen beharra ezinbestekoa da.

66 Madalenetako jaiak antolatzeko herritik eta herriarentzat 2018an sortu zen mugimendua da. Norbanakoek hartzen dute parte, lan-talde ezberdinetan banatuta. Aniztasunean oinarritzen dira eta jaiak feministak, euskaldunak, ez LGTBI+foboak eta ez arrazistak izatea dute helburu.

3.2.5. Oreretako Zintzilik Irrati Librea

Ildo honetan, elkarrizketatuek Oreretako Zintzilik Irrati librea aipatu dute LGTBI+ gaiak partekatzeke topagune garrantzitsu bezala. Irrati honetako hainbat saiotan tematika transmaribolloak jorratu dira eta bertan ibili ziren Orereta-Erretereriako militante LGTBI+ historikoak. Mikelak, Madelonek edota Goikok uhinetan zabaldu zituzten irratzaioen artean honakoak ditugu nabarmen: *Girigay*, *Cianuro en tus uñas*, *Sal del armario*, *Poltersgay* eta *Lumak astindu*. Mugimendu lesbofeministari ere tokia egin zion Zintzilik Irratiak eta *Komando Makila*, *No Hay Tregua* edota *Salda Bero* bezalako irratzaioak grabatu ziren bertan. Era berean, ikerketa honetan grabatu diren irratzaioak ere Zintzilik irradian egin dira (ikus I. kapitulua, 2. puntua).

3.2.6. Sare sozial berriak

Topagune bilakatu dira ere egungo sare-sozialak. Sare-sozialak herrian eta bestelako tokietan elkargune bat sortzeko, jendea ezagutzeko eta errealitate ezberdinak partekatzeke tresna bihurtu dira. Aitzitik, badira ere kontrako pentsamendua dutenak. Izan ere, sare sozialak ez dira pertsona guztientzat erabilgarri eta belaunaldien arteko ezberdintasunak ere nabarmenak dira hauetan. Zentzu honetan, arma sozializatzailetzat deskribatu dituzte sare sozial berriak, eta tresna hauek dituzten arriskuez ere aritu dira elkarrizketatuak. Izan ere, komunitatea birtualtasunera eramatea eta herrian espazio fisiko konkretuak ez sortzeko arriskua ikusten dute elkarrizketatu batzuek. Beraz, interseksionalitatea eta politizazioa ere gai nabarmen izan dira honetan:

Nire esperientziatik, daukadan adinarekin eta sare sozialak oso urrun geratzen zaizkidalako (horrela etorri zaizkidalako eta hala nahi dudalako oraingoz), askotan egiten diot galdera neure buruari, ea ez dugun armairu berri bat sortu sare sozialekin. Izan ere, herri honetan inoiz baino gehiago ligatzen da eta baita larria jo ere, baina sare sozialen bidez. Orain ez gara aurkitzen, ez gaude, ez daukagu lekurik ez egoteko, ez hitz egiteko, ez elkar ukitzeke.

Desde mi experiencia, con la edad que tengo, y con lo lejos que me quedan las redes sociales (porque así me han venido, y así lo quiero de momento), me hago muchas veces la pregunta de a ver si no hemos creado un nuevo armario con ellas. Porque en este pueblo seguramente se liga y se folla más que nunca, pero por redes sociales. Ahora no nos encontramos, no estamos, no tenemos un sitio ni para estar ni para hablar ni para tocarnos.

Ildo horretan, elkarrizketatutako pertsona trans eta ez-bitarrek sare-sozialak erabiltzeko oztopoak aurkitu dituzte, izan ere, disidentziaren disidentzia direla argudiatu eta transfobia nabaria dela diote. Hala kontatzen digu mahai-inguruko parte-hartzaileetako batek:

Gaur egun kostatzen da zait nigan interesa duen mutil bat ezagutzeko, ez baitago sare sozial espezifiko bat niretzat dela esaten duena, neska trans batentzat den eta gune horretan nirekin egon nahi duten mutilak bakarrik sartuko direla. Tinder eta Grindr-en nago, beti sexuaz hitz egiten dute eta esperimintatu besterik ez dute nahi. Objektu bat bazina bezala tratatzen zaituzte.

Hoy en día me cuesta conocer a un chico que se interese en mí, porque no hay una red social específica que diga que es para mí, que es para una chica trans y que en ese sitio solo van a ingresar chicos que quieran estar conmigo. Estoy en Tinder y en Grindr donde siempre hablan de sexo y solo quieren experimentar. Te tratan como si fueras un objeto.

3.2.7. Ahoz aho elkartzeko

Topagune fisikorik ez badago, zein da elkar aurkitzeko bidea? Mahai-inguruetan aipatu den bezala, pertsonen arteko komunikazioa izan da nagusi Orereta-Erreterria eta Oarsoaldean komunitatea sortzeko: “el boca a boca de cómo fue aquel evento que yo no me atreví a ir, pero cuéntame...”⁶⁷

Orereta-Erreterrian LGTBI+ pertsonentzako dauden topaguneetatik hitz egiteko atal honi bukaera emateko, mahai-inguruetan egin zen gogoeta bat helarazi nahi dugu. Hausnarketa guztien oinarrian behar bat dago, “seguru sentitzearena” eta “entzunda sentitzearena”, hori oso zaila dena arau zisheteroaren mende dagoen gizartean, “el interés y el deseo de escucharse”⁶⁸. Ez dira nahi ghettoak, helburua ez baita besteengandik bereiztea. Zeharkakotasuna bilatzen da, ikusgarritasuna eta balioestea. Zalantzarik gabe, aurrerapenak ikusi dira, bai gizartean, bai erakundeetan. Adibidez, Orereta-Erreterriako Udalaren berdintasun-politiken barruan LGTBI+ arloaren sorrera, LGTBI+ pertsonentzako arreta-zerbitzua abian jartzea edota joan den 2023an sortutako LGTBI+ Politiken Aholku Kontseilua sortzea (ikus II. kapitulua, 3.3.7. puntua).

Espazio mikro, txiki eta pribatuetakoa ez ezik, eremu publikoan presentzia handiagoa izateko, agerikoagoa izateko eta gainerako gizartearekiko partaidetza handiagoa izateko pentsamenduak heldu diote. Horretaz gain, erakunde instituzionalizatuetatik kanpoko lana ere aldarrikatzen da; izan ere, esparru politiko horretara iristea lorpena izan den arren, uste dute ez dela kaleko militantzia galdu behar:

67 Euskaratuta: Ahoz-ahokoa, nola ez nintzen joaten ausartu, baina kontaidazu...

68 Euskaratuta: Elkarri entzuteko interesa eta gogoia.

Lekualdatze bat egin da, [sortu dira] beste mota bateko gauzak, [...] Francisaldia beste gauza batzuen artean, baina [kontuz] instituzionalizazioarekin... beti egon gara pixka bat istorio horien kontra.

Se ha hecho un traslado, [han surgido] cosas de otro tipo, [...] el Francisaldia entre otras cosas, pero [cuidado] con la institucionalización... siempre hemos estado un poco en contra de esas historias.

4. Sexilioa

Orientazio sexuala edota genero identitatea medio -hots, zisheteroarautik at koka-tzeagatik- jasandako indarkeriagatik edo honakoa jasateko beldurragatik pertsonak euren auzoetatik, komunitateetatik edota herrialdeetatik migratzearen fenomenoari deritzogu sexilioa (Gutiérrez, 2008; Moreno, 2013). Migrazioa dezente aztertu den fenomeno soziala da. Askotan, ordea, ez dira aintzat hartu genero identitatea eta orientazioa bezalako aldagaiak. Ondorioz, sexilioa bezalako gertakariak ezkutuan geratu dira maiz (Moreno, 2013). Atal honek helburu du fenomeno hau pairatu edo honen gainean hausnartu duten herritarren ahotsak jasotzea.

Gure elkarrizketatuak sexilioaz jardun dira, batzuek modu esplizituan hitz egin dute, beste batzuek zeharka, gaia askotan jarri da mahai gainean ordea. Honela kontatzen digu gure mahai-inguruko partaide helduetako batek:

Hemendik beste herrietara, beste alderditara, inguruetara joan zen [jendea], beraien sexua, beraien plazera eta sexu-aniztasuna azalertzeko. Eta hemen herri bezala segitzen genuen egoera horretan.

Honako testigantza gizon gay heldu batena bada ere, Paulak, belaunaldi gazteagokoa dena, bere adineko jendeak ere halako bizipenak izan dituela aitortu ditu. Beti ezagutu izan ditu Paulak herritik joan nahi izan duten LGTBI+ pertsonak. Oro har, jendeak Madri-lera edo Bartzelonara joateko joera izan duela kontatu digute elkarrizketatuek.

Zentzu honetan, herriko kolektiboko kideek sexilioaren aurpegiak zein diren aztertu dute. Alde batetik, LGTBI+ herritarrak herritik arnas hartzeko ateratzeko grina komentatu dute. Ikasketak burutzera kanpora joatea sexilio forma izan dela kontatu digu Paulak. Hala eta guztiz ere, honakoa "sexilio maximoa" ez dela aldarrikatzen du, izan ere, herriarekin harremana ez da inoiz guztiz galtzen. Aldi berean, elkarrizketatuen artean ere badaude kanpora joan eta herrira bueltatu arte bidaia hori sexilioa zela konturatu direnak. Kayren hitzetan ere honakoa nabari da: "no sé hasta qué punto yo también

cuando me fui a Madrid fue un poco motivado con eso, la verdad"⁶⁹. Itziarrek ere honakoa kontatzen digu: "porque claro, ser una bruja, o ser una bruta, o ser una bollera, o ser una perra, o ser una transfeminista, yo qué sé, o ser una bicha en ese sentido, tú sola, pues eres una bicha muerta"⁷⁰.

Kayk erreferente faltarekin ere lotu du sexilioaren fenomenoak:

Baina, ez dakit, uste dut 'erreferenteak kanpoan daude' horren sentsazioa dezentente sentitu dudala, eta askotan irreal dela uste dut. Izan ere, nire ustez, horren atzean ideia hau gailentzen da: 'bale, kuir den zer-bait egiten bada, Espainiako estatuan egiten da, eta Madrilén egiten da'. Eta hori ez da errealtatea. Stone Butch Blues obran pentsatzen dut, esate baterako, euskarara gaztelaniara baino askoz lehenago itzuli delako. Eta uste dut hori hemen gertatu diren gauza askoren adibide oso esanguratsua dela. Uste dut Euskal Herrian oso historia militantea dugula, eta askotan hemen estatu mailan gertatzen diren gauza horien aurretik gertatzen direla. Tamalez, ordea, badirudi zeure burua aurkitzeko kanpora atera behar duzula, gero berriro hona bueltatzeko. Zer ari da gertatzen jendeak joatearen behar hori sentitzeko?

Creo que sí he tenido la sensación de que los referentes estaban fuera. Y [ahora] creo que es irreal, que está motivado por discursos dominantes tipo 'si se hace algo queer se hace en el estado español y se hace en Madrid'. Cuando no es real. Pero pienso, por ejemplo, en la obra de Stone Butch Blues⁷¹ [que] ha sido traducida al euskera bastante antes que al castellano. Y creo que eso es un ejemplo tangible de muchas cosas que han pasado. Creo que en Euskal Herria tenemos una historia muy militante de la que muchas veces preceden cosas que se hacen a nivel estatal. Lo triste es que luego, sin embargo, sí que se dan estos procesos en los que parece que te tienes que ir para encontrarte, para luego estar de vuelta. ¿Qué está fallando ahí para que tengas tal necesidad de irte?

Oliber eta Aiorak ere kanpora ateratzeko eta sexilioak eman dezakeen askatasunaren ezitia probatzeko beharra izan dute edonoz. Halere, sexilioa ekiditeko estrategiak aurkitu ahal izan dituzte herrian ere eta Orereta-Errenterian beraien identitateak lantzeko indarra izan dute. Oliberrek honako hau partekatzen digu:

69 Euskaratuta: Ez dakit zer puntutaraino, Madrilera joan nintzanean, horregatik izan zen ala ez.

70 Euskaratuta: Sorgin bat izatea, edo basatia, edo bollera, edo 'perra', edo transfeminista edo auskalo zer! Edo 'bitxa' bat zentzu horretan, zu bakarrik, ba hilda dagoen 'bitxa' bat zara.

71 *Mari-mutil handi baten bluesa* (Leslie Feinberg, 1993).

Nik bai. Momentu batean burutik pasatu zitzaidan, hemen oso mugatuta gaudela ikusten duzulako, Gaztaroan dena beltz ikusten duzu, eta kanpora pixka bat ateratzen zarenean, askatasuna sentitzen duzu, azkenean ez zaudelako zure arean. Eta nik bere garaian pentsatu nuen [alde egitearena], baina hemen geratzearen aldeko apustua egin nuen, nire lekua bertan egiteko.

Yo sí. Hubo un momento en el que se me pasó por la cabeza, porque ves que aquí estamos muy limitados, Durante la juventud ves todo negro, y cuando sales un poquito fuera sientes libertad, porque al final no estás en tu área. Y yo en su día lo pensé [lo de irme], pero aposté por quedarme aquí para hacerme un hueco.

Badirudi, beraz, Orereta-Erreterria eta Oarsoaldeko biztanleriaren artean sexilioaren errealitateak anitzak direla. Errealitateak alderaezinak izan daitezkeen arren, elkarrizketatu guztien ahotan entzun dugu gai hau eta sexilioaren ideiarekin jolastu dutenak ehuneko handia dira. Arrazoiaren artean, herriaren espazio falta, herriaren tamaina txikia, erreferentzialtasun falta eta herritar zein familia eta lagunen sostengu falta izan dira aipatuen. Hauetan ere datozen azpiataletan sakonduko dugu, herriko LGTBI+ jendeak dituen premiak nagusi baitira lan honetan.

5. Indarkeria

LGTBI+ biztanleak egoera zaurgarri eta babesgabeetan egondako kasu zehatzak partekatu dituzte elkarrizketatuek, Orereta-Erreterriako espazio publiko zein pribatuetan, bai eta lan-arloan eman izan direnak ere. Esaterako, herriko taberna ezagun batean eman diren egoerak salatu dituzte elkarrizketatuek. Herriko testuinguruan, gay eta migrantea den langile baten kaleratzea eta mutil trans baten kaleratzea ere salatu dituzte elkarrizketatuek. Horrelako kasuen aurrean oraindik ere herrian sarri ematen den erantzuna isiltasuna dela salatzen dute, bai eta ardura edo garrantzia kentzearen jarrera ere:

Gizarteak gauza horiek isiltzen jarraitzen du oraindik. Konplizitatea eta sekretismoa daude oraindik, agian ez dakit noren lehengusua delako, edo...-ko kidearen taberna, ezta?

La sociedad sigue silenciando todavía estas cosas. Sigue habiendo complicidad y secretismo, porque igual es el primo de no sé quién, o el bar del colega de... ¿no?

Hitz hauekin bat egiten du beste elkarrizketatuetako batek eta sexilioarekin lotzen du honakoa. Honela kontatzen digu:

Hori ere errealtate bat izan da, hori ere bizi izan dugu. Eta behin plazaratzen zenean horrelako egoera bat beti nahi zitzaion ardura kendu: "bueno, lasai, ez da ezer gertatzen!" Eta asko gertatzen zen, eta onartu dugu onartu behar ez genituen gauzak. Eta segitzen genuen erreferentziarik euki gabe. Eta nik hor irudikatu nuen inguruko jendeak sexiliora egin zuela [...] eta hemen herri bezala segitzen genuen egoera horretan. O sea que... Herria erreferentzia bezala? Bai, ze hemen lan asko egin da eta pertsona asko egon dira erreferente bezala, baina momentu batetik aurrera, esan nahi dut, eta ez duela urte gutxi.

Herritar honek bizi izan duenaren arabera, badirudi kasu batzuetan, gainera, LGTBI+ pertsona batzuk herria uztera behartuta ikusi direla bizitza libreago bat aurkitzeko asmoz (ikus kapitulu honen 4. puntua). Elkarrizketatu honen kasuan, indarkeria eta diskriminazio horren aurrean babesik gabe sentitu zen eta ez zuen bere esperientziak partekatzeko leku segururik aurkitu inguruan. Gehiago dena, irain eta hainbat motatako biolentziaren beldur zenez, honelako esperientziak ez kontatzea erabaki zuen bizitzako une batean.

Aldi berean, elkarrizketatuek indarkeria gertakarien ostean babesa eta ulermena eskaintzen duten inguruko pertsonak izatearen garrantzia azpimarratu dute, baita bizitako diskriminazio-egoerak ez onartzearen eta hauek salatzeko beharra ere. Ildo horretan, ikerketan herrian pairatutako diskriminazioari eta indarkeriari aurre egin behar izanaren errealtatea islatu da, bai eta zailtasun horiek gainditzeko babesa eta elkartasuna lortzearen garrantzia ere. Honela islatzen ditu bi puntu hauek mahai-inguruko elkarrizketatuetako batek:

95. urtean nire bikotekidea hiesak jota hil zen, eta, noski [eta galeriari begira], ez zen hiesak jota hil, pneumonia batek jota hil zen. Eta bizitza honetan ibili ginen, inork jakin gabe hiesak jota hil zela, harik eta, urte batzuetara, ustez gugandik urrun zeuden pertsona batzuek gayak ginela jakin zuten arte, eta ziurtzat eman zuten horregatik zuela hiesa. Eta hori 95ean gertatu zen. Ez zen izan ez 60ko hamarkadan, ez 70ekoan, ez 80koan. 95eko azaroan hil zen. Eta hori bizi duzu. Eta herri honetan bizi duzu. Eta hemen bizi duzu, familiarekin, lagunekin eta inguruarekin. Beraz, galdetzen badidate, benetan ba al duzu gay gisako tokirik herrian? Bada, ez.

En el año 95 mi pareja murió de SIDA, y, obviamente [y de cara a a la galería], no murió de SIDA, murió por una neumonía. Y pasamos por esta vida sin que nadie se enterara de que se había muerto de SIDA hasta que a los años, supuestamente ciertas personas alejadas de nosotros, descubrieron que éramos gays y dieron por sentido que por eso tenía SIDA. Y eso pasó en el 95. No fue ni en los 60, ni en los 70, ni en los 80. Murió en noviembre del 95. Y eso lo vives. Y lo vives en este pueblo. Y lo vives aquí, con tu familia, con tus amigos y con tu entorno. Así que si me preguntan, ¿tienes realmente un sitio como gay en el pueblo? Pues no.

5.1. Indarkeria motak

Biolentzia mota desberdinen artean, ikerketako parte-hartzaileek diskriminazio eta biolentzia zuzena zein zeharkakoa salatu dituzte. Esaterako, indarkeria bikarioaren eta horren ondorioak identifikatu eta eztabaidagai izan dira mahai-inguruetan. Honakoa dio parte-hartzaileetako batek:

Ez da nire kasua, baina beti entzuten dira kasuak, ezta? Imajinatu bakarrik gerta dai-tekeela... Izan ere, indarkeria mota horrek bat egiten du gainerako kanpoko kritikekin, eta, ahal bada, askatasun falta handiagoa sortzen du.

Hau da, lan egiteko moduari eragiten dio, aurre egin nahi diezun egoerei eragiten die, harremanak egiteko moduari...

No es mi caso, pero siempre se oyen casos, ¿no? Ya solo imaginar que pueda pasar... porque ese tipo de violencia se une al resto de críticas externas y genera, si cabe, más falta de libertad.

Es decir, afecta a la forma de trabajar, afecta a las situaciones que quieres afrontar, a la manera de relacionarte...

Ahozko indarkeriari dagokionean, aipatutako indarkeria bikarioaren muturrean gorroto-delitu eta gorroto-erasoak kokatuko lirateke. Teoriak erakusten duenez, gorroto-delitu eta -erasoetan, erasotzailearen helburua berehalako LGTBI+ pertsonari zuzenean kaltea eragiteaz gain, LGTBI+ kolektibo guztiarentzat mehatxu- eta intolerantzia-mezua zabaltzea da. Beste era batera esanda, antzeko ezaugarriak dituzten pertsona guztiei, LGTBI+ komunitatearen parte direnak zein ez direnak, mezua helaraztea litzateke erasotzaileen helburu nagusi. Ildo horretan, indarkeria kasu hauen atzean ezkututzen den helburua genero-arau hegemoniko edota sexualitate-rol tradizionalekin bat ez datozen identitate, jokabide eta gorputzak "zigortzea" eta "ezabatzea" izango litzateke (Azabal eta Arruabarena, 2023; Diez-Guiral, 2024).

Trans errealtateen inguruan hausnartzerakoan, parte-hartzaile baten kasua da azpimarragarri. Emakume trans migrante arrazializatua da bera eta duela lau hilabete iritsi zen Orereta-Erretereriara. Kontatzen duenez, trans identitatearekin lotutako diskriminazio-esperientziei aurre egin behar izan die bere jaioterrian. Honakoa medio, egun bere identitatea eta nortasuna azaleratzeko beldurra sentitzen duela aipatzen du, izan ere, gainerako pertsonen erreakzioaren beldur da, bereziki harreman erromantiko-afektiboen esparruan. Trans emakume gisa identifikatu zenetik, bere bizitzako hainbat harreman aldatu direla aipatzen du eta, ondorioz, izan ditzakeen harremanak kualitatiboki ezberdinak izateko beldur da. Gehiago dena, mota horretako indarkeria pairatu izanagatik jaioterria uzteko eta Orereta-Erretereriara migratzeko erabakia hartu zuen parte-hartzaile honek. Orereta-Erretereriari dagokionean, nahiz eta herrian

nahikoa berria izan, indarkeria transfobo gutxiago jasateko esperantza du, baina, momentuz, babes eta sostengu falta izan du harreman berriak sortzeko garaian.

Transfobiaren gaiarekin jarraituz, parte-hartzaileek herriko hainbat eremu pribatu zein publikoetan ere transfobia ematen dela azpimarratu dute. Indarkeria instituzionala herrian presente dagoela salatu dute elkarrizketatuek. Ildo honi jarraituz, Aiorak bere transizio prozesuan Osakidetzarekin⁷² izan duen esperientzia partekatu du adibide moduan:

[Garai hartan] gizonetzkoen aldagela batean lan egiten nuen, eta [niretzat] tortura bat zen hor sartzea. Eta berak [doktoreak] esan zidan: "Hau oso prozesu luzea da; nik ezin dizut baja eman orain". Ni ez nintzen baja eskatzen ari, laguntza psikologikoren bat baizik, baina ezer ez, bakarrik utzi ninduten. Izugarria izan zen lanean jarraitzeko une hura, dena nere gain hartzea, nire itxura aldatu ez izana... Osasun arazoak izan nituen, jada tresnarik ez izatearen erruz, baizik eta Osakidetza bezalako erakunde baten babes faltagatik. Ez zen kapritxo bat, baizik eta doktoresari deitzen nion antsiazko atakeekin, irtenbide bat eman ziezadan... Doktokez aldatu nintzen.

[En aquella época] trabajaba en un vestuario de hombres y [para mi] era una tortura entrar ahí. Y ella [la doctora] me dijo "Esto es un proceso muy largo, yo no te puedo dar una baja ahora". Yo no estaba pidiendo la baja, sino algún tipo de apoyo psicológico pero nada, [me dejaron] tiradísima. Fue horrible ese momento de seguir trabajando, asumirlo todo, no haber cambiado mi apariencia... Tuve problemas de salud por culpa de no tener, ya no herramientas, sino por la falta de amparo de una institución como Osakidetza. No era capricho sino que le llamaba a la doctora con ataques de ansiedad para que me diese una solución... Cambié de doctora.

Testuan irakurtzen den moduan, babes instituzionalaren falta nahikoa argia da eta, bereziki, Osakidetzan ematen den indarkeriak osasun-arazoetan eragina izan dezakeela salatzen da. Jasotako testigantzetan islatuta geratzen denez, herrian genero-identitate ez normatiboa duten pertsonen diskriminazioa pairatzen dute. Ikerketan, honakoa Aioraren hitzetan oso argi islatzen da:

Eta ikaragarria zen, adibidez, txikiak gineanean asteburuetan erdigunera jaistea, suplizio bat. Kaletik edo "marikoi" edo "barbie" oihukatzen zidatelako eta ur puxikak botatzen zizkidatelako [...].

Y era horrible, por ejemplo, bajar los fines de semana al centro cuando éramos pequeñas, un suplicio. Porque por la calle o me gritaban "maricón" o "barbie" y me tiraban globos de agua [...].

72 Osakidetza Euskal Autonomia Erkidegoko osasun zerbitzu publikoa da.

Hori jazarpena zen. Eta niri ez zitzaidan nire auzoan gertatzen, ni nire auzoan lasai nengoan, neskato bat gehiago nintzen. Eta, jakina, jaisteari utzi nion. Orain parrandan ibiltzea gustatzen zait, baina gorroto nuen zerbait zen, sufrimendua zen parrandan irtetea. Ez nekien non irainduko ninduten edo zein unetan falta-ko zidaten errespetura. [...] Eta, orduan, horri guztiari aurre egitea nekagarria zen niretzat, eta parrandan irteteari utzi nion, bai eta erdigunera jaisteari, eta beste gauza asko egiteari ere, niretzat hori zelako, ba hori, etsai-giroa.

Eso era acoso. Y a mí no me pasaba en mi barrio, yo en mi barrio estaba tranquila, era una niña más. Y, obviamente, dejé de bajar. Ahora me encanta salir de fiesta, y [antes] era algo que odiaba, era un suplido salir de fiesta. No sabía en qué sitios me iban a insultar o en qué momento me iban a faltar al respeto [...] Y, entonces, lidiar con todo eso era agotador. Por eso me quité de fiesta, de bajar de pequeña al centro y de mil cosas, porque para mí era territorio hostil.

Elkarrizketatuak deskribatutako bizi-esperientziak ditugu aurreko aipuan. Ikus daitekeenez, Aiorari gazteagoa zenean asteburuetan herriko erdigunera gerturatzea jasan ezina egiten zitzaion "maritxu" bezalako irainak eta bestelako jazarpen mota batzuk jasotzeko beldur handia zuelako. Etsaitasun eta indarkeria hau medio, herrian bizitzea nekagarria egiten zitzaion eta hainbat erabaki hartzera behartuta ikusi zuen bere burua, esaterako festan ez irtetea eta Orereta-Erreterriako erdigunea ekiditea.

Elkarrizketatuen hitzetatik ondorioztatu daiteke LGTBI+ pertsonak, eta bereziki trans pertsonak, herrian mugitzeko modu eta patroiz zehatzak dituztela, indarkeriari eta diskriminazioari zuzenean lotzen zaizkionak. Esaterako, herriko gune batzuk saihestea eta beste batzuk lehenestea kolektiboko pertsonen egunerokotasunean txertatzen dira, adibideetan ikusi moduan.

Hari honetan, talde-presioak eragin nabarmena izan dezake talde zaurgarrien bizitzetan. Elkarrizketatuen hitzetan, talde-presioak norbanakoaren nortasuna adierazteko seguru ez sentitzea eragin dezake. Elkarrizketatuek beren ingurunea besteekin alderatuta segurutzat jo dezaketen arren, onartzen dute ez dela erabat segurua eta zaila dela erabateko segurtasuna lortzea Orereta-Erreterrian gaur egun. Oro har, elkarrizketatuek Orereta-Erreterria LGTBI+ pertsonak bizitzeko leku nahiko atsegina dela aipatu badute ere, kolektibo honek jasaten duen indarkeria herriko egunerokotasunean presente dagoela dirudi. Orereta-Erreterriako LGTBI+ kolektiboak jasaten duen indarkeriari aurre egin ahal izateko eta lasaitasuna aurkitzeko arnaguneak izatearen beharra aipatu da maiz. Hurrengo aipuan honako bizipenen inguruan Aiorak egindako hausnarketak aurkezten da:

Badakit hemen oso zoriontsua izan naitkeela. Eta egia da une batzuetan nekatzen hasi naizela matxismoaren kontu-gatik... hainbeste indarkeria jasaten dut zentzu horretan, azkenean, nire buruan pentsatzen dut "agian hemendik pixka bat aterako nintzateke", behar horretara iristen ari naiz. Ez hemendik alde egitea, baizik eta bidaia bat egitea, behintzat. Egia da premia hori izaten hasi naizela.

Yo sé que aquí puedo ser muy feliz. Y sí que es verdad que hay momentos en los que me empieza a saturar que haya tanta cantidad de... más por el tema del machismo que he dicho, tanta violencia que sufro en ese sentido. Estoy llegando al final a una necesidad de "igual saldría un poco". No de irme de aquí, eh, sino, aunque sea un viaje. Es verdad que empiezo a tener esa necesidad.

5.2. Babes faktoreak

Kolektiboko pertsonen babes faktoreak ere aurkitu dituztela aipatu beharra dago. Pertsona hauen sareek beren bizitzetan presentzia handia dute eta babes faktore bezala aipatu dira ikerketan. Horren harira, Aioraren bizipenetan herrian pairatutako indarkeria eta herritik bertatik jasotako babes estuki lotuta aurkitzen dira, batez ere inguruko pertsonen bizipenekin alderatuta. Honakoa dio:

Argi dago desberdintasunak bizi izan ditudala neska zis edo normatiboago baten aldean. [Eta nahiz eta] entzun ditudan ergelkeriak, asko, ez dut istilu transfoborik izan, ez didate errespetua galdu, ez naute horregatik biolentatu. Oreretan matxismo hutsa da jasan dudana: gauean atzetik ibili zaizkit, erasoak... Badakit nire adierazpenak zerikusi handia duela nik bizi izan dudanarekin, nire errealitateak ez baitu zerikusirik trans pertsona askoren errealitatearekin. Eta herrian oso zaindua eta babestua egon naizelako ere. Baina, egia esan, nik ez dut desberdintasun hori jasan, baizik eta matxismo eta indarkeri purua jasan ditut. Ikaragarria.

Es obvio que vivo diferencias en cuanto a una chica cis, o más normativa. [Y aunque] he oído gilipolleces, muchísimas, no he sufrido ningún altercado transfobo, no me han faltado al respeto, no me han violentado por eso. Lo que he sufrido en Orereta ha sido el machismo puro: que me persigan por las noches, agresiones... [...] Sé que la apariencia tiene mucho que ver en lo que yo he vivido, porque mi realidad no tiene que ver con la de muchas personas trans. Y también porque he estado muy cuidada y muy protegida en el pueblo. Pero realmente, es que yo no he sufrido esa diferencia, sino que he sufrido en estado puro el machismo y esa violencia. Horrible.

Azkenik, LGTBI+ kolektiboko kideek indarkeria mota ezberdinen aurrean beharko luke ten babesaren inguruan jardun dira elkarrizketatuak. Aiorak honako hau dio:

Norbanakoaren askatasun mailan muga asko ikusten ditut herrian, bai, taldearen eraginak gauzatuta. Mutil gay batek ez du gay dela esango bere kuadrilla "ze nazka, marikoia da" esaten ari bada. [Uste dut] gauza horiek belaunaldi guztietan emango direla aurrerantzean ere; matxismoa bezalakoa da, horrek [ere] jarraituko du. Baina, gainera, Arkaitzan ere ikusten dut, 2004tik 80ra jaiotako jendea mugitzen den lekuan. Eta oso baldintzatuta dauden pertsona asko ikusten ditut. Ez direla libre. Esaten ari garena da, ingururik segurua da, baina ez da guztiz segurua, ez da guztiz segurua. Oso zaila da dena %100 segurua izatea.

Sí que veo muchas limitaciones a nivel de libertad individual en el pueblo, ejercidas por la influencia del grupo. Un chico gay no va a decir que es gay si su cuadrilla está diciendo "qué asco, es maricón". [Creo que] esas cosas se van a seguir dando en todas las generaciones, es como el machismo, eso [también] va a seguir. Pero es que además lo veo en el Arkaitza donde se mueve gente nacida entre el 2004 y los 80. Y veo muchas personas que están muy condicionadas. Que no son libres. Es lo que estamos diciendo, es el entorno más seguro, pero no es del todo seguro, no es del todo seguro. Es muy difícil que todo sea 100% seguro.

6. Babesa

Eskuarteko ikerketan, babesa izan da elkarrizketatuek aipatutako beste aldagai nagusietako bat. Babesa, oro har, indarkeria bezalako aldagaiekin lotu da eta LGTBI+ kolektiboak pairatzen duen indarkeria eta diskriminazioari aurre egiteko babesguneak aurkitzearen beharra azpimarratu da. Babesa eta babesguneen gaiari dagokionean, elkarrizketatuek hiru azpiataletan banatu dute honakoa: herria, senitartekoak eta lagunartea. Hiru hauek elkarrizketatuentzat babesa aurkitu duten gunegi izan dira eta jarraian hauen inguruko zehaztasunak emango dira.

6.1. Herria

Elkarrizketatu batzuek herria babesgunezkat identifikatu dute. Parte-hartzaile batzuen iritziz, Orereta-Erreterria toki segurua da eta herria kolektiboarentzat bizigarria dela azpimarratzen dute. Honela kontatzen digu mahai-inguruko parte-hartzaileetako batek:

Nik ikusten dut errrespetu handia dagoela, ezta? Hemen ez dut ikusi ez erasorik, ez irainik, ez gauzalarrik, ez homofobiarik...

Yo lo que veo que hay es muchísimo respeto, ¿no? Aquí no he visto agresiones, ni insultos, ni movidas graves, ni homofobias...

[...] Ni beste auzo eta leku batzuetan bizi izan naiz, eta leku horietan, adibidez, arazo gehiago ikusi izan ditut.

Mashek hitz hauekin bat egiten du:

Zaren bezalakoa izan zaitezkeen espazio bat da, beti aurkituko duzulako zurekin bat etor daitezkeen norbait, hori da niri eman didan sentsazioa. Lehen esan dudana ideia itzuliz ere, ni ez naiz inoiz epaitua sentitu. Trantsizio prozesuan nengoela etorri nintzen hona, nire itxura fisikoa femeninoa zen, eta ikusi naute, supermerkatu batean lan egiten nuelako, eta orduan nire trantsizioa erabat publikoa izan da, eta jendeak: "ai, ez dakit nola tratatu zaitzakedan, nola tratatzea nahi duzu?" Eta joe, maite zaitut, eskerrik asko galdetzeagatik eta presuposiziorik ez egiteagatik. Beraz, uste dut lasai trantsizionatu daitezkeen leku bat dela.

[...] Yo que he vivido en otros barrios y en otros sitios, en esos, por ejemplo, sí he visto más problemas.

Es un espacio donde puedes ser tú, porque siempre vas a encontrar a alguien que más o menos pueda encajar contigo, o esa es la sensación que me ha dado a mí. También, volviendo a la idea que he dicho antes, nunca me he sentido juzgado en ningún momento. Vine aquí haciendo una transición en la que mi apariencia física era femenina, me han visto, porque yo trabajaba en un supermercado, por lo que mi transición ha sido pública totalmente, y la gente se lo tomaba como "ay, pues no sé cómo tratarte, ¿cómo quieres que te trate?" Y era como... te quiero, gracias por preguntar y por no presuponer. Entonces, creo que es un sitio en el que se puede transicionar tranquilamente.

Honako bizipenak deigarriak dira aurreko ataleko indarkeriaren gaineko hausnarketa eta bizipenak kontuan hartzen baditugu. Izan ere, elkarrizketatuek indarkeria bizipenak identifikatu eta azpimarratu badituzte ere, herrian sentitutako babes nahiko orokortua izan da elkarrizketatuen artean. Hala eta guztiz ere, aurreko atalean ikusi moduan, momentu gogorak ere bizi izan dituzte parte-hartzaileek. Aiorak azaltzen duen moduan, bere trantsizioa herrian egiteak hainbat momentu gazi-gozo ekarri zizkion: "Sí que es verdad que llegó a abrumar un poco porque salía de fiesta y tenía que atender, como si fuese un personaje público, a mucha gente que quería mostrarme apoyo"⁷³.

Honen harira, herriak duen historia politiko indartsua aintzat hartu eta askotan aipatu da elkarrizketetan. Mash eta Kayren hitzetan, Orereta-Erretereriako historia soziopolitikoak bertako LGTBI+ biztanlearen bizitzetan babes efektua izan duela ondorioztatu dute. Mashek honako hau azpimarratzen du:

73 Euskaratuta: Egia da larritu nintzela momentu batean, izan ere, festan irteten nintzen eta nire arretea eskaini behar nion bere babes eman nahi zidan jendeari, pertsonaia publiko bat izango banintz bezala.

Uste dut orokorrean beti dagoela prest [herria]. Denok dakigu Orereta dela super revolucionario, beti dagoela prest para meterse en cualquier movida. Eta hori ikusten da jendea, beti daude hor, babesteko prest. Eta, bueno, interesgarria dela, ez? Batzuk agian ez dakite deus ere kasu hontan transen inguruan, baina hor daude, en plan "hay movida? pues vamos, ya nos explicaráis después"⁷⁴.

Eta Kayk honela jarraitzen du:

Bai, uste dut [herriaz] dudana pertzepzioa ere oso politizatua dagoen leku batena dela, jendea oso prest dagoela. Ez dakidala gero hori benetan hemengo trans pertsonen eguneroko bizipenera eramaten den. Baita ere [ados nago] esaten duzunarekin, agian trans izatearen konplexutasunak ulertzen ez duen jendea badago, baina zu babesteko hor daudenak. Uste dut bide guztia eginga dugula ia. Askotan hainbesteko garrantzia ematen zaio ñabardurak ezagutzeari, terminologia erabiltzeari... eta uste dut askotan elkartasun sareak sortzera goazela; azkenean, nire ustez, hori da desberdintasuna identitate batean oinarritutako mugimenduak edo helburu politikoetan oinarritutako mugimenduak egitean. Izan ere, geure burua babestu nahi dugu trans garelako, edo babestu nahi dugu inork horrelako bizipenik pairatzea nahi ez dugulako? Uste dut argudio ezberdinak direla.

Sí, creo que mi percepción [del pueblo] también es la de un sitio muy politizado, que la gente está muy dispuesta. Que no sé si luego eso se traslada realmente a la vivencia del día a día de las personas trans aquí. También [estoy de acuerdo con] lo que comentas de gente que igual no entiende las complejidades de ser trans, pero que están ahí para protegerte. Creo que ya tenemos todo el camino hecho casi. Muchas veces se hace tanto hincapié en conocer los matices, en usar la terminología... y creo que muchas veces a lo que vamos es a generar redes de solidaridad, que al final yo creo que esa es la diferencia en hacer movimientos basados en una identidad o movimientos basados en objetivos políticos. Porque ¿queremos protegernos porque somos trans o queremos protegernos porque no queremos que nadie sufra estas vivencias? Creo que son argumentos diferentes.

Ildo horretan, ikerketan herriarekin lotzen diren identitate-eraldaketa prozesuak jaso ditugu. Adibidez, jarraian aurkezten den aipuan ikusten den moduan, kasu batzuetan herriko espazioetan iraganean beldurra sentitu dute kolektiboko kideek, alabaina, orain herria leku atsegintzat dute, eraldaketa pertsonala medio. Aiorak honela azaltzen du bere bizipena:

74 Euskaratuta: Uy, movida dago? Ba goazen, gero azalduko diguzue.

Baina, egia esan, herri honek beldurra ematen zidan, eta orain nire erakusleihoa da. Asteburuetan ateratzen naiz eta "Goazen, kitto, jarreraz!". Crazy in Love jartzen naiz Alamedara iristeko eta jarrera indartsuz agertzen naiz. Eta jende askok esan dit "oso ahaldunduta ikusten zaitut, zelako indarra...". Barrutik, urduritasunez beteta, baina jarrera handiz egi-tea gustatzen zait.

Pero, realmente este era el pueblo que me daba miedo, y ahora es como mi pasarela. Salgo los fines de semana y es como "venga, ya está, actitud". Me suelo poner Crazy in Love para llegar a la Alameda y aparezco con toda la actitud. Y un montón de gente me ha dicho "se te ve super empoderada, qué fuerza...". Por dentro, un manojo de nervios, pero me gusta hacerlo con actitud.

Aiorak Orereta-Erreterriako kaleak bere egin ditu. Oraindik ere antsietate eta urduritasuna sentitzen baditu ere, hauei hala-nola aurre egin eta herrian bere lekua egiteko grinari eusten dio.

Zentzu honetan, hainbat elkarrizketatuk aipatu dute LGTBI+ pertsonak euren burua babesteko hainbat estrategia aktibatzen dituztela herrian bizitzeko eta herritik mugitzeko. Honakoaren adibide da Aiorak kontatutakoa:

Tira, egia da lehen, batez ere, nire identitatearen parte batzuk ezkutatzen nituela. Adibidez, asko begiratzen nion nire eskuei, eta beti saiatzen nintzen zerbaiti heltzen. Oinez, hain urduri nengoen, askotan zerbaitekin interakzioa izateko beharra izaten nuen, edo behintzat mugikorra hartzeko beharra. Orduan, imajinatu, 300 metro baino gutxiagoko bidean, mugikorra eskuan hartuta, denbora gutxian gauza bera egiten, aurrera begiratu behar ez izateko besterik ez, jendeari begiratu behar ez izateko, eta neure kabuz egoteko, eta iristean "kitto, iritsi naiz eta amaitu da". Oso nekagarria da, oso nekagarria.

Sí que es verdad que, sobre todo antes, escondía partes de mí. Por ejemplo, me miraba muchísimo las manos, entonces intentaba siempre agarrar algo. Andando, como lo hacía tan nerviosa, muchas veces, necesitaba interactuar con algo, aunque sea coger el móvil. Entonces, me pasaba una recta, imaginaros, de menos de 300 metros, cogiendo el móvil continuamente, haciendo todo el rato lo mismo, simplemente para no tener que mirar al frente, mirar a la gente, y estar como a lo mío todo el rato, y decir "venga, ya está, ya está, he llegado y se acabó". Muy cansado, muy cansado.

Aldi berean, Oliberrek nork bere burua onartzea eta aurre egindako oztopoak (diskriminazio gertaerak) gainditu ahal izana arrakasta eta hazkunde pertsonalaren iturri dela identifikatu du. Honela, esperientzia hauek geure burua babesteko mekanismotzat erabili ditzakeela dirudi:

Segur aski, orain naizen pertsona naiz bizi izan dudan guztiagatik. Izan ditudan oztopoak nire oraingo arrakasta dira. Eta gaur egun jartzen didaten eta nik pasatzen dudan harri edo oztopo bakoitza arrakasta da. Pasatzen den harri bakoitzak arrakasta izaten jarraituko du.

Seguramente soy la persona que soy ahora por todo lo que he vivido. Los obstáculos que he tenido son mi éxito de ahora. Y cada piedra u obstáculo que a día de hoy me ponen y yo paso es un éxito. Cada piedra que pase seguirá siendo un éxito.

Zentzu honetan, kolektiboaren parte diren herritar askok Orereta-Errenteria euren etxe bilakatzea erabaki dute aurkitu duten babesarengatik. Izan ere, herrian hainbat motatako diskriminazio eta indarkeria bizi arren, babes faktoreak aurkitu dituzte, eta honek garrantzia handia izan du. Oliberrek honako hau dio:

Apustu egin nuen hemen geratuz. Nirea kostatu zait, baina uste dut lortu dudala bai hemen eta bai Errenteria inguruan. Alegia, bai, eta ez naiz damutzen. Pozik nago hemen gelditu naizelako eta egiten dakidana eginez nire tokia bilatu dudalako. Kanpora joan nintekeen, eta agian ez nintzen bi urtera ere iritsiko. Baina borroka horri esker, eta, batez ere, jende askoren laguntzari esker, eskailerak igotzen joan naiz.

Aposté quedándome aquí. Me ha costado lo mío, pero creo que lo he conseguido tanto aquí como en los alrededores de Rentería. O sea, sí, y no me arrepiento. Estoy contento de haberme quedado aquí y de haber buscado mi hueco haciendo lo que sé hacer. Podía haberme ido fuera, e igual no hubiera llegado ni a dos años. Pero gracias a esta lucha y, sobre todo, al apoyo de mucha gente, ha sido cuando yo he ido subiendo peldaños.

Aipuan azaldu moduan, badirudi LGTBI+ biztanle batzuek herrian babesguneak aurkitzeko aukera izan dutela eta, ondorioz, sexilioa bezalako fenomenoak ekiditeko. Honen harira, elkarrizketatu batzuek aipatu dute pertsona kuir batzuek urteak behar izaten dituztela herriarekin adiskidetzeko. Hainbat herritarrek sexilioa bezalako fenomenoak pairatu dituzte (ikus kapitulu honen 4. puntua), baina herriaren irudia garbitzeko aukera ere izan dute. Zentzu honetan, aipagarria da herriarekin bakeak egin ahal izan dituen partaide baten testigantza. Aiorak honela kontatzen du bere historia:

Beti izan dut alde egiteko beharra, eta, egia esan, kultura eta Londres izugarri gustatzen zitzaidanez, beti zen aitzakia: "bua, Londres maite dut, Londredera joatea gustatuko litzaidake...".

Siempre he tenido la necesidad de irme, y, como me gustaba mucho la cultura y Londres, siempre era como una excusa: "bua, me encanta Londres, me encantaría irme a Londres...".

Baina, urteekin, desberdintasuna onartzeko gai izan naiz, izugarri gustatzen zaidalako Oreretan bizitzea. Horretarako, jakina, pasatu dudan guztia pasatu behar izan dut, eta nire herriarekin adiskidetzea bezala izan da, eta orain ez nintzateke hemendik aterako ezta erotuta ere.

Pero con los años he sido capaz de reconocer la diferencia, porque me encanta vivir en Orereta. Para eso, obviamente, tuve que pasar todo lo que he pasado, y ha sido como reconciliarme con mi pueblo y acabar [pensando que] no me iría ni loca.

6.2. Lagunartea

Lagunartea izan da elkarrizketatuek aipatu duten hiru zutabeetan bigarren. Honi dagokionean, atal kuantitatiboan aipatu den moduan, badirudi lagunartea babesgune izateko potentziala duela, hau da, lagunarteko babesa ezinbestekoa da LGTBI+ herritarren bizitzetan. Hurrengo aipuan ikusi daitekeen moduan, aipagarria da hainbat elkarrizketatuk emakume lagunaren babesa nabarmendu dutela, hala azaltzen du Oliberrek:

Amabitxi maitagarriak izan ditut inguruan, esan bezala, emakumezkoen sektoreak lagundu eta indartu nauelako gehien, eta euren hegalekin babestu nautelako ahalik eta gutxien sufritzeko.

He tenido a mi alrededor hadas madrinas, como digo, porque el sector femenino ha sido el que más me ha ayudado y me ha fortalecido, y han sido las que me han arropado con sus alas para sufrir lo menos posible.

Inguruko emakumeengandik jasotako babesa, indarra eta zaintza azpimarratu dituzte elkarrizketatuek. Lagunartean ez ezik, aktibismoan ere ikusi izan den zerbaitekin lotu dezakegu honako ideia. Izan ere, Julenek ondo azaltzen duen moduan, emakumeen lana ardatza izan da aktibismo jardueretan gure lurraldean:

Gogoan dut hemen hitzaldiak ematen aritu izana, EHGAMeko kide gisa, 79-80. urtean. Eta neskaz beterik zegoen. Are gehiago, garai hartan Gipuzkoan EHGA-Mek funtsean Erreterriako eta Oarsoaldean inguruko neskekin funtzionatzen zuen.

Lo que pasó con Francis en Orereta dio gran visibilidad al tema. Recuerdo haber estado dando aquí charlas como miembro de EHGAM en el año 79-80. Y estaba lleno de chicas. Es más, EHGAM en aquel momento en Gipuzkoa funcionaba básicamente con chicas de Erreterria y de la zona de Oarsoaldea.

Hala eta guztiz ere, gure elkarrizketatuek bestelako errealitate batzuk ere azaleratu dituzte. Koadrila eta betiko lagunak aipatu dira maiz tentsio puntu bezala. Sarritan lagunarte hauetan orientazio eta genero disidentea izateak zailtasunak ekarri dizkie el-

karrizketatuei. Izan ere, betiko koadrila eta lagunak mantendu nahi izateak batzuetan bakardadea sentiarazi izan die hainbat elkarrizketaturi. Hurrengo aipuan islatzen den bizipena azpimarragarria da:

Nolabait ez nuen nik horretan sinisten. Zergatik eduki behar dut bost-sei laguneko kuadrila bat denak gayak garenak? Ni ez naiz zure laguna izango gaya zarelako, izango naiz zure laguna zure laguna izan nahi dudalako [...]. Eta horrek oraindik uzten zaitu oso urruti... [...] Gero konturatzen zara oso garesti ordaintzen duzula, eta ya ezin nituela gauzak ondo egin, baina horrela sentitzen nuen, eta horrela egin nuen.

Pertsona honen kasuan, beraz, disidentzian bizitzeak batzuetan herriko lagunengandik urrun sentitzea eragin zion. Orientazio sexual eta genero-identitatean oinarritutako dinamika hauetan sakontzean, trans pertsonak dituzten behar zehatzak ere asko azpimarratu dira elkarrizketetan. Antzeko bizi-esperientziak dituzten pertsonen babesa aurkitzearen garrantzia aipatu dute Mashek eta Kayk, adibidez:

Nik uste dut hori dela, batez ere, trans jende askoren esperientzia. Azkenean, askotan laguntza aurkitzen dugu gu bezalako pertsonen artean.

Yo creo que es el caso, sobre todo, de la experiencia de mucha gente trans. Al final, los apoyos muchas veces los encontramos entre personas como nosotros.

Zentzu honetan, lagunartean trans pertsonentzat zailak izan daitezkeen prozesuak ematen direla aipatu da elkarrizketetan. Senitartekoan, kuadrilan eta lagunartean eman daitezkeen egokitzapen-aldiak aipatu dira sarritan eta hauen aurrean trans pertsonak babesa aurkitzeko dituzten estrategiak ere eztabaidatu dira. Jarraian honakoa laburbiltzen du Kayk:

Ados nago cis pertsonak gure identitateetara egokitzeko aldiarekin, baina batzuetan uste dut gehiegizkoa dela bertan jartzen den fokua [...]. Uste dut, halaber, balioa eman behar zaiola trans pertsonak amorruta sentitzeko duten eskubideari; izan ere, ohikoa da egokitzapen-aldi hori 5, 6 edo 7 urte luzatzea, eta, tarte horretan, zure senideek oraindik deadname-a⁷⁵ erabiltzea zurekin, modu ez-positiboan tratatzen.

Estoy de acuerdo con el periodo de adaptación de las personas cis a nuestras identidades, pero a veces creo que es excesivo el foco que se pone en él [...]. Creo que también hay que poner en valor el derecho de las personas trans a sentir rabia ya que es habitual que ese periodo de adaptación se extienda 5, 6 o 7 años en los que tus familiares usen todavía el deadname contigo, te sigan tratando de forma no positiva.

75 Deadname edo izen-hila: pertsona trans batek trantsizioa egin aurretik erabiltzen zuen izena adierazteko terminoa.

Eta uste dut hor oso garrantzitsua dela diskurtso horren kontra egitea: "bueno, bai, jendeak bere egokitzapen-prozesua behar du", baina guk ere gure amorrua izateko eskubidea dugu, eta baita ere harremanak moztekoa, behar izanez gero.

Y creo que ahí es muy importante oponerse a ese discurso: "bueno, sí, la gente necesita su proceso de adaptación", pero nosotros también tenemos derecho a tener nuestra rabia y también a cortar las relaciones si es necesario.

Ikusten den moduan, trans pertsonen babesaren ematen dien ingurune soziopolitiko egoki baten beharra azpimarratzen du Kayk. Trans pertsonen laguntzeko politikoki prest dagoen ingurune baten beharra ere aipatu da, baina laguntza hori eguneroko bizitzara itzultzeko beharra planteatzen da.

6.3. Senitartekoak

Azkenik, elkarrizketatuek senitartekoak ere babesgune bezala identifikatu dute. Izan ere, senideak segurtasun-iturri izan daitezke LGTBI+ pertsonentzat eta honakoa bestelako kanpo-presioetatik babesteko gune garrantzitsu bihurtu daitezke. Inguru hurbilean, batez ere senitartekoan, onarpena eta babesaren aurkitzea oso garrantzitsua da LGTBI+ pertsonen bizi-kalitatea eta ongizatea bermatzeko. Izan ere, arlo horretan egindako ikerketek adierazten duten moduan, gurasoen onarpena izateak eragin positiboa izan dezake LGTBI+ pertsona gazteek euren identitatea onartu eta garatzeko gaitasunean (Katz-Wise et al., 2016). Gainera, etxean eta senitartekoan babes-iturriak aurkitzeko gainontzeko bizitza-esparruetan ematen diren oztopo anitzei aurre egiteko indarra eman die gure ikerketako parte-hartzaileetako batzuei. Hala eta guztiz ere, elkarrizketatuek honako babesgunea bestelako fenomeno batzuekin elkarreaginean dagoela azpimarratu dute eta honek konplexutasuna gehitzen du. Ideia honetan sakontzeko Aioraren testigantza zaigu baliagarri:

Baina egia da, kanpoko gauzengatik, familiakoengatik edo bestelakoengatik, berak ni zaindu arren, niri gustatzen zitzaidana, ni nintzena, zuk, haur gisa, zaren horrekin negatibotasun hori jasotzen duzula. Orduan... gizarteak ez zuen lagundu, ez. Ama eta biok bakarrik izan bagina... Zoragarria.

Pero es verdad que, por cosas externas, familiares o demás, aunque ella me cuidase, preservara lo que a mí me gustaba, lo que yo era, tú como niña recibes esa negatividad hacia lo que eres. Entonces... la sociedad no ayudó, no. Si llegamos a estar mi ama y yo solas... maravilloso.

Aiorak adierazitakotik ondorioztatu daiteke senitartekoen eta, konkretuki, amaren onarpena eta babesaren izatea ezinbestekoa izan dela genero-identitateari lotutako aldaketa eta tirabira anitzei aurre egiteko. Dena den, badirudi ez dela nahikoa norbanakoaren identitate ez-normatiboarekiko harreman eta jarrera positiboa bermatzeko eta sustatzeko.

7. Hezkuntza

Hezkuntza da dugun arma sozializatzaile indartsuena. Ezinbesteko tresna da gure identitatean balioak eta kontzeptuak integratzeko. Hezkuntza, lehenik eta behin, gure familia-nukleo hurbilenetik jasotzen dugu, edo gure ingurune babesletik. Ikastetxean ere heziketa jasotzen dugu, eta, pixkanaka-pixkanaka gure inguruan ditugun eragile guztiengan. Horregatik, balioen presentzia (etikoak, moralak...) gure eguneroko bizitzako aspektu guztietan presente dago. Akaso honengatik eman diote lekua gure elkarrizketatuek hezkuntzaren aferari eta esparru honetan LGTBI+ errealitateak nola gauzatzen eta bizitzen diren kontaktu digute.

7.1. Hezkuntza formala

Hezkuntza formalari dagokionean, sistema arautuan eta kurrikulum ofizialetan –hots, ikastetxeetan– LGTBI+ gaien inguruan egin den lanketa eskasa aldarrikatu dute elkarrizketatuek. Hala azaltzen digu mahai-inguruko partaideetako batek:

Nire ustez, aktibismoko 40 urte hauetako porrotik handiena Hezkuntza da. Ustedut hezkuntza sisteman oraindik ere oso egitura binaristik mantentzen direla, eta aldatu nahi izanda ere, ez dela esku hartzen.

Creo que el gran fracaso en estos 40 años de activismo es la Educación. Creo que en el sistema educativo se sigue manteniendo unas estructuras todavía muy binaristas y que por mucho que se quiera cambiar, no se interviene.

Militantziatik urteetan lantzen aritu diren gaia izan arren, aurrerapena eta sentsibilizazioa oraindik konpondu gabeko gaia direla kritikatzan dute gure elkarrizketatuek. Eskolak espazio sozializatzaileak dira, eta haurrek eta nerabeek denbora gehiena bertan igarotzen dute. Gure elkarrizketatuek azaltzen dutenez, ezinbestekoa da adin txikiko hainbeste pertsona biltzen den guneetan informazioan eta errespetuan oinarritutako balioen transmisioa bermatzea. Honekin batera, esku-hartzeak arazoren bat gertatzen denean edo kasu konkretuak landu behar direnean egiten direla azaltzen dute elkarrizketatuek eta prebentzioak leku gutxi duela. Hala dio mahai-inguruko parte-hartzaileetako batek:

Ikastetxe batean [pertsona] trans bat dagoenean, orduan deitzen diete [profesionalei]? Eta talde horri bakarrik azaltzen zaio. Boluntarioak doaz trans mundua zer den kontatze-ra [...]. Ez. Hezkuntza-sisteman ezarrita egon beharko luke.

Cuando hay una [persona] trans en un colegio ¿es entonces cuando les llaman [a los profesionales]? Y solamente se le explica a ese grupo. Van voluntarios a decir qué es el mundo trans [...]. No. Tenía que estar implantado en el sistema educativo.

7.2. Hezkuntza ez-formala

Hezkuntza ez-formalean ere antzeko errealitateak bizi dituzte gure elkarrizketatuek. Praktika onak aurkitzen diren arren, oraindik ere lana egiteko dagoela diote. Hala eta guztiz ere, Oliberrek bere kasua azaltzen digu eta Orereta-Erreterian hezkuntza espazioak berregituratzeko bere ahalegina kontatzen digu. Bere kasuan, dantza-estudioa darabil hezkuntza espazio bezala eta bertan gazteek euren burua ezagutzeko aukerak eskaini nahi dituela dio:

Ez nuen nahi nik txikitari bizitako bizipenik errepikatzea. Nire etxean ezin ditut onartu nirekin bat ez datozen komentarioak, jarrerak, portaerak; ezin ditut onartu.

No quería que se repitiera ninguno de los episodios vividos de pequeño. En mi casa no puedo admitir comentarios, actitudes, comportamientos que no concuerdan conmigo, no puedo aceptarlos.

Ariketa honetaz gain, Oliberrek ikastetxeei prebentzio pilulak ere eskaintzen dizkie. *Lágrimas de brillantina* (Nestar, 2022) bere lan berria baliatuz, Oliber borondatez eskaintzen da DBHko ikastetxeetara bere lana aurkeztera eta bere bizipenak kontatzera joateko. Ilusioz kontatzen digu hezkuntza espazio hauetan egindakoa, nahiz eta Orereta-Erreterian honetaz guztiaz hitz egiteko aukera gutxi izan:

Etxera iristean, gurasoei kontatzen diete izan duten hizketaldia. Aukera ematen diet nirekin harremanetan jartzeko, idatziz, postaz, sare sozialen bidez, hitzaldia zer iruditu zaien kontu diezadaten. Askok sare sozialetatik idazten didate, ez dira momentuan ausartzen [...] Agian ez zarelako zu, baina zure klasekidea da, edo zure auzoko kidea. Eta ez gara ari homosexualitateaz bakarrik, mila faktore egon daitezke jendea gaizki tratatzeko. Beraz, horrek zer pentsatua ematen die, eta [bailiteke] sistema pixka bat aldatzea.

Al llegar a casa les cuentan a sus padres la charla que han tenido. Les doy la oportunidad de contactar conmigo, por escrito, por correo, a través de redes sociales, para que me cuenten lo que les ha parecido la charla. Muchos me escriben desde redes sociales, no se atreven al momento [...] Porque igual no eres tú, pero es tu compañero de clase, o tu compañero del barrio. Y no estamos hablando solo de la homosexualidad, puede haber mil factores que hagan que a la gente se le trate mal. Por lo tanto, esto les da mucho que pensar y [puede] que cambie un poco el sistema.

7.3. Hezkuntza informala

Azkenik, hezkuntza informalean dagoen egoeraren inguruan hausnartu dute gure elkarrizketatuek. Hezkuntza informala senitartekoen artean, lagunartean edo kalean jasotzen den hezkuntza mota da. Espazio eta talde hauetan ematen diren elkarrekintzek hezitzea helburu ez duten arren, hauetan modu intentzional zein intentzionaletan hezkuntza jasotzen dugu eta alde batetik bestera zeharkatzen gaitu.

Aiorak kontatzen digunez, gizarteak (aipatutako espazioak barne hartzen dituena) subjektuak molde normatibo eta estereotipatuetan txertatzeko ahaleginak egiten ditu. Honela kontatzen digu Aiorak bere esperientzia:

Nire nortasuna zerbait gogaikarri, zerbait negatibo gisa ikusten hasi nintzen. Nolabait, atzera egiten hasi nintzen, jendeak espero zuen pertsonaia sortzen hasi nintzen.

Empecé a reconocer mi personalidad como algo que molestaba, algo negativo. De alguna manera me empecé a retraer, empecé a crear el personaje que la gente esperaba.

Elkarrizketatuek ondo azpimarratu moduan, sozializazioa etxean hasten da eta errealitate batzuen ikusezintasunak pertsonak moldatzen ditu, bai eta espazio seguru eta babesgarrien sorrera bultzatu edota gaitzetsi ere. Ondoko hausnarketa utzi digu Paulak:

Jendeak esaten du: "no, es que si hay visibilidad, es que a ver si mi hijo se va a confundir". Eh, no. Más le estás confundiendo tú, tío⁷⁶. O sea mesedez, esplikatu gauzak".

Haurren garapen pertsonala eta identitarioa bultzatzeko, funtsezkoa da konfiantza eta zaintza bide bat eskaintzea. Horren ezak haurrentzako ondorio kaltegarriak ekar diezazkieke haurrei, hala nola beren buruarekiko konfiantzarik eza, isolamendua eta osasun mentaleko hainbat arazo ere. Honegatik izan da eztabaidagai nagusi hezkuntza eta honek Orereta-Erreterria eta Oarsoaldean duen egoera ere. Herriko zein eskualdeko hezkuntza sistemak hainbat mailatan egituratzen badira ere, herriak berak eta herriko jendeak honetan duten eraginaz aritu dira elkarrizketatuak.

76 Euskaratuta: "Ez, ikusgarritasuna badago nire umea nahastu egingo da." E, ez. Zuk gehiago nahasten duzu, motel.

IV. KAPITULUA

HAIZE-ORRATZA JARRAITZEN: BA AL DA ITXAROPENIK?

Iragana aldaezina da. Geroa ez da oraindik existitzen. Ordea, oraina iraganeko sutik jaio eta geroa eraldatzeko boterez betea dago. Honakoa da lan honek erakutsi diguna eta zuengana ere mezu hori iristea da gure desira.

Jasotako testigantzetan islatzen da gure aurrekoek urratutako bidean pausu sakon eta indartsuak ematen gabiltzala Orereta-Errenteria eta Oarsoaldean. Aurrekoak bide erakusle, orain lekukoa daramagunok oihanean bidezidor berriak zabaldu eta ziklo amai-gabeen jarraitu nahi dugu.

Honegatik da hain garrantzitsua egungo egoeraren erradiografia burutzea, herriak dituen indargune eta ahulguneak identifikatzea eta bizi-esperientziek erakusten dutenarekin aurrean dugun oihala ehuntzea. Zer behar dugu Orereta-Errenteria bizigarriago bat eraikitzeko? Imajinatzen dugun herria eta nahi dugun herria gauza berdintsua dira? Honakoaz jardun dira ikerketako parte-hartzaileak eta jarraian beraien hitzez baliatuko gara gure bidea zein den identifikatzeko eta oraindik egiteke dauden horiek azalera-tzeko.

1. Norabidea aurkitzen

1.1. Orokortasunetik hasita

Lehenik eta behin, herriari zein bertako herritarrei zeharka eragiten dieten bi gai nagusi azpimarratu dituzte elkarrizketatuek: sare sozial berriak eta egungo aktibismoaren egoera. Hein handi batean, elkarrizketatuek bi gai hauen arteko loturen eta elkarrekin-tzen gainean hitz egin dute eta hainbat eztabaida azalera-tu dira.

Sare sozialei dagokienean, honakoek egungo aktibismoak bultzatu edota armairu berriak sortzen ez ote dituzten galdetzen zioten euren buruei elkarrizketatuek. Mahai-inguruetan parte hartu duen pertsona batek honako hau zion:

Nire esperientziatik, daukadan adinarekin eta sare sozialak oso urrun geratzen zaizkidalako (horrela etorri zaizkidalako eta hala nahi dudalako oraingo), askotan egiten diot galdera neure buruari, ea ez dugun armairu berri bat sortu sare sozialekin. Izan ere, herri honetan inoiz baino gehiago ligatzen da eta baita larrua jo ere, baina sare sozialen bidez. Orain ez gara aurkitzen, ez gaude, ez daukagu lekurik ez egoteko, ez hitz egiteko, ez elkar ukitzeko.

Desde mi experiencia, con la edad que tengo, y con lo lejos que me quedan las redes sociales (porque así me han venido, y así lo quiero de momento), me hago muchas veces la pregunta de a ver si no hemos creado un nuevo armario con ellas. Porque en este pueblo seguramente se liga y se follla más que nunca, pero por redes sociales. Ahora no nos encontramos, no estamos, no tenemos un sitio ni para estar, ni para hablar, ni para tocarnos.

Aipuan ikusten den moduan, hausnarketa honek elkarrizketatuen artean nolabaiteko ezinegona sortzen du eta kezka nabaria izan da euren artean. Hala eta guztiz ere, kezka honi erantzunez, elkarrizketatuek sare sozialak konexio puntu eta topagune izan daitezkeela ere argudiatu dute:

Sareen alderdi ona da konexio-puntu gisa balio dutela [...]. [Haiekin] inoiz baino gehiago txortan egiten dela esateari buruz, ez dut uste sare sozialen ardua denik, beste mota bateko fenomenoena baizik. Aktibismoak, adibidez, aldatzen ari dira. Gaur egungo gizartea produktibismoan murgilduta dago, agendak beteta daude, eta horrek zailtasunak dakartza elkaritzeko eta komunitate egonkor samar bat egiteko.

La parte buena de las redes es que sirven de punto de conexión [...]. Sobre la afirmación de que [con ellas] se follla más que nunca, no creo que sea responsabilidad de las redes sociales, sino de otro tipo de fenómenos. Los activismos, por ejemplo también están cambiando. La sociedad actual está sumida en el productivismo, con las agendas colmadas y la dificultad que eso supone para juntarnos y hacer una comunidad un poco estable.

Zentzu honetan, sare sozialen alde positiboak ere azpimarratu dituzte elkarrizketatuek eta LGTBI+ kolektiboak egun dituen problematiken sustraiak beste nonbait bilatu behar direla argudiatu. Aurreko aipuari jarraipena emanez honako hau esaten zuen parte-hartzaileak:

Uste dut armairua existitzen dela everywhere⁷⁷, hor jarraitzen duela eta,

Creo que el armario existe everywhere, que sigue estando presente y, en eso, no

horretan, ez dakit zenbateraino duten erantzukizuna sareek. Nire ustez, ez asko, sareak ere konexio puntu bat izan daitezkeelako, gazteriarentzat izaten ari diren bezala, ez baita militantzia klasikoa baina bai aktibista.

sé hasta qué punto tienen responsabilidad las redes. En mi opinión no mucha, porque también pueden ser un punto de conexión como lo están siendo para la juventud que no es una militancia clásica, pero sí activista.

Eta beste parte-hartzaile batek honako hau gehitzen du:

Niretzako asko egin dit, adibidez, sare sozialen asuntoak. Ze jende askok aktibismoa dagoeneko egiten du sare sozialetan eta Interneten. Egia da, gehienok horrela egiten dugula, ze ikusten da como que nos cuesta más salir a la calle, eta beste aktibismo mota bat egiten dugu. Baina niretzako hori baita ona da alde batetik zeren jendeak ulertzen ditu gauzak.

Alderdi positiboen artean, badirudi sare sozialek duten presentzia positiboki baliatze-ko aukera izan dutela elkarrizketatuek. Alde batetik, konexio puntu berriak sortzeko baliagarriak suertatu zaizkie, bai eta informazioa jasotzeko, kolektiboari lotutako hainbat gai lantzeko eta, azken finean, ikasteko ere. Honegatik, sare sozialak gainerako herritarrek euren sentsibilizazio prozesua egiteko mesedegarri izan daitezkeela argudiatu dute. Hala ere, presentzialtasunaren eta aurrez aurreko kontaktuaren beharra ere azpimarratu dute hainbat elkarrizketatuk.

Hari horretan, egun egiten diren aktibismoen inguruan jardun dira parte-hartzaileak. Pertsona bakoitzak maila indibidualean egiten duen eta egin beharko lukeen aktibismoa azpimarratu da elkarrizketetan. Pertsona batek honakoa aldarrikatzen du:

Niretzat, komunitatea egiteko oso modu garrantzitsua da gure ideiak eta gure egiteko moduak desheteronormatizatzea. Eta horrek aktibismoa dakar, adibidez, ezta? Uste dut oso garrantzitsua dela kide izateko leku bat izatea, baina, aldi berean, borrokatzeaz gain, bizi egin nahi dugula, gozatu egin nahi dugula eta ligatu eta atsedan hartu nahi dugula.

Para mí, una manera muy importante de hacer comunidad es desheteronormatizar nuestras ideas, nuestras maneras de hacer. Y eso implica el activismo, por ejemplo, ¿no? Creo que es súper importante tener un sitio de pertenencia, pero que al mismo tiempo además de luchar queremos vivir, y queremos disfrutar y queremos ligar y queremos descansar.

Gainera, Naroak norma apurtzearen beharra azpimarratu digu:

Bazter horietatik ikasi dugu... bazter horietatik gatoz. Baina indarrarekin gatoz, eta hortik gure bidea sortu dugu eta gure helburuetako bat heteroaraua puskatzea da, hori argi eta garbi. Hori da gure helburuetako bat, "norma" hori puskatzea. Gainera, inori ez digu onik egiten, ez gara gu bakarrak, LGTBI+ komunitateko pertsonak, baizik eta arau horiek kalte besterik ez dutela egiten. Eta, bueno, noizbait imajinatzen dut gizarteak ikusiko duela.

Elkarrizketatuaren hitzetan, komunitatea sortzeko eta herri bizigarriago bat eraikitzeko ezinbestekoa da bakoitzaren iruditeria desheteronormatibizatzea eta era kolektiboagoan jardutea. Honetarako, aktibismoak, hau da, ezarritako eraikuntzen kontra egiten duen ekintza oro, baliatzea oso positibotzat baloratzen dute elkarrizketatuek. Dena den, aktibismo hauen formak ere kontuan hartu beharko genituzkeela azaleratu da, izan ere, LGTBI+ kolektiboaren barne kokatzen garenok borroka guztien pisu eta indarra eramateak hainbat erronka pertsonal zein sozial planteatzen ditu. Atsedean hartzeak, gozatzeak eta ondo pasatzeak orainaldia bizigarriagoa egiten eta etorkizuneko adreilu sendoak jartzen laguntzen du.

Ildo horretan, egungo aktibismoan dauden hainbat arazo planteatu dira, bai eta hauek konpontzeak duen premia ere. Izan ere, etorkizuneko testuingurua moldatzeko ezinbestekoa da erronka hauei aurre egitea eta beste era batzuetako herri dinamikak eratztea. Alde batetik, hainbat elkarrizketatuek LGTBI+ aktibismoak indarra galdu duela azaleratu dute, Txelok komentatu digun moduan:

Adibidez, begira, Mugimendu Feministak indar handia izan du herrian, eta, jakina, baita LGTBI+ mugimenduak ere. Izan ere, Euskal Herrian erreferente handiak egon dira, hemengoak direnak eta hemen gauzak egin dituztenak, eta kalera atera dira, baina militantziak askoz indar gehiago galdu du. Militantzia feministak urte askoan jarraitu zuen eta gero indarra galtzen hasi zen, baina LGTBI militantzia sortzea asko kostatu da. Hemen militantzia guneak sortzea asko kostatu da.

Por ejemplo, el Movimiento Feminista ha tenido mucha fuerza en el pueblo y, por supuesto, también el movimiento LGTBI+. De hecho, en Euskal Herria ha habido grandes referentes, que son de aquí y que aquí han hecho cosas, y han salido a la calle, pero la militancia ha perdido mucha más fuerza. La militancia feminista continuó durante muchos años y luego empezó a perder fuerza, pero la militancia LGTBI ha costado mucho. Aquí ha costado mucho crear espacios de militancia.

Eta begira, jende askok ulertzen⁷⁸ du herri honetan, baina...

Y fijate que hay gente que entiende en este pueblo, a puñados, pero...

Herrian bertan LGTBI+ aktibismoaren gainbehera nabaria dela dirudi, beraz. Iraganeko mugimendu soziopolitiko indartsuak gaur egun herria bizigarriagoa egiten lagundu badu ere, egungo mugimendua moteldu dela dirudi. Honen adibide garbia da 2018tik 2023ra indarrean egon zen LGTBI+ mahaiaren desagertzea. Naroak irakurketa hau eman dio gertakari horri:

Bai, orain arte LGTBI+ mahaiak zeukan erreferentziazko talde bat zen, irekia, beti eduki ditugu ateak irekiak. Baina, hala ere, kurioa izan da zeren egon gara 4 edo 5 urte eta ez dugu jendea hurbiltzea lortu... eta saiakera dezente egin ditugu. Orduan, nik uste, hor eman dela jenerazioen arteko haustura. [...] Argi dagoena da gaur egun ez dela militatzen lehen militatzen zen klabe horietan, eta orduan hor haustura bat egon dela, eta horrek bai sortu duela zailtasun hori elkartzeko edo pertsona berriak ezagutzeko, edo gaur egun borroka horretara gehitzen zihozten pertsonak [gureganatzeko]... Agian guk ere LGBTI+ mahaitik ez dugu gure eskutan zegoen guztia egin, saiakerak egin ditugu, baina, bueno, ez dakit zer arrazoiengatik ez ginen iritsi eta horrek eman zigun zer pentsatua, hori ere informazioa da.

Izan ere, herriko LGTBI+ aktibismoaren gainbeheraren arrazoiak ere eztabaidatu dira elkarrizketetan. Elkarrizketatuen aburuz, jende gaztearengana hurbiltzen ez da asmatu eta honek eragin nabaria izan du. Aldi berean, LGTBI+ mugimendu eta aktibismoaren instituzionalizazioak ere kalte eta onura nabariak izan dituela azpimarratu da. Mahai-inguruetan honako hau komentatu egin da:

Bai, nik uste dut faktore askok hartzen dutela parte hor. Bata, noski, aro aldaketak da, eta horrek dakarren guztia, besteak beste, instituzionalizazioa. Mugimendu soziala eta instituzionala bereizteko modua aurkitzea falta zaigu. Eta asmatzea zer nahi dugun Udalak bere gain hartzea eta zer nahi dugun gurea izatea, inongo erakunderen esku hartzerik gabe. Hernanin bezala, non Udala feminismoarekin buru-belarri aritu den, mugak lausotu

Sí, yo creo que ahí intervienen muchos factores. Uno, por supuesto, es el cambio de era y todo lo que conlleva, entre otras cosas la institucionalización. Nos falta encontrar la manera de distinguir el movimiento social y el institucional. Y acertar qué queremos que coja a su cargo el Ayuntamiento y qué queremos que sea nuestro, sin intervención de ninguna institución. Para que no nos pase como en Hernani, por ejemplo, donde el Ayun-

78 Gay edo lesbianein erreferentzia egiteko erabiltzen den adierazpena.

*egin dira eta azkenean mugimendu sozia-
la irentsi du. Hernanikoa ez da ia isolatua,
gero eta ohikoagoa baita.*

*tamiento se ha volcado con el feminismo,
los límites se han difuminado y finalmente
ha devorado al movimiento social. Lo de
Hernani no es un caso aislado ya que cada
vez es más frecuente.*

Eta aurrekoari honako hau gehitzen zion beste pertsona batek:

*Lekualdatze bat egin da, [sortu dira] bes-
te mota bateko gauzak, [...] Francisaldia
beste gauza batzuen artean, baina [kon-
tuz] instituzionalizazioarekin... beti egon
gara pixka bat istorio horien kontra.*

*Se ha hecho un traslado, [han surgido] co-
sas de otro tipo, [...] el Francisaldia entre
otras cosas, pero [cuidado] con la institu-
cionalización... siempre hemos estado un
poco en contra de esas historias.*

Testigantzetan ikusten den moduan, instituzionalizazioaren argi-ilunak agerikoak dira eta honek ere herriko bizitzan eta aktibismoaren funtsean eragin du. Elkarrizketatuen hitzetan, beraz, honako hausnarketa oraindik indarrean dago eta instituzioek duten paperaz eztabaidatu beharko litzateke herrian. Izan ere, etorkizuneko mugimenduan instituzioek izango duten rola ondo neurtu eta baloratu beharko litzatekeela argudiatu da elkarrizketetan, honela, gurea den mugimendu eta aktibismoa sortzeko.

Euskal Herria eta eskualde mailan dagoen aktibismoetan bestelako erronka bati aurre egiteko beharra ere azpimarratu da elkarrizketetan, pertsonalismoek duten inpaktuz hain zuzen. Elkarrizketatu batzuen aburuz, aktibismoetan eman den indibidualtasun eta pertsonalismoak hauetan eragin nabaria izan du eta, batzuetan baliagarri suertatu badira ere, hauek gairatzeko beharraz jardun dira parte-hartzaileak:

*Uste dut LGTB mugimenduak hemen,
Oreretan, antolatutako edozein ekital-
dik ikuspegi antiarrazista eta antiklasista
izan behar duela kontuan, marmotaren
eguna betikotu nahi ez badugu. Mugi-
mendu guztietan gertatzen da pixka bat.
Beti [ordezkatzeko gaituzte] lau ahots kan-
tari berberak, eta haiei eskertu behar zaie
egin duten ahalegin guztia. Baina, era be-
rean, pentsatzen dut pertsona horiei be-
raiei ere asko gustatuko zitzaizela banake-*

*Creo que cualquier evento organizado
por el movimiento LGTB aquí, en Orere-
ta, tiene que tener en cuenta una visión
antirracista y anticlasista si no queremos
perpetuar el día de la marmota. Ocurre un
poco en todos los movimientos. Siempre
[nos representan] las mismas cuatro vo-
ces cantantes, a las que hay que agrade-
cer todo el esfuerzo que han hecho. Pero
supongo también que a esas mismas per-
sonas les hubiese encantado que hubiese*

ta gehiago, komunitate gehiago, heltzeko esku gehiago egotea. Nik uste dut orain posible dela, posible dela, esku gehiago egotea heltzeko, pertsonalismo honetatik ateratzeko. Uste dut Euskal Herriko mugimendu sozialetan asko pisatzen duela nork zer egiten duen. Eta hedabideetan eta Interneten ikusten dugu beti hiru edo lau pertsona berak ordezkaten gaituztela. Feminismoan eta LGTBI mugimenduan. Horri buelta bat eman behar zaio, zeren, inolako erruduntasunik leporatu gabe, komunitate gisa, hausnartu behar dugu zergatik delegatzen dugun, halako miretzen batek nola kentzen dizkigun geure iritzia eta proposamenak. Eta, hala ere, horrek ehuntzen du komunitate indartsuago bat.

más reparto, más comunidad, más manos para agarrar. Yo creo que ahora se puede, que es posible, que haya más manos para agarrar, para salir de este personalismo. Creo que en los movimientos sociales en Euskal Herria pesa mucho quién hace qué. Y en los medios y en Internet vemos que nos representan siempre las mismas tres o cuatro personas. En el feminismo y en el movimiento LGTBI. A esto hay que darle una vuelta, porque sin achacarles ninguna culpabilidad, como comunidad tenemos que reflexionar en por qué delegamos, en cómo una admiración tal nos desposee de nuestras propias opiniones y propuestas. Y, sin embargo, eso es lo que teje una comunidad más fuerte.

Zentzu honetan, ditugun tresnak baliatzearen eta mugimendu eta aktibismo sendoa-goak sortzearen garrantzia azpimarratu da:

Pertsonalismoen harira, niri baliagarriak eta arriskutsuak iruditzen zaizkit. Gure tresnak nola erabili asmatu behar dugula uste dut, batzuetan, egia baita izen eta abizen bat erabilgarriak izan daitezkeela, baina zertarako, ezta? Izan ere, mugimendu batek ezin du izena eta abizena izan, baina agian bai ez dakit zein lege ez dakit nora eramateko eta "datorren pertsona hau da" esateko.

Al hilo de los personalismos, a mí me parecen útiles y peligrosos. Creo que tenemos que adivinar cómo usar nuestras propias herramientas, porque, a veces, es verdad que un nombre y apellido pueden ser de utilidad, pero según para qué, ¿no? Porque no puede ser que un movimiento tenga nombre y apellido, pero igual sí para llevar no sé qué ley a no sé donde y decir "es esta persona que viene".

1.2. Herritik eta etorkizunera begira

Bigarrenik, herrian bertan gaur egun ematen diren hainbat afera eta hauek etorkizuna eraikitzeko duten garrantziaz aritu dira elkarrizketatuak.

Alde batetik, Orereta-Errenteriaren testuingurua izan da mintzagai. Izan ere, badira herria LGTBI+ pertsonentzat bizigarri egiten duten hainbat ezaugarri eta hauek azpimarragarriak dira. Parte-hartzaileen artean herritik joan eta bueltatu direnak, herrikoak ez

izan eta herria bere egitea erabaki dutenak eta bertan geratu direnak aurkitu ditugu. Hauen artean, Orereta-Errenteriak bertan bizitzeko hainbat elementu oso positibo dituela komentatu da:

Ez nuen Orereta kontzienteki aukeratu LGTB friendly-agoa zelako, ez, baina bai bizitza bizigarriagoa delako. Alokairu aldetik zein gizarte gaien aldetik. Gauza komunitarioengatik.

No elegí conscientemente Rente porque fuese mas LGTB friendly, pero sí por la calidad de vida en cuanto al alquiler y a los temas sociales. Por cosas comunitarias.

Beste pertsona batek honako hau partekatu digu:

Ni ez naiz hemen bizi, baina egia da herri erakargarria iruditzen zaidala, nolabait parte hartzeko gogoia nuela. Hemen lanean hasteko aukera sortu zenean, esan nuen: "Ba bai, sareak sortzeko edo zerbait emateko gune bat da".

Yo no vivo aquí, pero es verdad que me parece un pueblo atractivo, en el que tenía ganas de participar de algún modo. Cuando surgió la oportunidad de empezar a trabajar aquí, dije, "pues sí, sí que es un sitio en el que me apetece crear redes o al que aportar algo".

Aipuetan ikusten den moduan, pertsona batzuek Orereta-Errenteria bizitza komunitarioa duen herri bezala deskribatzen dute eta, hori medio, pertsona batzuek herria bizilekutat aukeratu dute. Badirudi, beraz, kolektiboko jende batek bizitza komunitarioa aintzat hartzen duela eta honek beren egunerokotasuna bizitzen laguntzen diela. Beste batzuek, aldiz, herria kontzienteki aukeratu dute honek berezia den zerbait delako, hori zer den ondo definitzen ez badute ere. Elkarrizketetan Orereta-Errenteriak duen testuinguru geopolitiko eta soziala azpimarratu dute berezitasun hori definitzen saiatu direnean.

Nolanahi ere, Orereta-Errenteria kolektiboko jendearentzat erakargarria dirudien arren, hainbat behar eta desira zehatz identifikatu dira espazioei dagokienean. Gaur egun Orereta-Errenterian LGTB+ pertsonentzat diren eta LGTB+ pertsonak diseinatu dituzten espazio zehatzak ez daudela aldarrikatu dute elkarrizketatu gehienek. Adibide moduan, hurrengo aipuan elkarrizketatuetako batek hainbat hutsune aipatzen ditu:

Oso erreibindikatzaila naiz espazioaren asuntzarekin. Azkenean, orain manifestazio bat egiteko ere baimen bat eskatu behar duzu, es que estamos en ese plan. Orduan, zergatik, ez dakit, herrian inguruan ez da espazio bat ematen batzarrak egiteko? Edo espazio seguruak egoteko? Behintzat kafe bat hartzeko. Txorrada bat dirudi, baina azkenean zu bezala bizitzen den jendearekin kontaktuan egoteko...

un poco de comprensión [...]. Niretzako, oraintxe, asko landu behar dugu hori ze espazio bezala ez daukagu. Adibidez, hori, Emakumeen Etxea badago, eta hor seguru sentitzen zara eta horrela, baina ez da konkretuki LGTBI mugimendura dagoen gauza bat.

Testuan ikusten den moduan, egun, Orereta-Erreterian espazio zehatzak egiteke daude eta honakoak bizi-kalitate eta esperientzietan eragina duela dirudi. Espazioak izatearen garrantziaz jarduterakoan, bilgune eta topagune zehatzak izateak aktibismoak eta bestelako mugimenduak pizteko beharrezkoak direla partekatu dute elkarriketatuek:

Horrela hasi ginen baita historikoki. Stonewallera atera ziren... Stonewall taberna bat zelako. Taberna batean zeudelako. Atera ziren kalera ahaldundu zirelako. Baina lehenago hor zeuden leku seguruak. Eta orain ez dira gauzak berdin. Baina oraindik inoiz espazio itxiak behar ditugu enpoderatzeko eta kalera ateratzeko.

Era berean, Naroak hau komentatu digu:

Bai, sentitu dugulako. Azkenean mugitu gara mugimendu ezberdinetan, baina bai sortu zaigula askotan komentatu izan dugulako. Ez da kasualitatea denak edukitzea behar hori, eta batez ere gure artean hausnartzeko, kontatzeko, eta elkarrekin pentsatzeko. Nik ere pentsatzen dut ez dela ghettoak sortzeko, horrek ere ekarri dezake zerbait, edo okerrerako eragin dezake. Ez da ghetto bat sortzeko, baizik eta kolektiboki pentsatzeko, hausnartzeko eta barru hori husteko, eta aurrean daukazu pertsona horri begiratzeko eta jakiteko "benetan hemen bai dela", ulertzen garela zertaz ari garen, gai berdinak ditugula hor presente.

Bi aipu hauetan eta gainerako testigantzetan argi geratzen da, beraz, herriko LGTBI+ kolektiboak sartzeko, borrokak pentsatzeko edota hausnartzeko espazioak bilatzen dituela gaur egun. Etorkizuneko Orereta-Erreteria irudikatzen ari garen honetan, elkarriketatuek honako espazioak ezinbestean eratu behar ditugula argudiatu dute; izan ere, bizi garen gizarte bakarti honetan, talde zapaldu diren kolektiboak gehiago bakartzen dira eta bizitza egiteko guneak ukatzen zaizkie. Zentzu honetan, borrokarako espazioak izatearen garrantzia handia bada ere, elkarriketatuen premia izan da borroka eta aktibismo horiek sortu eta sustengatzen dituzten bestelako espazio erlatuagoak sortzea. Kayk honakoa zion:

Uste dut elkartzeko espazio fisikoak falta zaizkigula, festarekin eta alkohol kontsumoarekin ezinbestean lotuta ez daudenak. Pentsatzeko espazioak eta pentsatzeko ez, baizik eta ondo pasatzeko espazioak. Uste dut askok aldarrikatzen dugun zerbait dela trans jendearen artean, trans istorioak ez daitezela beti kontatuak izan tragediatik edo sufrimendutik, edo etengabeko aktibismo inposatu batetik. Ez naiz egunero etxetik ateratzen kalean topatzen ditudan pertsona guztiei pertsona ez-binario bat zer den azaltzeko asmotan, zer den trans izatea, zer den hormonatzea... Igual nire etxetik atera eta kafetegi batean elkarrizketa atsegin bat izateko gogoia izaten dut, besterik gabe. Goardia jaitsi, segure egon eta solas bat hasteko lekuak behar ditugu. Norbaitekin loturak ezartzea trans jendeari lapurtu egin zaigun zerbait da, beti dena azaldu behar izatearen zamaz zamatzen gara.

Creo que nos faltan espacios físicos donde reunirnos que no estén necesariamente asociados a la fiesta y al consumo de alcohol. Espacios donde pensarnos e incluso donde no pensarnos, sino simplemente pasárnoslo bien. Creo que es algo que muchas reivindicamos entre gente trans, que las historias trans no sean siempre contadas desde la tragedia o el sufrimiento, o desde un continuo activismo impuesto. No salgo de mi casa todos los días pensando en explicarle a todas las personas que me encuentro en la calle qué es una persona no binaria, qué es ser trans, qué es hormonarse... Igual salgo de mi casa y me apetece tener una conversación agradable en una cafetería sin más. Necesitamos lugares donde poder bajar la guardia, estar segure, y simplemente entablar una conversación. Establecer vínculos con alguien es algo que a la gente trans se nos ha robado, cargamos con el peso de tener que sobre explicarlo todo siempre.

Jasotako testigantzetan biltzen den moduan, topaguneen beharra argia da. LGTBI+ pertsonak ezagutzeko, berezkoak diren espazioak sortu eta antolatzeke, konektatzeko eta sareak sortzeko. Aldi berean, espazio mota hauek eraikitzerakoan, LGTBI+ komunitatean aniztasun handia dagoela kontuan hartu beharko genuke, patrioetan sartu gabe eta honakoa aintzatetsiz. Aioraren hitzetan:

Pertsona barnerakoia bazara edo dantza gustatzen ez bazaizu aukerak agortzen zaizkizu. Eta aktibista ere ez bazara, askoz gehiago murrizten zaizkizu.

Si eres una persona introvertida o que no te gusta el baile se te acaban las opciones. Y si tampoco eres activista, se te van reduciendo mucho más.

2. Proposamen zehatzak

Orain arte aipatutako eta identifikatutako egungo egoerei eta beharrei erantzuna eman diete ikerketako parte-hartzaileek. Honela, orain arte plazaratutako arazoei erantzuna ematen dieten 7 "irtenbide" proposatu eta identifikatu dira. Proposamen hauek herriak duen egungo egoera islatzen dutela jakin badakigun ere, honakoak etorkizunera begira egindakoak dira eta elkarrizketatuek desiratzen duten Orereta-Errenteria eta Oarsoaldea marrazte-ariketatzat hartu beharrekoak dira. Jarraian, proposamen zehatz hauei erreparatuko diegu.

2.1. Herrian zeharkakotasuna

Herriko ekintza, programa eta ekitaldi ezberdinetan LGTBI+ gaiak txertatzea litzateke proposamenetan lehena. Festetan ez ezik, bestelako gune publikoetan ere LGTBI+ gaien errepresentazioa txertatzea izan da aldarri nabarmen. Elkarrizketatuek hala islatzen dute proposamen hau beren hitzetan. Oliberrek, esate baterako, hau aldarrikatzen du:

Kolektiboarekin lotura duen edozer gauza egin ahal izatea, ez du zertan data zehatz batean izan, ezta? Hau da, niri gustatuko litzaidake lokal bat egotea edo halako egoitzaren bat gure artean elkartzeko eta ideiak partekatzeko, adibidez. Nik gazteen egoitza dudan moduan, ez? Berezko elkarte bat, LGTBI gunea, non jendea bildu daitekeen eta euren ezinegonak, ideiak, emanaldiak, performanceak, make up tutorialak... partekatu. Edozer dela ere! Ez bakarrik hilean behin asteazkenetan 17tatik 19etara.

Poder hacer cualquier cosa que tenga que ver con el colectivo no tiene por qué ser en una fecha concreta, ¿no? Es decir, a mí me gustaría que hubiera un local o una sede para juntarnos y compartir ideas, por ejemplo, Igual que yo tengo mi asociación de jóvenes ¿no? Una especie de sociedad propia, un espacio LGTBI donde la gente puede reunirse y compartir sus inquietudes, ideas, actuaciones, performances, make up tutoriales... ¡Sea lo que sea! No solo una vez al mes los miércoles de 17 a 19 horas.

Eta mahai-inguruetan parte hartu zuen pertsona batek ere antzekoa esaten zigun:

Gaia oso espazio ezberdinetara eraman daiteke, hala nola mintzalagunean LGTBa-rekin zerikusia duen ariketa bat egin eta horren inguruan eztabaidatu, adibidez.

El tema se puede llevar a espacios muy diferentes, como hacer un ejercicio que tenga que ver con lo LGTB en el mintzalaguna y debatir sobre ello, por ejemplo.

Agian pertsona batentzat errazagoa da gizarte mugimendura gerturatzeko mintzalaguna bezalako zerbitzu batetik, edo orain ematen ari garen LGTB ahalduntzearena bezalako batetik. Militantea naiz, eta uste dut, kanpotik begiratuta, oso gogorak eta oso itxiak iruditu gaitzkeela.

A lo mejor para una persona es más fácil acercarse al movimiento social desde un servicio como mintzalaguna, o como el de empoderamiento LGTB que ahora estamos dando. Soy militante, y creo que, de fuera, podemos parecer muy duras y muy cerradas.

Adierazi bezala, herriko espazio, gune, ekintza eta ekitaldi publikoetan LGTBI+ gaiek presentzia edukitzearen garrantzia azpimarratu da elkarrizketetan. Herriko leku ezberdinetan eta uneoro honelako gaiak jorrotzearen beharra dagoela dirudi, beraz. Herriko jendeak bere herrian errepresentatua sentitu nahi du, bai eta euren errealtateak herriko bizitzaren parte izan daitezela ere. Herriko pertsonentzat ez ezik, herrira datozen pertsona berrientzat ere baliagarri izan daiteke aipatutako zeharkakotasuna. Izan ere, herrian integrazioa sustatzeko eta herri atseginagoa eratzeko ezinbestekoa da aipatutako zeharkakotasuna.

2.2. Ikonografia

Horren harira, herriko guneetan LGTBI+ ikurrak egotea ideia ona izan litekeela aipatu da jasotako testigantzetan. Adibide moduan, datozen lerroetan honakoa azaltzen du Paulak:

Guk adibidez ez dugu ikurrina bat jartzen, baina gatzetxe batera joaten zara eta ikurrina bat ikusten duzu, eta, agian, LGTB friendly direla ikustea behar dugula [pentsarazten dizu]. Zeren ambiente hori mutilena izaten da askotan, azkenean hemen betidanik eraman da tema punkia. Eta irudiz oso fuertea dirudi, las cabezas rapadas eta mobida horiek. Azkenean como que impresiona un poco. Baina hori, txorrada bat dirudi, baina ez da txorrada zeren, adibidez, bandera bat jartzeak pues igual te salva la vida. Ze jartzen [denean] ondo sentitzen zara hor, simplemente por ver eso.

2.3. Aisialdia

Aurreko bi proposamenei hertsiki lotuta, elkarrizketatuek festa eta aisialdi giroan ere herria euren dela sentitzeko proposamenak bota dituzte. Horien artean nabarmen, kolektiboa harremantzeko festa eta espazio ludikoak sortzearen proposamena, Itziarrek komentatu digun moduan:

Txortan egitea esaten dudanean, gure jaiak antolatzeaz ari naiz. Festak oso garrantzitsuak dira. Baina gure jaiak esaten dudanea, ez naiz hainbeste sarrera debekatzeaz ari, baizik eta gauzak gertatzen diren espazio dibertigarriak izateaz. Akelarrea da nondik gatozen eta batzen gaituena, ezta? Horregatik moztu zigiten, hortik sortzen delako... tira, zerbait askatzen da, ezta? Zerbait askatzen eta eratzen da bertan.

Cuando digo follar me refiero a organizar nuestras fiestas. Las fiestas son muy importantes. Pero cuando digo fiestas nuestras no me refiero tanto a vetar la entrada sino a que sean unos espacios divertidos donde sucedan cosas. El Akelarre es de donde venimos y lo que nos une, ¿no? Por eso nos lo cortaron, porque de ahí surge... bueno, se desata algo, ¿no? Se desata algo que necesitamos que se desate.

2.4. Atsedeen hartzeko eta zauriak ixteko espazioak eraikitzea

Aldi berean, festa giroaz haratago doazen atsedeen espazioak sortzea proposatu dute elkarrizketatuek. Izan ere, gune eta momentu hauek gizarteak eragindako zauri indibidual zein kolektiboak ixteko eta sendatzeko beharrezkoak dira. Zaintza kolektiborako aukerak ematen dituzten gune, espazio, ekintza, ekitaldi... ezberdinak sortzea aldarrikatu dute elkarrizketatuek. Mashek honakoa zion:

Eta uste dut hobe dela, niretzat, pixka bat geldiaraztea eta esatea: "begira, maitea, oraintxe bertan ezin dut, segi zuk, ni zurekin noa, baina atzerago geratuko naiz". Uste dut garrantzitsua dela hori onartu ahal izatea, eta "beti topera ez egotea onar dezaket", hori, azpimarratzea.

Kay ere hortik zihoan:

Espazioak, sareak sortzeko beharrea sinesten dut, baina baita geure burua zaintzeko beharrea ere. Kapitalismoan dena da "anti-zainketak", egitura sortu da sareak sortu ahal ez izateko, edo sortzen baduzu oso prekarioak edo oso hauskorrak izatea. Kontzientziazio politikoa dugunok edo gauzak aldatu nahi ditugunok karga handiak izan ditzakegu (lana, ikasketak, familia...) edo batere ez.

Y creo que es mejor, para mí, frenar un poco y decir: "mira cariño, ahora mismo no puedo, sigue tú, yo te acompaño, pero desde más atrás". Creo que es importante que nos podamos permitir eso, y recalcar el "me puedo permitir no estar a tope siempre".

Creo en la necesidad de generar espacios, redes, pero también en la necesidad de cuidarnos. En el capitalismo todo es "anti-cuidados", la estructura está creada para que no puedas generar redes, o si generas que sean muy precarias o muy frágiles. Las que tenemos una concienciación política o queremos cambiar las cosas podemos tener grandes cargas (trabajo, estudios, familia...) o ninguna.

Ulertu behar da iristen garen tokiraino iritsiko garela, ohartzea ezin dugula amore eman.

Se trata de entender que vamos a llegar hasta donde lleguemos, darnos cuenta de que no podemos tirar la toalla.

2.5. Sareak sortzea

Azken aldarrikapen horren harira, elkarrizketatuek sare komunitario eta kolektibo sendoak eratu nahiko lituzkete. Sare horiek sortzeko, espazio fisiko konkretuak eraikitzea proposatu da hainbat testigantzetan. Txelok LGTBI+ pertsonen etxea imajinatu du: "Ojalá hubiera un espacio como es la casa de las mujeres, pues podría haber un espacio pues imagínate, una casa LGTB"⁷⁹. Eta Naroak horrela dio:

Bai, ezagutu, saretu, baita jakiteko ere beraien ikuspuntuak zeintzuk diren, gaur egun nola bizitzen duten pertsona horiek [eta] hori dena. Nik uste ezberdina dela Mikela batek nola bizi zuen, edo guk nola bizi dugun, edo gaur egungo gazteak nola bizi duen. Bilakaera bat dago, eta egongo dira aldaketa asko, eta hori interesgarria da jakitea, memoria ezagutzea interesgarria den bezala. Gaur egungo guztia ulertzeko hurrengoena ere... Ez dakit, sare horiek egitea niri oso garrantzitsua iruditzen zait. Nik uste ez dagoela leku espezifikoa bat edo ez dakigula ondo komunikatzen. Ze gero bagaude, jaisten zara.

2.6. Lan indibiduala

Aipatutako proposamen kolektiboez gain, elkarrizketatuek lan indibiduala ere beharrezkoa dela azpimarratu dute eta honakoa orain eta hemen egiten hastea proposatu dute. Izan ere, lan indibiduala ezinbestekoa da kolektiboa den hori elikatzeke eta sare sendo eta iraunkorrak sortzeko. Naroak honakoa aldarrikatu du:

Bai, baina interesgarria izango zen, adibidez. Agian elkarrekin ere. Nik uste dut beti dagoela bakarka eta elkarrekin. Inoiz ez dela bidea bakarrik beti. Uste dut behar ditugula, bai pertsonak eta bai kolektibo ezberdinak, elkar-laguntza horretan daudela klabeak. Edo guk gutxienez bidea bakarrik ez dugula egin nahi ezta ere. Batzuetan behar dugula bakartasun hori edo anonimato hori. Hausnartzeko espazio bat, pentsatzeko, hausnartzeko, gure gauzak bota eta lasai sentitzeko, baina gero borroka ere ez dela bakarrik, elkartuta ere dela.

79 Euskaratuta: Emakumeen Etxea bezalako gune bat egotea nahiko nuke, imajinatu, Etxe LGTB bat.

Mahai-inguruetan parte hartu duen pertsona batek ere antzekoa komentatu zuen:

Nire ustez, espazioa oso laburra da pertsonen artean, eta gehiago laburtu behar dugu. [...] Axola behar digu zer gertatzen zaion ondoan dugun pertsonari; oinarria da. Iritsi egin behar digu, eta inporta egin behar digu, eta kezkatu egin behar gaitu aurrekoa egoteak, eta ondo egoteak. Eta nola? Bada, tentu handiagoz, ezta?

Es que yo creo que, que el espacio es muy cortito entre las personas, y lo tenemos que acortar más. [...] Nos tiene que importar lo que le pasa a la persona que tenemos al lado, es la base. Nos tiene que llegar, y nos tiene que importar, y nos tiene que preocupar que el de enfrente esté, y que esté bien. Y ¿cómo? Pues con más tacto, ¿no?

2.7. Kaleetara irtetea

Azkenik, proposamen guzti hauek batu, identifikatutako behar eta desirak asetzeko eta herria eraikitzen jarraitzeko, jasotako testigantzetan kaleak hartzearen eta gureganatzearen aldarria indartsua izan da. Honela, herria gure egiteko eta egunerokotasunean ditugun zailtasun eta indarkeriei aurre egiteko, kaleak hartzea eta gune horietan presentzia izaten jarraitzea proposatu dute gure elkarrizketatuek. Mashek honen guztiaren beharra gogorarazten digu:

Nik uste dut oraindik oso garrantzitsua dela kaleetara ateratzea. Oso ondo dago Internet bidez aldarrikatzea, sare sozialetan... Uste dut sareak garrantzitsuak direla, baina fisikoak. Eta behin sortuta, beste pauso bat ematea espazio publikoetan ikusgarri egiteko, kaleak hartzeko, "hemen gaude" esateko. Oso astuna naiz "ikusgarriak gara" gaiarekin, baina hala gara. Eta bada garaia konturatzeko ez garela isilduko lau ogi-apur ematen dizkigutelako. Eta uste dut hori dela jarraitu beharreko pausoetako bat.

Yo creo que todavía es muy importante salir a las calles. Está muy bien reivindicar por Internet, en redes sociales... Creo que las redes son importantes, pero las físicas. Y una vez creadas dar un paso más para hacernos visibles en los espacios públicos, para coger las calles, para decir "estamos aquí". Soy muy pesado con el tema de "somos visibles", pero es que lo somos. Y ya es hora de que se den cuenta de que no nos vamos a callar porque nos den cuatro migajas. Y creo que ese es uno de los pasos a seguir.

Txelo ere bat dator ideia horrekin:

Eta nik, kalearen defendatzaile sutsua naizen horregatik, berriz esango dut. Gauzak aldatuz doaz. Onera aldatu daitezke,

Y yo, que soy entusiasta defensora de la calle, lo repito. Las cosas van cambiando. Pueden cambiar a mejor y podemos ser

arrakastatsuak izan gaitzke une batean, 2018-2019ko greban bezala, baina gauzak etorri diren bezala joan daitezke. Orain oso modan dago feminista izatea, oso ondo dago LGTBI izatea, eta mundu guztiak hitz egiten dizu... Baina gero, etorri den bezala joan daiteke. [...] Horregatik, uste dut oso ondo dagoela sare-sozialena, unibertsitatearena, mahai-inguruena... baina kaleak galtzen baditugu, akabo. Bueno, nik hala ikusten dut, behar bada tremendista naiz.

exitosas en un momento dado como por ejemplo con la huelga del 2018-2019. Pero las cosas como vienen se van. Ahora está muy de moda ser feminista, está muy bien ser LGTBI, y todo el mundo te habla... Pero luego, como ha venido se puede ir. [...] Por eso, creo que está muy bien lo de las redes sociales, la universidad, las mesas redondas... pero como perdamos la calle nos comen. Bueno, yo lo veo así, quizá soy un poco tremendista.

AMAIERAKO HITZAK

Orrialde hauetan zehar Orereta-Erreterria eta Oarsoaldeko LGTBI+ memoria kolektiboa biltzeko saiakera xumea egin dugu. Herritarren hitzak iturri nagusi izanik, herriko eta eskualdeko LGTBI+ kolektiboak izan duen bilakaera, eragina eta indarra plazaratu nahi izan dugu. Memoria kolektiboa biltzea helburu izan den arren, memoria bera elikatzea eta sortzea ere xede izan dugu. Irratsaio, mahai-inguru, informazio truke, irakurketa eta ekintza anitzez osatutako lana da eskuartekoa, pertsona sare ezberdinek jositakoa. Iragana, oraina eta etorkizuna lan bakarrean txertatzea afera ausarta da, baina ausardia hori izan dute lanean parte hartu duten pertsona guztiek eta haien kontakizun goxoak munduari helarazi nahi izan dizkiote. Gure partetik, lan hau kolektiboak duen berezko sua hauspotzeko balio izana espero dugu, bai eta gure herri eta eskualdeko herritarrek euren memoria jasotzeko duten eskubidea bermatzeko ere. Plazerra izan da testigantza eta hitzak jasotzea eta ohorea zuekin guztiokin partekatzea. Besterik gabe, lan hau katebegi izatea espero dugu eta mugimenduan dagoen historian iturri izatea.

Maitasunez,
#Kuirartxibobizia
Uxue, Maite, Ane eta Aitor

BIBLIOGRAFIA

- Anari. (2024ko maiatzaren 6an). *Wikipedia*. <https://es.wikipedia.org/w/index.php?title=Anari&oldid=159941433>
- Annes, A., eta Redlin, M. (2012). Coming out and coming back: Rural gay migration and the city. *Journal of Rural Studies*, 28(2012), 56-68. <https://doi.org/10.1016/j.jrurstud.2011.08.005>
- Aldrich, Robert, ed. (2007). *Gleich und anders* (en alemán). Hamburgo: Murmann.
- Aldarte. (2008). *Voces de mujeres en la diversidad sexual*. <https://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/libro3-ok-interior.pdf>
- Aldarte. (2022). *Documental -Lesvisibles- Dokumentala*. <https://www.aldarte.org/cas/site/multimedia-ver.asp?id=160>
- Alvarez, A., eta Fernandez, J. (2023). *Mariokerrak: No la esan/fizan bollera euskaraz?* Txalaparta.
- Arainfo redacción (2022-06-04). La memoria de Gladys del Estal, “asesinada por defender el Sol, el Agua y la Libertad”, sigue muy viva. Arainfo, Diario Libre d’ Aragón. <https://arainfo.org/la-memoria-de-gladys-del-estal-sigue-muy-viva/>
- Arana Luzuriaga, A. (2005). *Gay Hiztegia*. Txalaparta.
- Avilez, G. (2011). CARTOGRAPHIES OF DESIRE: Mapping Queer Space in the Fiction of Samuel Delany and Dariack Scott. *Callaloo*, 34(1), 126–142. <http://www.jstor.org/stable/41242600>
- Azabal, M., eta Arruabarena, I. (2023). Delitos e Incidentes de Odio Hacia Personas LGTBI+: Prevalencia, Consecuencias e Impacto. *International E-Journal of Criminal Sciences*, 18, 1-20. <https://doi.org/10.1387/inecs.25062>
- Azabal, M., eta Diez-Guiral, U. (2022). *Irungo LGTBI+ Gazteria: Ba al dakigu zer dagoen? Irungo LGTBI+ gazteen gaineko ikerketa: pertzepzio soziala eta baliabideetara sarbidea*. [Beka]. Irungo Udala. https://www.irun.org/images/informacion-temas/directorio-tematico/juventud/gazteartean/beca/docs/Irungo_LGTBI_Gazteria_-_GazteARTEan_Beka_2021.pdf
- Azkarate, Edurne. (2024ko apirilaren 29an). *Wikipedia*. https://eu.wikipedia.org/w/index.php?title=Edurne_Azkarate&oldid=9679060
- Bakhurst, D. (2000). Capítulo II: Memoria, identidad y psicología cultural. A. R. Rivero, G. Bellelli y D. Bakhurst-en (Eds.), *Memoria colectiva e identidad nacional* (91-106 or.). Biblioteca Nueva.
- Bandres, R. (1985eko uztaila). Fernando Telletxea Oskoz (Fama). Un renteriano a quien no todos comprenden en su villa. *Oarso aldizkaria*, 22, 41-42.

- Bandres, Rafa. (1985). *Oarso Aldizkaria*, 20, 41-42. <https://static.errenteria.eus/web/eu/herria/artxiboa/Oarso/oarso1985/oarso1985.pdf>
- Brands, J., eta Van Wilsem, J. (2021). Connected and fearful? Exploring fear of online financial crime, Internet behaviour and their relationship. *European Journal of Criminology*, 18(2), 213-234. <https://doi.org/10.1177/1477370819839619>
- Bullen, M. (2003). *Basque Gender Studies*. Centre for Basque Studies: University of Nevada.
- Carreras R., M. (2018ko otsailaren 1ean). *Bizkaia y punk: mucho más de lo que te han contado*. El Salto Diario. <https://www.elsaltodiario.com/punk/entrevista-punk-mierda-bizkaia-andoni-fernandez>
- Cruz, L. (2018ko otsailaren 19an). *Así derrotó el capitalismo al 'barrio rojo de Hamburgo', corazón de la lucha antifascista*. El Confidencial. https://www.elconfidencial.com/mundo/2018-02-19/gentrificacion-sankt-pauli-derrota-capitalismo_1523171/
- Diez-Guiral, U. (2024). *Euskal eskoletan Bigarren Hezkuntzako ikasleen Komunikazio Hizkuntza-Antsietatea eta Komunikazio-Borondate prozesuetan generoa aztertzen [doktorego tesia]*. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
- Egaña, I. (2014-07-04). Ana Tere Berrueta, violaciones y torturas impunes. GARA. https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/gara_2014-07-04-07-00/hemeroteca_articulos/ana-tere-barrueta-violaciones-y-torturas-impunes
- Egaña, I. (2017). *ETAren historia laburra*. Txalaparta.
- EHGAM. (1977). Demos la cara. *Gay Hotsa*, 0, 9-10.
- EHGAM. (1979a). Las mujeres nos organizamos. *Gay Hotsa*, 3, 15.
- EHGAM. (1979b). E.S.A.M. con vosotras, *Gay Hotsa*, 4, 3.
- EHGAM. (1980). Lesbianas: recuperando nuestra identidad existimos en Donostia, *Gay Hotsa*, 5, 15.
- EITB. (2019). *'Fama', el transformista que rompió moldes en los 80* [Bideo]. <https://www.eitb.eus/es/television/programas/el-sabor-del-crimen/la-muerte-de-mikel/videos/detalle/6578011/video-fama-transformista-rompio-moldes-80/>
- Emakumeak. (d.g.). *Encuentro de Lesbianas de Euskadi (1. 1983. Gipuzkoa)*. <https://emakumeak.org/web/jornada/33>
- Erice, F. (2008). Memoria histórica y deber de memoria. Las dimensiones mundanas de un debate académico. *Entelequia. Revista Interdisciplinar*, 7, 77-96.
- Errenteriako Udala. (2019). *ErreferenteEKIN. Errenteriako LGTI biztanleriaren errealitateen diagnostikoa*. <https://herribizia.errenteria.eus/app/uploads/sites/16/2019/06/Errenteriako-LGTBI-biztanleriaren-errealitateen-diagnostikoa.pdf>
- Errenteriako Udala. (2022). *Errenteriako LGTBI+ pertsonen bizi baldintzak hobetzeko*

- ekintza-plana*. <https://static.errenteria.eus/web/eu/udala/udal-sailak-eta-azpi-sailak/berdintasuna/LGTBI+/2022maiatzaEKINTZA-PLANA.pdf>
- Eskisabel, I. (1994ko ekainaren 28an). Etorkizuna arrosa da. *Euskaldunon Egunkaria*, 19-30
- Esteban, M. L. (2012). Euskal antropologiaren jauzi kontzeptualak eta euskal kulturaren haragitasunak. *Ankulegi*, 16(2012), 111-125.
- Euskadi.eus. (2024ko apirilaren 29an). *LGTBI Dokumentazio-zentro birtuala. LGTBI MUGIMENTUDEN MEMORIA*. <https://www.euskadi.eus/informazioa/lgtbi-mugimenduen-memoria/web01-s2ing/eu/>
- Euskal Estatistika Erakundea (2021). *Euskal AEko biztanleria, biziterriari jarraiki, sexuaren eta etxean hitzegindako hizkuntzaren arabera. 2021*. https://eu.eustat.eus/elementos/ele0010600/euskal-aeko-biztanleria-biziterriari-jarraiki-sexuaren-eta-etxean-hitzegindako-hizkuntzaren-arabera/tbl0010651_e.html
- Euskal LGTBI+ Behatokia (2021, ekainak 9). *Proyecto de articulado para Ley integral vasca LGTBI+: Cultura, memoria histórica, ocio, tiempo libre, deporte, turismo, medios de comunicación social, publicidad, nuevas tecnologías, redes sociales e internet*. <https://lgtbi-behatokia.eus/eu/euskal-lgtbi-lege-integralaren-proposamena/>
- Euskaldunon Egunkaria. (2024ko apirilaren 22an). *Wikipedian*. https://eu.wikipedia.org/w/index.php?title=Euskaldunon_Egunkaria&oldid=9671341
- Euskaltzaindia. (d.g.). (2024ko apirilaren 29an). *Matxarda*. Euskaltzaindiaren hiztegia. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?&option=com_hiztegiabilatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu&nondik=0&zenbat=100&entryId=33257-tik
- Ferentinos, S. (2019). Ways of Interpreting Queer Pasts. *The Public Historian*, 41(2), 19-43. <https://doi.org/10.1525/tph.2019.41.2.19>
- Foucault, M. (2009). *Vigilar y castigar: nacimiento de la prisión*. Siglo XXI.
- Fresnedo, I., eta Arbiol, E. (2021). *Noiz amaitzen da armairua? Hernaniko azken 50 urteetako LGBT memoria ariketa. 1969-2019*. Hernaniko Udala-Berdintasuna.
- Gasteizko Udala. (2018). *Desirak Plazara: Diagnóstico sobre las realidades de la población LGTBI en Vitoria-Gasteiz*. <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/95/11/79511.pdf>
- Gehitu. (d.g.). (2024ko maiatzaren 2an). *Nortzuk gara?*. Gehitu. <https://www.gehitu.org/nortzuk-gara/>
- Gehitu. (2021). *Situación laboral de las mujeres trans en la CAV*. <https://drive.google.com/file/d/1vhTr-5Y00uq3ue5Y2mbNNaBfH617fhjy/view>
- Gehitu eta Gipuzkoako Foru Aldundia. (2018). *Bizikidetza Aniztasunean. LGTBI+ Populazioaren Errealitateen Diagnostikoa Gipuzkoan*. https://www.academia.edu/41547810/BIZIKIDETZA_ANIZTASUNEAN_LGTBI_populazioaren_errealita-

teen diagnostikoa Gipuzkoan 2018

- Gorman-Murray, A., eta Nash, C. J. (2014). Mobile Places, Relational Spaces: Conceptualizing Change in Sydney's LGBTQ Neighborhoods. *Environment and Planning D: Society and Space*, 32(4), 622–641. <https://doi.org/10.1068/d14012>
- Gutiérrez, G. (2008). La diversidad sexual: ¿nos basta el arcoíris?. *Revista Trabajo Social UNAM*, (18), 140-145.
- Guzmán, M. (1997). «Pa la Escuelita con mucho cuidao y por la orillita»: A Journey Through the Contested Terrains of the Nation and Sexual Orientation. En F. Ne-grónmuntaner, y R. Grosfoguel (Eds.), *Puerto Rican Jam: Rethinking Colonialism and Nationalism* (pp. 209-228). University of Minnesota Press.
- Halbwachs, M. (2004). *Los marcos sociales de la memoria*. Anthropos Editorial. (1925ean argitaratutako lan originala)
- Hale, C. (1996). Fear of Crime: A Review of the Literature. *International Review of Victimology*, 4(2), 79-150. <https://doi.org/10.1177/026975809600400201>
- Hiruki Larroxa (2021). *Noiz bukatzen da armairua? Hernaniko azken 50 urteetako LGBT memoria ariketa 1969-2019*. Hernaniko Udala / Berdintasun Arloa.
- Ikuspegi. (2022). *Neurtu 2021. EAEko aniztasunari buruzko barometroa: sexu- eta genero-aniztasunarekiko pertzepzioak eta jarrerak*. <https://www.ikuspegi.eus/documentos/neurtu/2021/neurtu2021eus.pdf>
- Irazabal, E. (2008). Emakumea eta euskal irakaskuntza. *BAT Aldizkaria*, 69(4), 45-59. Andoain.
- Irazu, A. (1998ko otsailaren 26an). Zapatari. 10 urte desobedientzia aldarrikatuz. *Egunkaria*, 4. <https://www.berria.eus/hemeroteka/egunkaria/pdfa/?data=1998-02-26&orria=044&zenb=c2kyY0RYeC9EZUpuNVVLcms5dHpSQT09>
- Iruñeko Udala. (2018). *Diagnóstico de las realidades de la población LGTBI de Pamplona*. https://erabaki.pamplona.es/uploads/decidim/attachment/file/509/Informe_LGTBI.pdf
- Iturrioz López, Josebe. (2024ko apirilaren 9an). *Wikipedian*. https://es.wikipedia.org/w/index.php?title=Josebe_Iturrioz_L%C3%B3pez&oldid=159312284
- Juaristi, J. (2016). *Historia eta memoria. Memoriaren berreskurapena enpatiaren bitartez* [Gradu amaierako lana, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)]. Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Irakaskuntza eta Ikerketarako Artxibo Digitala. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/21309/TFG_JuaristiElizegi.pdf?sequence=2
- Kelland, L. L. (2018). *Clio's foot soldiers: Twentieth-century U. S. movements and collective memory*. University of Massachusetts Press.
- La Veneno. (2023ko urriaren 7an). *Wikipedian*. <https://eu.wikipedia.org/w/index.php?>

[title=La_Veneno&oldid=9411746](#)

- Landaluze, K. (2022-09-03). Silvia Munt rememora la lucha de las mujeres de Errenteria en los 70. *Naiz*. https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2022-09-03/hemeroteca_articles/silvia-munt-rememora-la-lucha-de-las-mujeres-de-errenteria-en-los-70
- Las 11 de Basauri. (2024-02-29). *Wikipedia*. https://es.wikipedia.org/wiki/Las_11_de_Basauri
- Las Fellini. (d.g.). ¿Quiénes somos las Fellinis?. <https://www.lasfellini.com/eu/bio/>
- Legasse, M. eta Pascual, J. (2011). *AnarkHerria. 1986-2011*. Txalaparta.
- Lujanbio, Maialen. (2024ko maiatzaren 24an). *Wikipedia*. https://es.wikipedia.org/w/index.php?title=Maialen_Lujanbio&oldid=160317799
- Manzo, L. C. (2005). For Better or Worse: Exploring Multiple Dimensions of Place Meaning. *Journal of Environmental Psychology*, 25, 67-86. <http://dx.doi.org/10.1016/j.jenvp.2005.01.002>
- Martín, R. (2009). El sida ante la opinión pública: el papel de la prensa y las campañas de prevención estatales en la representación social del sida en España. *Studium: Revista de humanidades*, 15, 237-268
- Martínez Expósito, Alfredo (1995). *La Construcción del Personaje en La muerte de Mikel: Un Comentario a la Teoría de Mundos Posibles*. *Journal of Iberian and Latin American Research*, 1(1-2), 93–98.doi:10.1080/13260219.1995.10426785
- Medeak. (d.g.). (2024ko maiatzaren 2an). *Nor gara*. Medeak. <https://medeak.wordpress.com/acerca-de/>
- Miner, I. (2023). Mikel Martin Conde, Mikela. Betirako dantzan gure lumatzen. *Oarso aldizkaria*, 58, 218-223.
- Miner, K. (2019). *Moio. Gordetzea ezinezkoa zen*. Elkar.
- Miner, Kattalin. (2024ko martxoaren 20an). *Wikipedia*. https://es.wikipedia.org/w/index.php?title=Kattalin_Miner&oldid=158926720
- Momoito, A. (2018ko martxoaren 5ean). *Las putas que clamaron por María Isabel*. Pikara Magazine. <https://www.pikaramagazine.com/2018/03/huelga-prostitutas-las-cortes-bilbao/>
- Momoito, A. (2022). *Lunática*. Libros del CO, SLL.
- Moreno, M. (2013). El sexilio en la era de la superdiversidad: Visibilizando el colectivo LGTBI inmigrante. *Revista Iberoamericana de Salud y Ciudadanía*, Vol II(1), 94-114
- Movimiento homófilo. (2023ko azaroaren 9an). *Wikipedia*. https://es.wikipedia.org/wiki/Movimiento_hom%C3%B3filo
- Munt, S. (2023). *Las buenas compañías*.

- Nafarroako Gobernua. (2018). *Diagnóstico de la situación de la igualdad social de las personas LGTBI+ de la Comunidad Foral de Navarra*. https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/diagnostico_final.pdf
- Nazio Batuak. (d.g.). *Conferencia Mundial del Año Internacional de la Mujer 19 de junio a 2 de julio de 1975, Ciudad de México, México*. Nazio Batuak. <https://www.un.org/es/conferences/women/mexico-city1975>
- Oarsoaldeko Hitza. (2022ko urriaren 22an). *Mahai-ingurua (Lezo): Oarsoaldean LGTBIQ+ kolektiboa zer?*. Oarsoaldeko Hitza. <https://oarsoaldea.hitza.eus/ekitaldiak/mahai-ingurua-lezo-oarsoaldean-lgtbiq-kolektiboa-zer/>
- Ormazabal, J. M. (2007ko abenduaren 12an). 2007: año cero para el movimiento okupación de Donostia. *Diagonal*. <https://www.diagonalperiodico.net/movimientos/2007-ano-cero-para-movimiento-okupacion-donostia.html>
- Otaegi, A. (2020). *Madelon Sariak: ipuin sarituen bilduma ilustratua*, 4-6. Errenteriako Udala
- P. G. (1995). El Cine Reina: trece lustros de historia local. *Oarso* 95, 30, 7-10
- Platero, L. (2009). Transexualidad y agenda política: una historia de (dis) continuidades y patologización. *Política y sociedad*, 46, 107-128.
- Rexval. (2018ko ekainaren 10ean). Las otras víctimas de una transición nada pacífica (II). *Rexvalrexblog.wordpress.com*. <https://rexvalrexblog.wordpress.com/2018/06/10/las-otras-victimas-de-una-transicion-nada-pacifica-ii/>
- Riveiro, L. (2021). *HEMEN GAUDE ETA EZ GARA EZKUTATZEN = AQUÍ ESTAMOS Y NO NOS ESCONDEMOS. Memoria colectiva y asesinato de Francis en Orereta-Errenteria*. [Ez argitaratutako Master amaierako lana]. Universidad Complutense de Madrid.
- Rubio Herrero, F. (2019ko abuztuaren 2an). *La inaudita toma de Rentería (Crónica periodística de los hechos acaecidos el 13 de julio de 1978)*. Tercera información. es. <https://www.tercerainformacion.es/articulo/actualidad/memoria-historica/02/08/2019/la-inaudita-toma-de-renteria-cronica-periodistica-de-los-hechos-acaecidos-el-13-de-julio-de-1978/>
- Ruiz de Garibay, C. (1979). Apoyo popular a los homosexuales. Tras la muerte del travestí Francis. *Punto y Hora de Euskal Herria*, 130, 34-35.
- Salazar, A. (2021eko urtarrilaren 21ean). Fue el detonante que amplificó nuestra lucha y reforzó nuestras ideas. *Diario Vasco*.
- Sanginés, Gemma. (2023ko urriaren 5ean). *Wikipedian*. https://eu.wikipedia.org/w/index.php?title=Gemma_Sangin%C3%A9s&oldid=9409358
- Sidálava. (d.g.). *La historia del VIH, en una línea de tiempo: hitos que marcaron la evolución de la enfermedad*. <https://www.sidalava.org/la-historia-del-vih-en-una-linea-de-tiempo-hitos-que-marcaron-la-evolucion-de-la-enfermedad/>

- Soriano, E. (2011). El matrimonio homosexual en Europa. *Juris Tantum Revista Boliviana de Derecho*, 12, 204-216.
- Soziolinguistika klusterra. (2024ko apirilaren 28an). *TELP (Taller d'espai lingüístic personal)*. <https://soziolinguistika.eus/eu/ekitaldia/telp-taller-despai-linguistic-personal/>
- Stardust, Albina. (2024ko apirilaren 24an). *Wikipedia*. https://eu.wikipedia.org/w/index.php?title=Albina_Stardust&oldid=9673541
- Suay Lerma, Ferran. (2024ko martxoaren 16an). *Wikipedia*. https://ca.wikipedia.org/w/index.php?title=Ferran_Suay_Lerma&oldid=33272199
- TGL. (2019ko azaroaren 12an). Reinas pioneras y mujeres punk que la música no debería olvidar. *La Fonoteca*. <https://lafonoteca.net/reinas-pioneras-y-mujeres-punk-que-la-musica-no-deberia-olvidar/>
- Valente, K. G., eta Hornby, S. M. (2022). Celebrating is remembering: OUTing the Past as a study in the reflective and transformative potential of small events. *Journal of Policy Research in Tourism, Leisure and Events*, 1-18. <https://doi.org/10.1080/19407963.2022.2037622>
- Varela, Irantzu. (2024ko maiatzaren 29an). *Wikipedia*. https://es.wikipedia.org/w/index.php?title=Irantzu_Varela&oldid=160417329
- Vicente Altxu, Xanti. (2024ko apirilaren 24an). *Wikipedia*. https://eu.wikipedia.org/w/index.php?title=Xanti_Vicente_Altxu&oldid=9673571
- Villar, A. (2005). ¿Lesbiana? Encantada Es un Placer!! (Análisis del Lesbianismo en el Movimiento Feminista y en los grupos de lesbianas y gays) [Ikerketa lana]. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Vozmediano, L., eta San Juan, C. (2010). *Criminología Ambiental: Ecología del delito y de la seguridad*. Editorial UOC.
- Yogurinha Borova. (2024ko urtarrilaren 29an). *Wikipedia*. https://es.wikipedia.org/w/index.php?title=Yogurinha_Borova&oldid=157820951
- Zarate, I. (2020ko uztailaren 24an). *Kontzientzia eta prestaketa handiko errelebo izugarria dugu*. Oarsoaldeko Hitza. <https://oarsoaldea.hitza.eus/2020/07/24/kontzientzia-eta-prestaketa-handiko-errelebo-izugarria-dugu/>
- Zilbeti, M. (2016). *Arte-ekoizpen feministak euskal testuinguru kulturean*. Udako Euskal Unibertsitatea.

ERANSKINAK

1. Eranskina. Galdetegiaren kartela

**ZURE LAGUNTZA
BEHAR DUGU**

Orereta-Errenteriako LGTBI+
memoria historikoa osatzeko



 @kuirtxibobizia  @kuirtxibobizia

Para completar la memoria
histórica LGTBI+ de Orereta-
Errenteria

**NECESITAMOS
TU AYUDA**

2. Eranskina. Galdetegia. Zer diote herritarrek?

Jarraian, galdetegia erantzun duten biztanleen erantzunak jasotzen dira. Item batzuetan LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen erantzunak bereizi ditugu, errealitate espezifikoak kontuan hartzeko.

2.1. Galdetegian azaleratutako hainbat afera


2.1.1. Generoa



1. Grafikoa. Galdetegiko datuak: generoa.

Generoari dagokionean, 1. grafikoan ikus daitekeen moduan, gehiengoa, hots, % 63,6 (N= 339), emakumeak dira. Gizonen taldea izan da bigarren talde nagusia, laginaren % 33,4 (N= 178) izanik. Parte hartzaileen artean, pertsona ez bitarrak (% 2,3; N= 12) eta ageneroak (% 0,2; N= 1) ere izan ditugu.


2.1.2. Arraza-etnia



2. Grafikoa. Galdetegiko datuak: arraza-etnia.

Arraza eta etniari dagokionean (ikus 2. grafikoa), erantzule gehienak zuriak dira (% 88,2; N= 470); 22 latinoak (% 3,8); 6 "beltzaranak" (% 1,1) eta 5 "euskaldunak" (% 0,9). Hautetaz gain, pertsona "mestizoak" (% 0,4), marokoarrak (% 0,4), ijitoak (% 0,2), beltzak (% 0,2), mercherak (% 0,2) eta abarrek ere erantzun dute.


2.1.3. Identitatea



3. Grafikoa. Galdetegiko datuak: identitatea

Parte-hartzaile gehienak pertsona zisgenero bezala identifikatzen dira (% 94,6; N= 504). Bestalde, 3. grafikoa erakusten duen bezala, hurrengo talde ugariena pertsona ez-bitarrak izan dira (% 1,9; N= 10). Jarraian, pertsona transak (% 0,6; N= 3), intersexualak (% 0,6; N= 3) eta bestelakoak (% 2,3; N=7) aurkitzen dira, hala nola ageneroak (% 0,4; N= 2), etab.

2.1.4. Orientazio sexuala




4. Grafikoa. Galdetegiko datuak: orientazio sexuala.

Inkestatuei euren orientazio sexualari buruz galdetu diegunean, 4. grafikoa ikus daitekeen bezala, erdia baino gehiagok heterossexuala dela adierazi du, % 70,4k (N= 375)

hain zuzen ere. Gainera, % 14,6k (N= 78) bisexuala dela adierazi du, eta beste % 5,8k (N= 31) gaya eta % 4,5ek (N= 24) lesbiana. Bestetik, % 0,8k (N= 4) zalantzan dagoela aditzera eman du. Horretaz gain, % 0,6 (N= 3) asexual gisa identifikatu da eta beste % 0,4 (N= 2) pansexual gisa. % 2,4 (N= 13) beste identitate batzuekin identifikatu da. Aukera anitz horien artean, laginaren % 0,8k (N= 4) bollera bezala identifikatu da. Gainera, pertsona bana identifikatu da “bollera-bisexual”, “marika” edo “asexual eta lesbiana” bezala.

2.1.5. Lan egoera



5. Grafikoa. Galdetegiko datuak: lan egoera.

Lan egoerari dagokionez, 5. grafikoan ikus daitekeen moduan, item honi erantzun dioten pertsona kopuru guztiaren (N= 527). % 43,3 (N= 231) lanean aurkitzen ziren galde-
tegia bete zuten momentuan. Gainera, lagin osoaren % 41,5 (N= 221) ikasleak ziren, eta % 3,6 (N= 19) langabezia egoeran zeuden. Bestalde, % 6,9 (N= 37) ikasten eta lanean aurkitzen ziren; % 0,9 (N= 5) ikasten eta langabean, eta % 1,3 (N= 7) erretiratu zeuden. Gainontzeko parte-hartzaileek (N= 7) bestelako egoerak adierazi zituzten, hala nola intermitentzian aurkitzea, baja egoeran egotea, pensionista izatea, eszedentzian edo oposaketak prestatzen egotea.


2.1.6. Euskal erreferenteak



6. Grafikoa. Galdetegiko datuak: euskal erreferenteak.


Euskal LGTBI+ erreferenteetaz galdetzerakoan, laginaren % 49k (N= 263) euskal LGTBI+ erreferenteak ezagutzen dituela adierazi du, eta % 51k (N= 269), ezezko batekin erantzun dio galdera honi. 6. grafikoan ikus daiteke honako hau.

Euskal LGTBI+ erreferentik ezagutzen al duzu?
Euskal LGTBI+ erreferenterik ezagutzen al duzu?



7. Grafikoa. Galdetegiko datuak: euskal erreferenteak.

Era berean, LGTBI+ pertsonen artean % 38,3k (N= 27) ez duela euskal LGTBI+ erreferenterik ezagutzen erantzun du. Portzentai hori altuagoa da ez-LGTBI+ pertsonetan, % 55,4k (N= 212) ez duelako euskal LGTBI+ erreferenterik ezagutzen. Argi ikusten da 7. grafikoan. Kontrakoa gertatzen da baiezkoan: LGTBI+ pertsonen % 61,7k (N= 92) eta ez-LGTBI+ pertsonen % 44,6k (N= 171) ezagutzen dituzte identitate horietako erreferenteak. Datu hauek adierazten dute LGTBI+ pertsonak euskal LGTBI+ erreferente gehiago ezagutzen dituztela. Honakoa ez da harrizkoa, izan ere, gure gizartean LGTBI+ erreferenteen (euskaldunak izan ala ez) ikusgarritasuna baxua da, eta askotan erreferente hauek ez dira ikusgai egiten testuinguru normatiboetan pertsona batek modu aktiboan bilatu arte. Ondorioz, LGTBI+ pertsonak erreferenteak gehiagotan bilatu ohi dituztela uler genezake eta ezagutza handiagoa izan lezakete. Ez-LGTBI+ pertsonak, berriz, erreferente horiek bilatzeko premia gutxiago izan dute, euskal LGTBI+ erreferenteen beharrik ez izateak bultzatuta.



8. Grafikoa. Galdetegiko datuak: erreferente aipatuenak.

Parte-hartzaileek aipatu dituzten euskal LGTBI+ erreferenteetan zentratzen bagara, 8. grafikoan aipatutako pertsonak zein izan diren ikus dezakegu. Gehien aipatu den erreferentea Mikel Martín Conde (1954-2023), Mikela ezizenez ezaguna, izan da. Donostian jaio, baina izatez oreretarra, Mikela betidanik izan da herri honen parte. Ezin izango genituzke Orereta-Erretereria eta Oarsoaldeko LGTBI+ memoria eta mugimendua uler-tu Mikela kontuan hartu gabe, eskualde honen funtzezko figura izan baita (gehiago sakontzeko ikus II. eta III. kapituluak). Gainera, bere ahotsaren oihartzuna estatuko beste leku askotara ere iritsi izan da. Mikela ikerketa honen parte izatea nahi genuen, baina tamalez 2023ko martxoaren 2an hil egin zen 2022ko udan diagnostikatu zioten minbizia baten ondorioz. 68 urte zituen zendu zenean. Hilabete horretan galdetegi hau zabaltzen hasi ginen, eta, herrian oso ezaguna izan arren, ziurrenik baten batek bere heriotzaren harira ezagutu zuen. Halere, honekin ez dugu esan nahi hil izan ez balitz, jendeak ez zuenik bera aipatuko.

Bigarrenik, Yogurinha Borova-ren izena agertu da. Yogurinha –Eduardo Gaviñak (1994) gorpuztutako pertsonaia– bilbotarra eta trabesti, aktore, LGTBI+ aktibista eta kabaret-artista da. Bere abesti eta lan artistikoei esker plumofobia, eraso sexista, matxismoa edota bullying-az kontzientziatu egiten du, eta bere mezuetan aniztasuna aldarrikatzen du, edozein motatakoa izanda ere. Beste euskal LGTBI+ erreferenteekin konparatuta, Yogurinhak presentzia handia du hedabideetan (“Yogurinha Borova”, 2024).

Hirugarrenik, parte-hartzaileek Josebe Iturrioz (1978), Itu ezizenez ere ezaguna, aipatu dute. Euskal Herriko aktibista transfeminista erradikal hau jatorriz Ordiziako da. 2000. urtean jaio zen Medeak talde feminista erradikalaren kide izan zen 2020. urte arte, desegin egin zenean (gehiago jakiteko ikus II. kapitulua, 3. puntua). Irakaslea da, hainbat liburu idatzi eta drag king tailerrak ematen ditu, besteak beste (“Josebe Iturrioz López”, 2024). Bere izenarekin batera Hernaniko Kattalin Miner (1988) dugu gurekin. Kazetaria, idazlea eta ekintzaile feminista da, eta Joseberekin Medeak taldeko kidea izan zen (“Kattalin Miner”, 2024). Gaur egun, Eihera Kooperatiban lan egiten du, eraldaketa feminista eta LGTBI+ prozesu propioak diseinatu, garatu eta ahalbidetzen dituen kooperatiban hain zuzen.

Horretaz gain, inkestatuek Maialen Lujanbio (1976), Irantzu Varela (1974), Albina Stardust (1997) eta Anari-ren (1970) izenak aipatu dituzte.

Maialen Lujanbio Zugasti Hernaniko bertsolaria da. Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazi zuen lehen emakumea da (eta, oraingoz, bakarra): 2009an irabazi zuen lehenengo, 2017an berriro eta 2022an hirugarrengoz. Gainera, prentsako ohiko kolaboratzailea ere bada (“Maialen Lujanbio”, 2024).

Irantzu Varela, aldiz, Portugaleten jaio eta bizkaitar kazetari, aktibista eta feminista, bollera eta lodia da. Faktoria Lila kooperativa sortu zuen 2007an lankidetzan, genero berdintasuna eta komunikazioa lantzeko xedearekin eta Pikara Magazine aldizkarian idazten du, beste gauza askoren artean ("Irantzu Varela", 2024).

Albina Stardust –Eneko Garcia Jaurenak gorpuztutako pertsonaia– drag artista ez bitarra, euskalduna eta aktibista trabestia da. Burlatan (Iruñean) jaio zen eta bere drag pertsonaia sortu ondoren, abestiak egin, hainbat ikuskizun eman eta telebista saioetan parte hartu du ("Albina Stardust", 2024).

Amaitzeko, Anari euskal egile abeslaria dugu gurekin. Azkoitian jaio eta Gasteizen filologia erromanikoa ikasi zuen. Irakasle lanetan aritu da, baina egun musika du lanbide nagusi, eta bakarkako disko ugari plazaratu ditu ("Anari", 2024).

Parte-hartzaileek aipatu duten beste erreferenteetako bat Gehitu elkarteak izan da. Gehitu Euskal Herriko lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen elkarteak da. Bere egoitza Donostian dago, eta LGTBI+ kolektiboko kideentzat duintasuna, berdintasuna eta sexu-afektibitatearen garapen askerako oinarrizko eskubideak erabat aitortzeaz gain, orientazio sexualagatik edo genero-identitateagatik gertatzen diren diskriminazio legal eta sozial oro amaitzea du helburu (Gehitu, d.g.).


Euskal LGTBI+ erreferenteen atalari itxiera emateko, Madelon, Francis eta Eburne Azkarate izan dira gure parte-hartzaileek esan dituzten azken izenak. Xanti Vicente Altxu (1959-2006), Madelon ezizenez ezaguna, Orereta-Erretereriako LGTBI+ pertsonen eskubideen aldeko ekintzailea izan zen (ikus II. eta III. kapituluak). Gipuzkoako EHGA-Men sortzaileetako bat izan zena bi orduz bahitua izan zen Orereta-Erretererian 1982ko abenduaren 21ean Francis hil zuen poliziaren aurkako epaiketa egiten ari ziren garaian. Atxikipenean zehar gorputza kristalez markatu, jipoitu eta galdeketa egin zioten ("Xanti Vicente Altxu", 2024). Gainera, Oreretako Zintzilik Irrati librean lan egin eta herriko memoria kolektiboa berreskuratzen lagundu zuen.

Vicente Vadillo Santamaría (1946-1979), Francis ezizenarekin ezaguna, transformista izan zen, eta 1979ko ekainaren 10ean Antonio Cava Espainia estatuko polizia nazional batek eraildu zuen Orereta-Erretereria Iztietan auzoko Apolo diskotekan. Jaengo probintzian jaioa, Lopera herrikoa, aktuzioak egiten zituen Pasaia Trintxerpen. Hilketa honek eragin handia izan zuen Euskal Herriko LGTBI+ mugimenduan, garai horretan gay eta lesbianen mugimenduetan batik bat, eta zenbait manifestazio egin ziren: lehenengoa, Orereta-Erretererian eta, bigarrena, Donostian, ekainaren 11n eta 12an hurrenez hurren. EHGA Gipuzkoak antolatu zuen. Honen harira, Francis erreferente bat bilakatu da Orereta-Erretererian, eta 2022. urtean lehen aldiz ospatu zen Francisaldia (ikus II. eta III. kapituluak).

Azkenik, Oion herriko Edurne Azkarate (1993) dugu. Edurne euskal aktore eta aurkezlea da. Euskal Telebistan hainbat saio aurkeztu ditu, eta gaur egun antzerkian egiten du lan. 2021. urtean lehen film luzean parte hartu zuen, *Irati* filmean alegia (“Edurne Azkarate”, 2024).

Horrekin guztiarekin, esan beharra dago gure parte-hartzaileek euren lagunak edota ezagunak ere aipatu dituztela erreferente gisa. Maiz erreferenteetaz pentsatzen dugunean famatuak eta bozgorailu mediatiko handia dutenak burura etortzen zaizkigu, baina gure inguruan daudenak ere, gure egunerokotasunean presente daudenak alegia, erreferenteak izan daitezke guretzako, gertutasun honek aukera ematen digulako ezagutzen ez ditugun errealitate horiek ezagutzeko. Pertsona hauek “itzalean” egon arren, mediatikoki ikusgai ez izan arren, erreferenteak dira euren gertukoentzat, modu batera edo bestera.

2.1.7. Auzoak



9. Grafikoa. Galdetegiko datuak: auzo arriskutsu, aske eta atseginak.

Orereta-Erreterriako biztanleek herriarekiko eta, zehazki, herriko auzo desberdineki-ko duten segurtasun-pertzepzioa aztertzea baliagarri gertatzen zaigu LGTBI+ eta LGTBI+ ez diren pertsonen herrian duten bizi-esperientziak hobeto ulertzeko. Izan ere, ikerketa anitzek adierazten dutenaren arabera, herri eta hirietako biztanleek euren bizi-tokiekiko hautematen duten segurtasun edo arrisku-pertzepzioak inpaktu esanguratsua izan dezakete euren emozioen, joera kognitiboen eta portaera-dinamika desberdinetan. Zehazki, segurtasun pertzepzioa, delituen biktima izateko arrisku eta beldurrarekin estuki erlazionatuta dago, bai maila indibidualean bai komunitarioan, eta ondorio larriekin lotuta dago (Brands eta Van Wilsem, 2021). Adibidez, herri edo auzo bat arriskutsu hautemateak antsietate eta ongizate-sentsazio murriztuarekin lotu izan da, baita mugikortasun-joera murriztzaileekin ere (Brands eta Van Wilsem, 2021; Hale, 1996). Horrek, bada, herritarren askatasun sentimendua kaltetu dezake. Izan ere, biztanleek lehentasuna emango diote segurtasuna eta askatasuna sentitzea eragiten dieten auzoetatik mugitzeari, eta, beraz, segurtasunik eza eragiten dizkieten espazio/auzoak saihestea erabakiko dute, beste ondorio batzuen artean. Gainera, arlo honetako ikerketen arabera, eta LGTBI+ pertsonen errealtatean murgilduz, arriskutsu edo ez-seguru hautematen diren espazioetan LGTBI+ pertsonen biziraupen-estrategiak aktibatzen dituzte segurtasun ezaren pertzepzio horri aurre egiteko eta bere burua babesteko, batez ere indarkeria zuzena edo sinbolikoa saihesteko asmoz (Gehitu eta Gipuzkoako Foru Aldundia, 2019). Estrategia horien artean, adibidez, euren genero-adierazpenarekin lotutako atributuak ezkutatzea aurki daiteke, baita herri edo hiriko espazio publiko zehatzak (kale zehatzak, edota komunak edo aldagelak, besteak beste) saihestea ere.

Segurtasun-pertzepzioak duen garrantzia ikusita, bai maila komunitarioan zein indibidualean, gure ikerketan ere dimentsio honen inguruan galdetu nahi izan diegu Orereta-Erreterria eta Oarsoaldeko biztanleei. Zehazki, haien ustez Orereta-Erreterriako auzo arriskutsu, aske eta atseginenak zeintzuk diren identifikatzea eskatu genien galdera ireki baten bidez. Honen inguruan erantzun interesgarriak izan ditugu, 9. grafikoan ikus daitezkeenak. Galdera honetan jasotako erantzun guztien artean badaude batzuk bes-teen gainetik nabarmentzen direnak. Esaterako, badirudi gure ikerketan parte hartu duten pertsonen ustez erdigunea dela Orereta-Erreterriako auzorik askeena (N= 88) eta atseginena (N= 96) LGTBI+ pertsonentzat. Soilik 2 pertsonen uste dute erdigunea auzo arriskutsuena dela LGTBI+ pertsonentzat. Gaztaño auzoa ondoren etorriko litza-teke, lagineko 35 pertsonen uste baitute Orereta-Erreterriako auzorik askeena dela, eta 31 parte-hartzailek, berriz, atseginena. Zentzu honetan, erdigunea auzo atsegin eta askeen bezala hautematea ez da harritzekoa, izan ere, erdiguneak eskaintzen dituen baliabideak eta duen tamainak (Orereta-Erreterriako auzo handiena baita honakoa) baldintzatu dezakete pertzepzio hau.

Bestalde, dimentsio honen beste muturrera jotzen badugu, item honetan jasotako datuek adierazten dute orokorrean Iztieta dela Orereta-Errenteriako biztanleek haute-maten duten auzorik arriskutsuena, 98 erantzunekin. Ikuspegi zabaletik aztertuz gero, ikerketan jasotako erantzunek agerian uzten dute arriskuaren pertzepzioa auzo horretako dibertsitate etnikoarekin duela zerikusia. Izan ere, jasotako erantzun batzuek erantzuleen arrazismoa agerian utzi dute eta honakoak eragin handia izan dezake bildutako emaitzetan. Iztieta ostean, Beraun (N= 33), Kaputxinoak (N= 7) eta Olibet (N= 6) auzoek jarraitzen diote. Gainera, soilik hiru pertsonak uste dute Iztieta auzorik atsegina edota askeena dela. Hala ere, interesgarria da Beraun eta Kaputxinoak auzoen kasuetan ere erantzun positiboak erregistratu direla. Beste era batera esanda, erantzun anibalenteen aurrean aurkitzen gara item honetan, eta, beraz, erantzun hauen interpretazioa egiteko orduan, garantzitsua da kasu bakoitzean aipatu den maiztasuna kontuan hartzea.

2.1.8. Gorroto delituen gertaerak

Gorroto delituei dagokienean, Orereta-Errenterian edota Oarsoaldean horrelako erasorik jasan duten galdetzean, honako erantzun hauek jaso ditugu, 10. grafikoan ikus daitekeen moduan: erdiak baino gehiagok erantzun dute ez zaiela halakorik inoiz pasa (N= 347). Baietz esan dutenen artean, honako hauek izan dira arrazoiak: “zure orientazio sexuala (lesbiana, gay bixesuala edo heterosexuala)” (N= 44); “zure genero identitatea (intersexuala, trans edo genero bitarrear ez sartzeagatik)” (N= 22); “emakumea izateagatik” (N= 21); “zure arraza, jatorri etnikoa edo nazioa” (N= 16), besteen artean.

Gorroto delituen gertaerak (maiztasuna)



10. Grafikoa. Galdetegiko datuak: gorroto delituen gertaerak.

2.1.9. Ezagutza LGTBI+ historia

■ Bai ■ Ez


Oarsoaldea eta Orereta-Erreterrian LGTBI+ mugimenduarekin lotutako gertakari historikorik edo kolektiboko eskubideen aldeko ekintzarik ezagutzen al duzu?



11. Grafikoa. Galdetegiko datuak: LGTBI+ historiaren ezagutza.

11. grafikoan ikus dezakegunez, erantzun duten pertsona guztien artean (N= 533), gehienek ez dute ezagutzen LGTBI+ mugimenduarekin edo kolektibo horren eskubideekin lotutako inolako gertaera historikorik (% 65,3; N= 348). Gainerako pertsonak entzun dute gertakariaren baten berri (% 30,4; N= 162).

Oarsoaldea eta Orereta-Erreterian LGTBI+ mugimenduarekin lotutako gertakari historikorik edo kolektiboko eskubideen aldeko ekintzarik ezagutzen al duzu?




12. Grafikoa. Galdetegiko datuak: gertakari eta ekintzak ezagutzea.

Ezetz erantzun dutenen artean, % 55 LGTBI+ pertsonak dira, LGTBI+ ez diren pertsonen % 73,2rekin alderatuta, 12. grafikoa adierazten den bezala. Aldiz, gertakariaren bat ezagutzen dutenen artean, % 45 LGTBI+ dira eta % 26,8 ez. Horrek adierazten digu LGTBI+ kolektiboaren parte diren pertsonen ezagutza handiagoa dela. Seguruenik, eta lehen aipatu moduan, LGTBI+ pertsonak historian zehar LGTBI+ komunitatearekin lotura duten gertaera horiek modu aktiboan bilatu dituztelako.

2.1.10. Ezagutzen dituzten taldeak


Oarsoaldea edota Orereta-Erreterian LGTBI+ talderik ezagutzen al duzu?



13. Grafikoa. Galdetegiko datuak: LGTBI+ taldeak ezagutzea.

"Oarsoaldean edota Orereta-Erreterrian LGTBI+ talderik ezagutzen al dituzun" galderari erantzunez, LGTBI+ komunitatearen artean, % 60k esan du ez duela talderik ezagutzen, eta % 40k bai, LGTBI+ ez diren eta ezagutzen ez dutenen % 76,5ekin eta ezagutzen duten % 23,5ekin alderatuta; 13. grafikoan adierazten den bezala. Antzeko ondoriora iris gaitezke galdera honetan ere, hots, LGTBI+ pertsonak talde erreferenteak bilatzeko beharretik abiatuz LGTBI+ talde gehiago ezagutu ditzaketela, alegia.

Ezagutzen diren LGTBI+ taldeak



Oharra: Zenbaki hauek maiztasuna adierazten dute (kasu kopuruak); hau da, ez dira ehunekokak

14. Grafikoa. Galdetegiko datuak: talde ezagunenak.

Baietz esan duten pertsona guztien artean, gehien aipatu diren taldeak EHGAM (<https://ehgam.eus/>), Gehitu (<https://www.gehitu.org/>), Oreretako LGTBI Mahaia (Instagram: @lgtbimahaia), Harrobira eta Lamiaren Oihua (Instagram: @lamiarenoihua) izan dira, 14. grafikoan ikus daitekeenez. Honako talde hauek ere aipatu dira: Bollurria, Transmaribibollo taldea (Instagram: @transbollomarikadonosti), Medeak (<https://medeak.wordpress.com/>), Bilgune feminista (Instagram: @bilgune_feminista), Ozen LGTB (Instagram: @ozenlgtb), Naizen (Instagram: @naizen_elkartea), Mirenkendu, Antju

Morik, Amalatz, Armairutik At! (Instagram: @armairutikat), Harrotu Antxo (Instagram: @harrotuantxo), Txintxarri eta Emakumeen asanblada.

Jarraian, aipatutako taldeak labur azalduko ditugu, irakurleek ideia bat egin dezaten. Hauetako batzuk modu sakonagoan garatuko dira aurrerago (ikus II. eta III. kapituluak).

EHGAM

EHGAM (*Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua*) Euskal Herriko gay mugimendua da, homosexualitatearen askapenerako, askapen sexualeko prozesu orokorrean kokaturik dagoelarik. Mugimendu pluralista, autonomo eta iraultzailea da.

Gehitu

Euskal Herriko Lesbiana, Gay, Trans, Bisexual eta Intersexualen elkartea da. Haien helburua LGTBI+ pertsonen duintasuna, berdintasuna eta sexu-afektibitatearen garapen askerako aitortza eta orientazio sexualagatik edo genero-identitateagatik gertatzen diren diskriminazio legal eta sozialei aurre egitea da.

Oreretako LGTBI+ Mahaia

Oreretako LGTBI+ pertsonen osatutako taldea izan da, 2019an sortutakoa. LGTBI+ politiken inguruko gaiak jorratzen ziren, behar indibidual eta kolektiboak azaleratu, etab. (ikus 3.3 puntua).

Harrobira

Ekainak 28aren bueltan egiten den Oarsoaldeko Transmaribibollo bizikleta martxa da, Oarsoaldeko herrietan zehar. Herri bakoitzean geldialdi bat eta ekintza bat egiten da, kolektiboaren ikusgarritasuna bultzatzeko.

Lamiaren Oihua

Ikerketa eta ekintzailtza taldea, psikologian eta hezkuntzan bereziki jarduten duena. Egindako proiektuen artean, Irungo LGTBI+ gazteen egoeraren diagnostikoa burutu zuten GazteArtean bekaren bitartez 2022. urtean. Aldi berean, hainbat tailer eta hitzalditan parte hartu dute aipatutako gaiak jorratuz.

Bollurria

Euskal Herriko bolleren saretzea bultzatzeko antolatutako jardunaldiak dira. Jardunaldi hauek urriko (izenak adierazten duen bezala: bollo + urria) asteburuetan egiten dira, adostutako Euskal Herriko herri batean, ekintza ezberdinak antolatuz.

Transmaribibollo taldea

Donostiako Asanblada Transbollomarika izan daiteke.

Medeak

2000. eta 2020. urteen artean aktibo egon den talde transfeminista erradikala da. Haien ekintzetan gorputza eta bazterretako identitateak jarri dituzte erdigunean, Euskal Herri mailan aintzindariak izanik.

Bilgune feminista

Euskal Herriko Bilgune Feminista (EHBF) 2002an sortutako nazio mailako erakunde feminista eta abertzalea da, esparru ugarietako emakume asko eta askotarikoen hausnarketatik sortutako egitasmoa. Klase-, nazio-kultura eta sexu-generoaren zapalkuntzen aitortzatik abiatzen da.

Ozen! LGTB

Ozen! LGTB "transfeminismotik, antirrazismotik eta klase ikuspuntutik LGTB askapena lantzen duen asanblada" da. Batez ere Bilboko auzo eta gune autogestionatuetan eramaten du aurrera bere militantzia, baina Bizkaiko eta Euskal Herriko beste tokietako kolektibo eta borrokekin sartzen dihardu ere bai (Ozen! LGTB, 2022).

Naizen

Naizen "Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako adin txikiko transexualen familiak biltzen dituen elkarte bat da". Beste gauza askoren artean, gai honetan laguntza eskaini eta hezi egiten du (Naizen, d.g.)

Mirenkendu

Donostialdeko eta Oarsoaldeko taberna ezberdinetan egiten zen ekintza. Gehienetan drag-showak ziren eta Orereta-Errenteriako hainbat tabernetan gauzatu ziren, besteak beste.

Antiju Morik

Antiju Morik Oiartzungo talde feminista izan zen. 2020. urtean, hausnarketa prozesu bat abiarazi eta izena aldatu zuen. Egun, Oiartzungo Feministen Asanblada deritzo (Etxebeste, 2020).

Amalatz

Amalatz Orereta-Errenteriako talde feminista bat da, eta emakumeen zinemaren erakustaldia antolatzen du urtero. 1981. urtean *Oreretako Emakumeen Taldea*-ren lekukoa hartu eta ekimen eta jarduera ezberdinak egiten dituzte emakumeen askatasunerako eta berdintasunerako. Talde honen kide dira Fani Herrador, Nati Rufo eta Julia Irasuegi, besteak beste (Muga, 2024).

Armairutik at!

2022an jaiotako taldea, Oarsoaldea mailan LGTBI+ pertsoneri zuzendutako ekintzak, topaguneak eta espazio seguru eta anitzak bultzatzeko asmoarekin sortua. Talde honek antolatutako ekintzen artean, Oarsoaldeko LGTBI+ mugimenduaren errealitatea ezagutzeko mahai-ingurua eta Bingo Drag-a aipa daitzeke (2022ko urrian), bestelako ekintzen artean.

Bestalde, Hernanin egindako LGTBI+ memoriari buruz hitz egin zezaketela. *Noiz amaitzen da armairua? Hernaniko azken 50 urteetako LGBT memoria ariketa. 1969-2019*. Ibai Fresnedo eta Egoitz Arbiol, Hiruki Larroxako kideek idatzitakoa (Fresnedo eta Arbiol, 2021).

Harrotu Antxo

Harrotu Antxo 2020. urtean Pasai Antxon sortu zen LGTBIQ+ taldea da, Antxo harroago bat sortzeko helburuarekin (Harrotu Antxo, d.g.).

Txintxarri

Txintxarri Elkarte 80ko hamarkadan sortu zen elkartea da. Hamarkada horietan elkar-gune garrantzitsu bat izan zen militante lesbofeministentzat, eta bertan jarduera eta ekintza ezberdinak egin dira honekin lotuta.

Emakumeen asanblada

Orereta-Errenteriako emakumeen asanblada da.

2.1.11. Aipatutako gaiak

Azkenik, Oarsoaldeko eta, bereziki, Orereta-Errenteriako LGTBI+ mugimenduarekin lotutako zein gairi buruz jakin nahiko luketen galdetzean, 15. grafikoan ikus daitekeen moduan, hauek izan dira gehien errepikatu diren erantzunak: 54 pertsonak “mugimenduen hastapenak, garapenak, borroak, lorpenak eta historia” ezagutu nahi dutela adierazi dute. 31 pertsonak “dena” erantzun dute, gai zehatzik aipatu gabe. Hauetaz gain, “testigantzak” (N= 16); “gaur egungo egoera eta etorkizunerako begirada” (N= 13); “LGTBI+ pertsonen askapena”, hau da, “libre bizitzeko zer behar duten” (N= 12); “nola lagundu LGTBI+ pertsona direnei (eraso-protokoloak, sostenguak, etab.)” (N= 9); “Oarsoaldeko eta Euskal Herriko erreferenteak (pertsonak, taldeak, gunek) ezagutzeko nahia” (N= 9); “trans biziak eta legea” (N= 6); “emakumeen zapalkuntza bereziak, bollarak eta feminismoa” (N= 6); “terminologia eta gai teorikoak” (N= 3); eta “generazio berrien inplikazioa” (N= 2). Bestelako gaiak ere aipatu dituzte, hala nola “iritsi berri batek jakin behar duena” (N= 1); “ikusgarritasuna bultzatzeko baliabideak” (N= 1), etab.




Oharra: Zenbaki hauek maiztasuna adierazten dute (kasu kopuruak); hau da, ez dira ehunekoak

15. Grafikoa. Galdetegiko datuak: aipatutako gaiak.

2.1.12. Euskararen presentzia


Euskara zure bizitzaren parte al da?



16. Grafikoa. Galdetegiko datuak: euskararen erabilera guztira.

16. grafikoan ikus daitekeen moduan, euskara parte-hartzaileen bizitzaren parte den galdetzean, laginaren gehiengoak, hau da, % 30,4k (N= 162), euskara euren bizitzaren parte dela erantzun du edota euren bizitzaren parte dezente dela erantzun du (% 29,1; N= 155). Tarteko erantzuna eman dutenen artean parte-hartzaileen % 21,4 aurkitzen dugu, 114 lagun alegia. Azkenik, % 10,9k (N= 58) euskarak euren bizitzetan paper handiegirik ez duela erantzun du eta % 8,3k (N= 44) ez dela batere parte.

Euskara zure bizitzaren parte al da?




17. Grafikoa. Galdetegiko datuak: euskararen erabilera LGTB+ eta ez-LGBT+ pertsonen arabera.

Parte-hartzaile LGTBI+en artean, gehiengoak adierazi du euskara bere bizitzaren parte dela eta oso presente duela (% 31,3k) edota nahikoa presente dutela (% 26,7k), nahiz eta portzentaia garrantzitsu batek tarteko presentzia bat adierazi duen (% 17,3k). Hori guztia 17. grafikoan ikus daiteke. Gainera, parte-hartzaile ez LGTBI+en artean ere antzeko erantzunak lortu dira. Gehiengoak euskara bizitzaren parte du (% 30ek) edota nahikoa presente du (% 30ek). Talde honetan, tarteko presentzia adierazi du % 23k. Alderatuz gero, bi taldeen arteko ezberdintasunak urriak direla ikus daiteke. Hala eta guztiz ere, pertsona LGTBI+en artean % 17,3k adierazi du euskara ez dela euren bizitzaren parte, pertsona ez-LGTBI+en % 8,4k soilik berdina adierazi duen bitartean. Azkenik, parte-hartzaile ez-LGTBI+en % 8,6k erantzun du euskara ez dela bat ere euren bizitzaren parte, honako portzentaia % 7,3koa izan delarik parte-hartzaile LGTBI+en artean. Pertsona ez-LGTBI+en % 60k euskara bere bizitzaren parte dela adierazi duen bitartean, pertsona LGTBI+en % 58k erantzun du honakoa.

2.1.13. Euskaldun izatearen sentimendua

Zenbateraino sentitzen zara euskaldun?




18. Grafikoa. Galdetegiko datuak: euskaldun sentitzea.

Euskaldun sentitzearen inguruan galdetzerakoan, parte-hartzaileen ehuneko altu batek, % 49k (N= 261), "guztiz" euskaldun edo, % 19,9k (N= 106), "dezente" euskaldun sentitzen dela adierazi du, 18. grafikoan adierazten den moduan. Tarteko erantzuna eman dutenen artean inkestatuen % 14,8 (N= 79) izan da. Bestetik, % 9,2k (N= 49) "ez asko" erantzun du, eta % 7,1ek (N= 38) "bat ere ez". Galdera honetan, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arteko konparaketa egiterakoan, ezberdintasun gutxi daudela topatu ditugu, 19. grafikoan ikus daitekeenez; baina deigarria da ez-LGTBI+ pertsonen artean euskaldun sentitze hori pixkat baxuagoa izatea (% 66,3; N= 254) LGTBI+ pertso-

nen artean baino (% 75,4; N= 113), jakinda, gainera, gure laginaren ehuneko altu bat zisheterosexual gisa identifikatu dela.


Zenbateraino sentitzen zara euskaldun?



19. Grafikoa. Galdetegiko datuak: euskaldun sentitzea LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arabera.

2.1.14. Orereta-Erreterria herriaren bizigarritasuna

Orereta-Erreterria LGTBI+ pertsonentzat leku bizigarria dela usted dut




20. Grafikoa. Galdetegiko datuak. Orereta-Erreterria bizigarria LGTBI+ komunitatearentzat, guztira.

Bizigarritasunari dagokionez, parte-hartzaile gehienek Orereta-Erreterria LGTBI+ pertsonentzat leku bizigarria dela aldarrikatu dute: % 24,4k (N= 130) "guztiz ados nago" eta 37,1ek (N= 198) "ados nago" adierazi dute herria leku bizigarria dela esateko. Jende gutxik uste du Orereta-Erreterria LGTBI+ pertsonentzat leku ez bizigarria denik, hau da, bakarrik % 3,8k (N= 20) "ez nago batere ados" eta % 5,1ek (N= 27) "ez nago ados"

adierazi dute. Tartean 157 lagunek, % 29,5ek, "ez nago ados ezta desados ere" erantzun dute, 20. grafikoan adierazten den moduan. Horretaz gain, 21. grafikoan ikus daitekeen moduan, ez dugu ezberdintasun esanguratsurik sumatu LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arteko erantzunetan: LGTBI+ pertsonen artean % 62,7k (N= 94) eta ez-LGTBI+ pertsonen artean % 61,1ek (N= 234) uste dute Orereta-Erreterria LGTBI+ pertsonentzat leku bizigarria dela. Antzaenez, inkestatuen pertzepzioa herriaren bizigarritasunean antzekoa da LGTBI+ pertsona bat izanik ala ez.


Orereta-Erreterria LGTBI+ pertsonentzat leku bizigarria dela uste dut



21. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Orereta-Erreterria LGTBI+ komunitatearentzat, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arabera.

2.1.15. Oarsoaldea eskualdearen bizigarritasuna


Oarsoaldea LGTBI+ pertsonentzat leku bizigarria dela uste dut



22. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Oarsoaldea bizigarria LGTBI+ komunitatearentzat, guztira.

Galdera hau Oarsoaldera orokortuz gero, konturatu gaitezke parte-hartzaile gehienek uste dutela Oarsoaldea ere LGTBI+ pertsonentzat leku bizigarria dela, 22. grafikoan adierazten den bezala. Era berean, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arteko pertzepzioari dagokionez, hemen ere ezberdintasun gutxi topatu ditugu, LGTBI+ pertsonen % 54,7k (N= 82) eta ez-LGTBI+ pertsonen % 57,2k (N= 219) uste dute Oarsoaldea leku bizigarria dela LGTBI+ pertsonentzat, 23. grafikoan ikus daitekeen moduan.


Oarsoaldea LGTBI+ pertsonentzat leku bizigarria dela uste dut



23. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Oarsoaldea LGTBI+ komunitatearentzat, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arabera.

2.1.16. Orereta-Errenteriako kaleetan libreki adierazteko askatasuna


Orereta-Errenteriako kaleetan libreki adierazten diren LGTBI+ pertsonak ezagutzen ditut



24. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Orereta-Errenterian libreki adierazten diren LGTBI+ pertsonak ezagutzea, guztira.

Orokorrean Orereta-Erreterrian, gehienek LGTBI+ pertsonak ezagutzen dituzte eta libreki adierazten direnarekin guztiz ados (% 36; N= 195) edo ados (% 26,6; N= 142) daude. "Ez ados ez desados" dauden pertsonak 130 izan dira (% 24,4) , ados ez daudeneke (% 7,1ek; N= 38) eta guztiz ados ez daudeneke (% 5,3k; N= 28) jarraitzen diete. 24. grafikoan adierazten da aurrekoa.

Orereta-Erreterriako kaleetan libreki adierazten diren LGTBI+ pertsonak ezagutzen ditut




25. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Orereta-Erreterrian libreki adierazten diren pertsonak ezagutzea, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arabera.

25. grafikoan ikus daitekeenez, LGTBI+ parte-hartzaileen artean, gehiengoak adierazi du Orereta-Erreterriako kaleetan libreki adierazten diren LGTBI+ pertsonak ezagutzen dituztenarekin "gutziz ados" (% 39,3k) daudela edo "ados" (% 28k) daudela, nahiz eta portzentaia garrantzitsu batek tarteko iritzia adierazi duen (% 26k). Ez-LGTBI+ parte-hartzaileen artean ere antzeko erantzunak lortu dira. Gehiengoak "gutziz ados" (% 35,5) daude baieztapen honekin edo "ados" (% 26,1) daude. Datuak alderatzen baditugu, ezberdintasun nabariena "gutziz desados" iritziarekin topatzen dugu, LGTBI+ pertsonen (% 0,7) eta besteen (% 7) artean. Datu hauek oinarri hartuta, egiazta daiteke LGTBI+ pertsonak gehiago jabetzen direla kolektiboko pertsonen askatasunean eragiten duten oztopoak daudela.

2.1.17. Oarsoaldeko kaleetan libreki adierazteko askatasuna


Oarsoaldeko kaleetan libreki adierazten diren LGTBI+ pertsonak ezagutzen ditut



26. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Oarsoaldean libreki adierazten diren pertsonak ezagutzea, guztira.

Oarsoaldean berriz, datuak honako hauek dira, 26. grafikoan ikus daitekeen moduan: laginaren gehiengoak (% 31,1; N= 166) libreki adierazten diren LGTBI+ pertsonak ezagutzen dituzte edo “ados” (% 25,7; N=137) daude. Tarteko erantzuna eman dutenak 144 izan dira (% 27), eta ados ez daudenak eta batere ados ez daudenak 48 (% 9) eta 38 pertsona izan dira (% 7,1) hurrenez hurren. Oarsoaldeko mailan ere erantzunak antzekoak izan dira.

Oarsoaldeko kaleetan libreki adierazten diren LGTBI+ pertsonak ezagutzen ditut




27. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Oarsoaldean libreki adierazten diren LGTBI+ pertsonak ezagutzea, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arabera.

LGTBI+ parte-hartzaileen artean, gehiengoak (% 32,7k) adierazi du kaleetan libreki adierazten diren LGTBI+ pertsonak ezagutzen dituztenarekin "gutziz ados" daudela. Hala ere, oraingoan "ados" eta "ez ados ez desados" daudenen erantzunak berdinak izan dira (% 28). Ez-LGTBI+ parte-hartzaileen artean ere, gehiengoak "gutziz ados" (% 30,5) daude baieztapen honekin edo "ados" (% 24,8) daude, tarteko erantzuna ere antzekoa izanik (% 26,6). Datuak alderatzen baditugu, ezberdintasun nabariena "gutziz desados" iritziarekin topatzen dugu, LGTBI+ pertsonen (% 4) eta besteen (% 8,4) artean. Hemen ere, 27. grafikoan adierazi den bezala, LGTBI+ pertsonak mugez gehiago jabetzen dira askatasunez adierazteko orduan.

2.1.18. Orereta-Errenterian LGTBI+ errepresentazioa espazio publikoan


Orereta-Errenterian LGTBI+ pertsonak eta mugimendua espazio publikoetan errepresentatuta daudela uste dut



28. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Orereta-Errenterian LGTBI+ komunitatearen errepresentazioa espazio publikoan, guztira.

LGTBI+ pertsonak eta mugimendua espazio publikoetan errepresentatuta dauden ala ez galdetu diegunean, portzentai altu batek "ez nago ados ezta desados ere" erantzun du, % 42,6k (N= 227) zehazki. Bestetik, pertsona kopuru handiago batek (% 37,2k; N= 198) adierazi du LGTBI+ pertsonak eta mugimendua espazio publikoetan errepresentatuta daudela. 28. grafikoan honako hau ikus daiteke.

Orereta-Erreterian LGTBI+ pertsonak eta mugimendua espazio publikoetan errepresentatuta daudela uste dut




29. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Orereta-Erreterian LGTBI+ komunitatearen errepresentazioa espazio publikoan, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arabera.

Gainera, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arteko pertzepzioan diferentzia baxua izan da, % 35,3k (N= 53) eta % 37,9k (N= 155), hurrenez hurren, adierazi dute espazio publikoetan LGTBI+ pertsonak eta mugimendua errepresentatuta daudela, 29. grafikoa ikus daitekeenez.

2.1.19. Oarsoaldean LGTBI+ errepresentazioa espazio publikoan


Oarsoaldean LGTBI+ pertsonak eta mugimendua espazio publikoetan errepresentatuta daudela uste dut



30. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Oarsoaldean LGTBI+ komunitatearen errepresentazioa espazio publikoan, guztira.

30. grafikoan antzekoa ikus daiteke Oarsoaldean. Ehuneko altu batek "ez nago ados ezta desados ere" erantzun du, laginaren % 43,7k (N= 233); eta pertsona gehiagok erantzun dute baiezko batekin (% 31,9k; N= 170) ezezko batekin (% 24,4k; N= 100) baino.

Oarsoaldean LGTBI+ pertsonak eta mugimendua espazio publikoetan errepresentatuta daudela uste dut




31. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Oarsoaldean LGTBI+ komunitatearen errepresentazioa espazio publikoan, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arabera.

LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arteko pertzepzioa ere antzekoa izan da, 31. grafikoan ikus daitekeen bezala, nahiz eta azken hauena pixkatxo bat altuagoa izan (% 33,6; N= 129) lehenengoeekin konparatuta (% 27,4; N= 41).

2.1.20. Orereta-Erreterrian LGTBI+ pertsonen mugimendu askatasun mugatua

Orereta-Erreterrian LGTBI+ pertsonak euren mugimendu askatasuna (kalera edo espazio batzuetara irteeta saihestea) mugatua ikus dezaketela uste dut



32. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Orereta-Erreterrian LGTBI+ komunitatearen mugimendu askatasunaren mugaketa, guztira.

Parte-hartzaileei Orereta-Erreterian LGTBI+ pertsonen euren mugimendu askatasuna (hala nola kalera edo espazio batzuetara irtetea saihestea) mugatua ikus dezaketela ala ez galdetu diegunean, % 34,7k (N= 185) ezezko batekin erantzun du. Baiezko batekin, al-diz, kopurua pixkat baxuagoa izan da (% 27,7; N= 148), 32. grafikoan adierazi den moduan.

Orereta-Erreterian LGTBI+ pertsonen euren mugimendu askatasuna (kalera edo espazio batzuetara irtetea saihestea) mugatua ikus dezaketela uste dut




33. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Orereta-Erreterian LGTBI+ komunitatearen mugimendu askatasunaren mugaketa, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arabera.

Galdera honetan ere LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arteko iritzia antzekoa izan da. LGTBI+ pertsonen % 32k (N= 38) eta ez-LGTBI+ pertsonen % 35,8k (N= 137) ez dute uste Orereta-Erreterian LGTBI+ pertsonen euren mugimendu askatasuna mugatua dutenik; eta, alderantziz, LGTBI+ pertsonen % 29,4k (N= 44) eta ez-LGTBI+ pertsonen % 27,1ek (N= 104) pentsatzen du Erreterian LGTBI+ pertsonen euren mugimendu askatasuna mugatua dutela. Hori guztia 33. grafikoan ikus daiteke.

2.1.21. Oarsoaldean LGTBI+ pertsonen mugimendu askatasun mugatua


Oarsoaldean LGTBI+ pertsonek euren mugimendu askatasuna (kalera edo espazio batzuetara irtetea saihestea) mugatua ikus dezaketela uste dut



34. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Oarsoaldean LGTBI+ komunitatearen mugimendu askatasunaren mugaketa, guztira.

Galdera honi jarraituz, eta Oarsoaldeara orokortuz gero, parte-hartzaileek iritzi antzekoa dutela ondorioztatu daiteke, 34. grafikoa ikus daitekeen moduan. Izan ere, % 34,1ek (N= 182) ez du uste Oarsoaldean LGTBI+ pertsonek euren mugimendu askatasuna mugatua ikus dezaketetik, eta pertsona gutxiagok (% 29,1; N= 155), berriz, horrela dela uste dute .

Oarsoaldean LGTBI+ pertsonek euren mugimendu askatasuna (kalera edo espazio batzuetara irtetea saihestea) mugatua ikus dezaketela uste dut




35. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Oarsoaldean LGTBI+ komunitatearen mugimendu askatasunaren mugaketa, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arabera.

LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen artean ere antzeko erantzunak topatu ditzakegu, bi taldeek antzeko iritzia baitute. Erantzun hauen ehunekoak 35. grafikoan ikus daitezke.

2.1.22. Orereta-Erreterian LGTBI+ pertsonen adierazpen-askatasun mugatua


Orereta-Erreterian LGTBI+ pertsonen euren adierazpen-askatasuna (eraman nahi duzun arropa edo orrazkera saihestu) mugatua ikus dezaketela usted dut



36. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Orereta-Erreterian LGTBI+ komunitatearen adierazpen-askatasunaren mugaketa, guztira.

Orereta-Erreterian LGTBI+ pertsonen euren adierazpen-askatasuna mugatua ikus dezaketelaren inguruan, 58 pertsonen (% 10,9k) "gutziz ados" daudela adierazi dute, eta 124 pertsonen (% 23,3k) "ados" daudela; 36. grafikoan adierazi den moduan. Tarteko erantzuna izan da nabariena, izan ere, % 35,1ek (N= 187) "ez ados ezta desados ere" adierazi du. Zenbaki orokorrak adierazten duten bezala, 74 pertsona (% 13,9) ez daude batere ados eta 90 pertsona (% 16,9) ez daude ados.

Orereta-Erreterian LGTBI+ pertsonen euren adierazpen-askatasuna (eraman nahi duzun arropa edo orrazkera saihestu) mugatua ikus dezaketela uste dut




37. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Orereta-Erreterian LGTBI+ komunitatearen adierazpen-askatasunaren mugaketa,

LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arabera.

Aldiz, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen datuak konparatzen baditugu, honako hau azertu dezakegu, 37. grafikoan ikus daitekeen bezala: Orereta-Erreterrian LGTBI+ pertsonen euren adierazpen-askatasuna (eraman nahi duten arropa edo orrazkera saihestea, adibidez) mugatuta ikusi dezaketela uste duten pertsonen artean, ez-LGTBI+ pertsonen % 16,2 "gutziz desados" dago baieztapen honekin. LGTBI+ pertsonen kasuan, berriaz, % 8. Beraz, hau ikusita ondorioztatu dezakegu LGTBI+ ez diren pertsonen ez dutela sentsibilizazio berdina, ez baitute errealitate hori bizi eta ez dira askatasun-adierazpenaren inguruan zerikusia duten mugez jabetzen.

2.1.23. Oarsoaldean LGTBI+ pertsonen adierazpen-askatasun mugatua


Oarsoaldean LGTBI+ pertsonen euren adierazpen-askatasuna (eraman nahi duten arropa edo orrazkera saihestu) mugatua ikusi dezaketela uste dut



38. Grafikoa. Galdetegiako datuak: Oarsoaldean LGTBI+ komunitatearen adierazpen-askatasunaren mugaketa, guztira.

Galdera berdinen harira, Oarsoaldea mailan ere erantzunak antzekoak izan dira, 38. grafikoan adierazi den bezala. Gehiengoak (% 36,6k; N= 195) "ez daude ados ezta desados ere" adierazi du. 126 pertsona (% 23,6) "ados" daude, eta 86 (% 16,1) ez. Azkenik, gutxiengo batek (% 10,9k; N= 58) adierazi du "gutziaz ados" dagoela eta 68 pertsonen (% 12,8k) ez daudela batere ados.

Oarsoaldean LGTBI+ pertsonen euren adierazpen-askatasuna (eraman nahi duzun arropa edo orrazkera saihestu) mugatua ikus dezaketela uste dut




39. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Oarsoaldean LGTBI+ komunitatearen adierazpen-askatasunaren mugaketa, LGTBI+ eta ez-LGtBI+ pertsonen arabera.

Erantzun horien artean, eta 39. grafikoa ikus daitekeenez, LGTBI+ pertsonen dagokienez, % 13,3 “guztiz ados” daude, komunitatekoa ez den % 9,9 baten aldean. Bestalde, % 6,7 “guztiz desados” daude besteen % 15,1ekin konparatuta. LGTBI+ pertsonen artean, % 32,7 “ados” daudela eta % 32 “ez ados eta ez desados” erantzun dute. Portzentaieie erreparatzen badiegu, argi ikus daiteke berriro ere kasu guztietan LGTBI+ pertsonen arrisku handiagoa hautematen dutela besteek baino.

2.1.24. Orereta-Errenterian LGTBI+ identitatea aldarrikatzeko askatasuna


Orereta-Errenterian bizitzako esparru ezberdinetan (kuadrillan, familian, auzoan, lanean...) LGTBI+ pertsonen euren identitatea-orientazioa aldarrikatzeko askatasuna dutela uste dut



40. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Orereta-Errenterian LGTBI+ komunitatea identitatea-orientazioa aldarrikatzeko askatasuna, guztira.

40. grafikoko datuek adierazten duten bezala, Orereta-Errenterian bizitzako esparru ezberdinetan LGTBI+ pertsonak euren identitatea eta orientazioa aldarrikatzeko askatasuna dutelarekin 107 pertsonak (% 20,1) erabat bat datoz eta 155 (% 29,1) "ados" daude. Daturik handiena "ez ados ezta desados ere" erantzunean aurkitzen dugu (% 33,2; N= 177). Bestalde, 71 pertsona (% 13,3) ez daude ados baieztapen honekin, eta 23 (% 4,3) ez daude batere ados.

Orereta-Errenterian bizitzako esparru ezberdinetan (kuadrillan, familian, auzoan, lanean...) LGTBI+ pertsonak euren identitatea-orientazioa aldarrikatzeko askatasuna dutela uste dut




41. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Orereta-Errenterian LGTBI+ komunitateak identitatea-orientazioa aldarrikatzeko askatasuna, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arabera.

41. grafikoa xehetasunez begiratzen badugu, LGTBI+ komunitatea osatzen duten (% 4,7) eta ez duten (% 4,2) pertsonen arteko erantzunak antzekoak dira desadostasunean. Erantzun honetan antzekotasuna handia bada ere, gainerako erantzunetan konparaketa handiagoa izan da. Izan ere, LGTBI+ pertsonen % 13,3 bakarrik "guztiz ados" dago komunitateko parte ez diren % 29,5aren aurrean. Laburbilduz, LGTBI+ pertsonak besteek baino pertzepzio txikiagoa dute libre sentitzeko familia, kuadrilla edo lana bezalako espazioetan.

2.1.25. Oarsoaldean LGTBI+ identitatea aldarrikatzeko askatasuna


Oarsoaldean bizitzako esparru ezberdinetan (kuadrillan, familian, auzoan, lanean...) LGTBI+ pertsonen euren identitatea-orientazioa aldarrikatzeko askatasuna dutela uste dut



42. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Oarsoaldean LGTBI+ komunitateak identitatea-orientazioa aldarrikatzeko askatasuna, guztira.

Galdera berdinarekin jarraituz, eta 42. grafikoari erreparaturaz, Oarsoaldeko mailan ere datuak antzekoak dira: daturik altuena “ez ados ez desados”ean aurkitzen dugu (% 35,5; N= 189), “ados” (% 27,6; N= 147) eta “gutziz ados” (% 19,1; N= 102) dauden erantzunen aurretik. Bestalde, 71 pertsona (% 13,3) ez daude ados eta 24 (% 4,5) ez daude batere ados. Beraz, joerak pertsona horiek askatasuna dutela adierazten badu ere, gehienak zalantzan daudela ikus dezakegu.

Oarsoaldean bizitzako esparru ezberdinetan (kuadrillan, familian, auzoan, lanean...) LGTBI+ pertsonen euren identitatea-orientazioa aldarrikatzeko askatasuna dutela uste dut




43. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Oarsoaldean LGTBI+ komunitateak identitatea-orientazioa aldarrikatzeko askatasuna, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arabera.

LGTBI+ pertsonen emandako erantzunen arabera, gutxiengoa (% 4,7) ez dago batere ados eta % 19,3 ez dago ados. 43. grafikoan ikus daitekeen bezala, tarteko pertsonetan nabaritzen da ezberdintasun gehien % 38,7 batekin. Bestetik, ez-LGTBI+ parte-hartzai-leen artean, hauek izan dira erantzunak: % 21,9 "gutziz ados" eta % 28,5 "ados" daude. Tarteko erantzuna izan da nagusia % 34,2rekin. Beraz, ikusten denez, Oarsoaldean ere LGTBI+ pertsonak besteek baino pertzepzio txikiagoa dute familia, kuadrilla edo lana bezalako espazioetan libre sentitzeko.

2.1.26. Orereta-Erreterrian LGTBI+ identitateen ospatzea


Orereta-Erreterrian LGTBI+ identitateak ondo hartzen eta ospatzen direla uste dut



44. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Orereta-Erreterrian LGTBI+ identitateak ospatzea, guztira.

Item honetan jasotako erantzunak honako hauek izan dira: gehienak "ez daude ados ezta desados ere" Orereta-Erreterrian LGTBI+ identitateak ondo hartzen eta ospatzen direlaren ustearekin. 158 pertsona (% 29,6) "ados" daude, 69 (% 12,9) ez, 54 (% 10,1) guztiz ados daude eta 22 (% 4,1) ez daude batere ados. Datu hauek 44. grafikoan ikus daitezke.

Orereta-Erreterian LGTBI+ identitateak ondo hartzen eta ospatzen direla uste dut




45. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Orereta-Erreterian LGTBI+ identitateak ospatzea, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arabera.

Aurreko puntuetan bezala, LGTBI+ diren eta ez diren pertsonen arteko aldeari erreparatu diogu, 45. grafikoa ikus daitekeenez. LGTBI+ parte-hartzaileen artean, gehienek (% 44) ez daude ados ezta desadós ere. Beste askok ordea (% 30) uste dute Orereta-Erreterian LGTBI+ identitateak ondo hartzen eta ospatzen direla. Horietatik % 16 ez dago ados eta % 3,3 ez dago batera ados. Ez-LGTBI+ parte-hartzaileen artean, erantzunak antzekoak izan dira. % 42,8 ez daude ados ezta desadós ere eta % 29,5 “ados” daude.

2.1.27. Oarsoaldean LGTBI+ identitateen ospatzea


Oarsoaldean LGTBI+ identitateak ondo hartzen eta ospatzen direla uste dut



46. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Oarsoaldean LGTBI+ identitateak ospatzea, guztira.

Galdera berarekin jarraituz, Oarsoalde mailan ere tendentzia berdina jarraitu da. Gehiengoak (% 44,8; N= 239) "ez ados ezta desados ere" erantzun du. Bestalde, badi-rudi askok (% 26,5; N= 141) "ados" daudela LGTBI+ identitateak ospatzen direlarekin. 81 pertsona (% 15,2) ez daude ados, 52 (% 9,8) "gutziz ados" daude eta 20 (% 3,8) ez daude batere ados; 46. grafikoa ikus daitekeenez.

Oarsoaldean LGTBI+ identitateak ondo hartzen eta ospatzen direla uste dut




47. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Oarsoaldean LGTBI+ identitateak ospatzea, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arabera.

LGTBI+ parte-hartzaileen artean, erantzuna zalantzazkoa izan da, 47. grafikoa adierazi den moduan. Gehiengoa ez dago ados ezta desados ere (% 49,3). Ia portzentai berdinak "ados" dagoela (% 22,7k) eta ez dagoela (% 20k) adierazi du. LGTBI+ ez diren parte-hartzaileen artean, erantzunak antzekoak izan dira: % 43,1 "ez ados ez desados" eta % 27,9 "ados" daude. Hala ere, parte-hartzaile hauen % 13,3k ez du uste identitate aniztasuna ospatzen denik Oarsoaldean, besteen % 20rekin konparatuz. Laburbilduz, ez dago Oarsoaldean identitate-aniztasuna ospatzearen jarrera sendorik. Gainera, iritzi hori LGTBI+ pertsonen zein ez direnen dute, nahiz eta azken horiek ados egoteko joera handiagoa izan.

2.1.28. Orereta-Erreterria eta Oarsoaldeko espazio eroso eta seguruak

Uste duzu Orereta-Erreterriak edota Oarsoaldeak LGTBI+ pertsonentzat erosoak eta seguruak diren espazioak eskaintzen dituela?



48. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Orereta-Erreterrian edota Oarsoaldean LGTBI+ komunitatearentzat espazio erosoak eskaintzea, guztira.

Espazio eroso eta seguruei dagokienez, jendearen ia erdiak (% 46,9k) erantzun du ez dakiela Orereta-Erreterrian edo Oarsoaldean horrelako guneak eskaintzen diren. Bestalde, 225 pertsonak (% 42,2k) baietz esan dute, eta kontratik, 58 pertsonak (% 10,9k) ezetz. Hori da 48. grafikoan adierazi dena.

Uste duzu Orereta-Erreterriak edota Oarsoaldeak LGTBI+ pertsonentzat erosoak eta seguruak diren espazioak eskaintzen dituela?



49. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Orereta-Erreterrian edota Oarsoaldean LGTBI+ komunitatearentzat espazio erosoak eskaintzea, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arabera.

49. grafikoan adierazi denez, LGTBI+ parte-hartzaileen artean, gehiengoak ez dakiela (% 42k) edo baiezkoa (% 40,7k) erantzun du. Ez-LGTBI+ parte-hartzaileen artean ere erantzunak antzekoak izan dira, "ez dakit" % 48,8 izanik eta baiezkoa % 42,8. Dena den, alde bat ikusten da LGTBI+ pertsonak espazio segururik eskaintzen ez dela adierazten dutenean (% 17,3), besteen aldean (% 8,4). Honek esan nahi du kolektiboaren parte direnek premia bat identifikatu dutela besteekin alderatuta, nahiz eta gehienek espazioak eskaintzen direla adierazi.

Azkenik, jendeari galdetu diogu ea interesik duten Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeko LGTBI+ mugimenduaren inguruko historia ezagutzeko eta horretan sakontzeko. Guztira 509 erantzun jaso ditugu, 50. grafikoan ikus daitekeenez. Gehienek baiezkoa eman dute (% 52; N= 265), ia erdia izanik. Gainerakoek (% 48; N= 244) ezezkoa erantzun dute.

2.1.29. Orereta-Errenteria eta Oarsoaldeko LGTBI+ historian sakontzea


Oarsoaldeko eta, bereziki, Orereta-Errenteriako LGTBI+ mugimenduaren inguruko historia ezagutzen edota horretan sakontzea gustatuko al litzaizuke?

■ Bai ■ Ez



50. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Orereta-Errenteria edota Oarsoaldeko LGTBI+ historia ezagutzea, guztira.

Oarsoaldeko eta, bereziki, Orereta-Errenteriako LGTBI+ mugimenduaren inguruko historia ezagutzen edota horretan sakontzea gustatuko al litzaizuke?



51. Grafikoa. Galdetegiko datuak: Orereta-Errenteria edota Oarsoaldeko LGTBI+ historia ezagutzea, LGTBI+ eta ez-LGTBI+ pertsonen arabera.

Atal honekin amaitzeko, eta 51. grafikoan azaltzen den bezala, LGTBI+ pertsonen % 68,3k baiezko erantzuna adierazi du, LGTBI+ ez direnen % 45,9rekin alderatuta. Ikusten denez, interes gehiago dute gai honen inguruan kolektiboarekin identifikatzen diren pertsonak, nahiz eta interesa nahiko generalizatua den.

3. Eranskina. Mahai-inguruen kartela

ORERETAKO LGTBI+ MEMORIA OSATZEN LAGUNDUKO?

NOLA? #Kuirartxibobizia proiektuko mahai-inguruan parte hartuz



NOIZ? Abenduaren 12 eta 19an (bietako batera soilik etorri), arratsaldeko 19:00etan

NON? Madalen Kalea, 27 • Joxepa Antoni Aranberri Anitzenea
Eraikina

IDATZIGUZU!

Espazio hau Orereta/Oarsoaldeko edozein pertsona zein eragileri irekita dago.

Parte hartzen duten pertsonen artean galari loturiko produktuak zozkatuko dira.



*Saioetan ahotsa grabatuko da eta hauetara itzeriariiek soilik izango dute sarbidea.

NOS AYUDAS A COMPLETAR EL PUZZLE DE LA MEMORIA LGBTI+?

¿CÓMO? Participando en la mesa redonde de #Kuirartxibobizia

¿CUÁNDO? El día 12 o 19 de Diciembre (ven solo a una de las citas) a las 19:00h

¿DÓNDE? Madalen Kalea, 27 • Edificio Joxepa Antoni Aranberri Anitzenea

¡ESCRÍBENOS!

Este es un espacio abierto a cualquier persona o entidad de Errenteria y Oarsoalde. Se sorteará un lote de productos relacionados al tema entre todes les participantes.




@kuirtxibobizia




kuirartxibobizia@gmail.com

*Se harán grabaciones de voz a las que solo tendrán acceso las investigadoras.

4. Eranskina. 1979-06-11ko Udalbatzarraren akta





160

El Pleno se ha celebrado en diferentes salas y viviendas de la Villa, en un ambiente de preocupación en la Plaza del Pueblo donde se celebraron las celebraciones, cuando indistintamente y básicamente contra la Guardia Urbana, esta grave situación el Ayuntamiento en Pleno decidió hacer presente ante el mundo de estas personas a fin de que abandonaran tal actitud.

Mientras una representación de este Ayuntamiento, mediante conversaciones con el citado mundo, parecieron por otra parte otros miembros de las FOP, arremetiendo indistintamente y solamente contra el pueblo que se vio obligado a refugiarse en el Ayuntamiento donde se celebraba el Pleno.

La Policía Nacional, no ha tenido inconveniente en penetrar en su interior, utilizando sus métodos habituales, creando una situación caótica e hiriente en su interior a varios cuartos, algunos de los cuales han sido ingresados en Centros Hospitalarios, continuando los concejales y empujando de estos materiales.

A partir de este momento la situación se convirtió en trágica, ataques históricos, heridos etc... Los concejales acordados en los rincones sin poder hablar telefónicamente, comunicaciones que al final se han hecho en muchos casos desde debajo de las mesas, no pudiendo abrir las ventanas a consecuencia del humo porque los desperos arrebujaban desde fuera imposibilitando a la Cruz Roja para recoger a sus heridos, siendo también agredidos algunos miembros del citado cuerpo.

Esta situación ha durado aproximadamente una hora, siendo difícil la comunicación con las autoridades competentes en materia de Orden Pública tanto provinciales como estatales, dada su frialdad y desinterés.

Antes estos hechos esta Corporación toma los siguientes acuerdos:

- 1º.- Exprimir nuestra más honda preocupación a los familiares de la víctima fallecida.
- 2º.- Manifiestar nuestra más enérgica repulsa ante estos hechos que tan profundamente se venon desarrollando en Euzkadi, exigiendo las responsabilidades al respecto, con información de las medidas adoptadas.
- 3º.- Exigir la retirada inmediata de los citados FOP operarios en Euzkadi.

- 4.º.- Exigir competencias reales del Ayuntamiento en materia de Orden Público en su Municipio.
- 5.º.- Asumir las decisiones tomadas por la Asamblea de Rentería con respecto a la convocatoria de huelga general para el martes día 2.
- 6.º.- Enviar estos acuerdos a todos los Ayuntamientos de Euzkadi, para que se solidaricen con esta Corporación.

Examinados los asuntos del Orden del Día y no habiendo otros urgentes de que tratar, la Presidencia levanta la sesión a las horas señalándose de todo su contenido la presente acta, firman todos los asistentes conmigo el secretario acetal, que certifique.

6-79

[Handwritten signatures and initials]
DPS

Año 1979

En la Villa de Rentería y su Casa Consistorial, a veintinueve de junio de mil novecientos setenta y nueve, se reúnen bajo la Presidencia del Alcalde, don Gabin Olasola, y asistiendo el secretario acetal, de la Corporación y el Interventor acetal, los Concejales o Conientes de Alcalde

- | | |
|--------------------------|------------------------|
| Don Juan María Insausti | Don Juan Luis Tergara |
| Don José Manuel Triborri | Doña Adilina Jauregui |
| Don Mikel Trane | Don Jesús Oficialdegui |
| Don Franki Oliden | Don Adrián López |
| Don Joaquín Moratinos | Don Sabino Lasa |

Don Agustín Etchebarria.

Don Vicente Izquierdo.

Don Antonio García Nieto.

Don Melchor Fraunholz.

y Don Juan José Lakabe.

a fin de celebrar sesión ordinaria según convocatoria cursada y publicada reglamentariamente.

Y habiendo concurrido número suficiente para celebrar legalmente la sesión, la Presidencia declara abierto el acto a las 19,30 horas.

Lectura y aprobación del acta de la sesión anterior.

Queda pendiente la aprobación de los tres actos anteriores hasta el próximo Pleno.

Cuenta de la correspondencia y disposiciones oficiales.

No hay correspondencia oficial.

Prórroga del Presupuesto Ordinario.

El Pleno de la Corporación por unanimidad acuerda prorrogar el Presupuesto de 1.978 para el segundo semestre del año 1.979, y remitir este acuerdo a la Unidad Básica de Administración Territorial a los efectos procedentes.

Suspensión del trámite de aprobación del Plan Local Reformado de Entella.

El Pleno de la Corporación por unanimidad de asistentes a la vista del informe emitido por el asesor jurídico don Ramón Etchebarria, acuerda denegar la aprobación provisional de la Reforma del Plan Local y del Proyecto de Urbanización del Polígono de Entella de esta Villa, pudiendo los interesados, promotores señores Fragoni y María Carmen Etchebarria interponer recurso de reposición previo al contencioso en el plazo de un mes a contar del recibo de la siguiente notificación, y en el plazo de dos meses a contar del día siguiente de la notificación del acuerdo resolutorio del recurso de reposición si es expreso o de un año desde la fecha de interposición de dicho recurso, podrán asimismo, interponer el recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de la Audiencia Territorial.

Instalación de depósito de almacenamiento de propano en el Restaurante Pannier Flauri.

5. Eranskina. Francisen jaiotza-agiria

Folio 71

Número 117

Nombre y apellidos ¹⁰⁰
Vicente
Vaquilla
Santa-Elvira

En Lopera provincia de Jain
a las doce del día seis de agosto
de mil novecientos veinte y seis ante D. Pedro Resal
Alcalde Jefe municipal propietario
y D. José Lara Abasco Secretario
propietario se procede a inscribir el nacimiento de un ⁽¹⁾ varón
ocurrido ⁽²⁾ a las once del día seis
del actual en la calle de 18 de Julio
número 22 piso 1; es hijo ⁽³⁾ legítimo
de ⁽⁴⁾ Francisco Vaquilla Suevas, de
treinta y seis años de edad, de profesión
ganadería natural y vecino de esta villa
y de Antonia Santa-Elvira Abasco
de treinta y seis años de edad, sus labores
natural de Palma (Huelva)
nieta ⁽⁵⁾ por línea paterna de Vicente
Nadial Bueno y de Esperanza Caracas Faciel
naturales de Jain y por la materna de
Antonia Santa-Elvira Rodríguez y de
Domingo Abasco Hidalgo de Palma (Huelva)
y se le ponen los nombres de ⁽⁶⁾ Vicente

Esta inscripción se practica en ⁽⁷⁾ el local de
esta Juguete

en virtud de ⁽⁸⁾ manifestación personal de
su propio padre

y la presencia como testigos D. José Abasco
Vera mayor de edad, viudo domiciliado en
Paseo de Reina número diez y seis
y D. Pedro Rico Valenzuela mayor de edad,
casado domiciliado en calle de Victoria
número tres

Leída esta acta, se sella con el de este Juzgado y la firma el señor
Jefe con los testigos ⁽⁹⁾ y el manifestante
de que certifica.
Pedro Resal

Vaquilla

José Lara

N.º A9564745/22



ERRETERIA
UDALA

KULTURA
kreatiboa

ISSN: 0214-624x



9 770214 624002